

# Nabarnizko Hiztegia (E, F eta G letrak)

Alberto Mtz. de la Cuadra

Zamudioko Udaleko itzultzailea  
itzultz.zamudio@bizkaia.org

## Abstract

This dictionary is based on a (oral) linguistic corpus compiled in Nabarniz. In addition to the collection and definition of the vocabulary from that area, particular emphasis is placed on displaying the phraseology and examples of usage from that corpus. The current issue of the magazine only covers letters E, F, and G (letter E, 776 entries; letter F, 63 entries; letter G, 388 entries), while the rest will be subsequently added in the upcoming issues.

## Laburpena

Hiztegi honek Nabarnizen bildutako ahozko hizkuntz corpusa du oinarri. Bertako euskararen lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, ahalegin berezia egin da corpus horretako fraseologia eta adibide erabilerak eskaintzeko. Aldizkariaren ale honetara E, E, G letrak baino ez dira ekarri (E letrak 776 sarrera ditu, F letrak 63 sarrera ditu eta G letrak, berriz, 388 sarrera). Hurrengo aleetan joango dira beste atalak agertzen.

**Hitz gakoak:** Hiztegia, ahozketasuna, fraseologia, Nabarniz.

## Sarrera

1. Hiztegien eginkizuna izaten da hiztun talde jakin batek erabiltzen dituen berbak eta adierak era sistematizatuan bildu eta eskaintzea. Hiztegi gintzaren azkeneko joerei jarraituta, lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, erabilera adibideak ere eskaintzen dituzte hainbat hiztegi, beti ere hizkuntz corpus zabal batetik abiatutik. Era horretan, definizioei beste ñabardura batzuk erantsen zaizkie eta argiago erakusten da zein portaera izaten duten berbak diskurtsoan. Hiztegi honetan, Nabarnizko euskal lexikoa –edo zati bat, hobeto esanda– bildu eta definitu da, baina aparteko ahalegina egin da bertako herritarrei ahoz bildutako erabilera adibideak eskaintzeko. Corpusa ahozko hizkuntzan oinarritzen dela kontuan harturik, ahozko formei darraizkien forma normalizatuak zehaztu gura izan dira, ahozketasunetik hizkuntza idatzira igarotzeko prozesuan askotan aurkitzen diren oztupoak kentzen laguntzarren.

2. Grabazioak Nabarnizko jende heldu edo zaharrari egin zaizkio, 1993ko maiatzetik 2003ko otsailera bitartean. Grabaziorik gehienak kasete-grabagailuz egin dira. Hala ere, 2002ko urtarrilaz geroztik grabazio digitalak egin dira, Minidisc grabagailua kanpo mikrofono batekin erabilita. Grabazio digitalen transkripzioak COOL edit pro deritzon soinu editorearen laguntzaz egin dira.

Inkestak egiteko moduari dagokionez, batzuetan, etnografia arloko galderak egin dira; beste batzuetan, aurretik batutako testuetako berbei buruz galdetu da; berba biren edo gehiagoren arteko desberdintasunak ere eskatu dira; beste toki batzuetan erabiltzen diren berbak Nabarnizen ere erabiltzen diren galdetu da inoiz (halakoetan, erabilera hori egiaztatutako beharra izan da berriemaile gehiagorekin); erdarazko esaldiren bat euskaratzeko eskatu zaie kasu banaka batzuetan; irudiak

edo argazkiak erakutsi zaizkie, edo, beste barik, edozein gairi buruz berba egiten utzi zaie. Galderak prestatzeko orduan, lagungarriak izan dira, batez ere, Iñaki Gamindek hainbat herritan eginiko lexiko bildumak, Toribio Etxebarriaren *Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar* liburua, Candido Izaguirreraren *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes* liburua eta Gilisasti Fanoren *Urduliz Aldeko Berba Lapikokoa* liburua.

3. Sarrera burua letra lodiz eman da, amaieran puntua duela. Mugatzailea onartzen duten berbetan, forma mugagabea zein mugatua ezarri dira, koma batez berezita (**apur, apurre.**). Forma mugagabea nagusizat hartu da eta letra tamaina handixeagoan idatzi da. Hala eta guztiz ere, kasu banaka batzuetan forma bakarra batu da, eta, horrenbestez, hura baino ez da ezarri. Mugagabe eta mugatuen bereizketari dagokionez, aipatu beharra dago berba batzuetan bikoiztasun bat izaten dela, esate baterako, *-keridxe* atzizkia duten berbetan edo *karabidxe* berban, alegia, batzuetan *karabi-karabidxe* bikotea batu da eta beste batzuetan *karabidxe-karabidxie*.

Aditzei dagokionez, sarrera buruan era burutua eta ez burutua ezarri dira, koma batez berezita, beti ere biak jaso diren kasuetan. Era burutua letra handixeagoan idatzi da. Sarrera buruaren amaieran puntua ezarri da (**apurtu, apurtzen.**).

Sarritan, ordea, forma bat baino gehiago batu da. Halakoetan, aldaera guztiak sartu dira sarrera buruan, koma batez berezita. Forma nagusizat jotzen dena lehenengo ezarri da, eta aldaerak, berriz, haren hurrengo, beti ere aurreko paragrafo bietan forma mugatuei edo aditz burutuei buruz aipatutakoa kontuan harturik.

4. Sarrera buruaren ondoren, hari dagokion forma normalizatu ezarri da, letra larriz eta parentesi artean.

Askotan, bizkaieraz eta batuaz erabiltzen diren formak ez datoz bat; halakoetan, bizkaiera normalizatuko forma ezarri da aurretik, letra larriz, eta atzetik, berriz, batukoa, letra xehez eta *-bat.* gehiturik. Inoiz sinonimo bat edo beste gehitu da, beti ere Nabarnizen erabiltzen ez den berba bat izanik (ARTAGARAUN, artagarau-*bat.*, artale).

Atal honetan zailtasun handiak izan dira. Alde batetik, lexikoaren normalizatzeko lanak, orain arte, hizkuntza estandarera bideratu dira batik bat, eta horregatik ez dira normalizatu gaur egun ahozko bizkaieraz korritzen duten berba asko, edota baztertuta gelditu dira hitzak eraldatzen dituzten fenomeno fonetiko dialektal asko, nahiz eta euskalkiaren barruan hedapen handia izan. Beste alde batetik, bizkaierazko lexikoa ere oraindik normalizatu barik dago, nahiz eta ahalegin batzuk egin diren han eta hemen. Horren ondorioz, askotan ez da erraza izan forma normalizatuak *-batez* ere, bizkai eredukoak-proposatzea. Esate baterako, *bijutz* sarreran (BIJA-HUTS, *bidaiia-huts-bat.*) proposatu da, hiztegiaren haren aztarrenik aurkitu ez arren. Beharleku honetan, oinarri sendorik aurkitu ez denean, Nabarnizko berbetari estuago jarraitu zaio, batzuek estuegi iritzi liezaioketela jakin arren. Nolanahi ere, herri bateko hiztegi dialektala denez gero, normalizazioaren atal honetan irizpide malguagoak erabiltzeko lizentzia hartu da. Horrela, bada, *baridxeu* sarreran (BARIAKU, *bariku-bat.*) agertzen da, hau da, Bizkaiko alderdi zabal batean erabiltzen den forma proposatu da “bizkaierazko” forma normalizatutzat, eta ‘bariku’, berriz, “euskara batuko” formatzat. Ildo horretan, gogorarazi beharra dago proposamen horien xedea dela erraztasunak ematea edo bide posible batzuk erakustea ahozko formatik gaur egun zabaldua dauden edo zabaltzen hasi diren eredueta igarotzeko. Hortaz, irakurleak erabakiko du zein forma (euskara batukoa edo bizkaierazkoa) erabili behar duen eta proposatutako forma egokia den. Hemen proposatutako forma asko era horretan ulertu behar dira, mendebaldeko lexikoaren normalizazioa egiteko, eremu geografiko zabalagoa hartu behar baita oinarritzat, literatur tradizioa ahaztu barik. Hiztegi honek, oster, oso eremu geografiko txikia aztertu du, eta gaur egungo ahozko hizkuntzara mugatu da.

5. Forma normalizatuaren ondoren, sarreraren gaztelaniazko adiera ezarri da. Berba askok adiera bat baino gehiago izaten dituzte eta bakoitzari zenbaki bat ezarri zaio aurretik. Animaliei eta landareei dagokienez, izen zientifikoa jarri da, halakorik aurkitu den guztietan. Haur hizkerako hitz edo adieretan (Haur.) laburdura ezarri da.

Adierak emateko, gehienbat, ondorengo hiztegi hauek erabili dira: R.M. Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Plácido Mujikaren *Diccionario Vasco-Castellano*, Elhuyar *Hiztegia*, 3.000 *Hiztegia*, Juan Martín Elempururen *Bergara Aldeko Lexikoa*, Emiliano Arriagaren *Lexicón Bilbaíno*, RAeren *Diccionario de la Lengua Española* eta María Molineren *Diccionario de Uso del Español*.

6. Nabarnizko hizkeran sinonimotzat jo daitezkeen berbak ere aipatu dira *Sin.* laburduraren bidez. Askotan, sinonimotzat jo barik, sarrerako berbaren eremu semantiko berdintsuko berba bat edo gehiago ezarri dira, *Ik.* laburduraren bidez. Inoiz, azalpen osagarri bat edo beste gehitu da, euskaraz. Adibide bati buruzko azalpena eman denean, □ ikurra erabili da.

7. Batzuetan sarrera bitan edo gehiagotan zenbakiak ezarri dira sarrera buruaren aurretik. Horrek esan nahi du, alde batetik, berba horiek, grafia bera izan arren, kategoria gramatikal desberdina dutela, edo, bestetik, izatez, berba desberdinak izan arren, nabarniztarrek berdin ahoskatzen dutela (erren-herren/erren-errain).

8. Adibideak letra etzanean eman dira. Adibide bakoitzaren aurretik || zeinua ezarri da. Adibideok izan daitezke berba bikoak, esaldi batekoak edo esaldi gehiagokoak. Hasieran aipatu den bezala, adibideok erakusten digute berbak zein testuinguru zehatzetan agertu ohi diren, zein berbaren ondoan jarri ahal diren edo ezin diren, esaldiaren barruan zelan josi behar diren eta beste xehetasun batzuk. Adibideetan agertzen da argien zelakoa den Nabarnizen hitz egiten den euskara.

Adibide guzti-guztiak grabazioetan batutakoak dira eta euren hartan transkribatu dira, ezer gehitu, kendu edo moldatu barik. Kasu batzuetan, berriemailei euri eskatu zaie berbak definitzeko, jakingarri iritzi baitzaio berben adierak haien erabiltzaileek eurek mugarrizeari. Kasurik gehienetan, ordea, berbetaldi bateko atal bat ekarri da hiztegiari, testuinguru jakin bati dagokiola. Inoiz, berriemailei berba biren adieren arteko desberdintasunak zehazteko eskatu zaie, era horretan azaltzen baitira, askotan, inguru horretako berbeta ez dakitenentzat hain begi bistakoak izaten ez diren ñabardura asko.

9. Sarrera nagusiaren barruan azpi sarrerak ezarri dira. Azpi sarrerok erabilera edo esanahi bereziko esapide eta hitz elkarketak izaten dira. Bakoitzaren aurrean □ ikurra ipini da. Azpi sarreraren burua letra lodiz eman da, eta amaieran puntua ezarri. Azpi sarreraren sailean nolabaiteko ordenari jarraitu nahi izan zaio. Lehenengo, aurretik sarrera nagusiko berba duten hitz elkarketak ezarri dira; ondoren, atzetik sarrera nagusiko berba dutenak, eta, azkenik, aditz batekin osatu direnak edo bestelako esapideak (**arto kapasie, kanpo artue, artue garandu**).

10. Sarrera hau ezin da amaitu berriemaile izan diren nabarniztarrei euren laguntasuna eta prestutasuna eskertu barik. Ondorengo hauek dira haien izenak: Isaac Urtubi (Larrinaga), Andere Goiriena (Ibarguen), Julian Bollar (†) (Ane), Karina Zabala (Ane), Maria Dolores Galka-Aldekoa (†) (Bengoetxe), Genaro Izagirre (Etxebarri), Matilde Totorikaguena (Etxebarri), Victorio Goikolea (Goikola), Julian Beaskoa (Agarre), Pia Sierra (Goikoetxe), Sabin Sierra (Goikoetxe), Artiatx (Argiarrozarra), Jonas Gerrikagoitia (Ardantza), Alberto Goiriena (Ibarguen), Isidra Lekerikauriarte (Argiarro), Victor Ordorika (Gorostiaga), Pedro Garatea (Merikaetxebarri), Bienvenido Beaskoetxea

(Iturribeko), Juan Pedro Ikazuriaga (Ikazuriaga), Jose Arrizabalaga (Aboixene), Santi Urzaa (Merikauriko), Zubizarreta (Ormaetxe), Jesus Elias Basterretxea (Torretxu), Lontzo Garetxena "Arrola" (Arrolagoiko), Juan Jose Ondarza (Beitxi).

**ebai, ebei, ebaten.** (EBAGI, ebaki-bat.) Cortar. || *Adarrak ebei.* || *Atzamarra ebi.* || *Bidie ebei.* || *Ño, ak ebei dxuk bedar saille!* || *Oiñ idie ebaten dauenak, olanik, karga edo olakue, txarridxe erreteko.* || *Len ebaten sirien onen, goidxen alturen les ebei eitten san atxa, gero adarrak emon deidxen, gero etxerako ta egurre ta eitteko.* || *Urkulie ba, urkulie esate tzesu e... arbolie pe adar bi dekosenak "Urkuladune dok". Piñuek amen oin, piñue esaten dabe, urkuladune, bat ebateko, se ostantzin gero aixik apurtu eitten deu, bata bai tte bestie be bai tte gero bapes!* || *Eperditik ebai dabe arbolie.* || *Airoko pague esate dxako. Gero bota ebenien, ebaten askolaridxe egon sirin, au Luxia, lau ordun ebai bayetz, de esetz kortie, da es eban ebai.* || *Garidxe ebaten dire, lotzen dire, da muntxuridxun ipintzen dire apur bet igertzeko.* || *Iguel txaparako tranbutan ebai bixu, se ostantzin luse dau te.* || *Iñustue a adarra ebei te baju sabaldu eitten dasenak. An pagu badaus Mugireko etzatzen, are di pagu iñustuk. Da pagu tantaide das sekule mostu bakuek. 'Mostu' guk 'ebei' esate tzeu, da 'mostu' esate tze askok.* || *Elbitze ebaten gatx-ok.* || *"Motza dau" esaten da kutxilluek espadau ebei gure, "Motza dau".* □ **esnie ebei.**

Cortarse la leche. Ik. *esnie galdu.* □ **ulie ebei.** Cortar el pelo. || *Ori uliori ebei ein bi dosu.* || *Ulie rape ebei dot.* || *Arrasto ebei ulie? Ba soldautzan.* || *Emen umiri-tte esate dxake, uli xi-xi-xi-tte ebeite eukitten badabe, sorriddex dekoselako, edo seosegaittik: "Buru gorridxen itxi dabe".* || *Uli sero ebei! Rape jun giñenin. Asi eurrin de atzera. Da akatza ta abarra-ta. Ala eurrera! Bai, soldadutzi gogorra ixen san ordun be, bai, soldadutzi be.*

**2 ebai, ebaidxe, ebeidxe.** (EBAGI, ebaki-bat.) Corte. Ik. *epaidxe.* || *Kentze dxako satidxe, da olantxik askorias eiñ ebaidxe, da antxe ebaidxen barruen sartzen da adar bat, edo bi, antxe sartzen dire, da mendau esate dxako.* || *Edo ebaidxen bat eitten dabenin-be, ba ipiñi salmuyee, ta ankie, edo esku-edo ba antxe barrun euki erretako apur bet.*

**ebaidxune, ebaidxunie.** (EBAGIUNE, ebakiune-bat.) Corte, punto de incisión. || *Une bat ebaitten badau, ba ebaidxunie.*

**ebanjelidxue.** (EBANJELIO) Evangelio. || *Kutune aintxiñe ume txikidxeri ipintte dxaken olako ebanjelidxue ixate san.*

**ebataille, ebataillie.** (EBATAILE) Cortador, -a. || *Eskilladorie uli ebataillie da.*

**ebataldi, ebataldidxe.** (EBATALDI, ebakialdi) Corte, cortada. || *Udan garidxe eraitte sanien, lelengotik jagi*

*goixien egune eitte banien, da gari ebaten eitte san. Da gero etziñ ama edo eote sanak e esni egosi ta armosu ipiñi eitte banin diar ein de, ba ebataldidxe einde garidxeri itxi te bera armosu jate san.*

**ebate, ebatie.** (EBATE, ebakitze-bat.) Faena de cortar o segar. □ **bedar ebatie.** Faena de cortar la hierba. || *Se nik esan neixu suri "Su bayo geidxau nas ni bedar ebaten". Da su esetan bes, ta ni su bayo geidxau bedar ebaten nai askoran nai jorra nai atxurren.*

□ **gari ebatie.** Siega del trigo. || *Garidxe jeneralien emen atzeratxuau etorte san Nabarrixen. Nabarrixen junion lelengo... Ortxe ibiltte san garibatie. Berandutxuau nabu ereiñ abustun. Arek garidxe ebei, da egote san e solue ba geldi, esan gutena, eser erein barik. Da gero ereiñ ein biar, da nabu erein.* □ **ide ebatie.** Faena de cortar el helecho.

**ebatzaille, ebatzaillie.** (EBATZAILE, ebakitzaille-bat.) Cortador, -a. *Epaillie* ere esaten da. || *Egur ebatzaillak.* || *Bedar ebatzaillak.* || *Ide ebatzaillie.* || *Gari ebatzaillie.* □ Solasean erantzun zakarrak ematen dituenari ere esaten zaio: || *Ebatzaillie, olanik, konbertzasiñoyen da igul, raaa, kortaute itxi, berak esan gure dabena ta.*

**eberdi, eberdidxe, eguerdidxe.** (EGUERDI) Mediodía. || *Eberdi aurri.* || *Eberdi osti.* || *Eberdi ostetxuen.* || *Len dotriñara jun ein biar ixate san, domeka artzaldetan beti, eberdi ostien.* || *Eguerdidxen baskaridxe jate san.* || *Pistolie? Ori be sopi eitteko, eguerdiko sopie.* || *Baskal sasoye, eberdidxen ordu batetan edo amabidxetan-edo.*

**edade, edadie.** (EDADE) Edad. || *Se edade deko gixonak?* || *Ya edadie euki arren, kejetan egon da gau gustidxen.* □ **edadin sartu.** Entrar en años. || *Edadin sartzen doye ta!* □ **edadiñ eurrera juen.** Entrar en años.

**edadeko, edadekue.** (EDADEKO) Entrado, -a en años, mayor. Ik. *atzagurak, atzue, agurie, sarra.* || *Edadeko gixona.* || *Edadeko andrie.* || *Edadeko personie.* || *Ori edadeku da.* || *Eskutako dardadi: jeneralin sarra edo edadekuk eukitten dabena, bai, eskutako dardadi.* || *Bai, konbersetako, igul edadeko bat da... Edo boda batera jutas gaste artin. Neugaitti pe bai, sorakeidxak, edandakun bakixu, sorakeidxak, "Orrek e, umealidxe dxekok geur!", edo txotxoalidxe-edo bakixu. "Erdi soratu dxak ori geur"-te, alakoxe berbak, bakixu.*

**edakera, edakerie.** (EDAKERA) Sabor, gusto (de los líquidos); boca (del vino). || *Onk edakera obie deko.*

**edamen, edamena.** (EDAMEN) Pote, cazo. Ik. *tangie, txolota, basue.* Lehengo zaharrek *edamena* esaten ei zuten, nahiz eta gaur egun *tangie* esaten den gehienbat. || *Len gure amumak -oiñ esteutzegu esaten baya-*

onakuri, ontzidxeri, tangiri, tangi es eutzon esaten, edamena bayo. || Edamena sarran batek igul esango deu, baya olan gastik-eta es. || Onakoxe katxarruri esate gentzon, aundidxau nai txikidxau, edamena. || Ure edateko ontzi, tanga txikitxuri-edo ba txolota esate dxakon, esate tzen lenguek, geuk estou usau esaten txolota baya. Ure-ta barik, edamena-ta barik, edamena be bai esate dxakon, da txolota be bai. || Len e edamena esate dxakon onakoxe ontzidxeri, ure edatekuri esate dxako edamena. Astadune ixete san, da nai eunditxuau nai txikitxuau nai suridxe nai beste kolore bateku, ba edamena.

**edamenkada, edamenkadie.** (EDAMENKADA) Contenido de un pote o cazo.

**1 edan, edaten.** (EDAN) 1. Beber. || Edateko ure. || Edaten dxabik. || Drongo-drongo edan. || Truku-truku edan. || Txurru-txurru edan eitte dxok. || Esnie-edo umiri edan eraitteko: "Edaixu drungulu-drungulu!" || Bai, berakatza be bai, uretara botata. Berakatza surittu, da uretara bota, ta axe ure edan erain bi xate dxakon umiri. || Bidegiñi a ixete san. Gero erridzek e ori emote ban, ardaue. Errasiñoye esate dxakon. Da asko moskortute. Bai, aprobetxetan, da gero moskortu. Bueno, len bidegiñetan-da moskorra kin jentie. Usau bes ardaue edaterik! Baserridzetan-da pentzau bes ardaue edaterik! Baten batek ardaue edate baban! Baya pentzau bes! Ure. 2. Beber (bebidas alcohólicas). Ik. drinki ein, tragu ein. || Larregi edan deu. || Edanda dxak. || Ganorabakatu eiñ arte edaten deu. || "Drinkilaridx-osak!" kuadrilli igul asko edaten dabenak, txikitxuk-eta. "Orrek e drinkilaridx-osak, orrek edate ittue!". ☐ **edan txarrekue ixen.** Tener mal beber. || Moskortu antzi dauna, edo geistotuten dana: "Edan txarreku da." ☐ **edatiri itxi.** Dejar de beber. || Edatiri itxite dau.

**2 edan, edana.** (EDAN) Bebida; (el) beber. || Edanak pasetan deu. || Ganorabakatu eitten deu edanak. || Montxorra ixaten da, esate baterako, bierra akabatakun, ba jana, ero edana, ero ori: "Montxorra ein tzeke". || Jana! Bai, ero edana ero besti, trague esate tzen, baya jana, alboki.

**edanesin, edanesiñe.** (EDANEZIN) Imbebible. || Edanesiñe da ori!

**edari, edaridxe.** (EDARI) Bebida. || Lenau, edaridxas alkolixente egoten siren, larregi edanda. || Edaridxe, edan dotenas galdu nas. || Efetue ein tzeke orreri be edaridzek. || Gerniketiek ekarte basan edaridxe, edateko geusie, koñaka, nai ardaue, nai..., ixiliñ ekarten basan, da atrapetan baben, orrek ipintte tzen multie pagau ein biar ixate san. ☐ **edaridxeri emon.** Darse a la bebida. || Edaridxeri emonda dau.

**edarisale, edarisalie.** (EDARIZALE) Bebedor, -a. Ik. edatune, drinkilaridxe, moskorra. || Edarisalie? Bai, edaridxe gustete dxakonari.

**edarra, edarrie.** (EDARRA, suil) Herrada, balde para el agua. || Edarrie egon san geurin be. || Edarri ojalati ixan lei, kobresku be bai. || Aintxiñe beko sue eote sanien, latza, latza an tximinidzetan, an edarri esate tzen areri, an ure berotu.

**edarrakada, edarrakadie.** (EDARRAKADA) Contenido de una herrada, balde para el agua. || Edarrakadie ba, axe beteri danari esate dxako.

**edatun, edatune.** (EDATUN, edale) Bebedor, -a. Ik. edarisalie, drinkilaridxe, moskorra. || Ardaue asko edaten dabenari-tte: "Edatune da".

**ede, edie.** (HEDE) Correa, tira de cuero, coyunda para uncir bueyes. || Arek busterridzegas lotuten dizenak ediek dire. || Ediek busterridzek lotzeko ugelak dire. || Ediek etziñ eitte sirien narruas, da ediek lusik ixeten dire, da bustertzeko beidzek, edikin bekokittik burure, kokotera. || Edakiñ eitten da lotu. Da sapi ipintte dxakon adarratan, da bekoidxen es eitteko miñik. || Ediek usau ixeten dire beidxen buru batzeko. || Beidxen busterridzek erute ban aras einde. Onek e edak. Edak jakingo su ser dan. Axe. Edakiñ eitte san ba an, da gero antxe sartze san, da atziñ ipintte dxakon lakue, atzera ganaduk eitte banin, ba atzera jun esteidxen.

**edeganeke, edeganeke.** (HEDEGANeko, hedegaineko-bat.) Cubierta de cuero que se colocaba sobre el yugo. Ik. adaburukue, narrue. || Edeganeke? Beidxen ediñ e ganekue? Narrue, beidxeri ipintte dxaken narru, da busterridxe tapeta ipintte dxaken... ganetik ipintte dxake ardi narrue edo billotz eundidxen narrue. || Len beti ibiltte san edeganeke.

**edei, edeitten.** (EDEGI, ireki) Abrir. || Edei atie! || Giltzas edei. || Giltze edeixosu! || Atie total edeitte dau. || Edeiek ori bentanie, argittasunik etxak emen-da! || A intxaurre edei eitten da. Eldutakuen edeitten da. || Da oin be, oiñ usteldu bari pe igul e kokuk e a asidxe ta janda igul eukitte tzos. Da edeittosu sagarra da barrue ori einde. Da oiñ aurregaitti bota bi dxako botikie.

**eder, ederra, edarra.** (EDER) 1. Bello, -a, hermoso, -a. Edarra ere esaten da. 2. Grande, enorme, grueso, -a, fuertote. Ik. gixena, lodidxe. || Morroska edarra. || Neskatile txikidxe bada, "Neskatile dotorie ikusi dxuat"; neskatile galanta bada, "Neskatile ederra ikusi dxuat". || Edarra da hermosa, olan argala ta eskasa bes, ya apur bat morroska. || 'Okelatze' lagunagaittik esta esaten, animalidxeri. Personari: "Ederra dau". || Esate baterako, solue eundidxe bada, edo motie eundidxe bada edo ba, "Arlo ederra deke bedar ebateko!", edo "Arlo ederra deke artu eraitteke!"-do ba. || Kuadrue? Gorputz edarrari, lepo edarrari, atze edarrari. || Ori da eittie seinde multa bat botati les. "Ederra emon tzeke areri, ixurrau dxuek!". || A garbitzie bier ederra! ☐ **ederra atrapau.** Emborracharse. || Ederra atrapau dxuat neu pe geur! ☐ **ederra bota.** Mentir, exagerar. || Ederra bota dxok

*orre pe!* □ **edar ein.** Mostrarse agradable. Ik. *fabore ein.* || *Neskatillari edar eittiarren, edoser ingo leke.* || *Neskatillari eder eittiarren: berba on bat esan-edo.* || *Orrexeri edar eitten dxabik ori.* || *Edo fabore eitti be, aren fabore eitti be, "Arexen e edar eitten dxabik ori", edo "Arexen edar eitten".* □ **ederra ein.** Hacerla buena. || *Ederra ein tzo! (=ondo eiñ estan geusie).*  
 □ **ederra sakatu.** Engañar. || *Ederra sakatuste!*  
 □ **ederrak artu.** Recibir una paliza. || *Are pe edarrak artu ttu!* □ **ederrak emon.** Dar una paliza. || *Edarrak emon tzedas.*

**edertasun, edertasune.** (EDERTASUN) Belleza, hermosura.

**ederto.** (EDERTO) **1.** Bien; hermosamente, magníficamente. Ik. *majo.* || *Agus gora ederto egoten da uretan.* **2.** Mucho. Ik. *majo.* || *Ederto lusetu dok!* □ También se usa con valor enfático, queriendo decir: ¡ya la has hecho buena!: *Ederto ein dosu ori!* □ **ederto euki.** Sentar bien alguna prenda. || *Ederto dekesu.*

**edertu.** (EDERTU) Embellecer, hermostear. || *Asko edertu da.*

**edo, ero.** (EDO) O, conjunción disyuntiva. Berri.emaileren bati edo besteri *ero* entzun diot, baina normalean *edo* esaten da.

**edoi, edoidxe.** (HEDOUI, hodei-bat.) **1.** Cielo. Sin. *serue, goidxe.* || *Edoidxe ederto jantzitte dau ixerrakin.* || *Edoidxe laster tapau bi deu.* || *Edoidxen lañuek daus.* || *Lañu dau edoidxe.* || *Edoidxe garbi dau.* || *Ño, edoidxe klaru dxak gaur!* || *Edoidxe illun dau.* || *"Edoidxe argidxe dxak" esaten da laiñurik espadau.* || *Goidxe da edoidxe.* **2.** Nube. Ik. *lañue.* || *Edoi soltiek.* || *"Sasi gustin ganetik eta edoi gustiñ aspittik" esate ben, da buuuuu...* || *Edoi asko dau, jasorik esteko.*

**edoitzu.** (HEDOITSU, hodeitsu-bat.) Nuboso. || *Edoitzu dxak.* || *Edoidxe goidxeri esate dxako.* *Eta lañue daunien, lañu sabaldute daunien, da ikusten estanin goidxe, "Edoitzu dau".* || *Edoitzu dau denporie, da euridxe ingo deu.*

**edonor.** (EDONOR) Quienquiera, cualquiera. || *Edonor jun leike.* || *Mendire bidin ba estau kamiñorik, espabese ba arrisko bidik, eta ba basasko bidik dire, da ibili lei edonor, ibili lei esate baterako, emengue, ibili lei Eriñukue, ibili lei Gernikekue, ba bide komuna, ba danen bidie.*

**edonora.** (EDONORA) A cualquier parte.

**edonos.** (EDONOIZ) En cualquier momento.

**edonun.** (EDONON) En cualquier parte. || *A edonun oten da, a matarrasan edonun oten da, nei arbola*

*aspidxen nei sasi ondun.* || *Iketza edonun e! Or da an, bu!* || *An Ameriketana-da arraiñetan jute giñen ba asko ta errekan, bakixu errekan ba, arridxe labanak, da agure sarrak esan ei dxuan beran burugaittik "Estrepesu edonun eittok ik!" esan tzon beren bururi!*

**edonundik.** (EDONONDIK) Por o desde donde quiera.

**edosein.** (EDOZEIN) Quienquiera, cualquiera, alguno. || *Edosein lekuten.* || *Edosein klasetakue.* || *Ni be banas edosein beste.* || *Edosein jun leike.* || *Edoseiñ egurrek eukitte deu urkulie, da a da urkula adarra.*

**edoselako, edoselakue.** (EDOZELAKO, edonolako)

De cualquier clase. || *Edoselakuk daus.* || *Arturi be esate dxako (lapan), bedartzu badau.* *Artu eraiñekutan bedarra edoselaku etorten da, da "Lapan dau bedarras", "Bedarres beteri dekeu"-edo, "Jorratu bierrin dekeu"-edo.* || *Mateidxala? Edoselaku.*

**edoselan.** (EDOZELAN, edonola) De cualquier modo. || *Edoselan esan.* || *Edoselan botata daus orrek, olan, nubait obeto ipiñi bi dabe ta.* || *Baldresa da edoselan dabillena jantzitte.* || *Gangarra enbriri esate dxako, edoselan debillenari: "Gangarriori!".* || *Oin gitxi useten da. Ba len jake baltza lutue san len. Len ilte basan iñor, urtebetiñ e jake ta erropa baltzakiñ ibilte san jentie. Oiñ es. Oiñ e funerala deunin be, edoselan juten da jentie. Len es.* □

**edoselan be.** De cualquier modo; sea como fuere.

**edosenbat.** (EDOZENBAT) En abundancia, cuanto se quiera. || *Edosenbat perretxiko dau or.* || *Persona baltzik sekule ikusi barik. Pentzeu be! Da oiñ e Gerniken berton edosenbat ikusten dire.*

**edoser.** (EDOZER) Cualquier cosa. || *Edosetan.* || *Edoser geuse.* || *Prest dau edosertarako.* || *Arotza san da or eitte sittun nai maidxe nai edoser eitte ban, edoser gause.* || *Eutzek dekos edoser eitteko.* || *Asarratzen daniñ edoser esaten deu.* || *Euntzek edoser jaten deu.* || *"Nabarbendu" da "Edoser eitten dau", "Edoser astakeridxe eitte dxok", "Nabarben dxabik".* *Bakixu tabernan-da be edo drogatan, edo enbra bat plasan, "Nabarben dxabik", erropakiñ edo dana...* || *Bero-berun edoser ingo deu orrek!* || *Yasa badxok orrek edosertako, biar gustitarako!* || *Geuse bat erreten batzu, edoser geuse, okeli be bardin, nai edoser, sutenero: "Dana kiskortu dxok".* || *Tentemosue: mal gitxi dekona, edoser esaten dabena-edo.* || *Narra ba ixeten da nai bedarra, nai aspiaridxe, nai edoser ekarteko ixeten da narra. Egurre be bardin.* || *Edoseri botate dxako ollo satza.* || *Barriketalaridxe: geusa asko esan bi dabena da edoser esaten dabena.* || *A (lapurre) be urruneku es san ixengo! Es. Emen edoser!*

**edosetara.** (EDOZERTARA) De cualquier modo. || *Edosetara be ein lei ori.* || *"Ori personie gustireku da": edosetara moldetan dana.*

**edukasiño.** (EDUKAZINO, edukazio-bat.)

Educación. || *Len esan eitte san (ganbelue), oin bayo geidxau pentzetot nik. Oingo umik edukasiño geidxau euki-edo.* || *"Ño, ori personi ok edukasiño gitxikue!" edo "Ño, etxekok berbete ederra!". Bakixu berbete santarrekue edo "Edukasiño gitxiku ok!".* || *Umi pa bakik, atrebidu dosa pa, edo persona neusigana juteko, "Aldeik umemokurrek! Aldeik emendik!". Umemoku da, ba gastu edo edukasiño bakue edo bakixu. "Aldeik, umemokurrek, kakanarrurrek!".*

**efer lañue.** (IPAR LAINO) Nube que llega a Nabarniz desde el mar. *Efer lañue* ere esaten da. || *Efer lañue laño bajue da.*

**efetue.** (EFEKTU) 1. Efecto. || *Da bueno, orrek, ori gatza, efetu itzela ormiri be!* 2. Consecuencia. || *Efetue? Ba berak e dekona, esin domiñau dana-edo.*

☐ **efetue ein.** Hacer efecto (una medicina, la bebida,...). Ik. *kalte ein, on ein.* || *Efetuek ein tzos.* || *Biskortzen bada: "Efetue ein tzeke orreri be edaridzek".* || *Ardauk ein tzeke efetue!*

**egabera, egaberie.** (HEGABERA) Avefría (*Vanellus vanellus*). || *Denporalie datorrenin jun eitten dire emendik egaberak.* || *Au kapelie egaberik eukitten deu, au txotatzue.*

**egal, egala.** (HEGAL) Extremo, borde, orilla, costado. Ik. *bastarra.* || *Solo egala.* || *Sasi egala.* || *Egal bidxetara eukitten sittun etzik gela bi.* || *Pagadidxen egal partien urteten deu.* || *Burtarasak dire egalak.* || *Burdidzek eukitte ittu olan sartute taketak, goitti bera sartute. Sulu pe eukitte ittu egaletan, egal bidxetan, olanik-olanik.* || *Oserue len esaten san, oye, lo eitten dan kuartun, edo gelan oyen pariñ egote san, ba, ixeriñ antzeko bat, bai, eote san, goiko apurreridzarik etorri esteidxen nobera daun lekure oserue egote san, egaletatik inkeute.* || *Landie jeneral aundidxau da, motie, olan solo egaleko motatxu payo.* || *Iñurrondoku tire, arek eoten dire ba, olan bide egalín-de, sasi egalín-de urteten dabe ñurrondokuek, da eukitten deu sustreidxe, da ixeten da mingotza.* || *Ta ertza batzuk esaten dabe, egurreri be. "Ertza atara dxok", beste batzuk "Egala atara dxok".* || *Itusurie? Itusuri es. Itusuri da egala. Egal bidxe di itusurak. Da onek dire eurriek, bolaue ta bolaupie.* || *Onek tellatuk dana deke egaletara. Atzin bes. Egal bidzek da besterik esteko etzik. Ur gustidxe doye egal bidxetara.* || *Len orrek e ibiltte siñ e edo egalak garbitzen e, bide egala, arridxe daun lekun-ero olan. Bestik dire atxur normalak, jorraidxak da atxurrek. Baya orre ti baso atxurrek.* || *Esate baterako, amen etze illadi badau, bastarrerengue egalín deuna, bastarrerengue.* || *Geldiro-geldiro, egales egal atara bi da iketza.*

**egan.** (HEGAN) Volando. || *Egan doyenien be, esaune.* ☐ **egan asi.** Empezar a volar. ☐ **egan ein.**

Volando. || *Ya egan eitteko moduko kunak.* || *Baya orrek akenak estau egan eitten, e, esteko egorik.*

**egarpera, egarperie.** (EGARPERA, egarbera-bat.) Sediento, -a. || *Egarperi da ori.*

**egarri, egarridxe.** (EGARRI) Sed. || *Au dok egarridxe!* || *Egarri danin, sagar bat artzi-edo, madari bat artzi-edo, iko batzuk artzi-edo, ba "Emendidxau nas, egarri ixan nas-da".* || *Sagar bat artu dot, eta egarridxe kendu ein dot.* ☐ **egarridxen egarris.** De pura sed. || *"Egarridxen egarris" esaten da, baya ori egarridxeri etxake esaten. "Egarridxen egarris" ba geusa baten desiu eundidxe dekonari-edo. "Egarridxas ba axe be ein deu"-edo egarridxen egarris.* ☐

**egarridxen purus.** De pura sed. || *Da ba egarridxe..., olan egarperi dana-pa, ixerdi asko-ta botaten danin: "Egarridxen purus ba edoser edaten da, arda, nai ure, nai sardaue, nai txakoliñe".* ☐ **egarridxe euki.** Tener sed. || *Nik dxekat egarridxe!* || *Egarri eundidxe deket.*

☐ **egarri ixen.** Tener sed. || *Egarri nas, ekarri ure!*

☐ **egarridxegas egon.** Tener sed. || *Egarridxegas nau.*

☐ **egarridxegas itto.** Morirse de sed, tener mucha sed. || *Egarridxegas ittoten nau.* || *Egarridxas ittota nau.*

**egarrittu.** (EGARRITU) Sentir sed. || *Bueno, txo, ni egarrittu nok, nik tragu bat ein bi dxuat.*

**egas.** (HEGAZ) Volando. || *Egas etorri da.* || *Egas doye.* ☐ **egas ein.** Volando. || *Orrek akenak estabe egas eitten*

**egastada, egastadie.** (HEGAZTADA, hegada) Vuelo. || *Txoridzek-eta eitten dabe egastadie.*

**egasti, egastidxe.** (HEGAZTI) Ave doméstica. || *Egastidxe da oillue, oillarra edo txitxie; egastidxe etzekue da.* || *Egastidxe eguk dekosanari esate dxako.*

☐ Dena dela, batzuetan ez da bereizketarik egiten eta piztia hegodunei ere ezartzen zaio izen hau. || *Bueno, egastidxe da arranue, txoridxe da-ta, egastidxe da-ta.*

**egi, egidxe.** (EGIA) Verdad, cierto. || *Ori esta egidxe.* || *Benetan egidxe da ori. Orrek danak kontuek dire. Maiña bider ori ipuiñ ori entzu du, egidxe dala ta. Egidxe, bai, egidxe!* || *Egidxe estan geusie.* || *Gusurrik estau esango, egidxe esango tzun.* || *Esteu egirik esaten.* || *Mosolu esta egunes ibiltten e. Esaten dabe egunes estala ikusten, da gabas. Ori esta egidxe, esakuni bada, baya nik egunes be ikusi dot e ibiltten.* || *Jente modue? Ba gusurak esate ittunari be esate dxako, jente modue: "Egirik eleke esango!", "Gusurre bayo besterik estau esaten!", "Esebe esin leidxo siñistu be ein!".*

**egidxesko, egidxeskue.** (EGIAZKO) Verdadero, -a.

**eginkixun, eginkixune.** (EGINKIZUN) Acto, acción. || *Eittadi da eindako geusa batena, eittadie. Osea, geusa bat ein deu, geusa bat ein deu, geusa ser bat ein*

deu, esta? "Orrek ein deu eittada ederra!". Eginkixun on bateri esate dxako.

**egixale, egixalie.** (EGIZALE, egiazale-bat.) Veraz. || Egixali da, gusurtidxe esta, egidxe esaten deu.

**1 ego, egue.** (HEGO) Ala. || Egu pe laburrauek dekos gabilloik. || Ego puntetik ego puntera metro bat ta larogetabost sentimetro ekosan sabal. || Bai, badas eguk eukitte ittuenak, da egorik estekena pe bai, baya nik esin neixu esan orren ixenik, estakitt.

**2 ego, egue.** (HEGO) Sur (punto cardinal). || Egue mundik jeusten da? Arrolatik? Estakit mundik jeusten dan. □ **ego aixie.** Viento sur. || Ego axie axe epela da, naiku axe epela. || Erriko axie be ego axiñ antzeku da, bai, bat tire. Orrek axe euritzu barik axe epelak tires. || Geur egon da ego aixie. || Iparra da aixe fuertetxue, da apurtxut otza dana; da eguaixi da aixe epeltxue.

**egodun, egodune.** (HEGODUN) Alado, -a (con alas).

**egoera, egoerie.** (EGOERA) Estancia, pausa, parada. || Egoerie? Ba geldi egotie, se patxadan egoti les, "Arek dxekok egoerie!", geldi igul iñora mobidu bes, Da "Arek dxekok egoerie!". || Egoerie? Bai, geldi daunari. || Egoerie? Jarritte egoti be bai, egoerie. || Egoeri ixen lei e, jarritte daunari-edo esan leidxo, sutunik daunari be bai. || Egoera txarra deko. || Egoera onin dau.

**egoi, egoidxe.** (HEGOE, hego-bat.) Viento sur. || Egoi aixie. || Gallego aixie, egoidxas nastin, Galixie partetik. Egoidxe emendik, Ois, Urkiola aldetik etorten da egoidxa. Da ori bestie etorten da emendik Gernike, Bilbo, seretik etorten da, axe indertzu, fuertie ixeten da ori.

**egokera, egokerie.** (EGOKERA) Postura, modo de estar. || Egokeri trankille deko.

**egoki, egokidxe.** (EGOKI) Propio, conveniente y a proposito para un fin. || Gixon egokidxe. || Eukerakue da geuse bat egokidxe, oso geuse susena ta ona. || Egoki dxok. || Egoki etorri dxat ori. || Egoki etorri dok ori be. || Bueno, egokidxe dana menbrillu eitteko, ona ixeteko, ixen bi deu -te nik makiñe bat bider ein dot menbrillu etzin- sagar garratza ixen bi deu. || Bu! Bai, bai, bertzotan da berbetan be egokidxe! Bai, bai, famosu san.

**egon, egoten, oten.** (EGON) **1.** Estar. || Egoten dau. || Elegante, ederra egon. || Su etorri arte, emen egongo nas. || Gernikera junde daunien, "Gerniken da" esaten da. "Gerniken dau": ori ya bixi ixeten bertan badau, ya Gerniken dau esaten da. || Len emen be egon san, da oin Jangoikuk jakingo deu nun dauen. || Euri asko eitten dabenien, asetute oten da lurre. || Ni e tabernatan enas oteko. Bidxar mesi ordu batan. Da andixik urten, da iru txikito edo lau edate dus etzera orduko, da kittu. **2.** Haber. || Jaidxetan jente asko egoten da. || Antxiñe esate ben esala egoten ardaurik ta olakorik. || Orrek dire len egon siren diruk. **3.**

Esperar. || Egon, egon! **4.** Estar, reposar, permanecer. || Arek apur bet ure gorriskie botaten dau, da egunkeran ontzidxeri gorridxe inkete tzo metal urek. □ **egonin.**

Quieto, -a; inmóvil, en reposo, sin hacer nada. || Sagarrak, santarrak bai batzuk, txarrak eta santarrak tiñak, baya gero are pe egoniñ e gosatu eitten dire. □ **egotes.** Por haber, por lo general. || Sasi okanik oiñ estau, egotes. □ **egonak egon ein.** Esperar durante largo rato. || Egonak egon ein de esta iñor agertu. || Egonak egon ein de alde ein dot. □ **egon esiñe.**

Inquietud, impaciencia. || Orrek deko egon esiñe! □ **-la ta egon.** Pensar, crear. || Pentzetot lorak oridxek atarate itunak ixeten dila dodiñe bedarrak. Arixeri esate tzela ta nau. || Soser entzun nabela ta nau neu be! □ **-teko egon.** A punto de. || Bueno, orixe esateko egon nas. □ **-terik egon es.** No poder. || Burun sartu dxakok, oiñ etxak ataraterik. || Kangreju pe badaus, baneka, baya oiñ atrapetarik estau. || Etzesalie? Ba etzesali ser dala esangot? Emen ba estau etzesali ixeterik eta barrun oteri baya etzesalie, ba, asko oten da etzien da gitxi urteten deu.

**1 egosi, egosten.** (EGOSI) Cocer. || Lapikue brou-brou egosten dak. || Ondo egosi barik dau. || Nabue egosi eitten da arin, erremolatxie esta egosten olanik, gogorra ixeten da. || Erdis erdi egositte dau. || Egosi barri dau. || Erdi egositte deket lapikokue. || Lapikokue da geuse egosidxe, lapikoko indarra, edo patatak-edo. || Teli, esnie otzittukeran beti eitte dxako. Kipurri esate tze oin danak. Danak kipurrie. Sarias kentze tzo dana egosidxas-egosidxas. Da ba "Kipurrie dana kendute dau" esaten da. □ Leixibi egosi. □

Iketza eitteri egosi esate dxako. □ **egosi arin.** Poco cocido. || Egosi arin dau.

**2 egosi, egosidxe.** (EGOSI) Cocido. || Egosidxe? Egosten dana. Geusie, nai txarridxena nai beidxeri emote dxakona, egosiñeku be bada. □ Pertsona eskari buruz, honela esaten da: || Da igul e ori e askotan ori be egoten da, persona eskasa-ero, "Sekule egosirik jan bakue!".

**1 egostu, egosten, egostuten** (EGOSTU) **1.** Recalentarse alguna parte del cuerpo a causa del calor. || Egostute dekotas ankak. || 'Egostu' da seinde berun beruk eitten deuna, egostu. Beruk eitten dau egostu. Nai andik nai emendik, otza badau, esta esaten egosturik, espabe beruk eitten dau egostu. || Galtzarpi be egostute esaten da. An erreta bakosus, erre egostu, erdix erdidxen ein dan geusie, egostu. Jeneraliñ e esaten da galtzarpik olakorik, "Kaguen, galtzarpik dxas egostute", an erretasune, egostu. || Bueno, beruas be egosten da. Bero aundidxe daunin be, egostu eitten da. Badau eskun edo nonun e... Ser

esangot nik? Epaitxun bat-edo badau, ba a epaitxue...  
 || Egostu? Edoser geusa, eridi nai edoser egonda axe egostuten da. **2.** Ahogarse, estropearse la legumbre por estar amontonada sin poder respirar. || 'Egostu' da a seinde usteltzera doiñ indarrari esate dxako, soluen alkarren ganiñ-ero badau, "Egostu ein dok". Egostu berotasunek eitten deu. Alperrik galdu, alkar ondun itto. Larrei egon alkar joten, da itto, egostu. || Indarra pe alkarren ganiñ ero olan, alkar jota badau, indar sasoin, danak esango tzue, iguel danak or planteien dire alkar joten, da "Egostu ein di danak", da a da galdu. **3.** Cocer la leña en la pira de leña para hacer carbón. || Txondorra egostu eitten da. **4.** Recalentar, templar el tiempo. || Egostu deu denporie. || Kanpue egosten dau beruk.

**2 egostu, egostue.** (EGOSTU) **1.** Escocido, matadura. || Egostue oiñetan nai atzamarretan. || Egostu esaten da, selan esangot neuk?, olan eridi be esta eitten egostu. Ba beruas ixerdittuten danin-da, ba gorritu-edo eitten danién, ba egostu esaten dxako. **2.** Bochornoso, sofocante. || Bai, egostu dau denporie.

**egotaldi, egotaldidxe.** (EGOTALDI) Rato, espacio de tiempo. || Egotaldi bet ein gendun. || Egotaldi ederra ein deu an.

**eguen, eguena.** (EGUEN, ostegun) Jueves. □ **eguen santue.** Jueves Santo. || Aintxiñe matrakie esate dxakon trasto bat, aste santutan jote ben kanpaye gelditzen sanin, eguenes, eguen santus ba onetan erridixetan. Kanpaye eguen santus, kanpaye geldittu eitten da, baridxeu santus estau kanpairik. □ **eguen suri.** Jueves gordo de Carnaval. || Basatostie ixete san domekie. Eguen suri ixete san eguenes. Baya emen baserridixen-da eguen suri etzan eitten, se iñok es eban eukitten astirik mendidixetara-da juteko. Baya ori bai Gernike partetik eitte san. Neu be iños jun nas Gerniken kridxada egonda eguen suri eitten. Santimamiñera jun giñen. || Eguen suri: ori ixeten da garixumie etorri bayo arintxuau, karnabalak ixeten diriñ eurretxun ixeten da eguen sori, tostadak eitteko egune. || Batzuk eitte ben domekas, beste batzuk sapatun, aboni ixete san eguen suri, baridxeu erregularra, da sapatu-domeki karnabalak. || Guk e eguen suri emen estou selebreu.

**eguesten, eguestena.** (EGUAZTEN, asteazken) Miércoles.

**egun, egune.** (EGUN) Día. || San Juan egune. || Tostada egune. || Eguneke alogera. || Andik egun bire. || Andik egun batzutara. || Egun osue ein. || Egun batetik bestera. || -Egun on! -Alan ekarri! || Egun ona ein. || Atzo egun gustidxe bota dxuau Gernikan. || Eguneke onenbeste pagaten deu jornala. || Beren antza emon bi dxako eguneru. || Tiki-taka-tiki-taka ibiltten dana da pendolie. Da pixuk eukitte ittu, sortzi egunik sortzi egunera emote dxako kuerdie, ra-ra-ra-ra, da aste bat eitte tze pixuk bajatzeko, da gero ba

domeketan e -len aittek eitte ban- gero ba domeketan pixuk altzau eitte dxakosan erlojuri, te ostabe aste gustidixen eote san. □ **egun argis.** A la luz del día. □ **egun biri baten.** Cada dos días. || Beres kostri be esta, ori jabanau eskerun, ba kendu eitten da, da ba jabanau, ta jabanau eiñ eskerun, eguniñ egunin, edo egun biri baten, ume txikidxeri be etxake eitten sabaloirik. □ **egunes.** De día. || Mosolu esta egunes ibiltten e. Esaten dabe egunes estala ikusten, da gabas. Ori esta egidxe, esakuni bada, baya nik egunes be ikusi dot e ibiltten. □ **egunetik egunera.** Cada día (más); conforme pasa el tiempo. □ **egunin-egunin.** Día a día, cada día, diariamente. || Eguniñ egunekue. || Neu pe bostardidixetan artzen dot pastillie egunien egunin. □ **egunin bayo egunin ...-au.** Cada día más. || Egunin bayo egunin polittau dau. □ **egune argittu.** Amanecer, despuntar el día. || Asi da egune argitzen. || Egune argittu deu. □ **egune ein.** Amanecer, despuntar el día. || Udan garidxe eraitte sanien, lelengotik jagi goixien egune eitte banien, da gari ebaten eitte san. □ **egunek jun de egunek etorri.** Pasan los días, con el paso de los días. Esate baterako, gaixo batek sendotzeko bidea hartzen ez badu, honela esaten da: Egunek jun de egunek etorri te beti bardin. □ **egune laburtu.** Acortar el día. || Egune laburtu deu. □ **egune lusetu.** Alargar el día. || Egune lusetu ein deu. □ **egune sabaldu.** Amanecer, despuntar el día. || Geur arin-ariñ esteu egune sabaldu. (Nekes argittu deu.) □ **egun onak emon.** Saludar, dar los buenos días.

**egunabar, egunabarra.** (EGUNABAR) Amanecer. Ik. egunsentidxe. || Egunabarrien? Bai, egunsentidxe dauniñ e, egune argitzen asitte dauniñ egunabarra.

**egunaro.** (EGUNARO, egunero-bat.) Diariamente. || Kaleru da oixe posti lako bi-iru bueltan, sera, bokie. Da areri bota biar ixate dxakon egunaro egurre ta orretarik, egurre ta geusie.

**egundo.** (EGUNDO) Nunca, jamás. || Egundo es. || Egundo estot ikusi.

**eguneroko, egunerokue.** (EGUNEROKO) Diario. || Egunerokue? Estaipa, egunero jaten dan edoser ixen lei.

**egunsari, egunsaridxe.** (EGUNSARI) Jornal. Ik. alabera, jornala. Ondoren azaltzen den bezala, gaur egun ia-ia esan daiteke berba hau galduta dagoela. || Egunsaridxe, bai, ori be ixen lei e, suk e biergiñeri emoten batzesu, "Egunsaridxe emon tze" esateko. Amen oiñ esta usetan, oin jornala esaten da. Bai, ori useta san, bai.



**egunsenti, egunsentidxe.** (EGUNSENTI) Amanecer. Ik. egunabarra.

**egur, egurre.** (EGUR) 1. Madera, leña. || Piñu egurre. || Egur atala. || Egurre ataldu. || Egur adarrak. || Egur bustidxe. || Egur esie. || Egur meyek. || Egur kargie. || Egur saltzailie. || Suterako egurre. || Altza da egur bastue, estau balidxo materidxalerako. || Egurre txikitzen dau. || Egurras eiñeko subidxe. || Sitzek egurre jaten deu. || Iketza eitteko, egurrek pillau-pillau eitte ittues. || Altza da arbola bat, beres etorten dana jeneralin, da egur fiñeku be esta ixeten. || Piñuas eitten dabe egur asko suterako be. || Egur eitteko saldu dabe baso satidxe. || Burkada egurre ekarri deu. || Satzak estau balidxo ixeten e sererako..., ser esangot neuk? Satzak estau balidxo egurrerako bayo. Da arbola aundidxe esta asten, espabese ba txikidxe ixeten da. Emen beintzat estire eundidxek asten. 2. Tronco, madero. || Sartze dxakosan atziñ egur bi da aurrin beste egur bi, ta egurreri alkar jo eraitte dxaken da leku eukitte ban barruen lo eitteko. Da manti edo seoser ipiñi, aspiarridxe-edo, da ba antxe eitte ben lo ikesgiñek. 3. Jaleo, disputa, paliza. Ik. garrotie. || Egurre egon da. □ **egur batzie.** Recogida de leña. □ **egur berdie.** Madera fresca, sin secar. || Oiñ esta usetan ori be. Len eitte san, egur berdie ixen bi deu, egur berdikin, da lodidxek estiriñakin bigurtu eitte san, da bigurre esate dxakon areri. □ **egur besadie.**

Brizada, carga de leña. □ **egur bridxela.** Brizna de madera. || Egur bridxel bat, bardin. Begidxen sartzen badxatzu, igul seoser, olako sarameridxe esateu: "Dios, egur brintzie sartu dxatek!". || Egur bridxela? Egur sati txiki bet. || Bai, egur bridxela ta astillie, kontixu, alkarren antzeku tire. □ **egur brintzie.** Rajadura, brizna, punta de leña. || Ño, egur brintzie sartu dxatek eta au dok miñe! || Dios, egur brintzie sartu dxatek! □

**egur ebatzailie.** Cortador de madera. □ **egur iketza.** Carbón vegetal. || Egur iketza geuk eitte gendun len. Egurretik eitten da. □ **egur metie.** Montón de leña. □ **egur montoye.** Pila de madera. || Egur montoye be bai, pillun deuna. || Egur montoi eta egur munteidxe ba diferenti taus. Munteidxe txondorrari esate dxako, txondorragas eitten dan e... su emoteko ta ipintten dana munteidxe san. Da egur pillu da..., egur montue da bata, ta egur munteidxe bestie. Egur montu da pillu baten eittosu pillu aundidxe... da egur pillue eitten da. Da besti munteidxe. Munteidxe ondo ipinttako orreri.

□ **egur munteidxe.** Montón de leña para hacer carbón. || Egur munteidxe txondorra eitteko. || Iketza eitteko egur munteidxe. □ **egur otza.** Ruido o estruendo que se produce, por ejemplo, cuando se derriba un árbol. || Sokias lotu alderdi bistatik

trontziri, da (Airoko pague) arrañe sa les, trontzie, da jan ein tzen asko, da sokakin batetik amar lagun igul, da bestetik beste ainbeste, da ondias ebei san, keye daridxola trontzian. Da gero eun lagun ingeru sokakin tireka. Aixen san, bai, astokeridxa! A egur otza! A ixen san! Geur ixen balitz, Diputasiñoi jaubetuko san. □ **egurretan.** Recogiendo leña, a por leña. || Egurretan ibilli. || Egurretan jun de. || Egurretan jun da suterako. □ **egur saltzailie.** Vendedor, -a de madera. || Emen olan egur saltzailarik-eta ainbeste estau, origaittik emen, ba arbolu daun modun saltzen da, edo ba egurre be saldu lei. □ **egur sartie.** Palo fino. || Bardi da egur sartie, egur meye, punti-edo lodidxe barik egur adarra-edo olanik meye dekona asko, egur sartie, egur sartie esateko dxako. □ **egur seye.** Leña menuda. || Mukurre ba sueri album ipintteko-ta, besueri, aintxiñe besue eitte san, dana bekue, da ba mukurrek, mukurrek sartun. Mukurrek albutan ipiñi te gero egur seye erdidxen ipiñitte su eitteko. □ **egur tokidxe.** Leñera.

□ **egur trokue.** Pedazo pequeño y grueso de madera. || Egur troku be, biribille. Egur troku, esate baterako, labur edo biribille bada, egur troku da. Da trongu, trongu eundidxe, bardin da, aundidxe be. Troku, txikidxe, ori biribille bada ademas, troku. Boli be igul esate tze, baya egur boli edo egur troku. □ **egur tronbille.** Trozo basto de madera. || Tronbille egurreri esate dxako, egur tronbille. Egur sati bet, egur troko ba ta. || Egur tronbille? Lodidxe danari-edo, egur tronbille. || Egur tronbille ixeten da egur klase txarrekue. Egur tronbille bakarrik ixeten da iketz eitteko, da suterako, beste esetako estau balidxo ixeten. || Egur tronbille? Bueno, au tronbille bayo meyaue da. Mukurreri esate dxako egur tronbille. □ **egur txaridxie.** Punta de leña. || Igul basuk espaldi badeko, sartze sin taketak, da aren taketara botate siñ egur txaridxak. Txaridxie, a, egur metxue da txaridxie. Txaridxie esate dxakon areri, a esetako balidxo estan... Bueno su eitteko, su ixotzeko ta olakoxe.

**egurdun, egurdune.** (EGURDUN) Vendedor, -a de madera. || Len egurre, esate baterako, erri txikidxetan-da, esate baterako, Elantxoben, da Lekitton bertan be, aintxiñe an be egurre baserritik, Mendexatik-eta, basutatik-edo ekarte san, da "Egurdune etor da" an be esate san, beidxekin burdidxen ekarte ben.

**egureldi, egureldixe, ebeldixe, egueldixe.** (EGURALDI) Tiempo atmosférico. Gehienbat denporie esaten da. || Eguraldi txarra. || Egureldi illune dau. || Ebeldi ona dau. || Euskidxe, da euridxe, martiko egueldixe. || Trumonadie eitteko antzeko egueldixe dau. || Egualdidxe jaso deu. || Atzokun damurik estekar egualdidxek. || Egualdi aldakorra?

*Ba ixte lei ona, ixte lei txarra be.* □ **egualdi umela.**

Tiempo húmedo, lluvioso. || *Egualdi umela da, untxe gaur daune laku be umela da, garu eitten dau te. Da bustidxe, euridxe-ta eitten dabenin, ba euridxe, "Dios, bustidxe!". Baya umela da... Lañuk e, sarrasoi pe umedadi botaten deu. Umela.*

**egurgintze, egurgintzie.** (EGURGINTZA) Trabajo de cortar leña. || *Mendidxen egurgintzan dabil.*

**egurresko, egurreskue.** (EGURREZKO) De madera. Ik. *oleskue.* || *Egurresko kollarie.* || *Egurresko asti deko.* || *Aidxotza da, esate baterako, serriñ antzekue, olantxik, deko beren formie, ta barrutik ague deko, da gero kirtena ipintte dxako egurreskue.* || *Len erremadak, danak egurreskuk ixete sin. Es, alanbraskorik es euen de.*

**egurtze, egurtzie.** (EGURTZA) Gran cantidad de madera. || *Egurtzi dxak itzela or!* || *Egurtze aundidxe dau or!*

**ei.** (EI, omen) Según parece, al parecer, por lo visto; parece (que), se dice (que). || *Koba bat? Bai, ei dau, neuk estot ikusi baya.*

**eidxo, idxo, eidxoten.** (EIHO, eho-bat.) 1. Moler. || *Garidxe eidxoten da.* || *Garidxe be esi egoten da. errotan eitten dana, errotaridxek estabena eidxoten, sikua dau, eidxoteko bayo sikua dau, urune eitten estabena.* || *Len Gixeburuatik, errotatik, idi askogas ibiltte san gixon bat, da erute ban granue, eidxoteko, ta urrengo eguenien etorte san, da ekarte ban urune, einde.* || *Artu eidxoteko arridxe da are arridxe.* 2. Quedar(se) extenuado, -a. Ik. *uketu, jota egon.* || *Eidxota dau.* || *Eidxota: personie mankauten danin.*

**eikera, eikerie.** (EGIKERA) 1. Acto, hecho, acción. || *Gantzaridxe botaten da..., txalas batera batzuk igul botako dabe, txal eikera txarrak-eta eukitte itueniñ e, da a arin sartzen espada, beidxe ill eitten da.* || *Txal eikera ona espadeko, txal eikera gogorra edo txal aundidxe ein dabelako, bi dan bayo aundidxau ein dabelako, askotan ba ori gantzaridxe bota eitten dabe, da sartu ein bihar ixate dxake, jenti batu te ainbat ariñen, ostantzin beidxe ill eitten da.* 2. Modo de actuar, práctica, procedimiento. || *Oiñ age untzak esango tze oin be age eundidxei, baya danak igulek, untzak, esan guna eikeri igulaku, da len es. Len age untzi ixete san errementaridxek eindako age untzak. Oin dana biribile eitten dabe.* || *Orrek deko berba eikerie!* □ **eikeran.** Al hacer, cuando lo hace. || *Beidxek, txala eikeran, ur sorrue eitten deu lelengo, txala bayo ariñau.* || *Asumela eikeran ba, ondo ein biosu, asumela erres altzetako ondo ein biosu.*

**eikune, eikunie.** (EGIKUNE) Modo de obrar; estilo, modo. || *Ori da berba eikunie!*

**ein, eitten.** (EGIN) 1. Hacer. || *Eitten sabis.* || *Esteste onik ein.* || *Bai, len etziñ eitte gendun ogidxe ta oiñ erosi eitten du, oiñ etziñ estu eitten.* || *Ak asmue au*

*eitteko euki dxok, baya etxok ein.* 2. Parir. Hau animaliekin erabiltzen da; lagunekin, ostera, *ixen.* || *Orrek beidxek ya esteu eitten txalik.* 3. Pasar (un tiempo). || *Ba uretan denpora askotan be etzan eoten. Bai, iru-lau egun eitte sittusen.* || *Txofer ibili nitzen ni an ordun, baya leलगotan istrusiño ikesi bi ixte naben, soldue les bardin. Ille bi ein nittun, infanterian bertan. Da gero orduen destiñeu nenduen txofer.* 4. Crecer, hacer(se) mayor. || *Sakristau txikidxek ote sirin bi, geure mutille pe ixen siriñ eskolatik urten arteko gustidxen da bi ixete sirin sakristau txikidxe, da sakristau aundidxe ote san beste bat, eingue, eiñikue.* 5. Ocurre, sufrir, padecer, afligir (acompañado del caso dativo). || *Euki ban suerte txarra askenian arek. Alabi be geixotik euki ban, estakitt askanin ser ein dxakon alabiri. Beste alaba ba be bai. Da suerte txarra asko euki ban gixajuk.* 6. Utilizado como intensivo del verbo precedente o para marcar su carácter focal. || *Ur ollu aundidxe ixeten da. Ba emen ikusi be esta eitten onetan eingerutan bes.* 7. Hacer(se), convertir(se). || *Baya garatxu eundidxe esta eitten e! Arbola eundidxe esta au. Arboli parik, sepak.*

*Sepa di orrek garatxuk.* □ **ein barridxe.** Recién hecho. || *Ein barri dau basue.* □ **eiñ ariñe.** Poco hecho (en comidas). || *Ondo ein barik dasenin, ba eiñ ariñe (esaten da).* □ **ein por ein.** Hacer por hacer, sin fuste. || *Ein por ein: olako bier bat, ba sustantzidxe barik eitten dana-edo: "Ein por eiñ einde dau".* || *Asumela eikeran ba, ondo ein biosu, asumela erres altzetako ondo ein biosu. Da asumela, ba selan esango tzu pa?, ein por ein, "Asumela, ondo ein biosu gero!".* □ **ein por eiñekue.** Hecho, -a sin fuste. || *Paputze da einde bai baya alimentu gitxias eiñekue. Paputze da olanik e ein por eiñekue.*

**ein, eiñe.** (EGIN) Lo hecho. || *Orrek esteko eiñen damurik.* || *Ondo einde daunin bierra, noberan gustora einde daunin: "Eiñen damurik estau".*

**einbet.** (HAINBAT) Cuanto más. || *Etorri einbet ariñen!* || *Ekarri einbet ariñen!* || *Einbet geidxen ekarri!* || *Einbet ariñen akabo gure dot.* || *Beittu, oiñ nik esiñ esan neixu senbagarren eguniñ eitten dan be. Guk len e umie jaidxo eskeruen, orren eguniñ esin basan, egune bautixetan, urrengo eguniñ einbat ariñen erute san, baya oiñ olanik estabe eitten.*

**eingeru, eingerue, ingerue, ingurue.** (INGURU) 1. Entorno, alrededor, cercanía. || *Eingerutik pasa nas.* || *Igul emen ibilli sara bille, seoser topetan, da "Emen ingerutan etxauk".* || *Amen eingerun.* || *Emen eingeruon.* || *Sure eingerun ibili nas.* || *Aren etziñ eingerun ibili nas.* || *Ur ollu aundidxe ixeten da. Ba emen ikusi be esta eitten onetan eingerutan bes.* 2. Alrededores, tierra, lugar. || *Eingeruk garbi das.* 3. Más o menos, aproximadamente, cerca de. || *Beste anaidxie be oin dala iru illebeta eingeru il san.* || *Da gero ordu*

*erdi eingerun-edo irakitten eingo deu da gero kanpora atara. || Negun gerri-gerridxen oiñ eskas (martidxen), baya negun gerri-gerridxen e gabonak eingerun, eurten esteu eiñ ain negu txarra origeittik baya. || Beste anaidxe be oin dala iru illebeta ingeru il san. || Asalera estittuten dana san junak eingerun, gerotxuau, san josik eingerun e ori, trongora estitzen dana. Da bestie ba san junak eingerun estitzen da, da bestie san josik eingerun. || Ak eun de berrogetamar ardi eingeru bai ekuasen. || Errenta egune? Domu santu eguner. Errenti len, errenti pageta ei xan domu santu egunin, edo sortzi egun aurrerau edo sortzi atzerau, antxe eingerun.*

**eingeruko, eingerukue.** (INGURUKO) Del entorno. || *Neure eingerukue da.*

**eingerutu.** (INGURUTU, inguratu-bat.) Rodear, cercar. Ik. *batu.* || *Eingerutute daus*

**eiñal, eiñala.** (EGINAHAL) (Lo) posible, empeño, esfuerzo; intento, ensayo. □ **eiñalin.** Mucho, todo lo posible, con todas la fuerzas. || *Biarrin gogor dabillenin, ba: eiñalin. || Eiñalin gabis. □ eiñalak ein.* Hacer los posibles. || *Eiñalak einde be, biarra eurrera esta ataraten. || Eiñalak ein bi dabe, bierra eurrera atarateko.*

**eittada, eittadie.** (EGITADA) Acto, proeza. || *Eittadi da eindako geusa batena, eittadie. Osea, geusa bat ein deu, geusa bat ein deu, geusa ser bat ein deu, esta? "Orrek ein deu eittada ederra!". Eginkixun on bateri esate dxako. || Arek ein deu eittadi!*

**eittaldi, eittaldixe.** (EGITALDI) Acto, actividad, ensayo, acometida. Ik. *ekittaldixe.* || *Sorriketan eitten, arek esterka ein, da sorriketan eitten dabe, da eutze artzen dabe, eutze artzen ibiltten dire. Da gero eitten dabeniñ eittaldi bat, altzau eitten dire, ta arek serak danak botate ittue eutzek, ba sorridxek kentzeko eitten dabe ori animalidxek. □ bier eittaldixe.* Bier *ekittaldixe* gehiago esaten da. || *Bier eittaldixe: bier asko eitti-edo, "Eittaldixe ein, de kantzaute itxi ein deu". || Bier eittaldi ederra ein dxuat.*

**eje, ejie.** Eje. Inoiz *ejie* entzun arren, gehien korritzen duen berba *ardatza* da. Ik. *ardatza.* || *Egurresko ejie.*

**ekandu, ekantzen.** (EKANDU) Hacerse a, aclimatarse. Ik. *bertakotu, bertokotu.* || *Ori esta ekandu an, kanbidxeu ein da beste erri batera ta. || Bertan eurrera badoye, bixi ixeten: ba ekandu (esaten da). || Ekanduko do pa, an urtiek eitten espatu, ba esta ekantzen. || Ekanduko dok Merika-Etxebarrin. || Or ekandu da ori be obra eitten. || Ekandute dau. || Ekandu da erridxen. || Ganaduk botaten sus oin ba larrara, sekule ata bakuk, da arek dabis batera ta bestera, ta len ibilttaku "Eske, ekandute dxak ori lendik". || Ekandute dxak ori, len useute dxak ori. || Ekandu barik dxak.*

**1 ekarri, ekarten.** (EKARRI) Traer. || *Ekarrixu goittik! || Euridxe en jeneral ortik ekarten dau Atlantiko seretik ekarten dau. || Trumonadie dakar. || Sergure ekarten dabe. || Panaderue da ogidxe ekarten dabena. || -Egun on! -Alan ekarri! || Antiojuk ekarriko tes.*

**2 ekarri, ekarridxe.** (EKARRI) Facundia, facilidad de palabra. Ik. *etorridxe.* || *Ekarri ona deko. || Ekarridxe deko.*

**1 ekin, ekitten.** (EKIN) **1.** Acometer, ponerse (a hacer algo), abordar (un tema), dedicarse, continuar, insistir. || *Ekin biarrari! || Ekin da eiñ eitten da. || Paixie? Paixi bai, gantxukiñ eitten da baya oiñ estakitt gantxillukiñ eitten bada be. Bai, nire denporan bai, ekitte san. || Temosu? Temosu ba ekin de ekiñ axe beti berena, temosue. □ Berri-emaile bati galderak egiten luzaro egon ostean, nekaturik bazegoen galdetu nion eta honela erantzun zidan: || (Kantzaute saus?) Es, ekin, gure bosu. **2.** Decir, murmurar, hablar. Ik. *txarto esan. || Ori beti dau bestigaittik ekitten! || Marmarrien ekitte tzo beti. || Beti txaliññ ekin barik! || Barriketari eki tzek. || Erretolika baten ekitte tzo! || Sen barik berbetan ekitte tzo. || Txor-txor ekitte tzo. || Matrakeru da, beti ekitte tzo ta! || Txutxumutxu eki tze. || "Berba utze da": berbaldune danari, berba ta berba ekitte tzonari. || Oiñ e kartzeli, estai senbat urteko kartzeli emo tzen. Da daus karselan oin. Txarto dausela, geur goixiñ eki tze esaten famelidxe be txarto, da eurek txarto dausela.**

**2 ekin, ekiñe.** (EKIN) **1.** Actividad, acción. **2.** Charla, murmuración. □ **ekiñien.** **1.** Trabajando. || *Orrek boutzo ekiñien. **2.** Hablando, charlando. || Orrek boutzo ekiñien. (Ese está sin parar de hablar). || Maramara? Berbetan ekiñien dabixenari esate dxako maramara. "Mararama dabil". **3.** Criticando, murmurando. || Oin be ekiñien dabil. || Esanaldixe be, asarratzen danin, esate baterako, nire aista bat asarratzen badabil, ekiñien ekitten batzo, "Erreso barik esanaldixe ein deu" te. || Frakerrie? Bai, aintzat estaun personigeittik. Beti ekiñien dabillena.*

**ekittaldi, ekittaldixe.** (EKITALDI) Acometida, arremetida; fase de trabajo. || *Ekittaldixe: igul atxurren solun, nei basun be bardin. Biarra eitten bosu satitxue: "Ekittaldixe ein dot." || Ekittaldixe: biarrin dabillena-edo. || Da sartu sakun, lotu puntie, da masuas, -masu bakixu ser dan- ekittaldi bet alde batei, ein pun! buelta sakuri, ostabe beste alderdittik, gero etara ba al dana, da garau gitxi geratze dxakon. || A selako ekittaldixe ein doten! □ bier ekittaldixe.* Acometida de trabajo. || *Bier ekittaldixe egin deu. || Bier ekittaldi ederra ein dxuat. □ ekittaldixe euki.* Tener para rato. || *Orrek libruiek ekittaldixe deko!*

**ekittun, ekittune.** (EKITUN) 1. Criticón, murmurador. || *Ekittune da, beti bestiegaittik deutzo.* 2. Hablador, cargante. Ik. *berbaldune.*

**ekonomikie.** (EKONOMIKA) Cocina económica. || *Beko sue esate dxakon orri, gero txapie, ekonomikie ipiñi san, ekonomikie esate dxakon len.*

**eko, ekue.** Eco. || *Ekue eitte dxok orrek mendidxek.*

**elada, eladie.** Hielo, helada. Berriemaile bati baino ez nion batu berba hau. Beste kasu guztietan *leidxe* esan didate. || *Eladi badau an. Bakixu ser dan eladie. Suri-suri daunien. Elada suridxe edo elada baltza edo bakixu selaku daus e. Arek askotan e ela baltza badau, kamiñutan bakixu selan oten dan. A bardin-bardin.* || *Antzierra da ori, eladie, baltza.*

**elbistu, elbistuten.** (ELBIZTU) Brotar, germinar. || *Esate baterako, babi erneten badau: "Ya elbistute dau", erneten daun geusie. Iderra be bardin, elbistute, ya ernamiñe emonda. Emen ori berbi bayo geidxau esaten da "Ernamiñe emonda dau".* □ Hona hemen zelan bereizten diren *elbistu* eta *ernamine emon*: || *An puntetxu urteten daunien, elbistuten asitte dau. Ori da ba idxe ilde egon da gero bistu. El-bistu. An lurren barrutik... Patati be alan lurre eskatute puntetxuk urteten deu. Baya ernamiñe da diferentie. Orre pe geusa bi dire. Ernamiñe esate dxako patati, garauneri urtete tze ba eureri, erein bi danerako ernamiñik espouko nekesau erneten da. || Ba ori 'elbistu' esta ori bat e. Se elbistu da ya lurreti kanpora daun geusie. Da ori bestia, ernamiñe da bera be eitten deuna. Patatik ganera atara barik eukitten bosu lusero, bertan eitte ittus dana "Ernamiñe emon" esaten da. Dana arantza txarrak gero barrun. Garaun eundidxe emon biarrin, da bertati txupau. "Ernamiñe emonda dau patati"-te esaten da.*

**elbitz, elbitze.** (ELBITZ) Heno natural que se produce sin haber sembrado. Frai Bartolomek honela dakar bere *Idazlan Guztiak* liburuan (1.239. orr.): “*Azalac azurrai oratuta euqueezan ta eurac bere sicutata euqueezan, elbitza leguez*”. || *Mendidxen an bedarra ikuste osu, mendidxen bedarra-ta, areri esaten dxako, kodañas ebaten dana, bedarra len beidxentzako ebate san. Oin gitxi useten da, baya areri esate dxakon elbitze. Ganaduri aspigarridxe-ta botateko elbitze ebate san len. Kodañas ebate san, da ekarte san burdidxas etzera, ta ganadunizako elbitze, aspigarri eitteko. || A txikidxe barik, elbitze naiku aundi asten da, da puntan asi pilluk eukitte ittu. Ganaduk e, beidxek-eta gose diriñi, a idiñ arteko bedarra, ondo siketute badau, esate baterako euririk artu barik, eta olan santartu barik badau, jan eitten dabe a bedarra. || Bueno, amen solutan etorten dan bedarrari guk esteutzegu esaten elbitzik. "Solun daun bedarra", edo "Solun badator bedarra", edo "Soloko bedarra". Areri elbitzik esteutzeu esaten. Orrixerri mendiko idiñ artekuri. || Elbitze da bedarra ta nastie, bedarra ta idie ta nastie. || Elbitze*

*ebaten gatx-ok.* □ Hona hemen zelan bereizten diren *mando bedarra* eta *elbitze*: || *Mando bedarra da olako eundidxe eitten dana. Da elbitze da txikidxe. Mando bedarra asko dau ontan. Bedar satarra da ori mando bedarra. Da elbitze da sarratu urteten deun ori bedar e, bedar meye. Ta mando bedarra da... lodidxe planteten da. Jan be ganaduk estabe eitten. Elbitze be esta ain gosu, baya mando bedarra bayo gosau.*

**1 eldu, eltzen.** (HELDU) 1. Llegar, arribar. 2. Madurar. || *Frutie eldu.* || *Kastañak asi dire eltzen.* || *Sagarra eltzen doye.* || *Eldu barik dau.* || *Garagarrillin frutie eltzen da, goix frutak eltzen dire, a madari txikitxuk-edo, olako fruta batzuk.* || *Eitten espadxako eser, garidxeri ludoï etorte dxako, baltzittu eitten da. Gari burue eldukeran, baltzittu eitten da.* 3. Agarrar, asir. *Oratu nahiz eldu* esaten da. Zerria hil behar denean, bada, bietara entzun daiteke: *Txarrixeri eldu bi dxako edo Oratu ankatik!* || *Elduidxok sur mintzetik!* || *Elduidxok sur mintzetatik!* || *Kakutu da ori, urkule... olan egur batek, berak eukitten deu ona susen, auxe eukittie, betik eldute. Sagarrari e adarra bejatzeko be, aras eldu, da txal!* *tirete tzeu bera, kakutu guk arixerri.* □ **eldueras.** Al madurarse. || *Angis sagarra gosue da. Gero eldueras eitte san grixtu.*

**2 eldu, eldue.** (HELDU) Maduro. || *Gixon eldue.*

**elegante, elegantie.** (ELEGANTE) Elegante. Ik. *dotorie.* || *Aseri batek elegantie eukon piela.* || *Elegante doye.* || *Elegantie espada be, beti jaso.* || *Mosolo txikidxe da txatxartxue, bai, arek estau satarik eitten. Kolori igula. Ba txatxarra e! Olako txori txikidxe, asko aundidxau estana. One beste mosoluk aundidxe dire, aundidxek, lumie eleganti. Arpeidxe, personiñ arpeidxe laku, begidxek itzela begidxek alaka buruas. Elegantiau! || Elegantiau da.*

**elegantekeridxe.** (ELEGANTEKERIA) 1. Muestra de elegancia o lujo. || *Orre dire lujutat bakarrik, elegantekeridxe.* 2. Chulería. Sin. *txulokeridxe.* || *Elegantekeridxetan dxabik.*

**eleji, elejidxe.** (ELEJI) Elección; dónde elegir, serie de posibilidades, abanico. Ik. *komenentzidxe.* □ **elejidxan.** A elección, a escoger; en abundancia. || *Elejidxan: lelengo sera, ollo saldie. Lapiko aundi bat egote san, axe einde. Da gero ganetik e gixau, gixaue. Ene! Baya gixau bi dan moduku gero! Aintxiñeko ganadu.*

**elgorri, elgorridxe.** (ELGORRI) Sarampión. || *Elgorridxe euki dot iños. Txikitten euki naben nik. Dana egoten da pikeute-pikeute gorputz gustidxen.* || *Elgorridxe be antzeku da, ori personari urtete tzena da, da asto naparreidxen antzeku da. Asto naparreidxe bayo ba gogorrau ixeten da elgorridxe, personari urtete tzena. Asto naparreidxe pa egun bat edo bi geldirik egon eskerun, ba pasetan, naiku arin pasetan da.*

**eliskixun, eliskixune.** (ELIZKIZUN) Funeral. || *Eliskixune edo funerala.* || *Eliskixune mesie da, nai e batabat iltten daniñ e ondrako mesi esateko.*

**elispe, elispe.** (ELIZPE) Pórtico, soportal de la iglesia. || *Elispe guk esate tzagu elixien aspidxeri.* || *Ama geratze san elispien, elixen barrun sartu barik.*

**elistar, elistarra.** (ELIZTAR) Devoto, -a, religioso, -a. Elizara egunero joaten direnei buruz esaten da. || *Elistarra da ori gixona!* || *Elistarrak dire.*

**elistxori, elistxoridxe.** (ELIZTXORI) Pájaro parecido a la golondrina, pero de menor tamaño, que anida en las torres de las iglesias. || *Elistxoridxe dire elixan abidxak eitten ittusanak.* || *Elistxoridxe txori txikidxe da, saataka ibiltten diñak, txit eta txit eta txit ibiltten diriñak, da orrek kanpun, Bilbon-da an parkin-de makiñe bat olako ibiltten da.* || *Elistxoridxe nik estaitt sertzuk dixen, baya elixien bueltan eitte itue abidxak.* *Orrek txori txikitxuk ixengo dire, txantxagorridxen antzekuk.* || *Da onek bestik ibiltten dire elixara bueltatan, kanpotorrera. Elixo txoridxe esate tzeu guk, elixin bueltan ibiltten dire orrek, kanpotorretan, da ortan.* □ *Hona hemen zelan bereizten diren enerie eta elistxoridxe:* || *Elistxoridxe tire..., emen enerak beste klase bat dau. Enerak eta elistxoridxe dire igulak kontixu. Bat estire. Elistxoridxe dire egu meye, lusiau deke, da kolore igul-igula, da bri-bri-bri-bri!* *Ibiltten dire elistxoridxe. Da onek enerak onetan etzetan, amen be badau abidxi einde, kunak ataraten dau, da one tire enerak. Da bestik elixan bueltan ibiltten di bakarrik, arek esti etorten baserridxetara ta ontara esti ibiltten, beti elixan bueltan.* || *Elistxoridxe da... Eneri bakixu ser dan? Amen etzitan eitten dabe abidxie. Eneri laku da elistxoridxe. Egu meyauk eukitte ittu, ta lusiau. Da bestela tipu igula. Elixo ondutan ibiltten dire. Orre pe enera lantxik etorri tte jun eitten dire. Igul-igul igul elistxoridxe.*

**elixako, elixakue.** (ELIZAKO) 1. Últimos sacramentos. || *Elixakuk emon.* 2. Oficio religioso, funeral. Ik. *okasiñoie.* || *Emen okasiñoie esate dxako persona bat ilte danin, de elixaku eitten danin: okasiñoie.* □ **elixaku ein.** Hacer el funeral. || *Gorpu altzau: iltten danin personie, ba kanpasantun sartu, de kanpasanture eruten dabe. Emen lelengo elixara eruten da, elixaku eitte dxako, da gero kanpasanture erun, da gero sulun sartzen da.*

**elixalde, elixaldie, elixaldie.** (ELIZALDE) 1. Contorno de la iglesia. || *Elixaldie elixi daun bueltie da.* 2. Barrio que forma el núcleo de Nabarniz. || *Atarren, a Elexaldetik beratxuau, kanposantun ondun daun etzie.* || *An Elixaldien ote san. Oiñ estau, baya len ote san Elixaldin. Da errementaridxe estaitt badakixun nun bixi dan. Antxe etziñ ote san (eunteidxe).*

**elixaldetar, elixaldetarra.** (ELIZALDE) Natural del barrio de Elizalde.

**elixartze, elixartzie.** (ELIZ SARTZE) Presentación en la iglesia del recién nacido. || *Ama geratze san elispien, elixen barrun sartu barik, etorte san abadie estoriegas da dana dalakoas, da, ba, berak emote tzon bedeinkasiñoi, edo eitte ittusen orasiño batzuk, ta gero sartze ban elixara andrie, andrie da umie.* || *Elixartzie oiñ esta eitten, baya aintxiñe bai. Umie jaidxoten sanien, elixartzie ein biar ixate ban andrik, umie artunde, apur bet paru deidxenin.*

**elixatiko, elixatikue.** (ELIZATIKO) Persona que frecuenta mucho la iglesia.

**elixe, elixie.** (ELIZA) Iglesia. || *Elix kantuk.* || *Elixara goyes.* || *Nabarnisko elixie da aintziñekue.* || *Elixera sartu san olgetan.* || *Elixeko bierrak.* || *Geur elixi bete-beterik egon da.* □ **elis deidxe.** Amonestación matrimonial. || *Iru domeketan botaten dittue elis deidxe.* □ **elixan sartzie.** Se dice de la primera vez que acude la mujer a la iglesia tras tener un crío. Ik. *elixartzie.* || *Umi artu te jute san elixara: elixan sartzie. Ama esin jun ixete san elixara barrure, abadik urtete ban kanpoko atitara, ur bedeinkatontzidxen ondora, da abadik estoli ipintte tzon olanik sorbaldan-edo, da andrie sartze san barrure abadias batera.* □ **elixas.** Enmarcado para asuntos religiosos a determinado municipio, aunque administrativamente pertenezca a otro. Ik. *ayuntamentus, erris.* || *Bueno, baya Goikolea erris Nabarris da, da elixas Ereño.* || *Batzuk e elixas Nabarriskue, da ayuntamentus estakit nonguek. Neu pe estai selan diñ orrek.* □ **elixetik eskondu.** Casarse por la iglesia.

**elorri, elorridxe.** (ELORRI) Espino. || *Emen elorri suririk estot ikusi sekule be. Elorridxe jeneral emen bai, baltza be gitxiau, edo asko egongo da, baya jeneral emengo elorridxe a, berak asten dabeniñ a frututxue, gorridxe asten da.* || *Da olanik ikusten dana, garaun balssuk, baya esta kasi ikusi be eitten onetan ori elorri baltza be. Da ba elorri baltza da, edo elorridxe esaten da. Da ba elorridxe ba beres gorridxe, guk elorridxe esautzen duna gorridxe ixeten da.* || *No, elorridxe garautu da!* || *Elorri garaunek gorridxe ixeten dire.* || *Guk esate tzeu orreri sasi okana, baya sasi okana da sasidxe barik, arek dire elorridxe, modukuk, arantzadunek are pe.* □ **elorri baltza.** Endrino (*Prunus spinosa*) || *Elorridxe eusen klase bi. Elorri baltza eun bata, da besti eun makillak-eta eitteko. Baya onek akulu-eta eitteko, elorri baltza. Oin be ikusten di basun.* || *Da a ganadu tireka eukitte tzona ixete san lakue. Batzuk burdiñasku usete ben, baya egurreku en jeneral guk. Au elorridxe, elorri baltza, a es san apurtzen.*

**eltxu, eltxue.** (ELTXU, eltxo-bat.) Mosquito. Ik. *moskittue.* || *Eltxuk illuntzetan batzen dire, arek*

geldiro ibiltten dire. || Eltxu da euli kunie. || Eltxu danak piketan dabe. ☐ Hona hemen moskittue eta eltxue arteko desberdintasunak: || Moskittue da eltxu diferente die. Eltxu da... esteu pikerik eitten. Da moskittuk sastasu itzelak eitte ittu. Bi die orrek. || Eltxu dana igul ibiltten da, ainbeste eltxu, begidxetara eta dana, baya orrek pikerik estabe eitten. Da moskittu pai. Sastasu eitten dabe. ☐ **eltxu les ibilli.** Trabajar, moverse sin fuste. || Kaguen, or eltxu les ibilli barik, eik sirti-sarta! || A be dabil eltxu les.

**emakume, emakumie.** (EMAKUME) Mujer. Emakumie baino gehiago enbrie esaten da.

**emakumesale, emakumesalie.** (EMAKUMEZALE) Mujerigo. Ik. enbrasalie.

**eme, emie.** (EME) Hembra. || Arra nai emie. || Udebarridxen txori-parejie junteten da, arra da emie, da gero bidxe arte, abidxe, kunak asteko. || Urrixie: animalidxe danari, emi diriñak, danak e, ipintte dxake urrxi ixena, edo "Urrixi da", edo urrixak. ☐ **emiri bota.** Cruzar, poner a aparear. || Enteruek: emiri botateko, kunak sertzeko.

**emen.** (HEMEN) Aquí. || Ementxe. || Ementxe berton. || Emen eingeruon. || Emen dator Jose. || Etorri apurtxu baten! Alberto emen da. || Emen gas gu, euskidxe artzen bide bates. ☐ **emen berton.** Aquí mismo. || Emen txondorra eitten etxak gatx. Emen berton dxak dana ta. ☐ **emen bueltan.** En estos alrededores. || Koba aundidxe da bai (Ondarokue), Nabarrixen kobarik aundidxena. Ta emen be, ori Lesikeku-ori ixen esik aundidxena emen bueltan be. ☐

**emendik.** Por aquí, desde aquí. || Emendik ordu betera. || Emendik bost pausure dau. || Emendik orra. || Emendik ara kilometro erdi badau-ero mendire, jutaldidxe! ☐ **emendixik, emenditxik.** Por aquí mismo, desde aquí mismo. || Emendixik eta Uerkararte. || Masandei baserridxe da, emendixi be bistan dau. || Palu luse bat ia ekarten bosu emenditxik erroa esegirik ipintteko. ☐ **emengo, emengue.** De aquí. || Seberinak bakidxen emengo martxi ta. ☐

**emengoxie.** De aquí mismo. || Jatorris emengoxi da. || Mendiarrak esate tzenak, orrek e garidxe eta dana artze ben emengoxi lantxik. ☐ **emetik.** Por aquí, desde aquí. || Emetik Gernikara ordu t'erdia daus. || Batak eitten deu emetik eta bestik eitten deu andik, da tiretu da ebei eitten da. ☐ **emetik eurrera.** A partir de ahora. Ik. oindittik.

**emendau.** (EMENDAU, emendatu-bat.) Satisfacer las necesidades del momento, remediar carencias. Andere Goirienaren arabera, emendau gehiago esaten da emendixeu baino. || Emendetie: noberak esteko geusa

bat, da ba eusokuri, edo nonori eskatu, da arek emoten tzu, te esan: "Tire ba, emendau ein neu, diru emoste ta".

**emendixeu.** (EMENDIAU, emendiatu-bat.) Satisfacer las necesidades del momento, remediar carencias. || "Emendixeu nas": falta dan geusa bat artzie. || Egarri danin, sagar bat artzi-edo, madari bat artzi-edo, iko batzuk artzi-edo, ba "Emendixau nas, egarri ixan nas-da". || Egarri danin, sagar bat artzi-edo, madari bat artzi-edo, iko batzuk artzi-edo, ba "Emendixau nas, egarri ixan nas-da". || Sagar bat artu dot, eta egarridxe kendu ein dot.

**emendixo, emendixue.** (EMENDIO) Provecho, bien. || Emendixue esate batera, geuse bat, nai jastekue, nai jatekue: "Emendixue galanta eiste neuri arek." || Emendixu neiku eiste. || Onek eingo tze emendixue. || Emendixue: noberak estekona ba, eskatu,te emoten dabena, ba emendixue, "Emendixu eitte-ste". || Esne asko emoten dabena ba, ba "Emendixu eitten deu", te ba, "Esne askoku da". || Epertargidxe? Ori e umik-edo batu, edo olgetan eitteko edo seoser eitteko batu be eitten da, da esta eitten. Da esteu eukitten esetako emendixorik emen, onetan.

**emendikalde, emendikaldie.** (HEMENDIKO ALDE) Esta parte de aquí. || Emendikaldien egon da. || Emendikaldien ikusi dot.

**emendiko, emendikue.** (HEMENDIKO) El de este lado. || Guk euki gendun, an Argiarron, Argiarro au sarra, emendikue, andi goitti bera jun de euen metal ure.

**ementxe.** (HEMENTXE) Aquí mismo. || Ementxe berton. || Pataridxe danak estabe jaten igul. Es. Onek aseridxe odola txupeten deu emenditxik. Da ementxe agin suluk eitte ittu. Emen, gorgoille edo albotik. Ordun bakixu aseridxe ixen dana.

**emoi, emoidxe.** (EMOI, emai-bat.) 1. Caudal. || Errekan beti dau emoidxe, beti oten da ure ta. || Bai, emoi gitxiko erreki da. Euri asko eitten dabeniñ emoi askokue. 2. Pérdida de líquido. Esaterako, zaragiko arrakala edo zuloren batetik ardoa galtzen deanean, Emoidxe deko esaten da. || Emoidxe deko? Ba ori sulue badeko, konpondu eitte dxako. Oten dire... len ote sin... nik estai oiñ e badau te oin be ongo da batabat e a saragidxen sulue konpontzen dakidxena. || Emoidxe? Iturridxek e txan-txan jeusten dekonari.

**emokor, emokorra.** (EMOKOR, emankor-bat.) Productivo, -a; fértil, fructífero, -a. || Emokorra da asko emoten dabena, edo frutu asko ixaten dabena. || Asko emoten deu, emokorra da.

**emon, emoten.** (EMON, eman-bat.) 1. Dar. || Permixture emon. || Parte emon. || Gatza emon. || Mesie emon. || Iruregaittik sei mille peseta emo eustesan. || Emoteko deketas. 2. Ponerse a, empezar a. || Emon tzo arraiñen biximodue ikisteri. 3. Parecer. || Gero latza erun gendun ba dotore emotearren, ba aintxiñeko latza elegantie egon san einde. || Iguel

*dudan dau bat, eta geidxau emoten dau etorko dan kontue, estana bayo, da: "Bayesko kontue ein dxok!"*

**4.** Añadir algún ingrediente. || *Gatza emon.* || *Gastai esni eratzi, da segidxen, esnie eratzi, epel-epela eoten da, da eratzi, da emote dxako ligerra.* || *Baya ori (madari saltzie) be ba segidxen jateko ta ba, ondo eoten da, ta atan be ume kuadrilli dauniñ e umiri e ogidxen ganiñ emoteko beidxenda modun-da ondo eoten da.* **5.** Administrar sacramentos. || *Bueno, ume bat jaidxoten daniñ e, bixi ixeteko etxurerik espadeko, pentzaten badabe ba "Il ein bi deu, esteu bixi bier", ba etzeko bautismue emote dxako.* **6.** Producir (la tierra). || *Lurrek e ba labrau esik salgi emoten deu.* || *Mariapostolue badau geurin be. Da eurten estaitt emongo daben berak.* **7.** Pasar, dedicar (una cantidad de tiempo). || *Denporie emon.* □ **-ri emon.** Entregarse a, dedicarse a alguna actividad, vicio, etc. || *Edaridxeri emonda dau.* || *Negar eittiri emon tzo.* || *Txarra eittiri emon tzo.*

**emotzaille, emotzaille.** (EMOTZAILLE, emaille-bat.) Dadvoso, -a, desprendido, -a. Ik. *eskusabala, esku sabalekue.* || *Bai, esku sabaleku da, emotzailli da.* || *Ur emotzaille da ure emoten dabena. Ure partiten deu: ur emotzaille.*

**enamorau, enamoretan.** (ENAMORAU, enamoratu-bat., maitemindu) Enamorar(se). || *Ori albokuas enamorau da.* || *Enamoraute nau.* || *Neska batas enamoraute dabil.* || *Enamorau ein da.* || *Enamoretan a dabil.*

**enbarasada, enbarasadie.** Embarazada, en estado. Ik. *ernai, maletadune, umedune, estadun egon, familidxe eukiteko egon.* || *Enbarasada dau.* || *Enbarasada geldittu.* || *Enbarasada itxi dabe.* || *Arpeidxe dana mudeute deko, ta enbarasada egongo da.* || *Bueno, badau eitteko kunie, edo txakur kuni edo billotza edo soser eitteko badau, enbarasada badau, ernai dau.* □ *Gaur egun, enbarasada entzuten da sarri, baina lehen beti umedun esaten zen.* || *Bai, baya len 'enbarasada' nok esate ban ba? Emen "Umedun dxak"-eta, "Umi eitteko dxak"-eta.*

**enbasu, enbasue.** (ENBAZU, enbarazu-bat., oztopo, traba) (esp. *embazar*) Enbarazo, impedimento, dificultad. Ik. *trabie.* Lehen *enbasue* baino ez zen entzuten eta gaur egun ere *enbasue* da gehien esaten dena. *Estorbue* oraintsuagokoa da. || *Gu jaustieittik edo, ipiñi eban orrek trabes enbasue.* || *Enbasun dau ori, ta kenduixu!* || *Esate baterako, arri eundi bet etorten da bidera, da pasau esin. Da "Enbasun dxak a, ta esin leikek pasau". Da lagune be igul an estorbun edo olanik: "Alde eiñ enbasutik!"* || *An dxak a enbasun, da esin neik pasau.* || *Samarreridxe, esate baterako, esate dxako begire batzen dan enbasuri-edo, seinde betuli-edo begidxen sartzen danari-edo.* || *Amen berton tartin be ainbeste geuse dau te "Emen dxak trastitegidxe!". Dana enbasu eta orregaittik "Dana trasti dxak eta esin lei eiñ eser!".* || *Basetak, an*

*aspidxen eukitte ittunak, olan aspidxen oten diñak. Ein sulo bi, ta baseta, da eukitten dabe punti okerra, enbasurik topau esteidxen. Basetak, narrakin.* □ **enbasun.** Estorbando. || *Enbasun nora doye?* || *Enbasun egon dok.* □ **enbasu ein.** Estorbar. || *Da aregas ba sasidxe-eta joten dira, aidxotzas, da enbasu eitten daben sepa pe bai. Da garbitzeko ixaten da aidxotza.* || *Batze siriñ e lakatzak otzarara da gero eitte san pillue, enbasu eitten estaben lekun.* □ **enbasutik kendu.** Quitar(se) del medio. || *Olanik igerte dxakeniñ e "Axe ollu motela dau", ba ill eitten da, da kittu, kendu enbasutik.*

**enbasugarri, enbasugarridxe.** (ENBAZUGARRI, enbarazugarri-bat., trabagarri) Estorbo, impedimento, traba, obstáculo. || *Enbasugarridxe esate dxako edoseri, enbasu eitten daben geuseri, arboliri be igul, enbasun badau, egurreri be iguel, da olantxik enbasun daun geusiri: "Enbasugarridxe da", "Enbasugarri dau".*

**enbeleju, enbelejue, enbalejue.** (ENBELEKU) Pendejo, -a, estúpido, -a, necio, -a. Sin. *ganbelu.* || *Ori da enbeleju!* || *Enbeleju? Ori txarto eitten dabeneri edo umiri, edo olakuri.* || *Bueno, esta berba santarra be esta, da esan bier etxakena be esta. "Enbalejue" ba, esanik eitten estabena be bada.*

**enbido.** (ENBIDO) Envido (fórmula de envite en juegos de azar, especialmente en el mus).

**enbra, enbrie.** (ENBRA) Mujer. Emakumea esateko erabiltzen da, nahiz ezkondua izan nahiz ezkongai izan. *Emakumie gutxi esaten da. Jakina bada ezkondua dena, andrie esaten da eta ezkongai bada, neskie.* || *Enbra ta gixonesko.* || *Ori enbrie nora doye ba?* || *Oiñ enbra pe ikasten dabe baya len es, len bakarrrik gixoneskuk.* || *Enbra bat etorri da.* □ **enbra aixie.** Viento sur. || *Da axe epelari esate dxakon "Axe epela dau". Enbra aixie be bai, ori gixoneskuk jaki eben esaten, ja, ja, ja! "Au enbra aixi dok!" esate ben gixoneskuk.*

**enbrasale, enbrasalie.** (ENBRAZALE) Mujeriego. Ik. *emakumesalie.*

**enbrasko, enbraskue.** (ENBRAZKO) (Persona) de sexo femenino, mujer, hembra.

**enbusteridxaka.** (ENBUSTERIAKA) Haciendo carentoñas, agasajando. || *Baya personari be esa leidxue: "Enbusteridxaka dabil". Ba noberari ondo esaten batzo-edo, seinda norbera engañetan les badabill-edo, "Enbusteridxak eitten"-da.*

**enbusteridxe.** (ENBUSTERIA) Cariño, caricia, halago, agasajo. Ik. *karixidxe.* || *Enbusteridxe? Ba "Enbusteridxe eitten dabe", norberari ba ondo esaten edo olani pa dausenin, norbera paraute dauniñ e jarritte edo dana dala, ba noberan ondora (katue) etorritte, alanik e bustena altzate, norberan ondolik pasate eitten danari.* || *Enbusteridxe eitten sabis, enbusteridxe!*

**enbusteru, enbusterue.** (ENBUSTERO) 1.

Embustero, mentiroso. Ik. *gusurtidxe*. || *Bai, gusurre esaten dabena enbusteru da.* 2. Agasajador. || *Enbusterue gixonesku bada, enbusterie andrasku bada.*

**enda, endie.** (ENDA) Raza, casta (referido a los animales y plantas). Normalean, ganadu baten ezaugarri bikainak goraipatzeko erabiltzen da. || *Ori da endie!* || *Enda onekue.*

**endekatu, endekatzen.** (ENDEKATU) Debilitarse, decaer una planta. || *Endekatu: inderrik artu esiiñik daun labore bat, edo arbola bat, edo esate baterako, mendaute daun sagar bat, edo fruta bat, ba "Endakatute dau, te inderrri pe estau artzen". Endekatu ba, inderrik asrtu esin dabenari esate dxake endekatu.* || *Asi esiiñik deuna: "Endekatute dxak ori."* *Endekatute, ba, ya asi esin, de geldi. Endekatute. Landariei esate tzeu.* || *Siketzen edo orridxe eskasa-edo badeuko, ba esaten da: "Endekatzen dxoik oi." edo "Ori igertu ein bidxok."* || *Ba ori be 'endekatute' be, ya siketute dauma ixeten da, indarri pari bixirik justo-justo. Ta 'txonbotu' da iguel ei tzesu lodittu bai, baya asi es. Alaku txatxar badau, txonbotute geratu bertan.*

**endemas.** (ENDEMAS) Sobre todo; todavía más. || *Olako errekatxuk asko! Endemas euritzu bada urtie.*

**endredau, endredetan.** (ENDREDAU, endredatu-bat.) Enredar, liar, confiar. Sin. *lorrindu*. || *Endredau? Bai, geusak endredeta ituniñ e, estiren modun ipintte diriñiñ-edo, umik eitte ituen biarrak eitten diriñiñ-edo.*

**endredoso, endredosue.** (ENDREDOSO) Inquieto, enredoso, liante. || *Endredosue? Bai, umiri-tte esate dxake, geusak endredetan itunari tte eurek be endredetan diriña.*

**endredue.** (ENDREDO) Enredo, lío, molestia. Ik. *nastie*. || *Arek atara dxuan endredue!*

**ene.** (ENE) Voz que expresa asombro, sorpresa o contrariedad. || *Ene, ixerratu ederra dau!* || *Ai ene!* || *Ene, an, an doi Malen!* □ **ene bada.** Voz que señala asombro, sorpresa o pena. || *'Ene bada!', bai, esaten da, olanik miñ artzen danin, edo 'Ai ene!'-edo, jausten danin.*

**enera, enerie.** (ENARA, elai) Golondrina (*Hirundo rustica*). || *Enerak ibiltten dire emen etzegin, se emen eitten dabe abidxie.* || *Enerak emen ibilli dosak kantetan.* □ *Hona hemen zelan bereizten diren enerie eta elistxoridxe: || Elistxoridxek tire..., emen enerak beste klase bat dau. Enerak eta elistxoridxek dire igulak kontixu. Bat estire. Elistxoridxek dire egu meye, lusiau deke, da kolore igul-igula, da bri-bri-bri-bri! Ibiltten dire elistxoridxek. Da onek enerak onetan etzetan, amen be badau abidxi einde, kunak ataraten dau, da one tire enerak. Da bestik elixan bueltan ibiltten di bakarrik, arek esti etorten baserridxetara ta*

*ontara esti ibiltten, beti elixan bueltan. || Elistxoridxe da... Eneri bakixu ser dan? Amen etzitan eitten dabe abidxie. Eneri laku da elistxoridxe. Egu meyauk eukitte ittu, ta lusiau. Da bestela tipu igula. Elixe ondutan ibiltten dire. Orre pe enera lantxik etorri te jun eitten dire. Igul-igul igul elistxoridxe.*

**engantxu, engantxue.** (esp. *enganche*) Empedrado de los probaderos. *Probalekue* harriekin prestatuta nahiz lurrean egon daiteke; *engantxue* berariaz prestatutakoa da. || *Plasako engantxuek oiñek dekes. Nabarnixen eun oiñekue, da larogetamar oiñekue Mendatan.* || *Orrek engantxuk oin be oiñetan usaten dire.* || *Engantxue da arri losatxukiñ eitten dana. Len engantxurik esan egoten; len lurrien.* || *Ointxe urte batzutara arte, leku batzutan esta egon engantxurik. Engantxu barik, arri soltie, edo al dan lekuen.*

**engañau, engañetan.** (ENGAINAU, engainatu-bat.) 1. Engañar. || *Engañau neu.* || *Umi pa erres engañau eitte sirin.* || *Baya personari be esa leidxue: "Enbustxidxaka dabil". Ba noberari ondo esaten batzo-edo, seinda norbera engañetan les badabill-edo, "Enbustxidxak eitten"-da.* 2. Incurrir en infidelidad conyugal. Ik. *biar txarra ein.* || *Ori be engañau dabe. Ondo es eban ein baya!*

**engañu, engañue.** (ENGAINU) Engaño. || *Apropos? Tranpas. Apropos ba planpin dabilleta, faltzidxen dabilleta. Planpin da ba engañau edo serien dabilleta, apropos.*

**enkalla, enkallie.** (ENKAILA) Leños que se ponen atravesando el carro para defenderle del peso de la carga y evitar que se rompa. || *Orrek eukitten dabe sididxek egaletan, da gero ori goittik beste egur bat sulo bias, eusteko. Enkallie. Enkalli esate tze areri.* || *Enkalli da trabes eitteko bakarrik, arixerri. Au eiñ esteidxen. Atzin be bai, da eurriñ be bai. Enkallak. Au burdidxe, esate baterako, emendik olan doye, au burdidxen kaji, da amen taket bi, emendik dau enkallie, da emen beste enkallie. An enkalli ataten da, da gero burtola atzeku nai eurriñ atateko dekes.* || *Sididxe da areri enkalliri euste tzona. Eurek burtolak eukitten dabe... Oiñ e eiñ esta eitten burtolik eta pentzau be! Baya eurek eukitte ben a biribille atata, alderdiko punta bidxetan are biribille atata puntan. Da antxe sartze siñ arek. Ganetik.* || *Burti, burti arasi da bekue. Da goidxen enkallentzako.*

**enpagagarri, enpagagarridxe, enpagagarridxe.** (ENPAGAGARRI) 1. Asquerorso, -a, repugnante. || *Enpagagarridxe? Bai, enpagetan danin seosegas enpagagarridxe esaten da. || Enpagu da ba atza esati les, "Enpagagarridxe-ori be!".* || *Igul sikiñidxek or ba da igul esate su "Enpagagarri dxak ori morroi ori, sikiñas be. Edo ain motz-edo badau, batzuk itxusidxe esate tze orri baya guk estogu ori esaten. Ba enpagagarridxe. || Esin lei jan, enpagagarri dxak ori.* 2. Aborrecible, detestable, odioso, -a. || *Enpagagarridxe basara?*



**enpagau, enpageten, enpagetan.** (ENPAGAU, enpagatu-bat.) Empacharse, hartarse, asquearse (esp. *empalagar*). || *Enpagaute dau.* || *Geuse bat jan da beteten basara, "Enpagau ein da" esate dogu.* || *Enpagau arte jan deu.*

**enpagoso, enpagosue.** (ENPAGOSO) 1. Enpalagoso. || *Ba niri (mispillak) gustate dxates, estire enpagosuk, es santarrak, es, estire. Alan dultze-dultzi pe estire.* 2. Melindroso, -a. || *Enpagosue? Enpague artzen dabena edoser geusagaittik.*

**enpagu, enpague.** (ENPAGU) Asco, repugnancia (esp. *empalago*). || *Satarra da, enpague emoteste.* || *Selako enpague emoten deu orrek!*

**enparau, enparaue.** (ENPARAU) Demás, restante, otras personas o cosas. Frecuentemente se usa para hacer referencia al resto de los vecinos de la barriada. || *Enparauek, barriada osokuek.* || *Enparauek, barriada osokuek, gure parajeko enparauek esan, da barriada osue artzen da.* || *Beste enparauek dire beste jentie: "Beste enparau pe seoser esango dxuek". Iguel, beste kuadrillik.*

**enparaukuek.** (ENPARAUKO) Los demás, los vecinos del barrio. || *Enparaukuek dire geure urren dausenak, geure etzetik urren dausenak.*

**enpate.** Empaté. Ik. *desenpate.* || *Enpate ein dau.*

**enpatxau.** (ENPATXAU, enpatxatu-bat.) Empacharse. || *Enpatxau ein lei ganadu, pentzu asko emon eskerun.* || *Esate baterako, geuse gosu-edo asko ibili eskerun-edo, atrankau les eiñ eskerun beragas: enpatxau.*

**enpatxu, enpatxue.** (ENPATXU, betealdi) Empacho. || *Enpatxue artu deu.* || *Enpatxu kentzeko bedarrak.*

**enpeñu, enpeñue.** (ENPEINU) Empeño. || *Enpeñue ta talentue.* || *Ori biarra enpeñu gustidaxas einde dau.*

**enplastera, enplasterie.** Mujer que realiza emplastos. || *Enplasterie? Enplastuk eitte ittuna-edo.*

**enplastero, enplasterue.** Hombre que realiza emplastos. || *Bai, ote san gixon bat, enplasterue.*

**enplastu, enplastue.** (ENPLASTU) Emplasto. || *Enplastu da, seinde eunditxu-edo daunin, materidxe einde-edo daunin, eitte san enplastue; jaboye uretan busti ein bixate san, astute nau: kipulie, olidxe...* || *Enplastue eitten da solittute daun lekuen materidxe kentzeko.* || *Berberanie: orregas eitten da enplastue, sinositixenzako-ta.* || *Berbena bedarrak amak asko ibiltte ittu enplastu eitten.* || *Bueno, enplastuk e lenau eitte sittuna pe nik pentzetot sasimedikuk ixete sirila.*

**ensalada, ensaladie.** (ENTSALADA, gatzozpin) Ensalada. ☐ *Entsalada prestatuta dagoanean, Ensaldie ipiñitte dau esaten da.*

**ensegida.** (ENSEGIDA) Enseguida. || *Medikuk esa tzon ensegida sanieko dala.* || *Ensegida etorriko da.* || *Da bertatik, sastittik ensegida dau kobie.* || *Opillek*

*esate gentzen. Opillek, biribilek edo biribill antzekuek, da ensegida errete sirien.* || *Eutzi au badaespada. Anera jun biot, Karinak deittuste ta ensegida etorko nas neu atzera baya.* || *Da epeldu ensegida eitten da botillan artute.* ☐ **ensegidako baten.** Enseguida, en un instante. || *Denpori gordinduti da esate baterako, igul denpora ona dau da ensegidako baten mudau deu denporie, da otzittu ein deu, da orixe da denporie gordindutie.*

**1 entendidu, entenditen, entenidu, enteniten.** (ENTENDIDU, entenditu-bat.) Entender. || *Entendidu dosu orrek libruk se esan gure dabent?* || *Arraiñekiñ estot asko entenditen.* || *Ba balienti san ori! Bai. Orrek e danetan eitte ban entendidu ondo.* || *Estosu enteniten?* || *Orixe da gatxa entenitie.*

**2 entendidu, entendidue.** (ENTENDIDU, entenditu-bat.) Entendido, especialista. || *Ori legitan entendidu da.* || *Ori entendidue duo, asko aittute dxok.* || *Estakit entendidue ixen basan, baya etxakon falta arrokeridxe.*

**enterradoretza, enterradoretzie.** (ENTERRADORETZA) Inhumación, entierro. || *Enterradoretzie sankristauk eitten deu. Da sulu be bai, da origeittik etzeku be bat igul juten da, sulu eitteko, baya ordun egunin, iltten dan egunien, esta enterretan, urrengo egunien.*

**enterrau, enterretan.** (ENTERRAU, enterratu-bat., ehortzi) Enterrar. Lagunekin *enterrau* edo *lur emon* esaten da, ganadurekin *sulun sartu* nahiz *enterrau*. Komunikabideetan zentzu horrekin hain sarri erabiltzen den *lurperatu* hitzak, ostera, beste esanahi bat du nabarriztarren artean, alegia lurra goldatzea, belarrei buelta emateko. Ik. *lurperatu.* || *Bueno, sankristauk eitten deu enterrau-te, baya etzekuk lagundu ein bi tzo.* || *Enterrau te bidxamoniñ-edo ortusantun emote ben mesi.*

**enterru, enterrue.** (ENTERRU, ehortze) Entierro. || *Gorpue altzau: iltten danin, ba ya gorpu geldittute dau. Da ba olan enterru-edo danin, elixakue-edo, ille altzau, ille altzatie edo enterru dau, ille altzaten da.* || *Da artzaldien enterru badau, edo okasiñoye esate dxako, baya oiñ enterru esate dxako.* ☐ **enterruko mesie.** Funeral, honra fúnebre. Sin. *ondrako mesie, okasiñoko mesie.* || *Ondrako mesie enterruko mesi da.*

**entero, enterue.** Entero, animal no castrado. || *Saldi enterue? Ba saldidxe kapau bakue, da saldi enteru alakoxiri esate dxakon.* || *Enteruek: emiri botateko, kunak sertzeko.* || *Asturi botate dxako saldidxe, astu botau biarrin, kuni eitteko, saldidxe, saldi enterue, da axe astuandik jaidxoten dan saldidxen kuni da burriñue.*

**entrada, entradie.** (ENTRADA) Entrada. Elexaldeko etxeetako sarrerari *entradie* esaten zaio. Ik. *etartie, portalie.* || *Potentidxe? Elixan oten dan e..., entradan-*

*edo oten dana. Da elixara jute garanin, antxe ur bedekintue artu te aittiaren ei tte, da barrure.*

**entrama, entramie.** (ENTRAMA) **1.** Dentado triscado. Trontzako aginek apur bat alboetara okertuta egon behar dute, bat alde batera eta hurrengo bestera; osterantzean, ez dute zurik "jaten", eta katigatuta gelditzen dira. || *Bueno, onek trontziek entramarik etxekok, oni entramie ein bi dxako.* || *Ño, paguen entramie jetzi bi da (egurre sera da ta, gastaña bastante, piñuek aundidxe bi dau libretako).* **2.** Apetito, capacidad más que normal de comer y beber, saque. Entrama ona daukan trontzak zura ondo jaten du; horregatik, ondo jaten duen pertsonari buruz ere esaten da entrama ona daukala. || *Ño, orrek dxekok entramie!* || *Entramie badeko!* || *Suk dekosu entramie jateko!* □ *Esaterako, gutxi jaten duen umeari buruz honela esaten da: Entrama gitxi deko!*

**entregau, entregetan.** (ENTREGAU, entregatu-bat.) Entregar. || *Siderra san a, siderresko ogorleku sin danak. Ogerleku siderra. Arek balidxu euen. Arek e naitte desautxeute be, arek balidxu. Siderrak balidxo ban. Arek, askok arek, tontomendi geuk entregau gendusen, pilluk euki etzin-de. Estabela balidxoko, desautxeu eitte sittula danak eta, besti-tte. Ya tonto egon, da entregau. Se entregau eitteko ordenie emo ben ba. Da danak entregetan.*

**entzule, entzulia.** (ENTZULE) Oyente. || *Entzulia? Bai, berbetan daunari be entzun eittie, ixilik egonda entzun, bestik ser esaten daben. Entzuli ori da.*

**entzumen, entzumena.** (ENTZUMEN) Oído (sentido).

**entzun, entzuten.** (ENTZUN) Oir. || *Mesie entzun.* || *Radixue entzun.* || *Surrumurrue entzun dxuat.* || *Entzu arren, estot aittu.* || *Nik aitteri entzunde deket.* || *Entzuten egon da.* || *Nik estaitt Ameriketatik ekarrikue bada, nik beti aittegandik, edo gurasugandik brandidxe entzu dot eta.* || *Bai, entzunde deket, baya emen esta esaten.* || *Aintxiñe se esate ben? An lexara jeusi, lexera jeusi, enbran bat-edo. Estakixu? Estekosu entzunde? Ni pai. Lexara jeusi. Eta gero aren enbrien gonien satidxe Allustiñ urten.* || *Gormutuk es entzun da es berbarik estau eitten.* || *Nik lelengo entzun nabenien, siñistu bes! "Jesus!" esan naben.*

**entzunger, entzungera.** (ENTZUNGOR) (El, la) que no quiere escuchar, (el, la) que hace oídos sordos.

□ **entzunger ein.** Hacer oídos sordos. || *Esan tzat paya entzunger eiste.*

**entzute, entzutie.** (ENTZUTE, ospe, omen) Fama, renombre. || *Entzutie bouko.* || *Gixon entzute aundikue ixen dok, askok esautzen ixe dxok.* || *Ori Donostiñ entzute andiku da.* □ **entzutie euki.** Tener oído, aunque sin saber a ciencia cierta. || *Bueno, arranpalue nik estaitt beres seri esate tzen, baya neu pe badekot entzutie arranpaluna, baya nik e olanik e geusarik e,*

*arranpalu esate tzenik badau estaitt.* || *Bueno, neuk estakit baya entzutie badekot.*

**epa.** (EPA) Interjección con la que se requiere atención (también de sorpresa, de saludo).

**epai, epaidxe.** (EPAI) Corte, marca, herida. *Ebaidxe* ere esaten da. □ **epai bedarra.** Hipérico, corazoncillo, hierba que se usa curar cortaduras (*Hypericum perforatum*). || *Aintxiñe ixete san olako orri sabal-sabal gogor-gogor bat, da areri asala kentzen dxakon, arexe epaidxen ipiñi.* || *Epai bedarra: ori bedar sabaltxu bat ixeten da, olantxik, bedar sabaltxu bat, eta au lako serak eukitte ittu, estotxuk-edo, da arixeru esate gentzon epai bedarra.*

**epaille, epaillie.** (EPAILE) Cortador, segador. *Ebatzaillie* ere esaten da. || *Gari epaillak.* || *Bedar epaillie.*

**epel, epela.** (EPEL) **1.** Tibio, templado. Ik. *osberue.* || *Ur epela.* || *Surreko aixie epela ixeten da.* || *Denpora epela deku geur.* || *Au kafie epela dau, nik berue gurot.* || *Amen epeletan bestela dxak!* || *An posu batzu daus da aretantxe egote san. Baya oin ganera daus sikiñ egalak. Da arrankaridxe estabe esaten ba epela bi daula? Erreka otzeidxe barik, euskidxe joten deun e... Geidxau joten deuna, arrankaridxe geidxau egoten dala. Oiñ estaitt bape egoten dan or.* **2.** Persona floja, de poca actividad y remango. Ik. *iko pasie.* || *Ori da persona epela!* || *Epel garbidxok ori!* **3.** Afeminado, mariquita. || *Ori epeltzue dok eta!* □ **epelik jan bakue.** Pobre, que ha vivido sin recursos. || *"Epelik jan baku da": esate baterako, ortik erdalerritik etorten diriña pa, olan agertzen dire batzuk gosias oneko antzekuk-eta; "Ba, iños estau artu salda berorik", edo "Iños estau jan indar be epelik"-edo esate dxake olakuri.*

**epeldu, epeltzen.** (EPELDU) Entibiar. || *Epeldu? Esku otzagas su ondora. Eskuk otza dasenien su ondora jun de epeltzie.* || *Da epeldu ensegida eitten da botillan artute.*

**epelkeri, epelkeridxe.** (EPELKERIA) Tibieza. || *Epelkeridxe da, ako berbetan-da, suabe-edo, serik estekona, braburarik estekona.*

**epeltasun, epeltasune.** (EPELTASUN) Tibieza, templanza. || *Epeltasune: suek emoten dabena-edo, euskidxe-edo...*

**epelune, epelunie.** (EPELUNE) Momento tibio o templado, en el tiempo. || *Epelunie: laño seretatik euskidxe urtete daunin, sarri, biarrien gabixela: – "Ño, au dok epelunie, jertzie kendu ein bi dxuat".*

**1 eper, eperra.** (EPER) Perdiz. || *Eperretan gosak.* || *Bagosak eperretan.* || *Eper leku ona dok a.* □ **eper txakurre.** Perro braco, perro perdiguero.

**2 eper, eperra.** (IPAR) Noreste. Ik. *ifer.* □ **eper lañue.** Niebla o neblina del noreste. *Efer lañue* ere

esaten da. || *Eper lañu ortxe egoten da, mendidxen, etorritte, errire igul bajatuko da.* || *Eper lañu dxatok.*

**eperdi, eperdidxe.** (EPERDI, ipurdi-bat.) 1. Culo, nalgas, trasero. || *Eperdi ganién.* || *Eperdidxas gora.* || *Eperdidxen ganera jausi da.* || *Bai, ba ser dala esangot? Umiri, igul ibiltten dire erdi praka barik, prakakin be igul, baya ba "Or dabill e eperdidxe bistan"-edo.* || *Eperdi aundi!* □ Umeari mehatxu

egiteko honela esaten da: || *Eperdidxen artuko sus!* □ Begian txotorra irteten denean, honela esaten da: || *Eperdidxe ikusi tze ik orreri!* 2. Fondo, base, culo. || *Sukutu? Sukutu esan gure deu, lapikuri atendidu esas, sukutu, suek sertu. Erre, lapiku erre, eperdidxen erre-edo.* || *Osiñe pentzate dot ixete sala eperdi sabala, olan punte estue, ori katxarrue.* 3. Pie (de árbol). Ik. *andobie, ondue, sustrupue.* || *Sagar eperdidxe.* || *Arbola eperdidxe.* || *Eperdidxek atara.* || *Eperditik ebai dabe arbolie.* || *Andubi da sustrei sarrak, eperdiko sustrei sarrak. Onak ixete sirin. Baserridxetako beko suen-da alderdi banatan, batin bat eta bestin besti ipiñi, da gero erdidxen ba edoser eitte san sue.* || *Andobie? Sustreidxe da ori. Ori da, orrek sustreidxe esan gure deu, eperditik, lurreti berakue. An andobie. Ori da egur gogorra.* □

**eperdiko mamíne.** Nalga. □ **eperdiko sulue.** Ano, esfínter. || *Katanarra da... Arek e... Onek olluk-eta, aspidxe jate tze lelengo, erropie. Arek erropan asten di jaten. Erropie, da lakunie. Lakunie bakixu ser dan? Lakuni da atzeko eperdiko sulue eta atziñ animalidxek boukos arek kunak-eta eitteko, beran txixe-da eitteko.*

*Arexe jate tzes lelengo.* □ **eperdiko trongue.** Parte inferior del tronco del árbol. || *Kari ona da fruta arbolantzat. Telebisioñoyen entzu naben lengo egunien. Bai, len be jakin dot ona dana, esta? Da eitten ei tzo eperdiko tronguri ein, bakixu, eneruen edo febreruen. Eperdidxen eukitten dau, ba, au da beye, eperdiko trongue, da a trongue karias ein, surittu. Da arek eitten ei dau kokue il, se eperditik juten ei da gora kokue, eta gero sagarrari-tte andixi eitten ei dxake kokue.* □

**eperdi txuntxurre.** Prominencia del trasero. || *Eperdi txuntxurre bayo geidxau emen e eperdiko asurre esate dxako. Eperdi txuntxurre eperdi urtena dekonari-edo olan txuntxurre esango dxako.* || *Eperdi txuntxurre: Olan igul e ori be atzera luse-edo dekonari, eperdi txuntxurre.* □ **sagar eperdidxe.** Pie o base del manzano. || *Karias e surittu eitte sin bera sagar eperdidxe, kokorik eta eser sartu esteidxon.*

**eperdieundi, eperdieundixe.** (EPERDIAUNDI, ipurtandi-bat.) Culón, -ona. Ik. *eperditzue.*

**eperdiko, eperdikue.** (EPERDIKO, ipurdiko-bat.) Azote en el trasero. || *Emote bauat eperdiko bat!* || *Esate baterako, ba ume batek estau esanik ein gure, da ba eperdiko bi emote dxakos.*

**eperdiloka, eperdilokie.** (EPERDILOKA, ipurdiloka-bat.) Andariego, persona no asentada. || *Eperdilokie? Bai, geldi estaunagaittik.*

**eperdisiku, eperdisikue.** (EPERDISIKU) Persona de culo apretado o animal cuya parte posterior es estrecha. || *Eperdisikue? Atze sorrotzari be eperdi siku esate dxako. Ganaduri be bai tte laguneri be bai. Eperdisikue, igul eperdidxe gitxi dekonari, oin be ori bai usaten da, "Eperdisikuori!"* || *Ganaduri, barris, asko esaten da, "Eperdi sikun dxekosak".*

**eperditzu, eperditzue.** (EPERDITSU, ipurditsu-bat.) Culón, -ona. Ik. *eperdieundi.* || *Andra eperditzue.*

**epertargi, epertargirdxe.** (EPERTARGI, ipurtargi) Luciernaga (*Lampis noctiluca*). || *Epertargirdxe da koko bat, argitxu txiki bat eitten dabena. Orrek olan illuntzin-edo, gabin-edo, olan argittasun txikitxu bat botaten deu. Da ixaten da, ser esangot neuk? Langosti modukue ixaten da, esta lusi ixaten, laburre ixaten da, da puntatxutik argitxu botaten deu.*

**era, erie.** (ERA) 1. Modo, manera. || *Ño, guk pentza dun erara urten dxok onek.* || *Eurek pentzau ben erara etorri da.* || *Ba esin dot ein, erarik esteket nik amendik.* || *Txardangue da sardatxurre noberak ibilttekiek dire atxurren eran.* || *Esate baterako, geusak aste dxakosena-edo, da ba alakuri be igul esate dxako ba "Ai, are teko buru erie!".* 2. Ocasión, coyuntura, facilidad. || *Errekan: "Euk erara duanin, salto eik!"* || *Euk erara duanin, eingostek a bierra.* || *Era ona ixen da, ondo etorri da.* 3. Del derecho. || *Ipiñik erara!* || *Estosu ondo jantzi, aldrebek jantzi dosu. Erara ipiñi biosu.* || *Erara estau, aspikus ganera dau.* □ *Esaterako, ezkerreko zapata eskumako oinean jantzi ezkerro, honela esaten da: Erie estekeke ik ortik.*

□ **era batera.** Al mismo tiempo, simultáneamente. || *Era batera: aldi batera etorten dana, edo artzen dana, edo ba.* □ **erara.** Apropiadamente, a mano. Ik. *eskuerara.* || *Erara etorri dok.* || *Iguel suk, emendik basois orra mendire, or dekesu seurie, ta albokue iguel, da albokuk esate tzu: "Bai, a niri be eixu!".* Da esate su iguel: *"Bai, erara euki dxuat, ta a be ein dxuat."* || *"Eskuerara etorri dok ori" be bai esaten da.*

*'Eskuerara' da erara etorti geusie, erres etortie.* □ **eran etorri.** A la medida, adecuadamente, a pedir de boca. || *"Eras etorri dxate", edo "Eroso etorri dxate", geusa bat ekarte danin, edo artzen danin, edo olan, ba "Eran etorri dxaku", edo "Eroso etorri dxaku", ori bai esaten da.* || *Sapatillie ondo euki eskero, ba "Eran etorri dxate", edo "Ondo deketas", baya 'eroso' ainbeste es. Origaitti pa, orregas be aittu lei.*

**1 erabagi, erabagitten.** (ERABAGI, erabaki-bat.) Decidir, resolver. || *Erabagi da geusie selan ein pentzau eittie.* || *Orrek ondo erabagitten daki.* || *Erabagidxe artunde dau.* || *Erabagi bat artu du.*

**2 erabagi, erabagidxe.** (ERABAGI, erabaki-bat.)  
Decisión, resolución.

**erabilli.** (ERABILI) **1.** Hacer andar, hacer funcionar.  
|| *Erabilli da gause bat txarrrik badabil: "Ak ori erremintti ori erabilli dxok urtebetiñ edo bidxen".* ||  
*Oiñ e lengo erdi esta... lauren solo badabis, se geu pe satitxu ba tabigu bakarrik eta.* **2.** Llevar, tener. ||  
*Biximodu eskasa sabillek.*

**erain, eraitten.** (ERAGIN) **1.** Hacer hacer (tiene valor factitivo aplicado al verbo precedente. || *Bostortza pasaute ba bedarra soltau eraitte dxako, gosatu eitten da solue.* || *Sartze dxakosan atziñ egur bi da aurrin beste egur bi, ta egurreri alkar jo eraitte dxaken da leku eukitte ban barruen lo eitteko.* || *ixildu erain tzet (erreso barik berbetan diardunari, egidxe esanda).* || *Bai, berakatza be bai, uretara botata. Berakatza surittu, da uretara bota, ta axe ure edan erain bi xate dxakon umiri.* || *Gero (ardidxe) bejatzan basen orra..., Gernike ondora be larrak jan ereitten.* || *Eurreridxe? Bai. Beidxeri karga eundidxe dekeniñ e beste busterrri bat ipintte dxake, ta busterrri bigas-edo erun eraitte dxake. Eurreridxe eurretik doin busterridxe.* || *Txapel bedarra orman-da asten dana da ta ona ixeten da olan materidxe atara eraitteko-ta ori be.* **2.** Mover, hacer moverse. || *Esate baterako, proban ibiltten diriñak, ba ididxeekin nai beidxeikiñ ibiltten diriñak, ba proban dabixenari jeneral ba "A fulano akulari ibil da", da ixeten da akuluas ibiltten dana, beidxeri edo ididxeri eraitten ibiltten dana, akularidxe ixena.*

**erako, erakue.** (ERAKO) **1.** Adecuado, -a, propio, -a, apto, -a. || *Sapatillie be eskumie bada, ume bat asten bada bestien, eskerrin jasten: "Orko erakue estok ori, ori eskumeku erakue dok".* **2.** Correligionario, -a, de las mismas ideas. || *Ori neure eraku da.*

**erakutzi, erakusten.** (ERAKUTSI) **1.** Mostrar, enseñar. || *Beyen estekot, ostantziñ erakutziko neuskixu selaku dan.* || *Amen e bistan estau, se ostantzin selaku dan erakutziko neuskisu.* || *Ointxe erakutziko tzudas.* **2.** Enseñar, instruir. || *Niri olantxik erakutzi doste berbetan.* || *Sarrak aintxiñe erakutzi eustan.* || *Amak erakuste deutzelako txarto umieri.* || *Beidxeri busterridxen be erakutzi ein bi ixaten dxake.*

**eralgi, eralgitten.** (ERALGI) **1.** Cribar. || *Eralgittekie.* || *Urun eralgidxe.* || *Bayagas eralgi.* || *Ama urune eralgitten dau.* || *Guk emen estou iños usau sai utzas eitten danik, jaterik, espabese sai utze barik, urune eralgiñeku bota, nastau, da illuntxuau urtete ben, da alaku bai eitte gendun, lelengo jateko.* **2.** Repartir, gastar el dinero. || *Dirue eralgi: ori kostunbrie, diru asko eukitte, diru sabaltzen dabenari: "Orrek eralgiko deu dirue!".*

**erantzi.** (ERANTZI) Desnudarse, despojar. || *Erantzi orrek erropok labadoran ipintteko, an dekosus bestiek listo kuartuen-da.*

**1 erantzun, erantzuten.** (ERANTZUN) Responder, contestar. || *"Ikusi-makusi", batak esaten deu, "Ser ikusi?" bestiek erantzute tzo.* || *Satarkeridxe: geusa bat txarto eitten danin, edo txarto erantzuten daniñ edo ba, satarkeridxe esaten da.*

**2 erantzun, erantzune.** (ERANTZUN) Respuesta. || *Erantzun sakarra.* || *Erantzun onik estest emon.* || *Esteu euki nitzako erantzun onik.* || *Se erantzun emon tzo!* || *Se erantzun emon bi tzat pa!* □ **erantzune emon.** Responder.

**eraso.** (ERASO) **1.** Hacer decir. **2.** Cascar. || *Eraso ein da.* || *"Erasota dau": egurreri esate dxako, da agiri be bai. Orrek agak oten diriñin, igul arrakalatu eitten dire, da "Erasota dau" esate dxako. Nai beidxek ibiltten daben -oin burdiri pe estau ibiltten baya- burdi partikiri, nai edoser egurreri esate dxako, ya einde dauna errekalatu, edo einde daunin, "Erasota dau".* || *"Eraso" da apurtu les baya inkeute.* **3.** Acometer el mal tiempo. || *Bolada axiek eraso ein deu.* □ **mesie eraso.** Ayudar a misa. || *Monagilluek eitten dabe mesie eraso.* || *Akolittue da abadiri mesi erasote tzen mutil txikidxe.* || *Da ba mesi erasoteko, mutil txikidxe ixaten sirin, da oin mesie abadiri erasote tzenak, mutille parik, neskak ixaten dire.* || *Sakristau txikidxe? Bai, sakristau txikidxe e abadiri mesi erasota eukitten dana, mutikue, arixerri esate dxako sakristau txikidxe.*

**erastun, erastune.** (ERAZTUN) Anillo, sortija. Ik. *anillue.* || *Erastune nasai dau.* □ *Ezkontzakoari, eskuarki, anillue esaten zaio; osterantzean, bitxirik edo ezer badu, erastune esaten zaio.* || *Au anillu da. Esteko es perlarik, esteko esebe. Da erastune ba, dekona... Se esangot? Dekona seoser, arritxu bat edo seoser.* || *Dana bat. Baya ba anillue eskontzen danak ipintten dau. Da besti, erastune, ba lujorako geusie.*

**eratzi, erasten.** (ERATSI, eraitsi-bat.) **1.** Derribar. || *Jo, ta eratzi deu.* || *Da kakukiñ eratzi eitte sirin gastañak, da jeusten sirin lakatzak-eta.* || *Txori bet eratzi dok.* || *Intxaurrak paluas jota, ainbeste eratzi dittu.* **2.** Ordeñar. *Jatzi baino gutxiago erabiltzen da. Ik. jatzi, batu.* || *Oiñ estogu erasten beirik.* || *Beidxe eratzitte dau.* || *Eratzi ttu beidxek.* || *Lodittu estire eitten esni jasten dxaken beidxek, da ba: "Beidxe antzittu ein biou, loditu deidxen". Antzittu, esnie erasti itxi, orixe da antzitzie.* || *Bai, beidxek eukitten dabe erropa miñe, da erropa miñe atrapetan dabenien, ordun egun batzutan esnie galdu eitte dxake, baya eratzi ein biar ixaten dabe, se esne galdu kendu ein bi dxake ta.*

**erbatz, erbatza.** (ERBATZ) Pequeña raíz que echa la planta cuando arraiga en algún terreno. || *Erbatza da sustreidxe modun eitten dana, erbatza. Emoten dau... A beye igul sepa langorik, erbatza, landara modure eitten deuna. Ganera urtetan deuna. Erbatza, bertan datorrena. Beyen txikidxe, igul ernetan deun geusie, erbatza.* || *Igul landari sartze su, da jarteko erbatza*

emon bi dau, sustrei barridxe. || Atarate su suk landari ero geusi, te "Dios, erbatza emonda on dok!". || Ernamiñe be erneten deuna da, ta erbatza be erdi bardiñe dire. || Sepi pe... Batzuk esaten dabe "Sustreidxe emoten asitte on dok", da beste batzuk "Erbatza ya euki dxok". || Erbatza, erbatza..., baya guk geidxau sustreidxe esateu. Da erbatza ta sustreidxe pat eitten deu. Arbola baten..., "Onek euki deu sustreidxe!", "Onek euki deu erbatza!". || Bedar ereiñ eitten dana, solun-de... oiñ emen esta ereitten gitxi bayo, baya ereittosu te "Ño, erbatza badxekok, ta jarriko dok!" edo Badxatok!". || Erbatza sustreidxe da, bedarrak emoten deuna, "Erbatza bouko da jarriko da" iguel. Ba ori da sustreidxe. Sustrei txikidxe e!

**erbeste, erbestie.** (ERBESTE) Pueblo no propio (del que habla). Komunikabideetan eta liburuetan asko erabili da berba hau 'atzerria' esateko. Nabarnizen, berriz, ez du zentzu hori, ezpada norbere herritik at dagoen beste edozein herriz esaten da; atzerria, nabarniztarren euskaraz, *estranjeridxe* da. || *Erbestera jun.* || *Erbestetik etotti da.*

**erbesteko, erbestekue.** (ERBESTEKO) Forastero, -a, persona no natural de Nabarniz. || *Errittik kanpokori, ba, erbestekue esate dxako.* || *Erbestekue da errittik kanporakue; estranjeru da Españatik kanporakue.* *Erbesteku da Kortasubi, nai Ereño, da orre pa, nabarnistarrak esaten dabe: "Erbestekuk sak orrek".* *Iguel etorten dire Ereñotik-ero, ta "Nik etxuaset esautzen", "Bai, erbestekuk sak, emenguk, errikuk estosas".* || *Emen iguel gastiek, oiñ esautzas ya, neu pe andik etorri nitzenin, ba enabesan esautzen, errikuk, onek e neska gastik-eta, mutil gastik-eta.* *Da "Ori etxuan nik esautzen". "Estuala esautzen! Orrek erriku osak, erbesteku barik!".* || *Erbestekue? Ba erriku estana, beste erri bateku dana edo etzondoku estana, urruntxuauku dana.* || *Personiri be erbesteku esate dxako, "Etorri da Gerniketik edo Allustittik edo beste leku batetik".*

**erbi, erbidxe.** (ERBI) Liebre (*Lepus timidus*). || *Erbi errestue.* || *Erbi lorrotza.* || *Ya, arto soluen sartu dok erbidxe!* || *Txakurre erbitten doye.* || *Illunsarrera kasan be jute giñen, erbitten-da.* *Erbidxek egon sin, oiñ erbirik estau.* *Ba erbidxek-eta egon sirinin, ara jute giñen.* || *Txakurreri galdu dxaken erbidxen errestue.* || *Erbidxen gomute baukosu? Konejun antzeku da, baya a be san mendikue.* *Da a be eskopetias be atrapete san, baya en jeneral tranpan.* *A ixete san jatekue.* □

**erbi korotza.** Escremento de liebre. □ **erbi txakurre.** (Perro) lebrél.

**erdaldun, erdaldune.** (ERDALDUN) (El, la) que no sabe la lengua vasca. || *Tarrañuelak bai entzun dot, eta ikessite deket, baya ori erdaldunek ibiltten dabe.* || *Borrue? Nik pentzetot e borrue dala, goixetik etorten dana kipule suridxe esate dxakola, baya kipulie, orrek*

*erdaldunek-eta ibiltten dabena, gorridxe bayo geidxau ibiltten dabe oriskie, suri-oriskie.* || *Belarrimotza erdalduneri esate dxako.*

**erdalerrri, erdalerridxe.** (ERDAL HERRI) País (pueblo, tierra) bo vasco (no vasco-parlante). || *Ortik erdal errittik etorten diriña pa, olan agertzen dire batzuk gosias oneko antzekuk-eta.* || *A pentzetot a kipulie or erdalerridxen ibiltten dala..*

**erdera, erderie.** (ERDERA, erdara-bat.) Idioma no vasco, generalmente se aplica al castellano. || *Guk asko estakigu erdera, baye arek bapes es eben jakin.* || *Nire ama pe es ekidxen erderarik.* || *Nik erderas be estakit askorik eta.* || *Erderie dau geidxau sartute-edo.*

□ **erderasko berbie.** Palabra no vasca (castellana). || *Kapritxue euskerasko berbi ixen be esta.* *Kapritxue erderasko berbi ixengo dala pentzetot nik.*

**erderakada, erderakadie.** (ERDERAKADA, erdarakada-bat.) Barbarismo (empleado al hablar o escribir en vasco). Berriemaile baten arabera, berba hau gehiago erabiltzen da *erderakasue* baino. || *Orrek ixan dire erderakadak!*

**erderakaso, erderakasue.** (ERDERAKAZO) Barbarismo (empleado al hablar o escribir en vasco). || *Orrek bota dxok erderakasue!* || *Neuk eitte ittuas erderakasuk!*

**erdi, erdidxe.** (ERDI) **1.** Mitad, medio. || *Ordu erdi.* || *Erdittik ebai dabe.* || *Apatxarteku da apatx bittartiñ eukitten daben..., ganaduk-edo, euntze pe bardiñ eukitten dabe erida bat, apatx bidxen erdidxen eitte dxaken erida bat, apatxekue.* || *Gero itturri bet dau an, Meriken, Merikeko ausu akabaten danien, lengo..., oin kamiñu dau eusun erdittik les einde, baya len bide sarra, len es san egon kamiñorik, bide sarra egon sanda.* || *Bide erdire urtengo tzat.* || *Emendik ara kilometro erdi badau-ero mendire, jutaldidxe!* || *Oin be tratorien bedar berdie badau kargaute, berdie, ta ustute esposu egun erdidxen, a gero berotute dau, esta ona.* **2.** Centro. || *Erdidxen ipiñi.* || *Mariapostolue ixaten da lora sabaltxu bat, asulka suritxu bat, da erdidxen urtete tze diadenak, edo arek antenatxuk.* **3.** Semi, medio, -a. || *Erdi eiñik dau.* || *Erdi gordiñik dau.* || *Ati erdi sabalik dau.* || *Erdi erreta dau.* || *Erdi egositte deket lapikokue.* || *Animalidxen bat badau ya askanetan, "Idxe erdi illde dau" esaten da.* || *Erdi sorue.* || *Erdi lotan dau.* || *Espeloi da erdi gixajue, erdi ganorabakue.* || *Laban su ein, de egurrek erdi erreta dausenin, ba brasatu eitte dire.* □ **erdi bana.** A medias. || *Erdi bana einde dau.* || *Erdi bana dekosue.* □ **erdi merke.** Barato. Ik. merke. || *Erdi merke: diru gitxigas esateko, diru asko barik esateko esaten da ori.* *Gausa bat erosi-edo eitten bada: "Erdi merke erosi dot".* || *Erdidxe esteu esan gure erdidxe geidxau nei gitxiau, espabese merke, balidxo daben bayo gitxiaue:*

*erdi merke.* □ **erdis erdi.** A medias. || *Erdis erdi egositte dau.* □ **erdis erdidxen.** A medias. || *'Urindu' ixeten da ya erdis erdidxen daumin, da gero ya surittu.* □ **erdis erdiskue.** 1. Falso, -a. || *Erdis erdiskue? Ba, ser esangot erdis erdiskue ser dala? Gusurre esaten dabenari be esate dxako "Erdis erdisku da", da beres e naturala danari be ba esate dxako "Erdis erdisku da".* || *Bai, personiri esate dxako erdis erdiskue. Bai, gusurrek esate ittulako be bai, tte ba karixidxe ona ein biar estan lekun eitten dabenari be bai.* || *Ori da erdis erdiskue, ori da ba erdi gusurtidxe.* 2. Mediano, -a, ni grande ni pequeño. || *Mutil bardingue da erdix erdikue.* || *Baridxe ku erregularra nai sapatu erregularra ba erdis erdiko ori. Suk, esate baterako, negosidxo ba tekesu, da ba asko be da gitxiau be estosu eitten, erregularra.* □ **erdi bi ein.** Partir por la mitad. || *Erdi bi ein dot.* || *Erdi bi einde dau.* □ **erdi gorrittu.** Enrojecer. || *Erdi gorrittute dau ori.* □ **erdire ein.** Acarrear hacia la mitad. || *Solo baten lurre atxurras gonera, edo mendire-edo eruten bada, ba erdire eiñ esaten da.*

**erdibittu, erdibittuten.** (ERDIBITU, erdibanatu) Partir por la mitad, dividir. || *Erdibittuten dan geusiri, ba, "Erdibittute dau", edo "Erdi bana einde dekosue".*

□ **bidxotza erdibittu.** Conmover, partir el corazón, disgustar profundamente. || *"Bidxotza erdibittu dxate", disgustu artzen daniñ-edo.*

**erdiki, erdikidxe.** (ERDIKI) Falso, -a, engañoso, -a, fingido, -a. || *Erdikidxe: osu estan personie. Osu estana, gusurrek-eta olan esaten dittusena-ta: "Ori erdikidxe da!"*

**erdikin, erdikiñe.** (ERDIKIN) Mitad, pedazo porción. || *Erdikiñe erdidxe da, osue estana.* || *Bateri emote batzesu sagarra: "Erdikiñe emon tzet".*

**erdikindu.** (ERDIKINDU) Reducir una cosa a la mitad. Ik. *erdibittu.* || *Erdikindu da ya erdidxe jaten tzunin, "Ya erdikindute deu". Ero partiduten dosunin geuse bat olan erdittik.* || *Erdikindu da erdidxe daumin janda, beste ondiño jateko beste erdidxe. Edo geusa bat ebaten bautzesu be: "Erdikindu deu".* || *Gausan bat, seoser, nai fruti, nai seoser ondakindute daumin, ba: "Erdikindute dau", edo "Ondakindute dau."* || *Erdikindu: bueno, sagar beteri be, konparasiño batera, esan leidxo, ainkadak einde isten dan sagar bat, ume batek isten daben sagar bat, ba "Erdikindu deu sagarra, baya emen itxi deu".*

**erdiune, erdiunie, erdigunie.** (ERDIUNE, erdigune) Centro (de un espacio), punto central. || *Erdiunie? Ba erdidxen asartetan dana-edo.* || *Erdiunie? Ba, aunen e... Au erdidxe ixetie, erdiunie. Edo solun be igul e geixu-edo badau, "Solun erdiunan dxauk ondatute edo galdute"-edo, olanik erdidxen.*

**erdu.** (ERDU) Ven, venid (forma de imperativo) Ik. *etorri.* Nabarnizen *Erdu ona bidxok!* nahiz *Etorri ona bidxok!* esaten da, bietara. Aginduaren jasotzailea bat bada nahiz gehaigo badira, berdin erabiltzen da.

**erederue.** Heredero. || *Erederue ba ixeten da etziñ e gurasukin biarrin dauna-edo. Ostantziñ e bai, erederue ba ixetie kanpoku be, baya etzin jaube eitten dana ixeten da erederue.* || *Famelidxe bat tau, da sarrenari aintxiñe emote ei tzen etzie. Erederue axe ixate ei xan.*

**ereikera, ereikerie.** (EREIKERA) Siembra, acción de sembrar. □ **eraikeran.** Al sembrar. || *Garidxe eraikeran ondo erreten espada, ludoye euki es arren, garidxe ondo erreten espada, ludotu eitten da.*

**1 erein, ereitten, erain.** (EREIN) Sembrar. || *Asidxe erein.* || *Eskus erein.* || *Ser erein, da axe batu.* || *Illadatan erein.* || *Asal erein.* || *Len onan eskus ereitte san.* || *Semendixen ereitten da.* || *Goikosolo erein dabe nabo.* || *Goikosolo erein dabe arto.* || *Ño, Juanek goxetik erein dxok garidxe Goikosolon.* || *Aro ona dau ereitteko.* || *Erik arlun-arlun, es saltoka!* □ **markara erein.** Sembrar el surco abierto por la rastra. || *Ba a asko ibillte san, da lauortzeku esate dxakona be, lau ors dekosena be, a be beidxe kiñ ibillte san, da artu eraitte san markara, lauortzekuas olanik. Da oiñ estire ibillten es bata, da es bestie. Arta-pur bet eraitten da.* || *Markara erain: lauortzekiñ eraitten da, eitten olantxik..., ondiño guriñ ongo da lauortzekue, da eitten deu... markatxu eitten deu, da araxe markatxure eurretik doiñak, beidxe eurretik doiñak artzu altzuen e artue da araxe, oiñ eitten daben markatxure barik len eiñeko markatxure botaten deu, oingo markatxure barik lengo markatxure. Da oin datorren e..., oiñ atzetik-atzetik datorrenak tapau eitten deu, da tapaute gelditzen da. Da gero urrengo doiñien ostabe, markatxu eitten deu, da artue botaten da araxe markatxure. Da urrengo datorrenak osta be tapau eitten deu.*

**2 erein, ereitten, eraitten.** (ERAGIN) 1. Mover, menear. || *Galbayeri erein.* || *Laidxie sartu te ankiar erein, da buelta emoten da.* || *Kanteran-da palankakiñ eitte san. Barrenu da sulu eitteku, da palanki da e arrixte mobitteku, suluk olan ein de ereiñ eitteku.* || *Txakur asie asa aundidxe da, txarridzentzat-eta eraitten genduna.* || *Areri ardatzari eraiñ eitte dxako, tiretu aridxeri, amun daunari, da erain, de aridxe eitten da.* || *Baya galbayeri ixeten da, ba esate baterako, nai indarra pasetako, nai artu pasetako; da botaten deu, ba, se esangot neuk?, berak dekon loidxe, ba galbayeri ba sulutxutik bera jeuste dxako, erain, da eraiñ einde.* || *Len laidxetan be eitte gendun, parau lau-edo illadan, da bost-edo, da laidxak sartu barrure, eraiñ-eraiñ ein, de soidxe atarate san.* || *Palatie eskatziñ ibillten da. Au da sueri apur bet eraitteko-edo.* □ *Burutik ondo ez dagoenari honela esaten zaio: || Ereinde dau ori! 2.*

Revolver. || *Morokilliñ eitten dire bolatxuk, arin-arin makillias ereiñ esik. Baya lelungun eiñ arren arek bolatxuek, rasta-rasta-rasta-rasta eraitten badxako, gero segidxen gogorgogor, arek kendu eitten dire.* **3.** Hacer mover. || *Da arixen saldidxen ganiñ ibiltten diñak ainkan sartzen dabe olako erramintta bat, edo ser esangot neuk?... , selaku dan ba astute nau idxe, da arixek eukitten deu olan burdiña bat, da arixeri, saldidxeri eraitteko, olanik ainkias nobera ganin doiñiñ eraitteko, da arixeri esate dxako emen espuelie.* □

**eskus erein.** Hacer funcionar manualmente. || *Au esta matxakie. Au gari garbitzeko makiñi da. Matxaki da... Garidxe joteku san matxakie, motorras ibiltten dana. Au da eskus ereittekue.* || *Geusek estutu-te eitteko-edo antxe eukitten dabe, eskuas ereitte tze areri. A da tornue.* □ **kumiri erein.** Mecer la cuna.

**erein, ereiñe.** (ERAGIN) Empuje, meneo. □ **eraiñek ein.** Dar meneos, sacudir. || *Sapustu da ereiñek ein.*

**erentzidxe.** (HERENTZIA, oinordetza) Herencia. || *Erederue andrasku be ba ixte lei. Gixonesku geidxau ixeten dire erantzidxe artzen dabenak, andrasku bayo.* || *Erentzidxe baten ixan leike, tokamena, "Axe tokau ein dxako", ta ba.*

**ereñar, ereñarra.** (EREÑAR) Natural de Ereño.

**Ereño.** (EREÑO) Ereño. □ **eriñokue.** Natural de Ereño. || *Mendire bidin ba estau kamiñorik, espabese ba arrisko bidik, eta ba basasko bidik dire, da ibili lei edonor, ibili lei esate baterako, emengue, ibili lei Eriñukue, ibili lei Gernikekue, ba bide komuna, ba danen bidie.*

**ereñotz, ereñotza.** (EREINOTZ) Laurel (*Laurus nobilis*). || *Lurrune esate tzeu guk, esate baterako: estule dau-edo, katarrau dau-edo, gogo txarra dau-edo, ta ba suten, ba ereñotza ekarri kanpotik, da suten erre, da ereñotzak emoten deu ba alako usein goso bat, erreten daniel, da axe artu.* || *Montxorra esaten da, ori ipintte tze ereñotz adarra-ero. A montxorraku dala. Esan gure dau ba ya akabau dabela tellatue.* || *Erremuetan bedeinkatuten lelungotan elixera erun, da gero andik ekarten dan ereñotz adartxuas e eiñ ori.* || *Ereñotza erute san elixara, da aren satidxe, orridxe edo astillie eitte dxakon sartun orreri, kurtziri, da axe kurtzi ipiñi... Oin be kurtzik amen geurin be ointxe egongo dire. Da solo bakotxien bat.* □ *Hona hemen erreñotza eta erromerue berben arteko desberdintasuna: || Ereñotza da naiku orridxe eundidxe dekona, orri sabal aundidxe, ta ba useiñe eukitten dau. Da erromerue jeneral, lora lilatxu eukitten deu te txikidxe, da erromerue, bai gurin badau erromeru baya len erli pe, da oiñ estekeu erleri pe, da jeneral erromerue erliri ipintte dxaken.*

**eride, eridie.** (ERIDA) Herida. || *Negarres dau umie, ta minsorri deko eridie.* || *Ankak e, apatxiñ-ero eridi euki eskero, a apatx bittarteku esate dxakona, kari*

*ixete san ona, kare bixidxe.* || *Astandela: biarrin sausela, da miñik eiñ esteixun be, ba biar eitteko beras. Sera, arek oratu, barrutik lotunde egote san trapuas; a ganetik sartu, de ba matrasau esteidxen, apurtu esteidxen, txarrau eiñ esteidxen-edo. Bai eridie matrasau esteidxen, igul lorrindu, aundidxau edo txartuau parau, a saintzeko, a saintzen atzamarra, ariñau saniau deidxen.*

**eridxotzie.** (HERIOTZA) Muerte, expiración. || *Eridxotzie artu deu.* || *Eridxotzie etorri dxako.*

**1 eritxi, eritxidxe.** (ERITXI, iritzi-bat.) **1.** Opinión, parecer, juicio. || *Ori da gure eritxidxe.* || *Euren eritxire ein dabe.* **2.** Creído, -a, vanidoso, -a. || *Orrek beren bururi asko eriste tzo.* □ **eritxi baten.** Poco más o menos. || *Eritxi baten bot-ot.* □ **eritxi baten egon.** Seguir opinando igual. || *Beti eritxi baten nago.* || *"Sen baten dau": eritxi baten daua, sen baten lenguas dabil.* □ **eritxidxen.** A ojo de buen cubero, a bote pronto, sin pensarlo mucho, sin saber a ciencia cierta. || *"Eritxidxen esan dxok, ta asartau ein dxok": ori da badaespada, ba fijo estakidxela geusie.* || *"Eritxidxen esan deu": sigur estakidxen geusa bat, eritxidxen.* || *"Eritxidxen esan deu": jakiñ ein barik, edo ser in barik, nei eser estakidxela les: "Eritxidxen esan deu orrek, da asartau ein deu gero" igul. Olantxerik, ba, eritxidxen esan, pentzau te esan.* || *-Ba, arek au esan deu. -Bai, eritxidxen.* || *Eritxidxen esan deu arek.* || *"Batek jakingo dxok ori!" Ori da eritxidxen, dudan.*

**2 eritxi, eritxi, eristen, ereisten.** (ERITXI, iritzi-bat.) Opinar, parecer. || *Nik ereitxi tzet geuse ona.* || *Ondo ereitxi tzet.* || *Ser ereitxi tzek orreri?* || *A pe latz ereitxi tzek areri, da etxok ein, itxi tzek.* || *Orrek beren bururi asko eriste tzo, eritxidxe da.* || *Mosolue? Bai, mosolu bai, noberak eristen batzo ganora baku-edo, "Mosolu alakue!" esaten da.* || *"Esarridxe dau" esate dxako ba, esate baterako, noberak persona bateri, geixorik dau, te txarto ereiste tzo, da esate dxako "Esarridxe dau".* || *Eurrerako dauena ixeten da, ya bieye jaidxo da ta ba eriste tzesu ba edarra, beidxe asteko modukue, da alaku ba eurrerako asi eitten da.* || *Burutik estau ondo, berak deritxena esaten deu.* || *Karu eritxi tzet eta estot artu.* || *Etzutie? Ba ser dala esangot? Edo bedartzan edo nunun, leku, ona dan lekun, noberak deitxon lekun euskidxe artzeko...* || *Sapue: geusak normal estabixena. "A sapu da!" ba esate dxako ba normal estabillenari. Bi dan modun berba eitten estabelako edo bi dan moduku estetzeulako eristen edo olanik.* □ **luse eritxi.** Impacientar por la tardanza, parecer largo el tiempo. || *Luse eritxitte nau.* || *Luse eritxi tze itxaten.* || *Se, luse eritxiko seutzan?* || *-Gogoitzen egon sara? -Ba luse eritxi tzet nik.*

**erkerera.** (ERKERA, arkara-bat.) Celo (de la oveja, cabra o cerda). □ **erkerera egon.** Estar en celo (una oveja, cabra o cerda). || *Euntze erkerera dau.* || *Txarridxe erkerera dau.*

**erkin, erkiñe.** (ERKIN) **1.** Débil, flojo, -a. Ik. *eskasa.* || *Landara erkiñe.* || *Ori da erkiñe!* **2.** Delgado, -a, desmirriado, -a. Ik. *argala.*

**erla, erlie.** (ERLA, erle-bat.) Aveja. || *Guk erlarik estou sekule euki.* || *Len erlik euki gendusen, an solun goiko partetxun.* || *Len jeneral etziñ eukitte gendun estidxe, erlik euki gendusen-da, ba erlio pa banan-banan il siren-da.* || *Da erromerue jeneral, lora lilatxu eukitten deu te txikidxe, da erromerue, bai gurin badau erromeru baya len erli pe, da oiñ estekeu erleri pe, da jeneral erromerue erliri ipintte dxaken.* || *Asto pekotza aintxiñe bakixu setako usete san? Erliri estidxe atateko, keye eitteko. Keye eitten deu asto pekotzak. Erliiek keyek e kendu eitten dittu. Guk estidxe euki gendun, da asto pekotzas eitte san erliiek kendu. Keye botaten deu, keye satarra, da fuera! A bastartu, erlie bastartu ein bi dabe panalak kentzeko. Axtetako usete san*

**erladun, erladune.** (ERLADUN, erledun-bat.) Poseedor de avejas o colmena. || *Guk geuk erlerik sekule estu euki. Ba emen e Anderek eta onek beti erlik. Orrek or beti or atzien. Ba emen Saintxorta esate tze, Saintxorta bakixu, or beti erlie. Da Etzesarre. Ta Etzesarre, amen Turko bixi da ba, or be beti erlie. Da olakoxe batzuk eusen emen erladunek. Onexek, da Ururun be bai. Ururuko sarra pe eukitte besan. Ba guk sekule bes erlaik.*

**erlatoki, erlatokidxe.** (ERLATOKI, erlategi) Colmenar, lugar donde están las colmenas. Ik. *erlauntze. Erlatoki barruan bat, bi, hiru, nahiz sei erlauntza egon daitezke.* || *Erlatokidxe: igul erla asko, aintxiñe tellatutxu eitte dxaken, tellatutxu goidxen, tellakin, de gero an aspidxen kolmenak, erlauntzek. Igul erlatokidxen lau igul, te sei igul. Da ba erlatokidxe a tellatudune.* || *Erlatokidxek tellatu itxurie eukitten deu.* || *Oiñ estakitt ibili be eitten badeu, se ara erlatokidxe san lekure erunde deu te.* || *Bakixu nun daun burdiñarie? Dau, len ixen san..., ser esangot ixen sala? Erlatokidxe, da oin be ganetik, ba tellatutxu antxe deko, da gure burdiñarie antxe deku.*

**erlejiñoye.** (ERLIJINO, erlijio-bat.) Religión.

**erleuntze.** (ERLAUNTZA) Colmena. Ik. *erlatokidxe.* || *Erleuntzen barruen esti asko dao.* || *Erlauntze kajie da, erlak dekosanari esate dxako. Aurrien suluk eukitte ittu.*

**erloju, erlojue.** (ERLOJU, ordulari) Reloj. || *Tiki-taka-tiki-taka ibiltten dana da pendolie. Da pixuk eukitte ittu, sortzi egunik sortzi egunera emote dxako kuerdie, ra-ra-ra-ra, da aste bat eitte tze pixuk bajatzeko, da gero ba domeketan e -len aittek eitte bangero ba domeketan pixuk altzau eitte dxakosan erlojuri, te ostabe aste gustidxen eote san.*

**erlus, erluse.** (ERLUS, erlantz) Brillo, resplandor. || *Erluse eitte dxok.* || *Or be seosek eitte dxok erluse.* || *Erluse eitten deu kristelak.* || *Erluse, ba, geuse argidxeri esate dxako, euskidxen argittasuneri, "Euskidxek erluse eitten deu", edo olan, "Erluse dau".*

**ermandada, ermandadie.** (ERMANDADE, anaidi) Sociedad de socorros mutuos. || *Len ganaduk eitte sirien, erridxen, ba onenbeste ganadu, onenbeste bei, onenbeste ganadu deket, da sosigu modun sartze siriñ ermandadan. Da gero arek eukiko baleu suerte txar bat, eta ilgo balidxako bei bat, edo txal bat, edo seoser, areri parte bat galdu, de pagau eitte dxakon arena.* || *Ermandadak egon siren len. Bei bat iltzen bada be, ba bakotxak apur bana ipiñi, emon; ba orrek ermandadak.* || *Su ermandadan egon dire Ereñoku pe.* || *Len ganaduen be ermandadie deitze san.* || *Barriadak junteu, de ermandadie.*

**ernamin, ernamiñe.** (ERNAMIN, ernamuin-bat., hosi) Germen, brote. Ik. *sille.* || *Bueno, ernamiñe ya erneten daun labore bat ta, oiñ artuk erne bi deu, leku batzutan igul egongo da erneute, neu be ollu kentzen axegeittik jun nas, da ernamiñin dauna ya eoten da hurriñ apurtxut, es-bai, olan bistan eoten da, artu ba alantxik eoten da, da "Ernamiñin dau" esate tzeu.* || *Esate baterako, babi erneten badau: "Ya elbistute dau", erneten daun geusie. Iderra be bardin, elbistute, ya ernamiñe emonda. Emen ori berbi bayo geidxau esaten da "Ernamiñe emonda dau".* || *Ernamiñe botata dau.* || *Bai, geusa bat erneten dauenien, erne ein bi dabenin da, urtete tzonin, seinde artu nai inddarrak, oiñ indarra eraitten da, da artu erainde dau, te axe erneten daunien, arixeri esate tzeu "Ernamiñin dau", nai artu, nai indarra ba ernamiñin dau.* || *Sillik etxekok, ernamiñik etxok emoten.* □ *Ondorengo adibideetan elbistu eta ernamine emon arteko desberdintasuna aipatzenda.* || *An puntetxu urteten daunien, elbistuten asiite dau. Ori da ba idxe ilde egon da gero bistu. Elbistu. An lurren barrutik... Patati be alan lurre eskatute puntetxuk urteten deu. Baya ernamiñe da diferentie. Orre pe geusa bi dire. Ernamiñe esate dxako patati, garauneri urtete tze ba eureri, erein bi danerako ernamiñik espouko nekesau erneten da.* || *Ba ori 'elbistu' esta ori bat e. Se elbistu da ya lurreti kanpora daun geusie. Da ori bestiña, ernamiñe da bera be eitten deuna. Patatik ganera atara barik eukitten bosu lusero, bertan eitte ittus dana "Ernamiñe emon" esaten da. Dana arantza txarrak gero barrun. Garaun eundidxe emon biarrin, da bertati txupau. "Ernamiñe emonda dau patati"-te esaten da.*

**ernamindu, ernamintzen.** (ERNAMINDU, ernamuindu-bat., hozitu) Germinar, brotar. || *"Ernamindute dau": ya kanpora urteten dauenien, ernamindute dau.* || *Asi da ernamintzen.* || *Bai, asidxe erneten dauniñ-edo, errementaute dauniñ-e, esate baterako, artue, nai indarra, nai garidxe errementaute*



daunien, ya sepatxu les urteten asitte dekonin, ordun "Ernamindute dau" (esaten da).

**ernari, ernai, ernaridxe.** (ERNARI) 1. A punto de brotar (planta). || 'Ernai dau': seinde, artu, naiz garidxe, nai labore bat ya erneten daunin. || "Ernari dau" esate dxako arto asidxe, edo gari asidxe, edo erremolatxa ser beste gausa baten asidxe ya erneten asten danien, ba esate dxako: "Ernari dau". 2. Preñada, encinta. Nabarnizen berba ezagutu egiten da, baina gutxi esaten da. || "Ernei dau": esate dxako esate baterako enbarasada daun andriri. || Bueno, badau eitteko kunie, edo txakur kuni edo billotza edo soser eitteko badau, enbarasada badau, ernai dau. || Ernaridxe bai, esate tze batzuk, baya guk e geuk e bestera esateu. || Ganadu dauniñ "Ernari dau". Guk "Txal eitteko dau" esateu jeneralien, guk geuk etzien. "Txal eitteko dau", baya berton erridxen be "Ernari dau" esaten dabe.

**1 erne, erneten.** (ERNE) 1. Germinar, brotar. || Artue erneten datorrenin pikuas tirtute eperdiko garaue jate tze. || Bermio bedarrak ariñ erneten dire da beti jorratzen egon biar. || Landarak erne dire. || Erneten asitte dau. || Or sementeran egoten dire erneteko, da sartzeko bestekuk asi artien, antxe egoten dire, da gero sartzeko bestekuk asittekun sementeran, arek lurrera, orture, edo solora ataraten dire. 2. Nacer, surgir, engendrar. || Barik arrautzak eitte ittu, lurre barrun sulotxu einde, arrautzak, karakolak lantxik, da andixik erneten diñak dire baba sorriddex.

**2 erne, ernie.** (ERNE) Tallo recién nacido. || Erein de gero, erne eitten da, da an lurren ganién datorrena: "Gari erne ederra dator", edo "Gari erne txarra dator". || Bai, erne onik estatorrenin txarra esaten da, baya oiñ es onik eta es txarrik, oiñ esta ereitten gariri pe. Bai, ernekera eskasa dekonien: "Gari erne eskasa dator", edo "Gari erne txarra dator", bai esaten da, da arturi be bai. || Bai, erni asko badau, sarratu badau, bedarra ba sarratue.

**3 erne.** (ERNE) 1. Brotado. Ik. loretan. || Ori erne dau. 2. Preñada, encinta. Berba hau "ernai" berbarekin nahasten dela uste dut. Dena dela, bata nahiz bestea gutxi erabiltzen dira, gehienbat "Txal eitteko dau" esaten da eta. || "Erne dau"? "Erne dau" ba ganaduri bai. "Erne dau" txal eitteko daunin, umias daunin, ganaduri esate dxako.

**ernegagarri, ernegagarridxe.** (ERNEGAGARRI) Desesperante, que causa enfado. || Ernagagarridxe: beste batek ernegau eitten deu, igul txarto esanda, nai alanik, alanik beti sirike deunien be, ernegau eitte tzo igul bateri, da: ernegagarridxe, a sirike dauna, an txintxetan dau, ernegagarridxe orixe.

**ernegau, ernegetan.** (ERNEGAU, ernegatu-bat.) Enrabiatar(se), enfurecer(se), encolerizar(se). Ik. berdetu, sutu. || Ernegeute sataka-ta asittakun: "Berdetu dxako orreri be." || Ernegaute on nitzen. || Beti ernegetan dabil. || A ernegu dok. || Solidxe:

seinde jenidxotzuri-edo esate dxako. Jenidxo dekonari, edo ba ernegetan daunari-edo, ba "Solidxe da" edo "Soli sabis" edo. || Ernegaute geistua da. || "Artak artu esiñik dabil" edo olan esaten da, ba ernegaute daunin-edo. □ **ernegau erein.** Hacer rabiar, molestar, irritar. || Siriñe da bestiri beti ernegareitten dauna, bestie txintxetan dauna. || Au esan, da ori esan, da ernegau ereitten saus. || "Ume kondue!": umik ernegau eraitten dabenién esate dxako ori be. || Sorigaistue? Bai, ernegau eraitten dabeni umiri esate dxake "Sorigaistokori!".

**ernegau, ernegaue.** (ERNEGAU, ernegatu-bat.) Impaciente, vehemente, airado, -a, enfadado, -a. Ik. kakapirridxe. || Ernegaute dxauk ori be. || Ernegaute dau. || Ernegaute da ariñ ernegetan dabena, beres. || Ernegaute guk esate tzeu an arrabidxetan-da deunari, ernegetan deunari.

**ernegera.** Brote, nacimiento. □ **ernegeran.** Al brotar. Ernegeran ere esaten da. || Koko bat oten da (aspiddex) jate ittuna ernegeran, da oixe ixengo da.

**ernegu, ernegue.** (ERNEGU) Mal genio. || Orrek deko ernegue!

**ernei.** (ERNAI) Atento, -a, alerta. Ik. adi. || Ernei dau. || Ernai: adi-edo, saratie entzuteko listo dana; lo bardin.

**ernekera, ernekerie.** (ERNEKERA) Brote, nacimiento. || Bai, ernekera eskasa dekonien: "Gari erne eskasa dator", edo "Gari erne txarra dator", bai esaten da, da arturi be bai. □ **ernekera.** Al brotar. Ernegeran ere esaten da.

**erosi, erosten.** (EROSI) Comprar. || Esaten dabe Gernikan erosi dabela pixu bat. || Sorriñ erosi deu etzie. || Bai, len etziñ eitte gendun ogidxe ta oiñ erosi eitten du, oiñ etziñ estu eitten. □ **erosi-saldun ibili.** Comerciar. || "Beseru dxok a", geusa erosi-saldun dabilena. □ **pixure erosi.** Comprar según el peso que indica la báscula. □ **tantora erosi.** Comprar según el peso que se le calcula. || Len gure aitte tratanti ixen san, da tantora eroste basen.

**eroso, erosue.** (EROSO) De un modo fácil, cómodamente. || Bier erosue. || "Eras etorri dxate", edo "Eroso etorri dxate", geusa bat ekarte danin, edo artzen danin, edo olan, ba "Eran etorri dxaku", edo "Eroso etorri dxaku", ori bai esaten da. || Eroso nau. || Bide erosue? Ba bidie, norbera ibiltteko be bidie, ba erosu ixetie, bide erosu. Leune, ta ba bide erosu.

**erosta, erostie.** (EROSTA) Lamento. || Beti erostaka dau. □ **erostie jo.** Lamentarse. Ik. illetie jo, keixus egon. || Erosti joten: esate baterako, geixorik dasenak e, persona pe erostaka egoten dire. "An min deket", "Emen min deket", "Miñ eundidxe deket".

**erostaka.** (EROSTAKA) Lamentándose, quejándose.  
|| *Beti erostaka dauna da erostaridxe.*

**erostari, erostaridxe.** (EROSTARI, hiletari)  
Lamentador, doliente. || *Erostaridxe da beti erostie joten dauena.*

**erostzaille, erostzaille.** (EROSTZAILE)  
Comprador, -a. || *Erostaillie? Bai, erosten dabena, geusak erosten etorten dana-edo ba, erosten dabena-edo ba.*

**erpe, erpa, erpie.** (ERPE, atzapar) Garra. || *Katuk dekos erpiek.* || *Ur olluek eukitten deu paitti les e anak e se, se, se ori, esan gutena, erpa barik, sedie ori, telie.* □ **erpeka.** A arañazos. || *Erpeka urrutu dxok dana.* □ **erpeka ein.** Arañar. || *Katuk erpeka ein tzu.* || *Erpeka eistek baya estek urrutu.* □ **erpeka ibilli.** Arañar. || *Erpeka dxabik.*

**erpekada, erpekadie.** (ERPEKADA) Arañazo. || *Erpekadie da atzamarrakiñ eitten dana, nai ankakin be bai.*

**erradore, erradorie.** Herrador. *Perradorie* ere esaten da. || *Biriki da granue, barruen, apatxen barrun urtete tzena. Da a ein bi da garbittu de orrek betenaidxuk... Erradori pe bai. Erradori berak eitten deu. Garbittu dana, ta a ebei, te gero botiki ein, erreteko.*

**erradura, erradurie, erredurie.** (ERRADURA)  
Herradura. *Perrie* ere esaten da. || *Erreduri da beidxen apatxen ipintte dxakona. Perrie batzuk esate tze, bestik e areri be erreduri esate tze. Saldixenari be perrie nai erredurie.* || *Erraduri esate dxako beidxek ankan ibiltten daben perriri.* || *Bei perreteko erradurak domiñetako, malluke bi euki gendusen.* □  
Intxaurrea baserrian, berriz, azaldu zidaten *perrie* eta *erredurie* ez zirela bat. *Perrie* ganaduari ezartzen zaio eta belarritxo bat edukitzen du apatxari lotzeko. *Erredurie* zaldi aziendari ezartzen zaio eta ez du belarririk izaten. || *Erreduri saldidxena da. Perrie ganaduna. Perri da belarritxuas, belarritxu gora dekona, olan sartu te a belarritxue apatxiñ inketaku ixete san.*

**errakuntze, errakuntzie.** (ERRAKUNTZA) Error, equivocación, falta. || *Errakuntzie: seosegas eitten daniñ erratu, geuse bat, batera ixen geuse bat, eta bestera esan-edo eiñ eskero: "Errakuntzie ein tieu", "Erratu ein nas esaten".*

**erraldie.** (ERRALDE) Medida de peso equivalente a diez libras. || *Erraldie txarridxen pisu ixaten da.* || *Ori txalan pixueri esate tzeu erraldie. Erraldie, bost killo.* || *Pixeten doiñien, ganaduna ixeten da erraldie, txarridxena arru.*

**erramu, erramue, erremue.** (ERRAMU) Romero (*Rosmarinus officinalis*). □ **erremuetan.** En la festividad del Domingo de Ramos. || *Erremuetan*

*bedeinkatuten lelungotan elixera erun, da gero andik ekarten dan ereñotz adartxuas e eiñ ori.* □ **erramun egune.** Domingo de Ramos. Ondoren azaltzen den bezala, egin honetan ereinotza eroaten da elizara bedeinkatzeko eta gero ortuan edo soro hegalean ipintzen zen *tenpestade txarrari eurre eitteko.* || *Erramun egunin, ereiñotza erun elixara, bedeinkatzeko.*

□ **erremus.** En el Domingo de Ramos. || *Solun suk esan gure suma da ori, erremus kurtzie ipintte da solun. A da bedeinkatute eruten dan adartxue, sartun, da kurtzie. Len beti solo gustidxetara kurtze bana. Ainbeste solo egote si les, danak kurtze bana.*

**errape, errapie.** (ERRAPE) Ubre. Ik. *errue.* || *Errapeko miñe.* || *Errapien esnie ya galdu ein da, lodittu.* || *Seoser eskatzen dabenñ eitten dabe ganaduk urrumie. Edo txala gure dabela errapara, edo seoser gure dabenien eitten deu.*

**errasionamentu, errasionamentue.**  
Racionamiento. || *Errasionamentue egote san len.* || *Jaten-de olanik batzuk esaten dabe, ba: "Ak gitxi jaten deu" te, "Bai a errasionamentun dau".*

**erraso, erreso, errasoi, errasoye, erresoye.** (ERRAZOE, arrazoi-bat.) Razón. || *Atrapaute dau. Esteko buru ondo. Beren erresorik esteko. Esteko esen erresorik eta.* || *Batak erungo deu errasoye, da bestik esteu erungo.* || *Ixildu erain tzet (erreso barik berbetan diardunari, egidxe esanda).* || *Erresorik emon barik.* □  
**erresoye euki.** Tener razón. Ik. *susen egon.* || *Erresoye dekek.* || *Esteko errasoirik.* || *'Binke' esan eitten da, erresoye topetako lekun, erresoye..., erresora juteko modun daunin-edo binke be, "Erresoi deko"-edo.*

**errastu, errastue.** (ERRASTU, arrasto-bat.) 1.  
Rastro. || *Txoridxen errastue.* || *Errastue topau.* || *Igul garidxe edo artu edo jenerue, asidxe dauna, igul galdu eitten deu, da: "An itxi dxok errastue!" Areri etxako esate "markie", espabe "errastue".* || *Errastue an dxak.* 2. Resto, en el juego de la pelota. || *Errastue da sakie atara ta, gero bestiek eitten deuna: "errastue ein dxok!". Ta batzuk sakan eitten dabe.* □ **errastun ibilli.** Rastrear. || *Txakurre errastun jabik!*

**erratu.** (ERRATU) Equivocar(se) errar. *Konfundidu* ere entzuten da. || *Bidias erratu nas.* || *Erratuneko bidie.* || *Errakuntzie: seosegas eitten daniñ erratu, geuse bat, batera ixen geuse bat, eta bestera esan-edo eiñ eskero: "Errakuntzie ein tieu", "Erratu ein nas esaten".*

**1 erre, erreten.** (ERRE) 1. Quemar, arder, abrasar. || *Erre useiñe.* || *A erre, Gernike erre, da ni Gernikera jun nitzen ia topeta banaittun.* || *Solittu eitten da a errenekue, da materittu be eitten da, da materidxe atara bi ixate dxako osatzeko.* 2. Asar, tostar, freir; cocer (el pan). Ik. *kiskortu.* || *Brasan erre.* || *Berton erreten san ogidxe.* || *Sakarak erre.* || *Lapikuri aspidxe errete*

*dxako sarritten. || Oin suten erreta dau. || Bai, onek e erreteko ekarri ttut neuk, da oiñ onek e erreteko moduku tas. Urdin sagarra deke ixena. 3. Agotar(se), esforzar(se). || Suri dxok ori, ori estok erreko! 4. Irritarse, enfurecerse. || Erreta dau. || "Irritute dxak": erreta personie, ernegau einde. 5. Efecto que produce la cal cuando se plica al grano de trigo con el objeto de que brote sin la enfermedad del trigo. || Garidxe eraikeran ondo erreten espada, ludoye euki es arren, garidxe ondo erreten espada, ludotu eitten da. || Garidxe eraitten da karias. Oin lengo modun karerik estau les eitten, oiñ edo Gerniketik eskarten dabe, ekarten da, ba botika eoten da, da nastaute dxako ureri, da araxe botaten da gari garaune, erreteko, erre esate dxako, norik urten esteidixenteko. || Ludoye ixeten da gari buru baltza. Baltza erreten estan garidxe eukitte ban, gari buru baltza, da es eban balidix-ixeten, ludoye eitte dxakon, da es eban balidix-ixeten, ebaitteko etzan geusi ixeten. || Bai, garidxe eraitteko erre eitten da, oiñ aspaldidxon estou garirik eraitten baya. Ba botate dxako karie, kare bixidxe, ekarten da, da botaten..., botate dxako garidxeri kare bixidxe, ta nastau-nastau-nastau eitten da kare bixitten, da botate dxako, olan apurtxu bet botate dxako, asko barik apurtxu bet, garidxe erreteko beste, garidxe ekarri esteidixen ludoye. Ixeten da, ludoye ixeten da, garidxe ekarten deun ludoye ixeten da...,gari garaune eitten da..., eitte dxako geusa gris antzeko bat eta garidxe eitten da erne barik..., ludoye erreteko botaten dxako karie, da oiñ e askanerau kari barik ekarte gendun..., drogeridixan be eote san da se ixen esate gentzon?... , ixena be astuta..., olan berdeski ixaten da, se esangot neuk?, olan arri troku-troku lakuk ixaten dire, da ixena be astute nau. Da botate gentzon axe, uretara bota axe, da urtu, da garidxe botate gendun araxe uretara, ludoye erreteko, ludoyas erne esteidixen, garidxe ondo erne deidixen. 6. Quemar, desinfectar una herida. || Edo ebaidixen bat eitten dabenin-be, ba ipiñi salmueye, ta ankie, edo esku-edo ba antxe barrun euki erretako apur bet. 7. Producir picor. || Miñe? miñe, piperrak eukitten dabena, agu erreten dabena. 8. Fermentar (el estiercol). || Oiñ esta eitten satz seri paya makiña bat aspiarri basutatik ekarritte, satza, beidixek aspidxen dekena batu de pillau eitte san. Pillau, ba ein deidixela, erre, satza erre. Da gero erreten danien satza, olanik geuse, se esangot neuk?, arturi botate dxakon, baya ortutarakota satza jo eitte san, jo, da birrindu. Da satz seye. □*

**loguriek erre.** Rendirse de sueño. || *Logurik erreten dau.*

**2 erre.** (ERRE) Quemado, -a. || *Erre gustue deko. □ erre useiñe.* Olor a quemado. || *Seoser erreten danin, da erre useiñe daunin, "Erre atza dau", edo "Erre useiñe dau" esaten da. Geidxau "Erre useiñe dau". || Erre useiñe deko.*

**erre, errie.** (ERRE) **1.** Malhumorado, -a, airado, -a. || *Ori da errie! || Ume errie da ernegau-edo, errie.*

*Nausidxeri be bardiñ esate dxako, gixona ernagau bada be, beti ernegetan lotzen dana-edo, agirikeka-edo, areri be errie esate dxako. || Txikidxe eta ernegaute ori babil, persona errie. 2. Escaso, -a, de mala calidad. || Sagar moskoli bai. Moskoli da eskasa. Txikidxe-ta moskoli esate dxako alakuri, beti iguel sagar ona ero edarra esate dxako. Da olako txikidxe ero errie-ero, "Sagar moskolak artu sak". || Sagar errie? Esan guna, errie... esan gutena, eskasa badau, erri esate dxako asko.*

**errealdi, errealdixe.** (ERREALDI) Hornada. || *Errealdi bet ipiñi dot.*

**errealidadie.** (ERREALIDADE, errealitate-bat.) Realidad. || *Ori esta errealidadie.*

**errebaño, errebañue.** (ERREBAÑU, artalde) Rebaño. || *Errebañue batu. || Orrek ardi errebañue artu eta juten dire, ba orra, pastue, jatekue deun lekure. || Len emen etzien nik estot esautu errebañorik. || Errebañu itzela etorri dok!*

**errebedar, errebedarra.** (ERREBEDAR, errebedar-bat.) Aro, jaro, clase de hierba que sale en las peñas y que tiene como un racimo de granos rojos y le gusta al jabalí || *Erre bedarra esate san len, ixaten san olan, lelengotan ba berdi egoten da, berde-berdi-ta, gero apurtxu te eitten da olan gorriskatu-edo, gorri illundu-edo, da arixe esate gentzon erre bedarra, da ortun euki be eitte gendun ganera. Ori ba errierik eiñ eskerun, arexeri ipintte gentzon ganin-edo. || Erre bedarra selaku dala esango tzut. Len geurin be egon san baya nik pentzetot oin galdute daula. Errebedarra olanik e esku-edo, anki-edo, seoser erreten danien, ba ipintte dxakon errebedarra esate dxakon bedar bat ote san..., orridxek e... olanik selan esango tzut?... olako orritxuk eukitte ittu, da orritzu-orritzu ixeten da. Da beres orridxek gorriskatxuk eukitte ittu apur bet. Da ba errebedarra esate gentzon aintxiñe, erreten danin ba alakoxi ipintte, osatzen dala ta.*

**errebentoi, errebentoye, rebentoye.** (ERREBENTOI) **1.** Reventón. || *Rebentoye motorrari erremeente tzen e erruedak, edo bixikletiri. 2. Clavel reventón. || Kabaliñak? Bai, kabaliñak e errebentoi badas, bai. Ixeten dire besti payo eundidxauek, da se esangot neuk?, alderdi batetik apur bet errementau les eitten dabenak. Kolorie? Gorridxe, gorri-gorridxe, suridxe be euki leidxe. Kabaliñak ainbeste koloretako taus ba. || Da rebentoyek esate tze batzuk. Arek nauku kabelañe eundidxe ixeten dire, rebentoyek esate tzeu.*

**errebes, errebesa.** (ERREBES) **1.** Revés, invertido el orden natural. Ik. *aldrabesa. || Errebesa? Bueno, errebesa aldrabesari esate dxako. Ser esangot nik? Geusie, dan geusiri barik, estan geusiri-edo, errebesa. || Persona bateri be esate dxako errebesa. || Errebesa? Estan geusiri esate baterako, errebesa esate dxako. Errebesa, ondo esatunari edo txarto esaten geusiri. || Estau esan ondo, errebes esan dau.*

2. Vómito. ☐ **errebesan**. Vomitando. || *Errebesan dabil*. ☐ **errebesak ein**. Vomitar. || *Errebesak eitten ibil da*. || *Errebesak ein ttu*.

**errebesau**. (ERREBESAU, errebesatu-bat., okatu) (esp. *revesar*) Vomitar. Ik. *bota, gomitteu*. || *Gaindikidxe jan, da gero errebesau eitten dabe, benenue artzen dabenien errebesau eitten dabe*.

**errebote, errebotie**. (ERREBOTE) Rebote, segundo (tercer...) bote (de la pelota). || *Errebotie pilotik eitten daben jagidxeri esate dxako*.

**errebuelta, errebueltie**. (ERREBUELTA) Revuelta, curva. *Kurbie* ere esaten da. Dena dela, *errebueltie* da gehien esaten dena, eta, gainera, lekukoren batek *kurbie* erdarakatzat jo du, nahiz eta jakitun egon den *kurbie* nahiz *errebueltie* datozela erdaratik. || *Errebuelti artu*.

**erregadidxeu**. (ERREGADIAU, erregadiatu-bat.) Regar. || *Neuk erregadidxeuko-tas*. || *Egunero erregadidxet-odas*.

**erregadidxe**. (ERREGADIO) Regadio.

**erregalu, erregalue**. (ERREGALO, opari) Regalo. Ik. *erregin saridxe*. || *Erregenetan emen olanik esta usetan olan erregalu eitterik*. || *Arasueittik au dakatzut, erregalue*. || *Aittebitxik-eta eitte tzen erregalu e orreri, besutaku esate tzen len ba. Ba len ori usete san, mokotza. Oñi esta mokotzik usetan*.

**erregarri, erregarridxe**. (ERREGARRI) Combustible. || *Erregarridxe: suten sartzen dan egurre*.

**erregatera, erregaterie**. La persona que compra una cosa y vende. || *Erregaterie: ba, saldu te erosi, arrautzak erosten, da ollaskuk erosten-da ibiltten danari. Erosi tte saldu-te eitte ittuna: erregaterie. || Erregaterie? Arrautzak e eroste ittuna-edo*.

**erregatero, erregaterue**. La persona que compra una cosa y vende. || *Arrautzerue: arrautza batzen situna. Erregateru ixeti les*.

**erregatiba, erregatibie**. (ERREGATIBA, erregatiba-bat.) Rogativa. || *Siketa eundidxe daunien, erregatibi eitte san beste erri batera. Da ango erriku pe, jute san erriku pe jai artze ben, mesi emote ben da jai artze ben are pe, da mesi egote san, da erregatiba. Gero, arantziñ erregatiban..., neu iños junda nau Natxiture amendixik, Natxiture, eta an amabidxetan jentie itxeitten euki gendun de bidera urtete-skuen, bertan eingerun urtete eskuen bidera, da elixara barrure jun, de mesi emon, da ba kantau, da gero baskaridxe jan, da gero etzera*.

**errege, erregie**. (ERREGE) 1. Rey. 2. Rey (de la baraja). || *Se batzuk pentzaute eukitten dabe. "Bueno, suk erregi dekesuniñ e ipiñi karta bat olan, ero trabes bestie ero bestie. Joku dekesuniñ olan". Da orre di kiñu faltzuk. Olakuk atrapau eskero, nulo*. ☐ **erregin**

**saridxe**. Regalo de reyes. || *Erregenetan emen olanik esta usetan olan erregalu eitterik. Bai, umik dasen lekun ba umiri ekarte dxake seoser, ba edo oñetakotxuek, edo sapataxuek, edo bifaxandatzue, edo ba erregin saridxe esate dxako umiri ekarte dxaken geusiri*. ☐ **errege kopie**. Rey de copas.

**erregen, erregena**. (ERREGEN) Epifanía, día de reyes. || *Erregenes ein gendun*. ☐ **erregen egune**. Epifanía, día de reyes. || *Erregen egunin kostunbre euen kantetako*. || *Erregen egunien erregik olgetako gausa asko ekarri eutzasen oneri*. ☐ **erregenak**. Festividad de reyes, el 6 de enero y su víspera. || *Erregenetan*. || *Erregenetan esaten dire ba erregen besperie edo bidxamona*. || *Len erregenetan kanteta gendu: "Erregik tatos, erregik tatos, limosnia batzen, limosnia batzen, gu be emen gatos, lau intxaurtxu, sapsi gastañatxu..."*, *astute deket, baya dana dala, kanteta gendule. Da ba etze baten igul emongo ban ba txokolatie, da beste etze baten intxaur batzuk, eta ba arexe batu, gero arexe partidu, te jan*. ☐ **erregetan**.

Por Reyes.

**erregiñe, erregiñie**. (ERREGINA) Reina. || *Españako errege-erregiñek*.

**erregu, erregue**. (ERREGU) Ruego, súplica. || *Erregue: bai, erresuk eitte ittunari-edo: "Erregutu ein dot", edo ba "Erreguk eitte ittue*.

**erreguke**. (ERREGUKA) Rogando, suplicando.

**erregular, erregularra**. (ERREGULAR) 1. Regular, ajustado a las reglas. || *Ba, erregularra ser dla esangot, geusa bat normal antzin datorrena-edo. Geusa erregularra da geusa normala*. || *Erregularra da korrantie esati lakue*. 2. Parece que. || *Erregular: kusiden-edo, iñok esanikue esate modun. Beste batek esaniko kontue: "Bai, aren etzera jun dire", "Bai erregular, jun siren, se eurek esa ben-da". Bidxen bittarteku esaten dan berbie, berba modun doi ori, erregular: "Neuk estakitt, baya erregular esa benes etorri siren"*. || *Estakit nik etorri basiren, da erregular eurek esa benes bai*. 3. Normal. || *Batzuk eitte ben domekas, beste batzuk sapatun, aboni ixete san eguen suri, baridxeu erregularra, da sapatu-domeki karnabalak*.

**erregure, erregurie**. Rueda. Ik. *burpille, burterillie, erruedie, erruberie*. || *Erregurie ondatu dxakok*. || *Orrasidxe? Arek e... Burterillie? Burpille esate tze askok, burterille bestik, erregurak...*

**erregute, erregutie**. (ERREGUTA, zerra) Rebanada (de pan...). || *Ogi satidxeri, umiri emote dxakon ogi satidxeri ba ogi erregutie*.

**erregutu**. (ERREGUTU, otoiztu) Rogar, suplicar; rezar. || *Erregutu tzet Ama Birjiñiri*.

**erreidxau, erreidxaue.** (ERREIAU, erreiatu-bat.) Rayado, -a, de rayas. || *Jertze erreidxeue.* || *Olanik gause erreidxek dekosana: erreidxaue.*

**erreidxe, erreidxie.** (ERREIA, arraia-bat.) **1.** Raya. || *Erubie be beneno utzesku dala esaten dabe. Ixeten da..., ori-baltza esango neke nik. Ixeten da ba, olan baltzuskak e, baltza baya eukitte ittula olan erreidxa batzuk, oridxek apur bet.* || *Ni enas kargutu erreidxegas.* || *Ta gero euen arpana, trontza serrañ antzekue. Goitti eitte dxuan batek, eitte dxuen erreidxie iketzas, iketza edo lurras, ipiñi sintta bat eta altzau sinttie. Ya! jote dxuan a, markau eitte dxuak ak.* **2.** Raya del peinado. || *Buruko erreidxie.*

**erreidxue.** (ERRIO) Ría, estuario. Hala esaten zaio Gernikatik Mundakaraino heltzen denari; bestelakoei *errekie* esaten zaie. || *Gernikekuri erridxue esate dxako, an mara sartzen da; bestela bestik, mendittik-eta bera doyasenei errekie.*

**erreilla, erreillie, errillie.** (ERRAILA, errail-bat.) Rueda del carro. Ik. *burterreillak.* || *Burkanie da a ganie, erreillan ganie.* || *Da trakulu da burdidxe, da erreilla bi alderdi banatan ibilte ittu, da arbolie ba eunditxuau nai txikitxuau ganiñ ipiñi, da beidxek karreteridxe eitten dabe.* || *Burterreilliñ asala beres e... se esangot nik? Ixeten da burdiñesku-edo, burdiñi dana. Da erreillatan buelta gustidxen eukitten deu.* || *Egote san burdi bet, diferentie, labur-laburtxue. Errillan pariñ eukitte ban astu esate gentzon egurrezko ol bat, gogorra, da araxe ganera altaute ba ekarte san. Trakulue esate gentzon guk areri burdidxeri.* || *Errilla bateti bestera doiña da ardatza.*

**erreñeta, erreñetie, erregiñetie.** Reineta, cierto tipo de manzana. *Erreñetie* esaten da gehiago *erregiñetie* baino.

**erreittue.** (ERREDITU) Rédito. || *Erreittue esate dxako jeneral ba norberari e kastete tzona-edo, erreittue, edo erreittue pagau bi dabena.* || *Erreittue euneko lau edo bost ixeten da.*

**erreka, errekie.** (ERREKA) Río. Ibaia ez da esaten. Gernikako ibaiari *erreidxue* esaten zaio. || *Errekie agortu.* || *Amen berton estau errekarik.* || *Errekak beterik dois.* || *Errekin beste alderdidxen dau baserridxe.* || *Pedro errekien beste aldera pasa dok.* || *Urte onetan erreka txatxar danak siketu dosak.* || *Errekik ur asko daroi.* || *Errekik ganes ein deu.* || *Errekie ganeska doye.* || *Errekie txatxartu ein dok.* || *Errekie bejatu ein dok.* || *Len neu be jute nitzen ara bekerrekera, trasti joten-da, ixera joten-da. Olan errropa aundidxe dauniñ e. Baya oiñ estaitt iñor juten bada be estakitt.* □ *Batzuetan erreten berbaren esanahia ematen zaio; esaterako, soroan-edo ur bidea irekitzen denean ura joateko: "Errekaxu bat ein dogu ure juteko" edo "Errekaxu bat ein dogu ure sabaldu esteidxen".* || *Ortun, ure juteko, olan errekatxue bai*

*eitten da. Olan ba, se esangot neuk?, ba kanaltxu bat-edo, ure juteko lekutxu bet, bai, eitten da.* □ **erreka aixie.** Viento sur. Ik. *sur aixie.* || *Erreka aixi puntu dxauk.* || *Erreka aixiek ixete dire jeneralien eundidxek.*

□ *Lehen irak urri aldera ebakitzen ziren eta bertan uzten ziren lehortu arte. Horrelakoetan, sarri erreka haizea etorri eta honela esaten zen: Kaguen, erreka aixiek etorko sak eta idak erungo dxuesak!* □

**errekako arridxe.** Piedra de río. || *Errekako arridxe oten da apurtxu bet... ser esango dot?, puntak kendute-edo, urek asko pasaute, da ba esate baterako, olan bidie eitteko-edo, len mendi bidi pe konpondu eitte sirin, da ba errekako arridxe pe alderilla erun eitte sirin, bidik konpontzeko.* □ **erreka ertza.** Margen de río. Sin.

*erreka eskiñie.* □ **erreka eskiñie.** Margen de río. Sin. *erreka ertza.*

**errekadistie.** (ERREKADISTA) Recadista.

**errekadu, errekadue.** (ERREKADU, mandatu) **1.** Recado, encargo. || *Gabon saridxe: esate baterako, errekaduk eitten diriñien denda baten, ba igul emoten dabe ba turro bat, edo menbrillo sati bat, da ba gabon saridxe.* || *Sestokapelie da errekaduk eitten erute un sestue.* || *Aintxiñe Nabarrixen be egon san (tribulidxe), astuas ibilte ben, da iru, edo lau (persona) erute sittun, da bide bates berak etzeko errekaduk eitten jute san.* **2.** Proposición de matrimonio. || *Eskontzeko errekadue ein.* || *Beste bateri errekadue ein tzo.* || *Mutillek ein tzo errekadue neskiri.* □ **errekadutan.** De recados. || *Sestokapelie esate tzeu eskun ibilten dana, errekadutan ibilte genduna len, oiñ euki be-estau, da ibilli be-estau eitten.*

**errekarte, errekartie.** (ERREKARTE) Terreno situado entre varios ríos. || *Errekartie: errekaxu bat bayo geidxau e batzen diriña.*

**errekasto, errekastue.** (ERREKASTO) Arroyuelo. Ik. *erretena.* || *Errekastue? Alan errekastotxu, txikidxe, ure juten dana.*

**erreklamau.** (ERREKLAMAU, erreklamatu-bat.) Reclamar, pedir. || *Olanik, erreklamau ein bi dxako orreri euren denporie.* || *Eskubidi deko erreklameteko.*

**errekondo, errekondue.** (ERREKONDO) Orilla de un arroyo. || *Jittanuk errekonduen daus.* || *Bai, egongo esta ba! Txopue asko, or errekondutan-da. Ariñ asten dana ori txopu. Bastue egurre.* || *Errekondutan, klase asko bedarra das. Askoi!* || *Errekondutan, uren txarku datosen lekuen, ure be jaidxoten dan lekuen, da gero euri asko danin geittu eitten dire, da gero uden agortu eitten dire. Da ba arixeri esate tzeu guk ori, espatie, antxe urteten daben bedar santarrari.*

**errekosiñarri, errekosiñarriidxe.** (ERREKOZINA-HARRI) Fregadero antiguo de piedra. || *Errekosiña arridxek aintxiñeku egoten sinak. Aintxiñe errekosiña*

*arridzek arri utzek ixan siren, olako orre parik, da sulu eukitte ben, urek kanpora urteteko. || Errekosiña arridxe: arri osue, esan guna, satike ein biarren, porlanes ein biarren, landu ein biarren, barru kendu... ure-ta eukitteko.*

**errekuerdu, errekuerdue, errekuerdue.** Recuerdo. || *Geurko egunek errekuerdu asko euki deu nitzako. || Ekarki, errekuerdutzako!*

**erlebu, erlebu, erlebu.** (ERRELEBU) Relevo (reemplazo). Ik. txandie. || *Bai jute siñ erlebu. Igul goixeko mesara juten basan besti, gero eberdikora, berandukora besti. || Erlebu ein biou. || Neu be baten bayo sarridxau jun netzen gaubelara. Gaubeli esate dxako ba. Ya egune ya argittu arte. Gero erlebu be eitte ben batzuk, ya goxaldiñ-ero ya beste batzuk jute sin, enbrak-ero goixarte, egune argittu arte.*

**erlebuque.** (ERRELEBUKA) A relevos. || *Fabrika pe erlebuque eitten dabe.*

**erremata, errematie.** (ERREMATA, erremate-bat., enkante) 1. Remate, subasta. *Subastie eta subastan bota ere esaten da, batez ere azkenaldian zabaldu da asko. Ik. batekorrie. || Errematie dxauk. || Nire denporan errematari pe esan ein. || Errematera bakixu selan ixete siñ ori entzutie. Len e segurue egote san baserridzek e kuadrilliñ e ganaduk-eta, da ein biste san arek e ba seiñek geidxau pageten deun, subastie bardiñe da ori be, da errematera botaten dabe beidxe. Erremata da ori. || Subastie, antxiñeko subasti da erremata. Ba oiñ emen e subasti esate tze danak. || Se sarri jun giñen, erremati dau te beidxek ikusten. 2. Remate, acción de poner fin a la vida del animal que está en trance de muerte. || “Erremata emon tzek” bai, beste esakune bat badau gero, erremata be. Erremata da, kaguen e, bixirik justu-justu da... “Emon tzek erremata”. □ **errematera***

**bota.** Subastar, sacar a subasta. *Errematara ere esaten da. || Bai, etze bat saldu gure danin, errematera botaten da. || Geusa bat saltzeko daunin, “Errematera bota dabe”. || Au erriko tabernie be, da beste erridxetan be bai, onek erriko tabernak urtin-urtin subasteta siren, esan gurot, erromatera esate ben. Erromatera jute siren, da seiñek geidxen agindu, arixeri emon urtebeterako. □ **errematin bota.** Subastar, sacar a subasta. || *Errématin bota dabe solue. || Usie errematin be botaten da, diru falta daniñ erridxen errematin botate itue.**

**errematxie.** (ERREMATXE) Remache. Lapiko zaharrak konpontzeko erabiltzen zen. *Errematxie baino gehiago konpondurie esaten ei da.*

**errematxau.** (ERREMATXAU, errematxatu-bat.) Remachar. || *Lapikue errematxau.*

**erremedidxo, erremedidxue.** (ERREMEDIO) 1. Remedio. || *Sartu dot ankie da oiñ atara esin, erremedidxorik bakue. 2. Remedio, medicina, botica.*

|| *Se betenaidxuk esate tzu “Eusnarra eitten deu?”. Da ordun e ba “Estot ikusi ba”. “Se eske kallenturi ero ori deko ta”. Gero erremedidxuk emon tzos.*

**errementari, errementaridxe.** (ERREMENTARI) Herrero. || *Emen egon san errementaridxe ta perradori bat, amen; baya a errementaridxe da burdiñak, burdiñakin berotu, sue ein, berotu an, da gero burdiñas jo ta, apurtu. || Errementaridxe guk esate gendun, burdiñek eta olan aplastau eitte ittuna. || Emen be egon san errementaridxe, oiñ estau baya. Orre pa baserriko geusak, e burdiñek, nai ba konpontze sittuna, nai arik, solun ibiltteko. || Antxe olan dekosen subilletan ortzak sartu bi dxakos. Ortzak errementaridzek ipintte tzos. || Da orrek untzak, ganera, erosi etziriñ eitten, orrek untzak errementaridzek eitte sittun. || Deuntadie: esate baterako, errementaridzek ingudan badetze, “Deuntadi emon tzo”, “Golpi emon tzo”, Deuntada aundidxe emon tzo”.*

**errementaritzia, errementaritzie.** (ERREMENTARITZA) Herreria (oficio). || *Errementaritzan eitten deu.*

**errementau.** (ERREMENTAU, errebentatu-bat., lehertu) Reventar(se), estallar(se). || *Jun giñen gastaña erreten, ein du su itzela domeka baten, beyen, da tximidzek artu deu sue, tximidzek errementeu kamaran, goigurun, da, medeliñik es! || Errementaute geratu da biarras. || Bai, asidxe erreten dauniñ-edo, errementaute dauniñ-e, esate baterako, artue, nai indarra, nai garidxe errementaute daunien, ya sepatxu les urteten asitte dekonin, ordun “Ernamindute dau” (esaten da). || Naparraidxe da! Da miñiñ urtete tze olan, bona eundi batzuk urtete tze, bonak urtete tze, da arixek errementau artien, ganadu sufriduten dau, de gobernau bier ixeten dabe ba espesial. || Are lobiri errementau ein tzo untxe pasa dan illien e olako bei batek sagarra artun da iñor egon es an da pustute errementau. || Esate baterako, bedar e txarra janda edo artzen badeu nabu-edo, sagarra nai edoser saman, pustu eitten da, da pustu te errementau..., are lobiri errementau ein tzo untxe pasa dan illien e olako bei batek sagarra artun da iñor egon es an da pustute errementau. || “Txala eitteko dxak” eta igul jentiri abiste tzesu por si acaso, da “Ser, ur sorru botata dxak ero ser?”, da “Etxok ondiño bota baya or...”, da iguel buuuuuu! Erremente tzo da txalan ankak agertzen di. || Da suk eruten dosu kare bixidxe, da euridxe eitten badeu apur bet, sue deko ak, errementeu, esplotau eitten deu. Blab! Emote tzo sue edoseri. □ **errementau alako bierrak.** Trabajos tan duros como para reventar. || *Errementau alako bierrak ein ttu!**

**errementoye.** (ERREMENTOI, errebentoi-bat.) Reventón. || *Errementoye? bai, esate baterako, bixikletiñ erruberie errementaute badau.*

**erremesa, erremesie.** Remesa. || *Erremesa barridxe etorko da.*

**erremillote, erremillote, erremollote, erremollotie, erramilletie.** (ERREMILLOTA, erramillote-bat.) 1. Ramo. || *San Jun egunien elixara besada lorak, erremillotak erute siren. Larrosak-eta eta sorgin bedarra pe antxe, kargan berinkatzen.* || *San Junetan erramilleti eruten da bedeinketzen.* || *Lora erremolloti da lora moltzue, moltzun e lorak.* 2. Grupo, montón. || *Da intxeurrek olako moltzue, "Ak dxekok erremolletie!". Igul lau ero bost alkarras.*

**1 erremintte, erreminttie.** (ERREMINTA) Herramienta. Ik. *trikilimañue.* || *Jorrrarako erreminttie.* || *Ak ori erremintti ori erabilli dxok urtebetiñ edo bidxen.* || *Erreminttak dire biarrerako geusak-eta.* || *Erremintta txarras ein deu biarra.* || *Olan arri bet ixengo da, erreminttak sorroste ittuna, da txispak botate itu. Serri, ta kodañe-ta olanik dekesenin, sorrostarridxek sorrosteko bayo aundidxau dekenien. Bai, gasteri esate dxako, ixates.*

**2 erremintte, erreminttie, erminttie, ermittie.** (ERMITA, baseliza) Ermita. || *Amen San Migel egon san, oin jeusitte dau baya, oindiño ointxe jeusi da ermittie.* || *Erreminttan mesie emote san, da atzera bardin kantetan elixera, da amaittu.* || *Bueno, Santidxau selebreten da. An e Lekeriken e, Lekerikeko kopradidxen dau erreminttatxu bat, seinde se esangot neuk? An dausen e etzigandik apartetxuau dau erreminttatxu bat Santidxauna.* || *Kañoyek amen berton on siñ ara tiretzeko. Akordan. Akorda bakixu. An e badau erreminttie? Antxe atzetzun egon sin kañoyek jaurtite besan Sollubera tiruk. Nabarrixen es, es san egon kañorik.* || *Samillen, Samille erremintti san, da Samille be antxe ote san.*

**erremoliñue.** Remolino. || *Erremoliñue dau itxosuen.*

**erremolatxa, erremolatxie.** (ERREMOLATXA) Remolacha (*Beta vulgaris*). || *Pulpie: ganaduri emote dxakena, erromalaxie txikittute.* || *Esate baterako, erromalaxie be emote dxako txarridxeri, egositte be bai, gordiñi pe bai.* || *Erromalaxie amen asitterako gitxi ipintten da berton e! Nabu bai.*

**erremu, erremue.** (ERRAMU) Remo.

**erremuketa, erremuketie.** (ERRAMUKETA) Acción de remar. □ **erramuketan.** Remando.

**erremuskada, erremuskadie.** (ERREMUSKADA, purrustada) Refunfuño. || *Erremuskadie ein dxok ona!*

**erremuskadaka.** (ERREMUSKADAKA, purrustadaka) Refunfuñando. || *Errehuskadaka: bai, agirika ibilli eskerun, ba erremuskadaka.*

**1 erren, errena.** (HERREN). Cojo, -a. Lehengo zaharrek honelakoak esaten zituzten: "Errenka dxoik" edo "Errena dxekok-eta!". Gaur egun, ordea, zentzu

hori galdu egin da eta semearen andreari (erraina) esateko baizik ez da erabiltzen.

**2 erren, errena.** (ERRAN, errain-bat.). Nuera.

**errenkure, errenkurie.** (ERRENKURA) Disciplina, desasosiego, inquietud. Ik. *ardurie.* || *Errenkurie: geusa batas olan dudan daunin-edo, sein batera sein bestera estakidxela dauniñ-edo orixe esate dxako: "Errenkuri deko".*

**errenkuretzu, errenkuretze.** (ERRENKURATSU) Quejoso, -a, lamentoso, -a, quejumbroso, -a. Ik. *kejosue.* || *Errenkuretzu? Bai. Errekuretzu kejetan dabillena beti. Beti kejas, da beti errekuretzu.* || *Errenkuretzu da beti kejetan dauna, beti ayenaka-ero deuna.* || *Errenkuretzu de.*

**errenta, errentie.** (ERRENTA) Renta, alquiler, cuota de arrendamiento. || *Errentan ipin deu.* || *San Tomasetan batzuk pageta ben, da beste batzuk illen lelungutan, semendidxen pageta ben errentie, da San Tomasetan be bai.* || *Errentie ipiñi.* || *Len ixete san usabari errentie erun, gabonetan-da jeneralien.* □

**errenta egune.** Día en que se paga la cuota de arrendamiento. || *Errenta egune? Domu santu eguneri. Errenti len, errenti pageta ei xan domu santu egunin, edo sortzi egun aurrerau edo sortzi atzerau, antxe eingerun.* □ **errentan emon.** Alquiler.

**errentadore, errentadorie.** (ERRENTADORE, errentari, errentero, maizter) Inquilino, -a. *Errenterue* ere esaten da.

**errentau.** (ERRENTAU, errentatu-bat., alokatu) Alquiler. || *Erriko tabernie, erridxeri errentau eitte tzo ori, lantzen batek.* || *Errentau ein deu etzie.*

**errentegun, errentegune.** (ERRENTA EGUN) Día acordado para el pago de la renta. || *Errenteruk diriñak neguen..., semendidxen e pageta san jeneral errentie, errenteruk diriñak, da arixeru esate dxakon, errentegune, "Errentie pagau bi da", edo Errentarako diru bieu".*

**errentero, errenterue.** (ERRENTERO, errentari, maizter) Inquilino. *Errentadorie* ere esaten da. || *Usaba bertan dauela sartu eskero, "errenterue" esin lei esan.* || *Bakixu, Pedro errenteruk ixen da beren denpora gustidxen. Da etze erdidxe bestik saldu banin, ba erosi ein dau.*

**erreñoa.** Cierta variedad de alubia. || *Erreñoa suridxe da.* || *Erreñoa da..., gorridxe be esta, da olako..., ser esangot neuk? loratxu suridxe lakuk apurtxu-te eukitte ittuna nastin; beres gorridxe deka berak, baya eukitte ittu olan..., ser esangot neuk?, olan loratxu lakuk-edo, olan sati txiki batzuk e suridxek-edo eukitte ittuna: erreñoa.* || *Pinttanue, da erreñoa bat dire. Tolosanie be orixe da.* || *Erreñoa suridxe da e! Suridxek daus klasik, suridxek daus erreñoa, da ostantzekue, suri normala. Da erreñoa da, batzuk gorakuk eoten dire, bestik bekuk. Or indarrak, klase asko dau indarra.*

**errepasau.** (ERREPASAU, errepasatu-bat.) Repasar, recoser, remendar la ropa. || *Erropie errepasau.*

**errepikie, errepikie.** (ERREPIKA) Tañido de campana que anuncia la muerte de un niño. || *Errepiki esate tze txingilimañari, da jo eitten dabe eskuas, din-dan, din-dan, din-dan.* || *Errepiki: arixek (txingilimañak) eitten daben txinkadatxue, arixek eitten daben saatatxu, joten dabenin, txin-txan, txin-txan, txin-txin jo.*

**errepollo, errepollue.** (ERREPOLLO) Repollo || *Errepollue esate dxako asik artzen daben bururi.*

**errepollotue.** (ERREPOLLOTO) Repollo pequeño. || *Asie, orrek txikidzek dire, ta orreri errepollotue deitze. Axe eittie, batzie, a beres paratzen da.*

**errerreka.** (ERRE-ERREKA) Juego infantil que consiste en tocar una nuez con otra. || *Ererreka aintxiñe eitte san intxaurrekin: ipiñi alako lekun intxaurre, da parau urrunau, da emendik bota, beetik, da asartau: ererreka.* || *Intxaurrekiñ emen aintxiñe ererreka bai esate gendun. Olanik, intxeurre bota, ta beste batek atzerau botaten dabenak axe jotie: ererreka.* || *Ererreka: jeneral intxaurrekiñ ibiltte gendun, da botate ban batek lelengue, eta urrengo botaten dabenak ba axe jo bier eban, da orrixerri esate gentzon ererreka.*

**erres, erresa.** (ERREZ, erraz-bat.) 1. Fácil, cómodo, -a. Ik. *samurre.* || *Gausa erresak eitteko be, bere mañie bida.* || *Erresa da berberena topetan.* || *Arenau, arias eitte san, lejiás be bai, xoxias be bai, norberak ser dekon erresen, ba aixas.* || *Lengo aldin, oiñ erres dau.* 2. Fácilmente, cómodamente. || *Erres eitten da.*

*Erres irebasten da sueldue.* □ *Lan bat ondo burutzen ibili ezkerro, honela esaten da: Erres dabil.* □ || *Arin negar eitten deu orrek, negar erresa da.*

**erresaidxo, errosaidxo, erresaidxue.** (ERROSARIO, arrosario-bat.) 1. Rosario. || *Mugitti, bai, erresaidxo antzeku da beres, baya a erresaidxuk eukitten daben a biribiltxue bayo estutxuau deke arek. Mugitti sabalau ixaten da.* || *Len erresaidxu usete san. Danak batun, kopradidxe, da gaubelie esate dxakona. Alan eitte san.* 2. Retahíla. || *Kalamatrikie: ixildu bako erresaidxue. Bai, benetan be axe da, baya ba kalamatriki jeneral ba ume gastik eitten dabe berbetan ikesi-ikesi barik dasenak eitten dabe, da nastau eitte ittue geusak, da ba batzuk esango ittue susen, da beste batzuk okerrau, te ba, kalamatrikie.* || *Kalamatrikie esate-u ba, ixildu bako erresaidxue, asarratute, igul enbri-ero: "Orrek kalamatrikie!"* || *Da kantau te beti kanturradak. Erresaidxuk eukitte ittusen.* || *Erresaidxu saman bera.*

□ **erresaidxo bedarra.** Tortero, planta de la familia de las gramíneas, que tiene en la raíz varios bulbos en figura de disco. (*Arrhenatherum elatius* edo *A. avenaceum*). Izen hau baino gehiago mugittie esaten zaio belar honi. || *Errosaidxo bedarra: muittie-edo.*

*(Bat dire? Bai, kontixu, orrek bat dire. Orrek garautxuk eukitte ittu, mugittiek. Areri erresaidxo bedarra esate tze batzuk beñiñe. Muittie emen. Da olanik selebrekeri modun esan gure dabenak: "Erresaidxo bedarra nauku dau or be". Ori be bai, baya ostantzien muittie.* || *Kollarra da saldiri, da asturi saman ipintten dxakena.* □ **errosaridxoko asurre.**

Columna vertebral. Ik. *biskerrasurre.* □ **erresaidxo erresau.** Rezar el rosario. || *Erresaidxu errestan lagunduko eustesu?* || *Gaubelan emen e mesarik egon be esta eitten. Erresaidxu erresetan da, bat nai bi nai senbat jente juntetan dan, da esta egoten besterik e, erresau te gero etzera juten da.*

**erresau, erresetan, errestan.** (ERREZAU, errezatu-bat.) Rezar. || *Amabidxetan joten dittue kanpaidxak ta angelus ta pater nosterra erresetan san.* || *Danak geldi parau ta pater nosterra erresau.* || *Aremaittekutan be eote san (kanpa jotie), da erresau eitte san "Jaunaren aingerua" esanda, "Mariari iragarri eutzan" da erresau eitte san agurmari bat.* || *Gaubela: etze baten bat illte danien, eusuk-eta, adiskidik-eta jun araxe eta gau gustidxen erresetan egon.* || *Erresaidxu errestan lagunduko eustesu?* || *Gaubelan emen e mesarik egon be esta eitten. Erresaidxu erresetan da, bat nai bi nai senbat jente juntetan dan, da esta egoten besterik e, erresau te gero etzera juten da.* || *Bai, ardau te ogidxe ero olanik e gaberdidxen ero, da gau gustidxe erresetan eitte san.*

**erreselue.** (ERREZELO) Recelo. || *Erreselues dau.* || *"Erreselu deko": seoser entzu dalako-edo, seoser esan dalako-edo: "Erreselu deko", edo "Erreseluas dau".*

**erresera, erreserie.** (ERRESERA, arrasera-bat.) Rasero, palo cilíndrico que sirve para rasar las medidas de los áridos. || *Erreserie da, bete selemañe, da badeko geidxau, arixegas, axe pasetan da. Axe biribille ixeten da. Ba egur biribille, beñ olantxik pasetan dana, euki deidxen imiñi justue.*

**erresiñoi, erresiñoie.** (ERREZINO, errazio-bat.) Ración que se tomaba al anochecer. || *Erresiño aparidxe.* || *Aintxiña erresiñoie emen esate dxakon kuartillo ardauri, kuartillue, asunbrik lau kuartillo eukosan, asunbrek. Da kuartillo ardaue ta lau libre ogidxen sortzigarren partie. Erresiñoie, gixonen erresiñoie a ixete san illukeran.* || *Goixien amaiketakue, da gero arratzaldien erresiñoi sasoidxe, erresiñoie. Bostetakue barik, ondiño bostetan ariñ ixeten da sera eitteko. Da saspirek bueltan erresiñoie, a erresiñoietako sasoi dok.* || *Ordun jun Gernikera ta erresiñoi, gixau erresiñoie peseta bat eta bigaittik. Beidxendie. Peseta bigaittik beidxenda ona.* || *Bidegiñi a ixete san. Gero erridzek e ori emote ban, ardaue. Errasiñoie esate dxakon. Da asko moskortute. Bai, aprobetxetan, da gero moskortu. Bueno, len bidegiñetan-da moskorrakin jentie. Usau bes ardau edaterik! Baserridxetan-da pentzau bes ardau*



edaterik! Baten batek arda edate baban! Baya pentzau bes! Ure.

**erreskada, erreskadie.** (ERRESKADA) Serie, conjunto. Hitz hau gutxi erabiltzen da. Berri emaile batzuek ez dute ezagutzen eta illadie esaten dute. || *Erreskadan daus.* || *Erreskadie? Erreskadi, jente pillu-edo, edo ganadu erreskadi deko.* || *Erreskadie? Ba ser dala esangot? Txitxa pe bai, erreskadie. Pillotxu dabillela. Txitxie txikidxe daniñ e, ollun erreskadan ibili eitten da, ollu e mudi dabilen e, antxe ibiltten da.*

**1 erreso, erresue.** (ERREZO, otoitz) Rezo, oración. Ik. *orasiñoie.* || *Erreso bat ein bidot.*

**2 erreso, erresoye.** (ERRAZOE, arrazoi-bat.) Razón. || *Erreso barik esanaldidxe ein deu.* || *"Iñusentetu ein da": ba asarratzen daniñ edo ba erresorik emoten estabeniñ-edo, "Iñusentetu ein da" ba edonori esate dxako.* □ **erresoi euki.** Tener razón. || *"Neure senin nau": Noberak pentzetan badeu erresoi dekola, da bestik estekola, ba "Ni neure senin nau".* || *Eskubidie? Bai, soser, erresoiri-edo, "Arek erresoi euki deu"-edo ba, da "Eskubidi deko erreklametek-*edo.** □ **erresotik urten.** Salirse de sus casillas. || *"Diskordidxaute dabil": ba "Beren senetik, erresotik urtenda dau" esati les.* □ **erresoye emon.** Dar la razón. || *"Bestela ein deu" ba erresoye emote laku da ori. Nik ara jutekun e emendik eta se ein dot? Buelta artu te jun es. Da bestik esaten deu "Bestela ein dxok ara jun es eittie".*

**errespetu, errespetue.** (ERRESPETU, begirune) Respeto. || *Errespeturik esa.* || *Errespetue euki bidxako abadieri.* || *Saskartu: errespetu galdute ibiltten diñak.*

**errespontzu, errespontzue.** (ERRESPONTSU) Responso. || *Errespontzue da abadiari emote dxakona, aitteguri erresetako, ba txakur aundidxe, edo nik estaitt ser ixate san ordun denporan.*

**errestasun, errestasune.** (ERREZTASUN, erraztasun-bat.) Facilidad, simplificación. || *Errestasunek emon.*

**1 errestu.** (ERREZTU, erraztu-bat.) Facilitar, hacer más fácil.

**2 errestu, errestue.** (ARRASTO, aztarna) Rastro. || *Txakurreri galdu dxaken erbidxen errestue.* || *Erbidxen errestue artu deu txakurrek.* || *Belarriko miñen bedarra? Bai, entzu ot, da egon be ein san len, gurien, baya oiñ estau, erresturi pe estau.*

**erresusko, erresuskue.** (ERRAZOZKO, arrazoizko-bat.) Razonable, de razón. || *Gausie erresuskue da, ikusi ein bida.*

**erretasun, erretasune.** (ERRETASUN) Quemazón, ardor. Ik. *bidxotzerrie.* || *'Bidxotzerrie' da erretasune, gora eitte dabenien.* || *Galtzarpi be egostute esaten da. An erreta bakosus, erre egostu, erdix erdidxen ein dan geusie, egostu. Jeneraliñ e esaten da galtzarpik*

*olakorik, "Kaguen, galtzarpi dxas egostute", an erretasune, egostu.*

**erretel, erretela.** Retal, trozo sobrante de una tela. || *Erretelak? Telak, orrek plasan egoten dire dendan, satidxek. Sobretan dixenak, ondakiñek, satittu, da erretela arixe.*

**erreten, erretena.** (ERRETEN) 1. Zanja o canal por donde se conducen las aguas. Ik. *ur bidie.* || *Erretena errekastue da. Bai, olanik solun eitten dire lurrin be. Olanik erretenak ein, de an asidxe ipiñi-te. Da baitte bide siketan be, ure juteko be erretena ataraten da atxurras, karkabatxue.* || *Erretena da, ser esango neuk?, solo baten, edo mota baten, olan serka batzuk eittie ure juteko-edo. Da ba: "Errentaintxu bet ein du, ure pasa deidxen, edo jun deidxen, edo solun sabaldu esteidxen".* □ *Batzuetan errekatxue ere esaten da zentzu honekin: "Errekatxu bat ein dogu ure juteko" edo "Errekatxu bat ein dogu ure sabaldu esteidxen".* 2. Surco que deja el arado.

**erretille, erretillie.** (ERRETEILA) Retejo, reparación del tejado. || *Etziri erretillie ein bi dxako.* || *Da ordun ba eusoko gustidxek batzen dire erretille bat eiteko, olanik etzi premiñan badau. Da urruntxuaukuk, igul errikuk diriñak, da ba, lagun eitten, ba, alkarri lagun eitten.* || *Etziri tellak ipintte dxakosenin, tella barridxek ekarritte, lenguk, sarrak kendute barridxek ipintte dxakosenin: erretillie.* || *Erretillie ein bi du.*

**erretirau, erretiretan.** (ERRETIRAU, erretiratu-bat.)

1. Retirarse, volver a casa. || *Txikuek? Bai, eurre-ta etorte diriñien da olan denpora txarra daunien erretirau eitte gendusen mendittik.* 2. Retirar, quitar. || *Txinxerra, bueno, segidxen jaten espasan eitte sanien, gatz apurtxu botate dxakon, da ba erretirau eitte san.* || *Bueno, ori geu pe usau gendun edo geu pe ikusi gendun, baya ori da txarridxen koipe gasie, da urtu, da daun modun ba erretirau, ontzixu baten artu, ba orixe emote dxaken sapatari-tte.* || *Ori be oiñ erretiraute dau. Ori artesie, ogidxek eta artuk-eta eukitteko ixen san.* || *Letañak e ixeten ei xirien e ba euri txarrak e erretiretako, saparrada txarrak.* 3. Retirarse, jubilarse. || *Esate baterako, ser esangot neuk?, ya erretiretan diiñin bierretik-edo, sueldu emote tze eundidxe espada, txikidxau ta ba "Etorkixun apur bat badeke"-ta ba.*

**erretiro, erretirue.** (ERRETIRO) Retiro, vuelta a casa (después de una fiesta...) Ik. *etorrierie.* || *Erretirau txarra deku!*

**erretolika, erretolikie.** (ERRETOLIKA) Palabrería, retahíla. || *Berba asko eitten dabeari: "Arek atara deu erretoliki!"* || *Erretoliki galanta botau tzet!* || *Bota tzet erretolika galanta!* || *Erretolikie esate dxako emen asko ekitte tzonari: "Erretolika baten ekitte tzo!".* Da *noberak gure estittun geusak-eta esate ittunari: "Erretolikan ein tzo!".*

**erretiratau.** (ERRETRATAU, erretiratu-bat.) Retratar, fotografiar.

**erretratu.** (ERRETRATU, argazki) Retrato, fotografia. || *Neu pe-estot ikusi naturalin, olan erretratu-de ikusi dot.* □ **erretratu ein.** Retratar, fotografiar.

**erreture, erreturie.** (ERRETURA) Montón de hierbas para quemar. || *Bedarrak-eta erreten dixenin, orreri erreturie deittuten dxako, erreten daun pillueri.* || *Erreturie? Geuk solun eitten duna, bedarrak erreteko. Axe da erreturi.*

**erretxiñe, erretxiñie.** (ERRETXINA) Resina. || *Erretxiñie: argidxe eitteko.*

**erreuma, erreumie, erromie.** (ERREUMA) Reuma. Ik. *umorie, asurrillek.* □ *Gaur egun, erreumie edo erromie gailentzen hasi zaio umorie hitzari, batik bat gazteen artean, ondorengo adibideetan aipatzen den bezala.* || *Ba erreumie, ba oin jentik erreumi dana. Ba len es. Len umori. Lengo sarrak umori esaten du beti. Oin be bai, baya jeneralin gastik esate tze erreumie.* || *Len bat garatzen basan, ankian erromie, len umorie esate dxakon "la reuma" erderas; oiñ euskeras erromi, baya len umorie; umorikin garatzen basan sera, anka bat edo beso bat: "Asurrillek garatu dxakos". Asurrek il, beres.*

**erreune, erreunie.** (ERREUNE) Quemadura.

**erri, errixte.** (HERRI) **1.** Pueblo, municipio. Ik. *uridxe.* || *Nabarnis errixte.* || *Bueno Gabike esta errixte, Ereñoa da.* || *Erririk erri.* || *Erriko jaidxek.* || *Errixte kanbidxeu deu.* **2.** Pueblo, población, habitantes. || *Errixtek esan deu.* **3.** El municipio como ente. || *Bidegiñi a ixete san. Gero errixtek e ori emote ban, ardaue. Errasiñoeye esate dxakon.* □ **errikue. 1.** Natural del pueblo. **2.** Público, comunal, propiedad municipal. || *Piñu sartzi be eitte san. Ordun errixtek piñuk onek, oin botaten detzanak, erriku di orrek.* □

**erriko aixie.** Viento cálido. || *Erriko aixie, aixe epeltzue, apur bet a otza barik, epeltzue, aixe epeltzue.* || *Erriko aixie, ta ori axe epela bat tire, kontixu. Enbra aixi esan barikm errikaixie.* || *Erriko axie be ego axiñ antzeku da, bai, bat tire. Orrek axe euritzu barik axe epelak tires.* □ **erri basue.** Monte comunal. || *Ointxe be botaten dabis or piñuek erri basutan.* || *Erri basuk oin be ongo dire. Oin jaubetasunik esteutzeu eitten, baya erri basuek ixate sirien errixena beres, baya arek erri basuk ibiltze suttunak ba urtien, segun selako kantidadi dabillen, arek errixeri pagau ein biar ixate dxakosen.* □ **erri bedasie.** Pasto comunal. □ **erri beidxe.** Vaca de raza pirenaica. Ik. *olandesa.* || *Erri beidxek dire bei gorrixek, adar ederrakin, adar suriska ederrekin, da arexek dire erri beidxek. Erri beidxek esnetzuek estire jeneral. Okelarako ixaten dire, ba, txalak asteko be bai. Da okelarako be orrek pentzetot okela ona ataraten dabena.* || *Erri beidxek*

*tire, danak gorrixek tirinak, gorrixek, es suridxek eta es baltzak eta es..., dana gorrixek, da eukitten dabe surre be, suridxe edo oridxe eukitten dabe, sur baltza pe estire, da orixeri esate dxake erri beidxek, bertoko klasi ei da, erri beidxek aintxiñe olakoxik egote ei siren danak. Orrek esne gitxiau emoten dabe, guk erlatzi be estou eitten, erosi eitteu esnie.* || *Erri beidxek bertoko ganaduri esate tze.* || *Guk emen e erri beidxek esate tzeu e. Orrek eukitten dabe musturre be gorrixek-edo, suridxe-edo. Olanik musturre ba beste edosein, bei baltzak-eta baltza eukitten dabe, baltza ta bai beste klase bate pe baltza aukitten deu baya. Erri beidxek ule pe gorri-gorrixek eukitten dabe, estabe eukitten baltza da es suridxe, gorrixek, euren koloreko musturre.* □ **erri bidie.** Camino que une Nabarniz con Gernika o Gabika. || *Erri bidie, Nabarristik Gabikara, erri bidie, urtien baten eitten geuntzen pasue arregletan. Baserik edo baeuen, a bete da alboko ure pasetako sangraderue.* || *Erri bidiek konponduten doixenak bidegiñek dire.* □ **erri ganadue.** Ganado de raza autóctona. || *Erri ganadue? Esate baterako, geu pe erri ganadu dekus. Da ganadu gorrixek, gorri-gorrixek. Da surre eukitten deu beren gorritasune bayo argidxau.* □ **erriko etxie.** Ayuntamiento. Hitz

erabiliena, ordea, *ayuntamentue* da. □ **erriko kotxie.** Autobús que hace años conectaba Nabarniz con Gernika. || *Erriko kotxiñ es ete sin jun? Amen autobus antzeku euen da.* □ **erriko tabernie.** Taberna del pueblo. || *Au erriko tabernie be, da beste errixetan be bai, onek erriko tabernak urtin-urtin subasteta siren, esan gurot, erromatera esate ben. Erromatera jute siren, da señek geidxen agindu, arixeri emon urtebeterako.* □ **erri.** Administrativamente (pertenece a determinado municipio, aunque para asuntos religiosos esté enmarcado a otro). Ik. *ayuntamentus, elixas.* || *Bueno, baya Goikolea erri Nabarris da, da elixas Ereño.*

**errixeta, errixetie.** (ERRIETA) Riña. Lehengo zaharrek gehiago erabiltzen zuten hitz hau. Ik. *drogie, erristie. Ganaduk eitten daben errixetiri murrue esate dxako. Ostera gixonak, edo personak eitten daben errixetiri "Burrue ein dabe".* □ **errixetan.** Discutiendo, riñiendo. || *Errixetan daus.* || *Errixetan daus ikubilke.* □ **errixetan ein.** Armar jaleo, disputar. Ik. *drogan ein.* || *Errixetan ein dxuek are pe.* □ **errixetie ein.** Discutir. || *Ein dabe errixetie tte asarratute das.*

**errikotu.** (HERRIKOTU) Integrarse en un pueblo. Ik. *bertokotu, ekandu.* || *Errikotu da.*

**erri, arri, erri, erriela, errielle.** (ERREAL) Real, antigua moneda. || *Da ba areri abadiri pagau eitte dxakon: txakur aundi bi, nai peseta bat, nai arri bi,*

nai... Ba senbat diru dekon, arixebeste aittegure, edo senbat olata daun, arixebeste-ta. || Len erriellak egote sirin, errila ixaten da, txakur aundi bi, te txakur txiki bat balidxo ixete ben, da arril bat. baya oiñ estaitt alako errillik badauenik; oin be erril bikuk, edo seoselakuk ba das, orrek txikitxuok erdidxen sulu dekenak, estaitt selakuk dirin. || Errilin be bai iketza saltze san aintxiñe. Erril bidxen-da. Kuarentako dekanan, or gerra ostien-da errilin-de killue ta.

**errileko, errilekue.** (ERREALEKO) Moneda de un real. || Errila? Bai, errileku basan, se errilekuk egote sirin-de, da aointxe be estaitt nik badaun errilekorik oindiño. || Ogorloko batas Andramaidxetako geusak eitten jun Gernikera, da amar errillas sestilli dana bete. Da gero kridxadi ei eukon etzien. Da kridxadiri beste amar errillekuas e samako edo buruko pañelue, Santa Eufemiara-da juteko.

**errime, errimie.** (ERRIME) 1. Diestro, -a, fuerte. || Orrek errimiek dire, esate baterako, asko useten dabenak askoran... arek askoran errimiek dire, asko ibilten dinak, errimie da ia ibilli asko. 2. Muy, sobremanera, sumamente. || Oiñ errime galdu dire orrek, aintxiñeko sagarrak, ya rasie galdu ein da ori.

**errimeu, errimeten.** (ERRIMAU, arrimatu-bat.) Arrimar(se), juntar(se). || Eskondu bari pe errimeute daus. || Eskondu bari pe badaus eskontzen estiñak, neska-mutillek, esan gurotena, nobidxu-nobidxak, arek errimeute daus, eskondu barik errimeute. Bai, orrei be esate dxako emen be, eskondu bakuri, da alkarras bixi diñari. || Kaparrie: euli bat, ganaduri-tte denpora beru daunin-de errimeten dxakenak: kaparri.

**errimu, errimue.** (ERRIMU, arrimu-bat.) 1. Respaldo, apoyo, sostén. || Errimu ona dxekok sillik. || Errimue: amen barandilli-ero ipiñi eskero, "Errimue ipin tze". Se errimu da beren kontrara-ero egoteko, ero olanik. || Errimun saus. || Silliek bouko errimurik? || Eurkidxek estabe eukitten errimurik. || Aidxen eskerra da asi, tte asi eiten dana, te errimu barik tente estauna oten. Fruterik esteu asten arek. Baten errimun bixi bi dau. || Arbol be esta, olanik e orren arrimun-edo asten dana da ori bedar ori. 2. Ayuda, auxilio. Sin. laguntasune. || Errimu ona dxekok. 3. Acción de arrimarse, vivir juntos sin estar casados. || Errimuen bixi dire. □ **errimun.** Apoyado, -a. || Orma errimun egon nai egon es esnie, trumoi geistu dabilleniñ e, galtze sittun. || Ipiñi arridxek, lelengo ipintte san e ser bat, age bat-edo, anpor bat olanik, arridxek arixen errimun ipintte sirin, da umik-edo, gastik e asauk eruten, da neusidxek antxe arridxen jo ta.

**erripe, erripie.** (ERRIPA) Empinado, -a; cuesta. Ik. aldatza, espaldie. || Leku erripi dok a. || Solo erripi. || Guk esate tzau, igul onek landak olan berantz dausenak: "Ño, erripak daus arek!", "Arek espaldak daus a pe!". Ori ixengo da aintxiñe espaldie lepuri esate dxakon les, erripe. || Bidie erripie dau. || Bide

aldatza be esaten da erripi daunin. || Leku batzutan e mendire bidien be ba bide erripa badas. Da beste leku batzutan be leune das. || Erripi dau. || Bide erripi daun lekun, ba "Erripi dau", edo "Aldatza dau" esaten da. || Bide leune da erriperi bakue. Esan gutena aldatzik es olakorik estekon bidie. Leue. || Landa erripatxu dau. || Landie apurtxu desbardiñe dau, erripa antzeku dau. || Bide bat tau emendik Elixaldera jute garenin; lelengo leunin jute gara, da gero olan Elixalderaiñoko erripi dau. || Da erripan-da juteko, ba erruberaan..., errubera batek eukitte ban, burdidxen errubera batek sulue, da andixi sulotik soki sartze dxaken. || Launadie? Ba au, eskatza be ba, estau erriparik eta launadie.

**erripuna, erripunie.** (ERRIPAUNE) Tramo empinado. || Erripas juten da gora ta ba, erripunetxu edo soser egongo da.

**erriste, erristie.** (ERRIETA) Riña. Ik. drogie, erridxetie. || Erristan dabis. □ **erristie ein.** Discutir.

□ **erristan ein.** Armar jaleo, disputar. Ik. drogan ein. || Erristan ein dabe. || Da gero ba, txokolati, edo intxurrek, edo batze gendusenak, ba, askotan erristan einde akabeta gendun, beste askotan ba partidu eitte gendusen erristan ein barik; iños eusoko andra bate pe partidu eskusan, da ba, olantxik. || Erristan eitten badabe, gogortu eitten da bestie. Baten agirikak entzun, de besti ixilik egoten daba, ba gogortu esta eitten. □

**erristan ibili.** Armar jaleo, disputar. || Bai, berba modun bai esaten da. Umiri be, olan mutil tamañuen... "Bibolintteru alakue!". Olan igul erristan ibiltten diriñin, edo estabaidan dabixenin-edo. || Katuk alkarras erristan dabixenin, marrauk eitte ittue. || Akularidxe jeneral erristan ibiltten dana ixeten da.

**errittar, errittarra.** (HERRITAR) Paisano, -a. || Ereñoکو mutil bat emengo neska batas eskontzen bada: "Koño, eu as geure errittar i be". || Bai, bertora etorten bada, eskontzen bada ona ba, errittarra gero a be, "I be errittarra as oin". Iguel beras junteten sara, da "I be oin geure errittarra as".

**erro, errue.** (ERRO) Cada uno de los pezones de la ubre. Ik. errapie. || Lau erru eukite ittu, atzekuk eta eurrekuk. Da atzekuetatik en jeneral esne geidxau eukiten dabe. || Erro lusik dekos beidxek.

**erroi, erroidxe.** (ERROI) Cuervo (*Corvus corax*). || Erroi kunak. || Abidxik topau ta kunak artu bitzeus, erroi kunak.

**erromada, erromadie, erremadie.** (ERROMARA) Cancilla. || Erromadie: ati les, nobera barrure jun de kanpora urten-de eitteko, da animalidxek kanpora urten esteidxen-da, sarratute eukitteko. || Orrek erromadak dire aintxiñekuk, olan, poste bi albuetan, ta langak, suluk, onen tamañuko suluk einde. || Ori ari arridxe jeneral ibiltten da erromadak, kanpun eitte diriñ erromadak, erromadatan ganetik e egurre

ipintte dxake ta ganetik langi ipintteko, ari arriskuk ixeten dire arixek jeneralin. || Len erremadak, danak egurrekuk ixete sin. Es, alanbraskorik es euen de. Eitte dxakon albidxetan suluk, siluk, sulo aundidxek, olan metro erdire, metro erdire, da gero andik trangi sartu bestera. Da axe erremadie atara, da sartun ein, de trangak. □ **erromada langie.** Larguero de la cancilla.

**erromal, erromala, erremala.** (ERROMAL) 1. Cada uno de los cabos de que se componen las cuerdas, sogas, pleitas y trenzas (esp. ramal). Erromalak hiru bat metro izaten du. Hitz hau gutxiago erabiltzen da gaur egun. || *Ekarri erromala!* 2. Ramal, tramo de carretera que arranca de la principal para llegar a los caseríos. Ik. *bide adarra.* || *Bide erromalak.* || *Erremala da, esate baterako, pista bat doi esta? Da gero an beste batek artzen badeu, erremala esate dxako.*

**erromalatxa, erromalatxie, erromolatxie.** (ERREMOLATXA, errozerba) Remolacha (*Beta vulgaris*). || *Erremolatxa ori, asala, pulpe esaten dxakona, botate dosu uretara, ur berotara nei otzetara da ase eitten da, doblau eitten da, iru bider doblau.* || *Erromalatxie amen asitterako gitxi ipintten da berton e! Nabu bai.* || *Erromalatxie ganaduntzat eraitten dana ointxe (bagillien) eraitten da, ointxe bueno, erainde egon bi deu. Baya aprillen askanetan, mayetzin bayo erneten be esta asi, baya geurin be erain du, ganaduntzako erromalatxi. Da ostantziñ a erromalatxa txikitxu, a gorri-gorritxue, a jatekue, ortun eraitten dana –neuri etxate asko gustetan bayaa ba ariñau eraitten da.* || *Erremolatxak? Ganaduri emotekuk e badas..., batzuk dire gorridxek, beste batzuk dire berdiek, da orrek ganaduri emotekuk tire. Baya norberak jatekuk badas, orrek esan dotenak, orrek gorritxuk ondo gorritxu dekenak, orrek ortun eraitten dire.* || *Pulpie da erromalatxias eitten dabe. Erromalatxie makiñias txikittuten dabe, txikittu, txikittu te ba arexe satidxek, arixek, axe siketute. Da emote dxako beratute ganaduri.*

**erromeri, erromeridxe, erremeridxe.** (ERROMERIA) 1. Romería, fiesta popular junto a una ermita. || *San Migel egunien erromeridxe eitte ben, bolakak-eta egote ei siren.* || *Erromeri egune estabe selebrau.* || *Ni olan Santa Eufemiara enas sarri jun baya, ba len jute giñen erromeridxara Santa Eufemia egunin, ba jute giñen, da bolaka an jokatu dirue!* || *Erromeridxera doyes.* || *Mesi emoten da, ta mesa ostien dantzak-eta. Allustikuk, eta Narikuk-eta, jente asko etorten da. Erromeridxe politte ixaten da.* || *Erromeidxe dau.* || *Len oiñes jun biste gendun guk. A bidie barridxe da. Len sadorra. Batzuk sidorra esate tze ta guk sadorra esate tzeu. Da sadorrin gora jute san. Da bidxekin juteko bidi eukitte ben ardauek-eta altzetako-ta. Bide txarra! Oin, jolin, oin kotxekin juteko moduko ori deke. Bide ona. Ba len jentetan!*

*Erremeridxa itzelak! Iru korro, soñu jotzailak euren lekuk artute, bakoxari kobretan. Oiñ esebes, oiñ e dana lorriñe. Oiñ estau olakorik. Ba len jente asko.* □ Eztabaida izan eta haserretzean: || *Erromeridxak ein ttue.* 2. Jaleo, enfado, discusión. || *Erromeridxe deku!*

**erromerue.** (ERROMERO) Romero (*Rosmarinus officinalis*). || *Erromerue ondiño galdu bari dau. Len erromerue erlik ote sirin lekun ipintte san. Erlikiñ e eitte dxaken, euren etzetxu eukitte ben, da geurin be egon siriñ erlik –oin galdu sirin baya-. Da asten dabe lora txiki-txikitxu baya asko. Da ser esangot?, arixeri erlik eukitten daben arixeri, tronkuri esate dxako erromerue, te eukitten deu useiñe, useiñe ba agradabli eukitten deu, niri gustete dxaten.* || *Erromerue, a lora suri txikitxu bat eukitten dabena, a useiñe, e ba useiñe be goxu eukitten deu.* || *Erromerue da arbola bat, arbolatxu bet. Len erlik euki gendusenñ e, erliri ipintte netzen nik erromerue, da erliñ albotxun, erlatokidxe daun albotxun egon be eitte san erromerue. Beres, bera etorte san. Bera, selan esangot nik? Eundidxe-ta esta asten. A txikitxu ixeten da. Lora txiki-txikitxu eukitten deu. Da useintxu be txarra estau eukitten.* || *Bai, olan san junetan edo seoser elixan be jaidxe daniñ-e batze san erromerue.* □ Hona hemen erreñotza eta erromerue berben arteko desberdintasuna: || *Ereñotza da naiku orridxe eundidxe dekona, orri sabal aundidxe, ta ba useiñe eukitten dau. Da erromerue jeneral, lora lilatxu eukitten deu te txikidxe, da erromerue, bai gurin badau erromerue baya len erli pe, da oiñ estekeu erleri pe, da jeneral erromerue erliri ipintte dxaken.*

**erronda, errondie.** (ERRONDA) Juerga. Ik. *parrandie, juergie.* □ **errondan ein.** Hacer una juerga. || *Bai, errondan ein gabin, de goixien logure!*

**errondalari, errondalaridxe.** (ERRONDALARI, errondari-bat.) Trasnochador, rondador. Ik. *gautxoridxe.*

**1 erronka, erronkie.** (ERRONKA) Bravata, provocación, desafío. Joko edo apustura bultzatzeko *desafidxue* esan ohi da, ez *erronkie*. Ik. *desteñie.* || *Erronki da desteñak botati lakue; erronkie, da desteñie bat dire.* □ **erronkie bota.** Desafiar, fanfarronear, provocar. Apostua egiteko, Nabarnizen ez da esaten *erronkie bota, desapidxu ein baino.* || *Erronkie bota tzet.* || *Orrek bota dxosak erronkak!* □ **erronkie ein.** Desafiar, fanfarronear, provocar. || *Arek e erronkak eitte ittu te ba esin sofridu ixeten deu bestik, arek alde eitten deu.* □ *Erronka botatzeko honela esaten da: Badau?, hau da, hari aurre egiteko inor ba ote dagoen.*

**2 erronka, erronkie.** Ronquido. || *Erronki esate dxako lo daunin, batzuk eitten dabe a saratie: "Lo erronkak eitte ittu || Emen geidxau esaten da olan lo daunin, da sata eitten dabenari ba, "Lo sataka dau", edo "Sarati*

*eitten dau", lo daunin, ba. Erronka pe bai, esaten da. || Lo erronkak eitte ittu.*

**1 erronkaka.** (ERRONKAKA) Fanfarroneando, desafiando; amenazando. || *Da "Erronkaka abil!" be esan eitten da. Erronkaka ba, seinde fanfarroi eitti lakue da ixetes erronkie.*

**2 erronkaka.** Roncando. || *Arixeri, lo eitten daunin, surrustadari bai, esate dxake. "Erronkaka dau". || Lo erronkaka dau.*

**erropa, erropie.** (ERROPA, arropa-bat.) Ropa. Ik. *trastie. || Asteguneko erropak. || Erropa mengela. || Erropie eskei. || Erropie sabaldu. || Erropie eskeitteko lekue. || Erropie erantzi. || Sitzen bolak erropa artien ipintten dire, sitzek jan esteidxen erropi. || Erropak dana maskaldute deketas. || Erropa sar daidxola dau ori. || Tolostu bi dotas erropak. || Orrek erropak mudeu ixek, bustitte sak eta. || Masa? Ser esangot neuk? Mas dabillenari, gitxi jasten diriñari edo ba, erropa taidxuskuk ibiltten estittunari edo ba, masa. □*

**erropa nabarrak.** Ropa chillona, que no conjuga. || *Erropa nabarrak: esate baterako, kolorik, tokete estiñak. Se nik oiñ esate baterako, jertze suridxegas-da jungo banintzeke, edo erreidxeuekin-de: "Jolin, ori be nabarben doye!". || Erropa nabarrak dabis. □*

**adabauko erropie.** Ropa remendada. || *Adabautako erropakin dxabik. □ soñeko erropie.* Ropa que se lleva vestida. Sin. *erropie.*

**erropa, erropie.** (ERROPA, errape-bat.) Ubre, mama. || *Beidxe jatzi barri badau, dana... Lelengotan jatzi tte erropie ba utzittute, "Jatzi barri dau". || Salduteko beidxeri feridxatan, erropa aundidxak jeneralin ba erakusteko; da igul erropa txikidxau bauko: "Eske, jatzi barri dau!". || Katanarra da... Arek e... Onek olluk-eta, aspidxe jate tze lelengo, erropie. Arek erropan asten di jaten. Erropie, da lakunie. Lakunie bakixu ser dan? Lakuni da atzeko eperdiko sulue eta atziñ animalidxekek boukos arek kunak-eta eitteko, beran txixe-da eitteko. Arexe jate tzes lelengo. Lelengo okeli-tte barik, erropatik, erropatik asten dire. || Utzarriñe da (beidxen) erropie gogortutie. Otzak-edo eitten dabena da, erropan esnie gogortu. Utzarriñe axe da. Erropi gogortu. Uras, uras... Urek osatzen deu. Uras jo erropie. Gogor jo, gogor jo, da berotu. Ur otzas. Da ak eitte tzo, jo ta jo ta jo, golpeka, erropie gorrittu eitte dxako, da onantxi. Gero jatzi bi ixaten da, murgildute eukitten deu esnie ta. Utzarriñe esate dxako. □*

**erropa miñe.** Mastitis, inflamación de la mama. || *Bai, beidxe eukitten dabe erropa miñe, da erropa miñe atrapetan dabeni, ordun egun batzutan esnie galdu eitte dxake, baya eratzi ein biar ixaten dabe, se esne galdu kendu ein bi dxake ta.*

**erropatzu, erropatzue.** (ERROPATSU, errapetsu-bat.) De grandes ubres. || *Da olandesa estaturan be*

*txikitxuau da, da erropatzuau, da esne geidxau emoten dakidxena.*

**erroska, erroskie.** (ERROSKA) Rosca. || *San Blasko erroskak. || Erroskak saltzen.*

**erroskera, erroskerie.** (ERROSKERA) Vendedora de roscas.

**errota, errotie.** (ERROTA) **1.** Molino. || *Umela dau artu, te errotara esin lei erun. || Errotiek boutzo biarrin. || Emen ba estan les errotarik, emen Gixaburuara jute giñiñ e urunetan-da. || Aullistiñ errota asko egosan. An lau edo bost bai. || Sorrukin manduk len etorte siriñ ona errotatatik, an beyetatik. Saldu barik, granue erun, de urune ekarri eitte ben. Gero, oin, arreskero, itxi tzen arek. Oiñ arreskero geuk ibixten (ibilli ixaten) gendun kaballeridxa orra, Omara. **2.** Molinillo de café. Hau da Nabarnizen beti erabili den berba eta gaur egun ere *molinillue* baino gehiago esaten da. **3.** Molleja, estómago de las aves. || *Ollun errotie. || Errotie jatekue doin lekue da. □ arto**

**errotie.** Molino de maíz. □ **gari errotie.** Molino de trigo. □ **ur errotie.** Molino de agua. || *Ur errotie: areri ureri errotie andando ipintte dxakenien, olako arte bategas-edo oten da ure pasaten dana sarratute; da errotie andando ipintteko, axe gora altzate san, altzeta ben errotaridxekek, olan, ser esangot neuk? Age bat-edo ote sana an eingeruen, eukitte sittun olantxik suluk, sulu-sulu-suluk eukitte sittuen, da ure gitxiu paseti gure basan, bajutxuau ipintte ben, ure asko pasati gure ixate basan, altuau ipintte san, da ure pasate san, ba, erre kara. || Ur errotie Gixaburuan be badau. Gixaburuan, bi edo iru edo bost. Or Oman be bai.*

**errotape, errotapie.** (ERROTAPIE) Recinto donde se sitúan las turbinas y el arranque de la maquinaria del molino. || *Errotie errotiñ aspidxe da.*

**errotari, errotaridxe.** (ERROTARI) Molinero, -a. || *Da gero jote danin-da ba, ludoye agertze dxako, ta alaku ba errotaridxekek es eben gure ixaten, se urune baltzuzki ataraten deu te, da jagi be ganera esta ondo eitten ludo deken garidxen urune.*

**errotarri, errotarridxe.** (ERROTARRI) Muela, rueda de molino. Ik. *arridxe, Okako arridxe, prantzes arridxe.*

**erru, errue.** (ERRU) Culpa. || *Errue deko. || Errue neutzat ixen da. □ errue bota.* Culpar. || *Esate baterako, errue da nai ixen, nai ixen es, ba, suk soserostu bostasu niri, edo nik ostu batzute, edo ba ixen espagara be, ba "Errue edo suri, edo niri bota-skue.*

**errubera, erruberie.** (ERRUBERA, errobera-bat.) **1.** Rueda. Ik. *burpille, burterillie, erregurie, erreillie, erruedie. || Ardatza errubera bidxeri eusteko useten da. || Erruberie bueltaka dator. || Bixikletiñ erruberie errementaute dau. || Ori untzi naiku untze eundixde*

*ixeten da, da ori untzi ori -oin burdirikpe esta ibiltten, serak ibiltten dire, tratoriñ ibiltten dire ta- baya burdidxeri erruberatan joste dxakona. || Len burdidxek-eta ibillte ben sera..., ser ibillte la esangot?, olanik..., oiñ alako burdirik iñok estau ibiltten, da erripan-da juteko, ba erruberan..., errubera batek eukitte ban, burdidxen errubera batek sulue, da andixi sulotik soki sartze dxaken. || Erruberie, seinde karrun erreilli-edo, burdidxen erreilli-edo, erruberi. 2. Turbina del molino. || Errotapeko errubedie.*

**errudun, errudune.** (ERRUDUN) Culpable.

**errueda, erruedie, errudie, errodie.** Rueda. Ik. *burpille, burterillie, erregurie, erreillie, erruberie. || Onek erruediek satidxe falta deu. || Jemesa kamioye da. Amarrekue. Lau biñakan atzien, or bidxetan, lau, de bi eurrien, amar, amar errudako batzuk esate tzen. Baya jemesi danak kontixu. Jemesirik es euen amar errudaku estanik. Oiñ ipintte sittun batzuk, lau kendute, bestin modura.*

**errukarri, errukarridxe.** (ERRUKARRI, gupidagarri) Digno de compasión. || *Errukarridxe, areri pasaten dxakona, ori bai ixen da! || Errukarridxe: geistu dana, edo besti dana edo areri: "A gixajue, ori errukarridxe!" Iñonik entzun es-ta, berena ein gure-ta: "Errukarridxe!" Estabillela ondo esateko.*

**erruki, errukidxe.** (ERRUKI, urrikalmendu, gupida) Compasión. || *Errukitzue? Bai, esaten da. Negarres daun umiri edo... Umi negarres dau te ba errukidxe da umiri emote dxakon laguntasuntxu-edo, mosu-edo. || Diru sano jokutzen dabe, erruki barik. || Triste ta erruki dau. || Errukidxe artzeko modun dau. || "Erruki emoteko das": edo diru falta dxakeni, edo jateku falta dxakeni, edo bi dan beste ogi estekeni, edo ba, edo ume kuadrilli daunien, da bi dan beste estekeni manteniduteko edo ba, "Erruki emoteko das".*

**errukibako, errukibakue.** (ERRUKIBAKO) Inmisericorde. || *Errukibakue da, ganadueri, blisti-blast, edoselan ibiltten dana, errukirik esteko.*

**errukior, errukiorra.** (ERRUKIOR, urrikalkor) Misericordioso, -a. || *Errukiorra: gixaju dana. Errukidxe artzen deuna, errukiorra.*

**errukittu.** (ERRUKITU, urrikaldu) Compadecerse, apiadarse. || *Errukittu nas orrekin. || Errukittu saittes nias.*

**errukitzu, errukitzue.** (ERRUKITSU) Misericordioso, -a, compasivo, -a.

**ertz, ertza.** (ERTZ) Borde, extremo, esquina, orilla. Ik. *eskiñie, kantai. || Bide ertza. || Erreka ertza. || Solo ertza. || Orreri kendu idxok ertza, miñik eiñ estaidxen! || Kendu orreri ertza, bestela miñ eitteko moduen dak eta! || Ertza beste geusa ba da. Ertza da esate baterako amen sati bet ebatosu, bedarra, da beittu andik eta "Ertza ederra dxekok, a bedartza ederra*

*dxak an!". Eundidxe dalako. Asitte daulako. || Ta ertza batzuk esaten dabe, egurreri be. "Ertza atara dxok", beste batzuk "Egala atara dxok". || Da esaten dabe... soluri edo motari buelti eitteko batzuk "Ebeidxok bueltie!" esaten dabe, da bestik esaten dabe "Ertzak ebeidxosak!", egalak. □ **ertzas.** Bien hecho, recto, en la línea. || *Soloko bier bat ein de ederto, da "Arek ertzas ipin dau einde!". □ **ertzak il.** Matar las aristas, chaflanar. || *Ertz bixidxe il, moteldu.***

□ *Lodi samarrak direnei buruz ere honela esaten da: "Beuko ertza!" edota "Orrek deko ertza!" □ **ertza euki.** Levantarse, surgir airoso. Belarrak ebateko bezain handiak direnean esaten da: || *Bedarre aundidxe da, esta?, da, bai txikidxe be: "Bai, bedarrak ertz ederra deko!", "Arek badeko ertza!". Ba ertza aundidxe dekola. Ertza dekola, ebateko modukue, ertza dekola. || Bedar aundidxe bada, ba "Ertza deko". || Bedarrak ertza deko, asitte daunien, ertza deko, ebateko moduku plantaute daunien, ba "Bedarrak ertza deko". || "Orrek bedarrak deko ertza!", ertza beye ta beti gorakue. || Selako ertza deko! || Landarik ertz ona deko.**

**erube, erubie, erue.** (ERUBE, arrubio) Salamandra. *Erue nahi erubie esaten da. || Erubie be beneno utzesku dala esaten dabe. Ixeten da..., ori-baltza esango neke nik. Ixeten da ba, olan baltzuskak e, baltza baya eukitte ittula olan erreidxa batzuk, oridxek apur bet, da lau anka eukitte ittu, burue suangilliñ antzeku ixeten da, eunditxuau apur bet, da jeneral eoten da leku freskuen, da erdi uretan esango neke nik, eoten da. || Erubie lupu antzeku da, baya erubie baltza ixaten da. Eukitte ittu lau anka. || Erue da, neu pe sigur estakit selaku dan, da pistidxe bat, benenosu dana, esate dxako erue; da urtean-da ur geldidxen-da asko egoten dana, da esaten dabe arek ainka eiñ eskeruen, ba benenu aundidxe dekola, ta ill eitten dabe, esaten dabe baya. Emen esta iños olakorik asertau. Baitte erue esate dxako alperra danari be. || Erue ur geldidxen egoten da, seinde ba, egongo da poso bat ur geldidxe dauna, da antxe posun egoten dana. Esate baterako, koko baltz bat da, anak dekosen, neuk ikusitte deket neuk, da arixerri esate dxako, da nik estakitt dana benenosu bada, ala espada.; iños ba ainkadarik artzerik eskara suertau-te. Da eru esate dxako. || Erue ser dala esangot? Subi be esta, olanik e geuse benenoso ba ta. || Erue da, ein kontu..., ein kontu bari pe, leku freskuran egoten da, da ure urrin dekon lekun, erubie. Da beneno aundidxe dekola esaten dabe erubik. Nik estaitt ser eukitten daben, emen esteu ibiltten-da, baya ur ondun ikusitte deketas neuk, eta ixeten da orren tamañoku-edo, da naiku baltzuskiki ixeten da. || Da oridxe be bai. Oridxe be, ori-baltza be oten da (erubie), da oridxe..., bakarrik oridxe dana bayo, ori-baltza geidxau oten da. || Orrek (erubiek) leku freskun oten dire, ur urrin daun lekun-edo, leku*

*freskun oten dire ta estakipa, eurok iltten be eskara ibiltten benenu eukitten dabelako.*

**erun, eruten.** (EROAN, eraman) **1.** Llevar. || *Dandarres erun.* || *Tatarres erun.* || *Karrue erun beste alderdire!* || *Euritten erun deu egune.* || *Etze asko eon sa les, es eken jateko nora erunik e.* || *Iños entzu ot, geixu etziñ ama, da ure eskatu, ta goxaldien urten, etzien, artu ontzidxe da araxe iturrirre, uretan. Amari eruten. Antxe dago iturririk onena, urik onena Nabarriskue.* **2.** Arreglarse, llevarse, congeniar. || *Bata bestin lagun eundidxe esati les: "Bidxek alkarras ondo erute dxuek".* **3.** Pasar, llevar (un tiempo). || *Au eruixu gora!*

**es, esa.** (EZ) **1.** No; ni. || *A kakutuas euste tzo a gero. Bedarrak berak euste tzo, sokarik es esebe barik. Len bueno, len beti usete siñ orrek. Oiñ esta usetan. Oiñ es kakaturik es siririk, esebes.* **2.** Negativa, repulsa. || *Esa artu dxok.* **3.** Falta, carencia. || *Errespeturik esa.* || *Eser faltarik esposu, "Orrek etxok etziñ e esik", "Latz estok bixi ori". Da beste bat ba bixi bada txarto-edo, "Ño, biximodu gogorra dxok orrek!", "Latz dxak orrek biximodue!".* || *Sukutu? Sukutu esan gure deu, lapikuri atendidu esas, sukutu, suek sertu. Erre, lapiku erre, eperdidxen erre-edo.* □ **es orixe.** No por cierto. □ **es... es...** Ni... ni... || *Es gitxi, es asko.* || *Gormutuk es entzun da es berbarik estau eitten.*

**esaera, esaerie.** (ESAERA) Proverbio, refrán, dicho. || *Orrek personiorrek e dekos esaera raruek.*

**esagura, esauera, esagurie, esauerie.** (EZAGUERA) Conocimiento (sobre algo o alguien). || *Badot esauerie baya estaitt nor ixengo dan.* || *"Esaueri bukates, bai": esautzen dan paraji les.* || *Estakitt e, orrek e gure esaueri bayo antxiñau.* □ **esaguran, esaueran.** Según mi (tu...) conocimiento. || *Beti oixe nik entzu ot te Telleridxe, baya neuk sekule estot esautu, pentzau be. An esta egon etzerik edo fabrikarik, geure esaguran e! Oiñ aintxiñe egon basan?* || *Nabarrixen burdi bolanterik es san on neure esaueran, berandun.* □ **esauerie emon.** Conocer, tener trato y conocimiento con alguien. || *Nik denpora sati baten ikusiñeko persona bateri: "Ene, alkarrerri emon tzeu esauerie!", edo "Alkar esautu dogu".* □ **esauerara etorri.** Recobrar la consciencia. || *Esauerara etorri da.*

**esain, esaiñe.** (EZAIN) Feo, -a. || *Geuse bat ondo gelditzen estana bada, ba noberak gure daben geuserako ba: "Esain gelditzen da". Edoser geusari, ipintten dan geusi pe, ondo espadxako jeusten, esain gelditzen da.*

**esakera, esakerie.** (ESAKERA) Proverbio, dicho. || *(Ebeldidxe ala egureldidxe?) Ori modu gustidxetara, ya noberak ser esakera dakon.*

**esakune, esakunie.** (ESAKUNE) Dicho. || *Ori esakune andidxe euki ben len.* || *Mosolu esta egunes ibiltten e. Esaten dabe egunes estala ikusten, da gabas. Ori esta egidxe, esakuni bada, baya nik egunes be ikusi dot e ibiltten.*

**esamesa, esamesie.** (ESAMESA) Habladuría, murmuración. Ik. *sesana.* || *Barriketan ekitti: esamesie.*

**esan, esaten.** (ESAN) **1.** Decir. || *Esan eittekue da ori gero!* || *Esan, noberak modu askotara esate ittu.* || *Arek esana da ori.* || *Esteu eser esan.* || *Tinti pestau esan.* || *Geu juteko esa-uskun.* || *Beti daus orretan, beti das esaten ein bi dala ta ein bi dala.* || *Esan alan bota ittu.* || *Esan gure-es, da esan bes!* || *Ba euskera esta ori. Ori aintxiñeko sarrak es eben esango.* **2.** Ordenar. || *"Esaneku eitten deu": agindu tzona ein dabela, edo agindu tzon modun-edo.* □ ¡Dice cada cosa!: || *Esan be, bakotxi eitten deu orrek!* □ Según han dicho: || *Esan dabenagaittik.* □ **esanak esan.** Dicho esto, después de lo dicho. || *Esanak esanda be, estabe siñistu.* □ **esan biarrak.** Quejas, objeciones. Ik. *ser esanak, kejak.* || *Orrek dekos esanbiarrak!* □ **esan por esan.** Decir por decir. || *Esan por esan eitte ittu geusak.* □ **esan guresik.** Sin ganas de decir. || *Esan guresik dabil.* □ **esatekorik es.** Locución que significa 'no tanto que merezca decirlo'. || *Gastaye neu pe eitten dot, baya esatekorik es.* □ **esan biar aundidxe euki.** Ser un bocazas. || *Esan biar aundidxe eukitten deu!* □ **esaten da se.** Esto es, es decir. || *Orrek txankluk ibiltten dire..., baserridxen nik estot esautu txanklurik, baya orrek ibiltte siriñ asko itxoso egalín, esaten da se txankluk itxoso egalín ibiltte sittuen nai mariñeruk diriñak, nai andrak, nai gixonak.* || *Torretxoridxe jeneral ba elixako torriñ ibiltten dana ixeten da torretxoridxe. Elixako torri jeneral, e olan e etzitan-da esaten da se etzik dasen lekun be.* □ **esatekuek esan.** Cantar las cuarenta. □ **esatekuek euki.** Tener motivos de queja, de censura. || *Esatekuek dekos.* □ **direnak eta bi esan.** Cantar las cuarenta. □ **diño.** Dice. || *Da leixie pe ure dekola diñue beyen, ainbeste metrún.*

**esan, esana.** (ESAN) **1.** Consejo, orden. || *Baya berak nire esanik eiñ es!* || *Esani pe etxok eitten.* || *Ni sure esanas konforme nau.* || *Esate baterako, ba ume batek estau esanik ein gure, da ba eperdiko bi emote dxakos.* || *Esanik eitten estabentak estau obedesiduten, estau obeiduten.* **2.** Habladuría. || *Orrek esana dirilla pentzetot nik bakarrik.* □ **esanera.** A las ordenes, al servicio de. *Esanera egon nahiz esanetara egon esaten*

da. || *Seure esanera dau.* □ **esanetara.** A las ordenes, al servicio de. || *Neure esanetara dau.* || *Eskuretzi da noberen esanetara ipinttie, eskuretu, noberen esanetara, umie, edo nausidxe, edo dana dalakue noberen esanetara ipinttie, ba eskuretzie. Edo bier bat eitten-da, da ba "Eskuretute dau".* || *Aren esanetara bigurtute dau.* □ **esan txarreku.** Malhablado, -a. || *Esan txareku:* *berbeta txarreku.* || *Esanik eitten estabena, da lotzagaldukeridxak esate ittuna esan txarreku da.* □ **esanetara etorri.** Venir a cuento. || *Estator ori gure esanetara.*

**esanaldi, esanaldixe.** (ESANALDI) Discurso. || *Esanaldixe be, asarratzen danin, esate baterako, nire aista bat asarratzen badabil, ekiñiñ ekitten batzo, "Erreso barik esanaldixe ein deu" te.*

**esaneko, esanekue.** (ESANEKO) Obediente. || *Esanekue da.* || *Ariñ ibiltten dana, ta ba edoser esaten dabena-ta, olan esaneku estana-ta: neska banderie.* || *Mantzue da animalidxe bat geistu estana. Animalidxe esaneku edo noberak ibiltten daben astu-edo "Esana eitten deu" edo "Esaneku da"-edo, esta..., geistu esta.*

**esarri, esarten.** (EZARRI) 1. Poner, colocar. Nabarnizen askok ez dute hitz honen esanahia ezagutzen eta, esaterako, beheko suan mukurra ezarri behar denean, *egurre sartun* esaten dute, baina lehengo zaharrek eta oraindik beste batzuek ere beste honetara: *Esarri idxok egurre!* || *Egur biribil bat ixaten da (nardekie), da beidxeri, bei busterridxeri esarte dxaken erdi-erdidxen.* || *Da gero latue esarte dxakon nardekiri, da beidxe busterridxen ipintteko.* || *Limias gastau eitte dxako burue, da punti esarten da egurrien, da buru dana gastau eitte dxako limias, da ba gana sorrostute, olan gantxu bat eukitten deu ganak, beidxeri siki eitte tzo.* || *Ugerie da narrari guk ipintte gentzona, ganetik, atzera, egurre. Sulue einde dekona, da esarte dxako espatan, da ugerie.* 2. Azuzar, instigar, incitar a los perros. || *Esarri, esarri idxok txakurre!* || *Txakurre esarri tzet areri.* 3. Sentar(se), asentar(se), posar(se) las aves. || *Ollue esarri: ori esate san aintxiñe, txitxak atarateko, arrautzan ganiñ ipintten sanin. Bai, esarri. Txitxak aintxiñe eitte sirinin, arrautzak ipiñi abidxe baten, ein, ein, otzara baten, bedarrekin-de, ogeta bat egun ollu ganien. Da: "Ollue esarri tzet arrautzari."* □ Ik. *eskue esarri.* || *Esku bet esarridxosu!*

**esarri, esarridxe.** (EZARRI) Postrado, -a, abatido, -a, decaído, -a. || *"Esarridxe dau" esate dxako ba, esate baterako, noberak persona bateri, geixorik dau, te txarto ereiste tzo, da esate dxako "Esarridxe dau".*

**esate.** (ESATE) Dicho, frase, sentencia, decir. □ **esates.** Al enunciar, tal como lo enunciamos. || *Es, amen uskidxe olanik, uskidxe, bai, aittu eitten da uskidxe ser dan, baya olan esates uskidxe bayo ba, txurinkie geidxau esango da.* || *Trontza serri ixeten*

*da... selan esango pa? Agiñek eukitte ittu, ta beres e trontzaketan esate dxako... selan esangot? Agiñek-agiñek eukitte ittu te ba... trontze serri esate tzeu geuk esates, baya ba...* □ **esate baterako.** Por ejemplo. || *Aidxotza da, esate baterako, serriñ antzekue, olantxik, deko beren formie, ta barrutik ague deko, da gero kirtena ipintte dxako egureskue.*

**esaugarri, esaugarridxe, esaungarridxe.** (EZAUGARRI) Indicio, distintivo, señal, marca. *Esaugarridxe nahiz esaungarridxe esaten da.* || *Esaugarridxe, seoser esaugarridxe: Au apurtu, te igul satidxe, da: "Ori esta surie, ori niri da, amen dekot nik esaugarridxe.* || *Esaungarridxe: esate baterako, ba mujoye ixeten da, esaungarridxe, mundik nora dan esautzeko mujoye. Esaungarridxe, ba, olanik ibilli, esaungarridxe, esta eitten, baya ba aittu eitten da.*

**esaupide, esaupidie.** (EZAUPIDE) Conocimiento (sobre algo o alguien). || *Onetaku estana-edo... Emengu ixen es-edo, da ba "Esaupiderik esteko onetan.* || *Esaupidie: iñor esautu es, da parajie eseutu es igul, da "Esaupiderik esteko". Ori bai esaupidie. Edo "Iñon esaupiderik esteko, ta bakarrik dau".* □

**esaupidie emon.** Dar referencia, medio de conocer. || *"Esaupidi emoste": ba esate baterako, nik persona bat e, len esautzen naben, baya oiñ estot esautzen ixen, da alakuri ba esaupidi emon, nor dan esan, da ba esaupidi emon.*

**esbai, esbaidxe.** (EZBAI) Duda, indecisión. *Esbaitten ere esaten da, baina gutxiago.* || *Esbaidxe noix jeusiko daunari esate tzeu.* || *Jeusi biarriñ aulan badabill au: "Dios, esbaidxen dxak, jeusi ein bi dxok!".* || *Au euridxe geldiro badator, ba "Esbaidxen jeusten da".* || *Esbaidxen dxatosak.* || *Esbaidxen dxabik, pentzetan se*

*ein.* □ **esbaidxen.** Dudando. Ik. *dudan.* || *"Esbaidxen dau" esaten da dudan daunien..* || *Esbaidxen dabil: esate baterako, ure be bete, es, bai, au gora urten bayetz diñot nik, "Dios, esbaidxen dabil ure ganetik".* || *Sirimiridxe lanbrue da. A jeusten da, di-di-di, gitxi, espaidxen, espaidxen, seinde busti ein bai, baya es euridxen modun.* || *Kirri tte mirri: batiñ au te bestiñ ori dabillena, esbaidxen.* □ **esbaitten.** Entre sí y no, a medias. || *'Kanpu nabartu' da esbaitten istie, dana suri barik, apur bet surittu.* □ **illun esbaidxen.** Al anochecer, al declinar el día. || *Len jote san albakue, da gero jote san illuntzien, illun esbaidxen, aremaitteku esate dxakona. Da gero, gerotxuau jote san arimena.*

**esbaikor, esbaikorra.** (EZBAIKOR) Vacilante, dudoso, -a. || *Esbaikor dau, ser eiñ estaki.*

**esbiar, esbiarra.** (EZBEHAR) Percance, contratiempo imprevisto. Gauza bat txarto irten edo apur bategatik lortzen ez denean, honela esaten da: *Esbiarra ixen dok ori!* Jarraian, berriemaileak honela azaltzen zidan: *Esteu ondo urten.* || *BotaiXu kutxillue,*



*esbiarren bat eiñ esteixun!* || *Esbiarra euki deu.* || *Esbiarra etorri dxako.*

**ese, esie.** (HEZE) Verde; húmedo, -a. || *Egur esie.* || *Urun esie.* || *Arto esi da bi dan modum siketu bako artue.* || *Artu esi dau oindiñogarren.* || *Esie: esate baterako, artagaraune ondo igertute espadau, errotarata eruteko, ba: "Bai, a selan erungo deu ba? Esi dau oindiño, igertu ein bi deu-te!" Da garidxeri be bai, garidxe joten danin be bai. Garidxe be esi egoten da. errotan eitten dana, errotaridxek estabena eidxoten, sikuauna dana, eidxoteko bayo sikuauna dana, urune eitten estabena. || Oñ esta eraitten garirik. Da garidxe-edo eraitten danien "Esetxu tas", batzeko edo pilletako "Esetxu da" esate dxako.*

**esebestu.** (EZEBEZTU, ezereztu-bat.) Reducir(se) a la nada, (hacer) desaparecer. || *Esebestutie? Ba dekosan geusak galtzi-edo, esebe barik geldittu.* || *Esebestute geldittu da.*

**esegaittik.** (EZERGAIK, ezergatik-bat.) Por nada del mundo, de ninguna manera. || *Esegaitti pes!*

**esegi.** (ESEGI, eseki-bat.) Colgar, tender. Berba hau sari erabiltzen da, *eskei* are sariago erabiltzen bada ere. || *Erropie esegi* || *Latzen esegi.* || *Palu luse bat ia ekarten bosu emendittik erroa esegirik ipinteko.*

**eseka.** (ESEKA) Haciendo eses. || *Orre pe ederra daroye, eseka doye ta.*

**eser.** (EZER, deus) Nada. || *Soluk etxok emon ese be.*  
 **esetxu bes.** Nada de nada.  **esetan bes.** De ninguna manera.  **esetara bes.** De ninguna manera. Ik. *iñundipes!*

**eseres, eseres.** (EZEREZ) Nada. || *Selan ingo tzut pa eseresetik, etxekot eta?* || *Eseresa: eser barik egoti les.*  **eseresin saldu.** Vender sin cobrar.

**esereskeri, esereskeridxe.** (EZEREZKERIA, esdeuskeria) Nimiedad, nadería, tontería. || *Esereskeridxe: seoser esan, da asarratu eitten danin: "Baya esereskeridxegaittik asarratzen da ori!", "Esereskeridxegaittik txartzat artzen deu orrek!"*

**esesaun, esesaune.** (EZEZAGUN) Desconocido, -a. || *Esautzen estana esesaune da. Da esaune da esautzen dana.*

**eseko, eseskue.** (EZEZKO) (Ei) no, respuesta negativa.  **eseskuen egon.** Creer que no, pensar que no. || *Eseskuen dau.*

**esestu.** (EZEZTU) Desmentir, negar. || *Esestu ein deu*

**esetan.** (EZERTAN) En nada. || *Se nik esan neixu suri "Su bayo geidxau nas ni bedar ebaten". Da su esetan bes, ta ni su bayo geidxau bedar ebaten nai askoran nai jorra nai atxurren.*

**esetarako, esetako.** (EZERTARAKO) Para nada. || *Esetako estau balidxo.* || *Esteko moldarik esetarako be!*  **esetako estana.** Inútil. Ik. *erue, geusestana.* ||

*Kokomarrue bai esaten da emen be. Kokomarrue olako esetako estana lakuri: "Ori kokomarruori!"*  **esetako estan geusestan utze.** Inútil completo, -a. || *Esetako estan geusestan utzori!*  **esetako es ixen.** Ser inútil, quedar inútil. || *Txarto ganera! Estala ixengo sekule esetako ta. Oin suabe dabillega pentzetot ibilltes.*

**esetasun, esetasune.** (HEZETASUN) Humedad, frescura. || *Esetasune deko.* || *Gardostu: ori esaten da, esate baterako, suten geusa bat pasetan danien, esate baterako, ba egur bat-edo, olanik apur bet esetasune kentzeko-edo, da apur bet baltzitzen danin, ba: "Gardostu ein dogu suten".*

**esetu.** (HEZETU) Humedecer, mojar, refrescar. || *Esetu? Bai, busten daniñ e, geusa ba esaten da se..., esetu..., bueno, bai esan leidxo esetu be.* || *Artue esetu da.* || *Esate baterako, artuek umedadie artzen badeu, ba artagaraune ba samurtu, edo bigundu eitten da; da ba "Esetu ein da"; alakuri bau, esate dxako esetu.*

**esetz, esetza.** (EZETZ) 1. Que no, negativa, repulsa. Azentua lenenengo silaban du. Ik. *esa.* || *Esetza emozten.* || *'Ka' aintxiñe esetzari esate dxakon.* || *Esetzi pe esteu esan, baya!* || *Konfesetaku jute danin, konfesorik -oin konfesorarik estau baya- pregunteten deu ba: "Damutzen sara ein dosusen pekatugaittik?". Bayetz, edo esetz esate dxako.* 2. A que no, apuesto a que no. || *Txingie erutie? Ori plasan eitten dabe. Onenbeste killo erun bayetz da esetz. Oratu andik txingetatik-eta.*

**esetzñ egon.** Creer que no. || *Esetzin nau ni.*

**eseukera, eseukerie.** (EZAUKERA, ezaguera-bat.) Conocimiento. || *Esaukerie euki ban arek.*

**eseun, eseune.** (EZAGUN) Conocido, -a, sabido, -a, evidente; persona conocida, famosa. || *Txondorra eiñikue da eseune: esplanadatxue, biribille.* || *Orrek eseun ein dire.* || *Eseun-eseune da.* || *Sure esaune da esango tzune.* || *Esautzen estana esesaune da. Da esaune da esautzen dana.*  **eseun egon.** Ser evidente, estar claro, saltar a la vista. || *Eseun dau nor dan.*  **eseune ein.** Hacerse conocido, -a, creer reconocer. || *Arpeidxe eseune eitte dxat.*  **eseune ixen.** Ser evidente, estar claro, saltar a la vista. || *Egan doyenien be, eseune.* || *Eseune da.* || *Eseun-eseune da.* || *Esaun da nor dan lapurre.* || *Esaune da berak esan tzuna.* || *Esto pentzetan. Metal ure esaun dekosu. Kobri lakoxie, kobrie, urre, kapie dana, bera pasetan dana, dana inkete tzos.*

**eseupide, eseupidie.** (EZAUPIDE) 1. Medio de conocer, tener trato, amistad. || *Eseupidie emo tzat.* || *Esaupidie euki nidxuan ik aras.* || *Bai, nik areas mutillas esaupidie badxeukatek, se amen ibillite ta...* || *Bai, nik Pedrogas esaupidie dxekat, aren bittartes erungo dxuat seoser.* 2. Reconocer. || *Esautzen dan persona bateri, iguel ainbeste denporan ikusi barik-eta,*

*nor dan estakidxela les, ba: "Ene, esaupidie ein deust!"*  
|| *Esaupidie emoste. (Me ha reconocido).*

**eseutu, esautu, esetu, esetzen, esautzen.** (EZAGUTU) **1.** Conocer, tener relación con (una cosa, lugar o persona). || *Estakit nor dan, baya esautzen dot arpeis* || *Gixon entzute aundikue ixen dok, askok esetzen ixer dxok.* || *–Eseutu eittut pa. –Eseutu bai, baya selan eseutu, barrutik es!* || *Ik a estok ondo esetzen.* || *Estuala esautzen! Orrek erriku osak, erbesteku barik!* **2.** Conocer, saber, tener conocimiento. || *Ixeka ein: estaitt oingo gastiek ori aittu be eingo badabe, baya len esautu naben nik ori berbiori amumagandik, ixeka.* || *Gure txiki denporan, bat. Kantera, Kantera ingeruen. Kantera bakixu nun daun. Antxe goidxen, mendidxen. Axe esautu dot neure txiki denporan.* || *Etzeko laratzak esautzen dau etzeko jentie.* **3.** Reconocer, distinguir, identificar. || *Nik ondo esetzen espot, estot perretxikorik artzen.* || *Da axe eitten da berotu, suten, berotu, de gorrittu eitten da, da aixe inkete dxake larran dabixen ganaduri, noberen ganaduek numerutatik esautzeko.* || *Eba sagarra entzu dot, baya estot esatuten.*

**esgause, esgausie.** (EZGAUZA) Alimento que se come fuera de horas. || *Esgausie, ba seri esate dxakola esango tzut nik. Edo galletak, edo txokolatie, edo soser badau gordeta, umik atrapau te jan eitten dabe. Da orrixeri esate dxako "Esgauserik atrapetan badeu, jaten deu".* || *Bueno, ogidxeri etxako esaten esgausi. Ogidxe ba ogidxe da. Okeliri bes.* || *"Esgauserik atrapetan badeu, ba estau isten, jan eitten deu".* Da umik eitte ittu olako biarrak. *"Esgausie ba, atrapetan badeu ba jaten deu", ixer lei esgausi ori sagarra be, ixer lei naranji be, da ixer lei ba ogi tte txokolati be, esgausie ba sasoi estaniñ atrapetan badeu, ba jan.* || *Ori da esgausie!* || *Guleridxe? Guleridxe bai, esgausie, txokolati-edo, karamelu-edo, asukarillu-edo, soser daunin, esgausie.*

**esi.** (HEZI) Domar, educar. Ik. *domiñeu, mantzotu.* || *Erbi txakurre esi dabe.* || *Esitte dxak biarrerako.* || *Esin leike esi, beti ondo esaten, da esi esin.* || *Animalidxe noble plantaute daunien "Ondo esitte dau ori" esaten da. Lagune be palue atrapaute badau "Esitte dau ori!" esaten da.* || *Esiko dxok, emon tzek latigu, te esiko dxok.* □ **esi bakue.** Indómito, -a, ineducado, -a. || *"Esi bakue da ori!": esate baterako, ganaduk busterridxen ipinttosus, de lelengotan ipintten danin: "Esi barik dau oindiñogarren!"*

**esi, esidxe.** (HESI) Soto, cercado. Lehengo zaharrek erabiltzen zuten hitz hau; gaur egun *alanbradurie* edo *sarratue* estaen da. Ik. *ormie.* || *Esidxe da, seinde..., alanbrias eitten dan ori.* || *Esidxe ein dxok ak an.*

**esik.** (EZIK) **1.** Si no, a no ser que. || *'Lapikokue' da geuse askogas eitte osuna: nai indarra, nai lentejie, nai sopie, fideu... Ostantzien lapikokue eiñ esik, ba ixeten da geuse sikue jatie.* || *Morokilliñ eitten dire*

*bolatxuk, arin-arin makillias ereiñ esik.* || *Da beres, ser esangot nik...?, Oman be erreka..., euritti ixen esik, erreka aundidxe esta pasaten.* || *Labañie da kutxillu lakoxe geusa bat, ba ague sorrotza dekona, da ba asarratute ibili esik labaiñi esin lei sartu.* || *Lurrek e ba labrau esik salgi emoten deu.* || *Da kari emote esik, kendu esta eitten txonbue. Da kari emote eskerun estau urteten orrek.* **2.** Excepto, salvo. || *Bixidxe ixen esik beste gustidxe galdu sittun.* || *Koba aundidxe da bai (Ondarokue), Nabarrixen kobarik aundidxena. Ta emen be, ori Lesikeku-ori ixen esik aundidxena emen bueltan be.*

**esikusi.** (EZIKUSI) □ **esikusi ein.** Hacer la vista gorda, hacerse el ciego, simular que no lo ha visto. Ik. *plantie.* || *Ikusi esteun plantie ein deu.* || *Esikusi ein dxok.*

**esin.** (EZIN) No poder. || *Suk esan dosune esin leike ixen.* || *Esin kolperik eiñ ei eutzon.* || *Esin leike ein.* || *Oiñ esin nas jun.* || *Esin nas ibilli ainkin ganin.* || *Dana trasti dxak eta esin lei eiñ eser!* || *Ak asko, larogei urte! Anaidxe bidxe solteru daus, da esiñ atondu ixen biko itue jatorduk eta geusak eitteko-da.* || *Geuse bat esin konpondu danien modu batera: "Bierleku txarra deko konpontzen".* Ama esin jun ixete san elixara barrure, abadik urtete ban kanpoko atitara, ur bedeinkatontzidxen ondora. || *Arek e erronkak eitte ittu te ba esin sofridu ixeten deu bestik, arek alde eitten deu.* || *Orre pe badxekosak lorrak, esin dxok ein de!"* || *Eiñ esiñik-ero, "A be ondatu ok, esin leik ein".* An esiñ ein proban da bai: *"Ondatu ok".* || *Ak igon eban, baya gero bajatu esin!* || *Desmonta itzela dxak emen! Emen, emen esi lei jun be ein goitti bera.* || *Au eitten on sanin, ibili nitzen ni letxeru. Kamioiegas esni eruten, da esiñ etorri iste nintzen ona. Elixalden itxi biste naben kamioye. Biderik es.* □

**esiñ obie.** Inmejorable. || *'Esiñ obie' da ya estrakue, esiñ obarik artun a bayo.* || *Jenero esiñ obie artu dxuatek.* □ **esiñik.** Sin poder. || *Mobidu esiñik dau.* || *Euskidxe laño artien agertu esiñik dabil, kukuke, batien agertu, bestien es.* || *Toton ein deu, jun esiñik garatu da.* || *Jun esiñik dau, uketu ein deu.* || *Burutik kendu esiñik dabil.* || *Bai, beren buru bota ban, araxe barrura. Da gero bera atara esiñik sekulekuk ein sittuen.*

**esin, esiñe.** (EZIN) **1.** Imposible, irrealizable. || *Esiñe dok ori.* || *Ori xok geusie esiñe.* || *Ori da pentzau esiñe!* **2.** Imposibilidad, incapacidad. || *Geldik egon esiñe deko.* || *Alkar ikusi esiñe.* || *Orrek deko bete esiñe!* || *Orrek deko egon esiñe!* || *Lusie (kobie), bueno! Da gero jutaldidxe ein, de erreka bat deko, da errekie pasau esiñe ixete san batzutan iguel ur geidxaugas.* □ **esiñ esana.** Ik. *sisipasie, tartamutue.* || *Ak mutillek esiñ esana itzela dxekok.* || *Esiñ esana esan esiñik*

dauenari esaten dxako. Tartamudue titili-tatatala ta titili-ta. Baya esiñ esana dekona e-e-e-e, esiñ esan-da, asartau esiñik-eta. || Iguel an bat ixil-ixilik egoten da, ta "Esiñ esana dxekok orrek, eta etxok ein gure barbarik". || Esiñ esana? Esiñ esana dekona. Bai, tartamutu antzeku da, bai. Tartamutu esan leidxo.

**esin.** (EZEAN) A falta de. || *Besterik esin.* || *Besterik esin, au eingo dxuou.* □ **bakien esin.** Alterado, -a. || "Artak artu esiñik dabil" edo olan esaten da, ba ernegaute daunin-edo, bakien esin dabillenen-edo. || *Ganadu selun sartzen danin, olan ba, ya bakiñ esiñ egoten danin ya, "Berotute dau" esate dxako.*

**esixen, esixena.** (EZIZEN, gaitzizen) Apodo, mote. || *Ane onen esixena da.* || *Apur bet esate tzena, bakixu, apur bet esate tzena Malen. Malen, Malen, "Ene, an, an doi Malen!". Bakixu esixena Malen. Esan bierrin "Mari an doye", ixena barik, "Malen an doye". Malenen patrikadi.*

**esjakin, esjakiñe.** (EZJAKIN) **1.** Ignorante. || *Txatxalie esate dxako apur bet esjakiñe danari, olanik: "Txatxalie alakue".* **2.** Ignorancia, no saber. || *Arena esjakiñe ixen dok.* □ **esjakiñin.** Sin saber. || *Esjakiñin jun nitzan.* || *Esjakiñin egon nas.*

**eskabadora.** Excavadora. || *Arek esti arrastadorak e! Es. Makiña di arek, basu garbitzen, eskabadorak.*

**eskabide, eskabidie.** (ESKABIDE) Petición. || *Eskabidie? Bai, eskeko bateri emote dxakoniñ e ogidxe-edo, sagarra-edo, soser emoten dxakonin ba "Eskabidi euki deu te ba emo tzet e sagarra, edo emo tzet ogidxe edo ba".* || *Eskabidie? Ba eskatzi geusa bat, noberak estekona, edo sagar bat edo ogi sati bat edo olan.*

**eskallu, eskallue.** (EZKAILU) **1.** Pez pequeño, bermejuela. || *Eskallue arraiñe da, eskallu pe egoten dire oin be Oman. Eskalluk, arek txikitxuk, bilinbolun antzekuk. Ba, eskalluk Oman eoten dire. Eskallu janak-eta eitten. Oiñ es ainbeste, baya len asko atrapate gendun.* || *Eskalluk, jolin, Oman eskalluk jaten! Neu be ixenda nau, Oman bertan atrapaute.* || *Baldias ure kentzen sanien, arrankaridxe da eskallue baldias ureas batera jausten san.* **2.** Persona sin fundamento. || *"Eskallu garbidxe!": ba esate baterako, geusestan geuseri-edo olan, "Eskallu ixen dok ori!", seinde presona kikiñ antzeku orreri be igul: "Eskalluori!".*

**eskama, eskamie.** (ESKAMA, ezkata) Escama. || *Eskamie arraiñek eukitten deu.*

**eskandalu, eskandalue.** (ESKANDALU) **1.** Escándalo. || *"Es nabarmendu geusie!": apur e ixillau pasau, bakixu, nabarben-da barik, apur bet, ixillau, eskandalu gitxiaugas.* **2.** Mucho, gran cantidad. Sin. asko. || *Ba ordun artapillo eundidxe oten sin. Arto asko. Da eitte san martidxen ilberan jo, da sakutan sartu edo kaixan gorde, konserbetako. Ostantzin txiripiridxe eitte dxako arturi. Txiripiridxe eskandalu ganera! Bai. Da martik-ilberan etxako ori eitten.* ||

*Oin be Santa Eufemia egunien ainbeste jente juten da ara. Len diferente. Len jentetan eskandalu te danak dantza solti te erromeidxak.* || *Jesus, an jenti len eskandalu ibiltte san olan!* || *Len torretxoridxe egon san emen eskandalu bet!*

**eskapada, eskapadie.** (ESKAPADA) Escapada (de un peligro). || *Arek ein dxok eskapadie, idxe jo dxok eta!* || *Eskapada itzela ein deu!*

**eskapaldi, eskapaldixe.** (ESKAPADALDI, ihesaldi) Escapada, huida, fuga.

**eskapan.** (ESKAPAN) Huyendo. || *"Eskapau ein dxok", ba ya eskapaute dau, da ikusten bosu aringaringe doila: "Eskapan dxoik".* || *Uxokie da: edosein patari esate dxako, nai personi be bardin, dana lotzorra-edo, jentiti eskapan-edo uxoka ibiltten dana-edo, olaku.*

**eskapau, eskapou, eskapo, eskapaten.** (ESKAPAU, eskapatu-bat.) Escapar. Ik. iges ein. || *Lelengotako frentie amen berton Oleskon ein tzen. Olesko, Oleskoko tontortxutik tiroka ein tzen lelungotan. An bes eskapau tzen. Da gero urrengue Biskargi.* || *Aringaringe eskapau da.* || *Denporali-edo, aixi-edo daunien, da keye sabaltzen da, ta ba ordun ati sabalteu, kanpoko atie, edo au atie, gelakue, sabaldu, da au gelako bentani sabaltzeu, da keye beres eskapeten da.* || *'Uxoka' da eskapetan-edo dabillela "Uxoka dxak".* *Ganadu be bai. Bera geldik esteuna: "Ño, uxoka dxauk au!" geldi esteula.* || *Guk e osiñe..., oiñ ure galdu eitten deu, eskapau eitte tzo ta.* || *Da gero ollue..., beiñ e txitxara dauniñ estau eskapetan, arrautza ganin denpora gustin.*

**eskape, eskapie.** (ESKAPE) **1.** Escape, fuga de un gas o de un líquido. || *Eskapie esate dxake, esate baterako, ittogidxe nunondik-e, ure botako baleu itturidxe sabaltzen estan lekutik: "Urek eskapie deko".* **2.** Conducto de secreción; desagüe. □ **eskapie emon.** Dar salida. || *Sangraderue esaten san a eskapie, bideko ureri eskapie emotie.*

**eskarabajo, eskarabajue.** (ESKARABAJO) Escarabajo. Ik. patata kokue. || *Bai, bat espadire, antzekuk tire eskarabajuk eta patata kokuk.*

**eskari, eskaridxe.** (ESKARI) Petición. || *Eskaridxe ein.*

**eskarmentu, eskarmentue.** (ESKARMENTU) Escarmiento, lección, aviso. || *Eskarmentue da..., selan esangot neuk? Esperentzidxe be neutzako esta. Eskarmentu da, ba esate baterako, ba ume batek estau esanik ein gure, da ba eperdiko bi emote dxakos, da: "Emon tzet eskarmentue!".*

**eskarola, eskarolie.** (ESKAROLA) Escarola (*Chicorium endivia*). || *Eskaroli beres jateku da.* || *Bueno, bai erain be eitten da ta geuk estou asko kastetan, da onetan asko esta kastauko baya eskaroli ba seinda asi moduku edo ser esangot nik ba?*

**eskas, eskasa.** (ESKAS) 1. Escaso, de mala calidad. || *Jenero bat txarra daunin-de, eskasa egoten da.* || *Sardiña sarrak bayo eskasae.* || *-Bedar eskasa dekosu!* -Bai, au biarren kortie da ta eskastxueu dau. || *Leku eskasa da a mendixen igoteko, baya lanroberra juten da.* || *Biximodu eskasa sabillek.* 2. Insuficiente; escaso, -a; parco, -a. || *Jentiek dirue eskas eukon da...* || *Gerra ostien geuse gustidxe eskas ibilli suan, estraperluen, da geusie eskas.* || *Dirue eskas euen da...* || *Allegetan espada edo eskas badau,* "urri dau" esaten da. || *Urtik ixen siriñ eskasak eta oin dana pranko. Oin pobrerik estau.* 3. Delgado, -a. Ik. *argala, simela.* || *Gixon eskasa geratu da.* 4. Inútil. Sin. *geuse estana.* 5. Malo, -a, para cierta actividad. || *Eskasa da jaten.*

**eskastu.** (ESKASTU) 1. Escasear, disminuir. Ik. *urrittu.* || *Eskastu: ure siketzen bada, gitxittu eitten da, da ba eskastu, ure eskastu.* 2. Desmejorar. || *Kalidadie galtzen dabenien, "Gustu mudaute dau" esaten da. Eskastu be bai.* || *Eskastute dau.*

**1 eskatu, eskatzen.** (ESKATU) Pedir || *Permixue eskatu.* || *Txo, Miguel etorri dok botue eskatzen iri?* || *Txorixuk eitteko-ta, este siku eskatzen da karnaseidxen.* || *Berari eskatze dxakosan, denderuri, aretan dediketa sanari. Da ak botate ebasan.* □ **txala eskatu.** Ponerse de celo la vaca. || *Beidxeri be esate dxako, guk esteutzagu beidxeri olan esaten 'ernari', baya olanik txala artzeko-edo agertzen danien, ba esate tze batzuk "Ernari dau". Emen esta esaten. Emen "Beidxe suseratu ein da", edo "Txala eskatzen dau", edo olan esaten da.*

**2 eskatu, askatu, eskatzen.** (ASKATU) Soltar. Aditz honen esanahia korapiloari edo sokari lotuta dago nolabait; horrenbestez, \**Presue eskatu* bezalako formak ez dira guztiz zuzenak nabarriztarren belarrientzat (presoa sokaz lotuta ez badago, behintzat). Kasu horretan, *Presue gartzelatik etara* edo *Presue libre itxi* esango lukete. || *Kordelak eskatu.* || *Moropillue eskatu.* || *A sokie eskatu ein bida.* || *Tarratadie: bai, erropi apurtzen danin. Emen einde deko, aridxe eskatute, tarratadie.* || *Astun artu garantzeko? Artaburuk botaten dire, ta makiña bat eskatzen da, da garaunek urteten dabe kanpora.* || *Eskatu? Eskatu ba seinde au apurtzi les, "Eskatuidxok erdittik!" Beste batzuk 'askatu' esaten dabe. Guk 'eskatu'.*

**eskatz, eskatza.** (EZKARATZ, sukalde, suete) Cocina. || *Bueno, gure eskatza bete bi da jentes, beste gixonesko bi datos.* || *(Trumo bedarra) bedarretan oten da, ori esta erain be eitten, da ba urteten deu da ba eskatziñ ipintteko be igul batzen dire, aulan ipintteko be, se neu pe baten bayo geidxautan batu dot.* || *Eulitzu dau eskatza.*

**eske.** (ESKE) Pidiendo. || *Eske ibilli.* || *Itxoso alderdixik sokorro eske edo diadarrak entzuten siren.*

|| *Or dabis boto eske.* || *Diru eske etorri dire.* □ **eskien.** Pidiendo. || *Eskiñ etorri, jun.* || *Eskien ibilli: limosnie batzen ibilli.* || *Eskekuek: etzerik etze eskiñ ibiltte siñak.* || *Da one bestiok, katamixarra, basakatue, da one pa es sin jatekuk. Bronkuek. Orrek siren atrapau tranpan, da afesiñau ixate sanak eitte ittuen etzerik etze ibili, eskien. Orrek kalte eundidxek eitte bese les, ardidxen da olluen da orrek, txitxan-da. Orrek txitxe erute ben. Da ordun ibiltte siren eskien. Bakixu arek etzerik etze.*

**eskei.** (ESKEGI) Colgar, tender. Ik. *esegi.* || *Latzien eskeitte.* || *Erropie eskei.* || *Sabaittik lotun de bere burue eskei deu.* || *Arek meresi dxok samatik eskeittie!* || *Kakutue? Makilla bat, urkula bi dekosena jeneral ixeten da, olan eskeitteko kakututan.*

**eskeko, eskekue.** (ESKEKO, eskale) 1. Mendigo, -a. || *Eskekuek bille, len etorten siren aterik ate.* || *Oiñ estator eskekurik.* || *Eskin dabillenari bai, eskekue esate dxako.* || *Lagun bat txarra-edo bada: "Eskeku olakue!"* 2. Postulador, -a, limosnero, -a. || *Santageda eskiñ aintxiñe ibiltte sin; Santageda eskekuk esate dxake, limosnie batzen etzerik etze.*

**eskeleto, eskeletue.** (ESKELETO) Esqueleto.

**eskepe, eskepie.** (ESKEPE) Atrio, porche, soportal. || *Bueno, asko esta entzuten eskepie. Len eskolan ibilli giñenin, eskolako aterpetxuri esate gentzen eskepie.* || *Eskepie esate dxako, ori etarti ori, olantxik etartiri ba batzuk eskepi esate tze, ta beste batzuk etarti. Guk etarti esate tzeu.* || *Eskepi da..., eurriñ e..., batzuk oneri portali esate tze, beste batzuk eskepi.*

**1 esker, eskerra.** (ESKER) Gracia, agradecimiento. || *Eskerrik asko.* || *Mille esker.* || *Eskerrak emon.* □ **eskerrak.** Menos mal, gracias a Dios. Kasu honetarako, *grasidxak* gehiago esaten da. || *Eskerrak etor sarena!* || *Eskerrak etorri dalako, ostantziñ ia sek pasau bi ban!* || *Eskerrak Jaungoikuri aulan pasau dalako!* □ **esker ona.** Agradecimiento, buena voluntad.

**2 esker, eskerra.** (EZKER) Izquierda. || *Eskerreko besue, eskue.* || *Amar metro eskerrera.* || *Jun eskerrera.* || *Txokue eskerretara garatzok.* □ **eskerreko begikue.** No predilecto, que no se quiere ver. Gutxi erabiltzen da esakune hau. || *Eskerreko begikue da ikusi gure esteuna.* □ **eskerreko begittik artu.** No tener simpatía por algo o alguien. || *Eskerreko begittik artu dxok.* || *Eskerreko begittik artu esteuna da, ba ikusi gure estauna.*

**eskerbako, eskerbakue, eskerri bakue.** (ESKERBAKO, eskergabe-bat.) 1. Ingrato, -a. || *Eskerbakue da borondate txarrekue. Estimete esteuna da ori eskerbakue.* || *Eskerbakuda ba, estimau es eitti lakue. Aittutosu? Geuse bat e emote tzut nik suri te eskerrak emon es.* 2. Sin voluntad, mal hecho (referido

a un trabajo). || *Esferbakue, ba esate dxako ondo eñ estan geusiri esate dxako: "Ba, ori esferbakue ixen dok ori". || Bai. Biarra be txarto eindakue. Ondo eñ es. Da "Esferri bako biarra ein dxok!"*

**esferkada, esferkadie.** (EZKERKADA) Zurdazo.

□ Frontoian honela esaten da: || *Au ixen da esferkadie!*

**esferkasue.** (EZKERKAZO) Zurdazo. Eskumaz joz gero, ez dago horren pareko esakerarik. || *Orrek emo tze esferkasue!*

**esfero.** (EZKERO) 1. Después de, una vez que; desde.

|| *Ordu bete esfero itxi biarrari!* 2. En (el) caso de que.

□ **esferuen.** En (el) caso de que. || *Da untxe be etze bat erre esferuen, nik pentzetot ori len, lendiko da, beres estau eukitten iñok obligasiñorik, baya lendiku da, ba, etzie errete dxakonari, edo etzias orma bat jeusten badxake, edo suerte txar bat pasetan bada-edo, eusun-edo ba laguntzen juen, seoser emon. Da ba ori betittiku su. || Jateko batzu pa atzokuk ixen esferun da geur jateko moduku badau, berotu eitten da. || Da kari emote esik, kendu esta eitten txonbue. Da kari emote esferun estau urteten orrek.*

**esferalderengo, esferalderengue.** (EZKERRALDERENGO) El situado más a la izquierda.

**esfererti, esferetidxe.** (EZKERTI) Zurdo, -a. || *A esfererti dxok.*

**esferlaburu, esferlaburue.** (ESKILARA BURU, esferalera buru-bat.) Descanso de la escalera.

**esferladore, esferladorie.** Esferilador. Sin. *motzailie.* || *Esferladorie uli ebataillie da; len onek jittanuk-eta esferladoriek makiñias, artasidxe kin len, gero arresfero makiñias, oiñ iñor bapes.*

**esferlapeko, esferlapekue.** (ESKILARAPEKO, esferalerapeko-bat.) Vino especial, de más calidad. || *Esferlapekue, bai esate tzau, baya ointxe ipiñinekue da ori ixen ori, orrek e estakigu urte asko emen, esferlapekue ta orrek; len ixete san ardaue bakarrik, ardaue, ardau ona ta ardau txarra. Esferlapekue da kalidade geidxaukue, esan gurot, obie, onague. || Esferlapeko ardaue esate tzegu, askotan tabernara jun, da esferlapeko ardau markataku ixeten da, "Esferlapeko ardaue atara ik!". Markaku bayo eskasau da, baya korriente bayo obi: esferlapekue.*

**esferlara, esferlarie.** (ESKILARA, esferalera-bat., zurubi) 1. Escalera. || *Esferlerratan gora jun san. || Da iños entzu dosu beidxe esferlerratan gora igon leixenik? E? Bai! Antxe mendidxen, Airo bakixu nun daun? Antxe alde ein de gero, beidxe igon esferlerratan gora, eta gero koltzien, esan tzutena, eta apurtu ben kakiolak eta bera jeusi, ta biskerrasurre apurte ilde topau ben.* 2. Cierta tipo manzanas. □ **esferlara maille.** Peldaño de la escalera. □ **sotz esferlarie.**

Escalera rudimentaria de madera. || *Sotz esferlarie ixeten da eitten dana au (3 cm) bayo sos lodidxaukin, sotz utzekiñ eitten dana. Olan esferlarie, olas barik sotzas eitten dana.*

**esferlarape, esferlarapie.** (ESKILARAPE, esferalerape-bat.) Espacio que queda bajo la escalera.

**esferlaso, esferlasue.** (ESKILASO) Arrendajo común (*Garrulus glandarius*). Emiliano Arriagak *esferlaso* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Grajo, arrendajo. Especie de cuervo cuyo cuerpo es negro, manchado se rojo, con remeras de azul oscuro a rayas blancas". || *Esferlasue apur bet ligorra da. || Esferlasue: bastante aundidxe, a luma elegantik eukitte ittuna?, arexe. Orrek jateko ligorra! Burue aundidxe eukitten dabe, da esferlasue, orrek artu-te jaten dabe. Oin be badabix orrek!*

**esferlau, esferlletan.** Esferilar. || *Motzallak esferlletan etorte siren aintxiñe. || Esferlau da ebei: "Esferllete dxak".*

**esferindu.** (ESKINDU, eskaini-bat.) Ofrecerse. || *Seoser eitteko esferindu da.*

**esferiña, esferiñie.** Esferina. Ik. *ertza.* || *Erreka esferiñie. || Solo esferiñie. || Motie jeneralien esferiñara datorren satidxe da. Landie ya aundidxe da; da landin barrena, motie. || Landan esferiñak dira motak.*

**esferoba, esferobie.** (ESKOBABA) Escoba. Lehengo hitz zaharra *itxuskidxe* da. || *Esferoba garratza. || Beste batzutan goidxe pasetan deu esferobias.* □ **esferoba**

**kirtena.** Palo de la escoba. □ **giñarrasko esferobie.** Escoba de brezo. || *Len esferoba pe etzien eitte genduszen, giñarrak ekarri mendittik, batun giñarra pillo bat, eta kirtena ipiñitte esferobie eitte gendun. Oiñ estu eitten olakorik, oiñ erosi eitten dus.*

**esferobille, esferobillie.** (ESKOBILLA, esferuila-bat.) Escobilla (cepillo). □ **esferobille garratza.** Cepillo para la ropa.

**esferola, esferolie.** (ESKOLA) 1. Escuela. || *Esferolara goyes. || Neskan esferolie ixenekuen preparaten dabe ser ori, maidxe. || Umiek esferolara botou bi dus. || Bueno, mutil kaskondue ba, umetako denporie ya juti dxakoniñ edo, esferolara abidxetan daniñ-edo, ta or dosena bat edo amalau-amabost urte eukitte ittun artin, mutil kaskondue.* 2. Instrucción. || *Esferolie emon. || Esferola askokue da ori. || Ikeste esteunari buru gogorra esate tzeu, esferolarik ikisi-tte es eiñikue. || Jakittururidxe da ya esferola aundidxe eukitti lakue. Da jakittune da eser estakidxela asko esaten deuna, asko dakidxela planti ein, da "Jakittun ok ori, jakittune! Danak jakitte sak!". Da jakittururidxe da diferentie, jakitturidxe da ya esferola asko dekon personie, ero listue ixetie.* □ **esferola bakue.** Analfabeto, -a. □ **esferola maixue.** Maestro de escuela.

**eskoladun, eskoladune.** (ESKOLADUN) Instruido, letrado.

**eskolaratu.** (ESKOLARATU) Educar(se), instruir(se).  
|| *Ba iguel eskolara junde dausenin: "Eskolaratute dxasak umik".*

**eskolume, eskolumie.** (ESKOLA-UME) Escolar. ||  
*Eskolan dabixenak.*

**eskonbarri, eskonbarridxe.** (EZKONBARRI, ezkonbarri-bat.) Recién casado, -a. ☐  
**eskonbarritten.** De recién casados.

**eskondu, eskontzen.** (EZKONDU) 1. Casar(se). ||  
*Etze batetik bestera eskondut. || Su eskontzen sara ona, esta? || Baya a Allustittik etorridxe. A eskondut ein san Nabarrixer. || Nabarnixen ein giñian lagunek ta eskondut giñian. || Ori eskondut san da ba orrek famelidxe deko. || Laster eskontzeko dau. || Eskondut bari pe badaus eskontzen estiñak, neska-mutillek, esan gurotena, nobidxu-nobidxak, arek errimeute daus, eskondut barik errimeute. || Bueno, il ementxe il siriñ arek, baya semi be ill ein dxaken areri, da gero alaba bat e Ameriketara-edo jun dxaken eskondute. || Bai, eskondut te bijan jutun diriñin: "Diadekanpo jun dire".* 2. Corresponder, cuadrar una cosa con otra. || *Ondo eskondute das onek arridxek. ☐ elixetik eskondut.*

Casarse por la iglesia. ☐ **jusetik eskondut.** Casarse por el juzgado.

**eskongei, eskongeidxe.** (EZKONGEI, ezkongai-bat.) Novio, -a. *Eskongeidxe ez zaio esaten ezkondut barik dagoenari (solterue da berau), ezpabe ezkontzeko asmotan dagoenari. Ik. nobidxue, nobidxie. || Eskongaidxek dire ya eskontzekun deusenak. || Eskongei dau. || Eskongeidxe da ya eskontzekun, pentzeute deusenak.*

**eskontza, eskontzie.** (EZKONTZA) Boda. *Bodie ere esaten da sarri. Ik. estegue.*

**eskopeta, eskopetie, eskupetie.** (ESKOPETA) Escopeta. || *Eskupeta-fabrikie. || Eskupetieri brillue atara. || Erbidxen gomute baukosu? Konejun antzeku da, baya a be san mendikue. Da a be eskopetias be atrapete san, baya en jeneral tranpan. ☐ eskopeta eittailie.* Armero, fabricante de armas.

**eskota, eskotie.** (ESKOTE) Escote, dinero que se pone en común. || *Eskotie: ori eitten dana, bardin pagetie.*

**eskribidu.** (ESKRIBIDU, eskribitu-bat., idatzi) Escribir.

**esku, eskue.** (ESKU) 1. Mano. || *Eskumako eskue. || Esku fiñe. || Esku onetan geratu. || Eskusko pelotaridxe. || Eskure ekarririk ori!* 2. Asa, asidero. || *Eskutik eldu. || Askora esku, da askora kirtena bat dire. Eskue, norberak kolpeteko astiri, ba eskue esate dxako, da skora kirtena be bardiñ esate dxako. || Esku*

*bat eukitte ben oratzeko. || Ta gero askanengo ortzak eruten deu burdiñi olan altuau goitti bera sartzeko eskue. Aresku esate tzon ari. 3. Mano (en el juego de cartas). || Atzesku esate dxako... Esku da bat, kartak bota ittun urringoku esku da. || Esku da lelengu. Da atzesku da laugarren deuna. || Enok esku, esku besti da. ☐ esku ariñe.* Avaro, -a. || *Esku ariñe? Ba borondate gitxi dekona. || Esku ariñe: gitxi emoten deunari. ☐ esku barrue.* Palma de la mano. ☐ **esku betie.** Puñado. Ik. *asaue. || Esku bete gari. || Asaue eitte san esku betias, ebei garidxe ta esku betin. Da gero arek lotu eitte sirin. || Botaidxok esku bete! ☐*

**esku fiñekue.** De manos finas. || *Esku fiñekue da. ☐ esku mantarra.* Trapo de cocina para secarse las manos. || *Eskuk siketzeko, eseite trapu bat eukitte san, axeri esku mantarra esaten dxakon. ☐ esku onekue.* Manitas. Ik. *taidxuskue, dxaseskue. ☐ eskus.*

A mano. || *Nire denporan be batzuk joten eben eskus. Banekak. || Au esta matxakie. Au gari garbitzeko makiñi da. Matxaki da... Garidxe joteku san matxakie, motorras ibiltten dana. Au da eskus ereittekue. || Jenti gitxi ganera bixi be, aretan. Se an len makiñarik egon es sa-les, jentie dana eskus ebei bier kañie. ☐ esku sabalekue.* Generoso, -a, desprendido, -a. Ik. *eskusabala. || Bai, esku sabaleku da, emotzailli da. ☐*

**esku serrota.** Sierra pequeña. ☐ **esku utzik.** Sin nada; a cambio de nada. || *Esku utzik dator. || Esku utzik: eser barik e jun eskerun nonora, edo seoser gure ixen eskerun pagau barik-edo ba, "Esku utzik gure deu geusie". ☐ eskutako atzak.* Dedos de las manos. Ik. *atzamarra. Berri-emaile baten arabera, lehen sarri esaten ei zen eskutako atzak nahiz ainketako atzak, baina oraingo gazteek atzamarra edo bietza esaten dute. ☐ esku bat emon.* Echar una mano, ayudar. ||

*Esku bat emoistesu! ☐ eskue esarri. 1. Golpear. 2. Ayudar. || Esku bet esarrixosu! || Eskue bota tzo. || Esku botateko plantie ein tzo. ☐ esku euki.* Ser diestro, -a, hábil. || *Esku euki ban biarrerako! ☐ esku lijeru euki.* Tener propensión pelearse. || *Esku lijeru dxekok orrek. ☐ esku lusetu.* Echar una mano, ayudar. || *Kanpotik datorrenari be beti lusatzen dxako esku. ☐*

**eskun pagau.** Pagar al contado. ☐ **eskure pagau.** Pagar al contado. ☐ **eskure etorri. 1.** Caer en (mi) poder. || *Ondiño ontzo-ontzu etorri dxat eskure, ta estaitt suten sartu banaben, etaitt ser ein neutzon. 2. Hacerse dócil. || Katanarra da mendiko ori, patari bat. Katue, katu bakixu, baya katu bronkue, mendikue.*

*Onek e esi bako katue, eskure etorri bako katue.* □  
**esku sarratu euki.** Ser avaro, -a. || *Esku sarratu deko.*  
□ **esku siku euki.** Ser avaro, -a. || *Esku siku deko.* □  
**esku urridxe euki.** Ser avaro, -a. || *Esku urridxe deko orrek.*

**eskuarrain, eskuarraiñe.** (ESKU-ARRAIN) Dolor fuerte de la muñeca provocado por algún movimieto brusco, etc. Serafin Basauri eta Asier Sarasuaren *Eibarko Hiztegi Etnografikoa* izeneko lanean eskuarrain sarreran definizio hau ematen da: “Dolor reumático de la muñeca”. || *Eskuarraiñe dekot.* || *Eskuarraiñe ixeten da saati, ori eitten danin: "Eskuarraiñe deket".* || *Eskuarraiñe dot.*

**eskuarte, eskuartie.** (ESKUARTE) Capital, recursos, medios materiales. || “*Eskuarterik esteko*”: *diruas allegau esiñik ibiltten dana, "Eskuarterik esteko".* || “*Denda orretan eskuarte eundidxe dau*”: *ba, asko saltzen dala.* || *Eskuartie: dirue-edo, eukidxe-edo.*

**eskuarteko, eskuartekue.** (ESKUARTEKO) Dinero. Sin. *eskupekue, saridxe.* || *Diru emote tzuenien-edo: "Eskuartekue emoste".*

**eskubara, eskubarie, eskobarie.** (ESKUBARA, eskuare-bat.) Rastrillo. Ik. *arrastillie.* || *Bedarra batzeko eskubarie.* || *Asmela len eskuas eitte san, baya oiñ eskubarias.* || *Saskarie? Bai, saskarie, bedar e ondakiñek solun e, solu garbitzeko batzen diriñak eskobarias, batzen diriñak; arixerri esate dxake. Da pillotxuk ein, de su emon erre deixen.* || *Asumela eskobarias-da eitten ixen dana.*

**eskubaratu, eskobaratu.** (ESKUBARATU, eskuaretu-bat.) Rastrillar. || *Ori da garauek dekon lakatza: buruxi. Makiñik onek antxiñeko trilladora agindunek a ebei eitte tzon, garandute a burue ebeitte tzon, a botate ban aparte, jeuste dan a. Eskubaratu gero. A sabaire ta ganaduri emon. Buruxi.*

**eskubide, eskubidie.** (ESKUBIDE) Derecho. || *Eskubidie? Bai, soaser, erresoiri-edo, "Arek erresoiri euki deu"-edo ba, da "Eskubidi deko erreklametek"-edo.*

**eskude, eskudie.** (ESKUDA) Manojó. Ik. *eskukadie.* || *Lora eskudie.* || *Eskude bat edo bi emon!* || *Asaue eitte sanin, garidxe ebaten sanin, batzuk eitte ben eskude batekue, da beste batzuk eskude bikue ixete san. Esku eundidxe eukonak ba bategas eitte ban. Jeneraliñ eskukada bi, pasau.* || *Aintxiñe, galtzue... Asaue esautu osu? Asaue, ba garidzek eukitte bana, da a guk eitte gendusen ba besadaxuk. Iru eskude... Eskerras eitte san da eskumas jarri e. Da iru eskude arek garidzek beteta dasenien, arek asauek, asaue esate tzun areri. Da a eitte san beyen, ta gero atzetik etorte sin beste batzuk lotzen. Da areri esate gentzon guk asaue. Da gero asaue, esan dosune len, onen tiok Airon are ebateko serri euki ban, are ebateko serri euki ban. Matxeta bakixu ser dan.*

**eskuera, eskuerie.** (ESKUERA) Alcance de la mano.

□ **eskueran.** Al alcance de la mano. || *Eskueran badeko, jan barik estau itxiko.* || “*Eskueran dau*”: *eskuas artzeko geusa bat daun lekuen-edo, sagarra edo beste geusa bat e eskueran dau.* □ **eskuerara.** Apropiadamente, a mano. Ik. *erara.* || “*Eskuerara etorri dok ori*” *be bai esaten da. 'Eskuerara' da erara etorti geusie, erres etortie.*

**eskukada, eskukadie.** (ESKUKADA) Puñado, manotada. || *Lora eskukadie.* || *Gari mutxuridxuek, arek txikitxuek ixeten sirin, saspí-sortzi eskukada.* || *Eskukadie da esku bete artzen dana.* || *Eskukada bat botaidxok!* || *Da arek eitte sirin batu, buruxak. Batu te eskukadaxu eindakun, ba... Oiñ astute deket selan eitte san be. Buruxak batu da are buruxak eitte sirin jo barridxen, batute. Batu eitte sirin da gero jo eitte sirin.*

**eskuleku, eskulekue.** (ESKULEKU) Asa, asidero, mango.

**eskumakalde, eskumakaldie.** (ESKUMAKO ALDE) Lado derecho. || *Eskumakaldeko ormie okertu da ta laster jausi bi deu.*

**eskumalderengo, eskumalderengue.** (EZKUMALDERENGO) El situado más a la derecha.

**eskume, eskumie.** (ESKUMA, eskoa, eskuin) Derecha. || *Eskumeko eskue.* || *Eskumera jo, edo eskerrera jo.* || *Sapatillie be eskumie bada, ume bat asten bada bestien, eskerrin jasten: "Orko erakue estok ori, ori eskumeku erakue dok".* || *Or bidi jenerala, da juten basara an bide jeneralien or Argiarro aspittik, Argiarrosarrin bera, Argiarroko etzaspixen bera juten basara, da artzen badosu eskumetara beti, an jun da an dau txabolie, gure aittek eiñikue.* □ **eskumeko begittik ikusi.** Tener preferencia por algo. || *Eskumeko begittik? Len esan duna, eskerrekotik txarra da, eskumekotik ikusi eskero ba ona.* || *Ak eskumeko begittik ikusi deu.* □

**eskumeko ormie.** Pared a la derecha del frontón. || *Eskumeko ormie? Ba frontoyek, batzuk e, amen Nabarrixen elixin kontra eitte gendun, te or eskumeko ormi. Baya ixetes eskerreko ormi ixen bi deu, baya emen eskumeko ormie: "Eskumeko ormie dxekok arek"-eta.*

**eskumeti, eskumetidxe.** (ESKUMATI) Diestro, que trabaja o se sirve de la mano derecha. *Eskertidxe hitzarekin ez bezala, hitz honen erabilera esparrua pilotarien mundura mugatuta egon ohi da.*

**eskupaleta.** (ESKAPOLOT) Cómoda, armario donde se guarda ropa. || *Eskupaleta da olako armaidxu modukue. Geuriñ or koltzan daus, bi, aintxiñekuek, orrek sarrak.* || *Eskupaleta da amen beyen dekuna, erremintak eukitteko. Da guriñ alabik estau ori apurtzerik gure, da or dau, ya dana apurtute, sarras.*

**eskupeko, eskupekue.** (ESKUPEKO) Propina. || *Eskupekue: seoser emon, emoten dana.* || *Eskupekue emon tzet.*

**eskur, eskurre.** (EZKUR) 1. Bellota. || *Artaeskurre.* || *Atxeskurre.* || *Eskurre atxak eukitten deu, paguk eskurrik esteko.* 2. Fruto del árbol, en general, tal como la castaña, nuez o bellota. || *Eskurre esate dxakon len, oin be bai. Gastañi kanpun artze san, da batun bi dabenak artuko deu kanpun, intxeurre be bai, da eskurre esate dxakon intxeurreri, gastañiri.* 3. Dinero. || *"Eskurre dxekok orrek, eskurre!" esaten da dirugeittik.* || *Orrek eskurre dxekok eta!* || *Orrek eskur asko eukiko deu.*

**eskurdun, eskurdune.** (EZKURDUN) Rico, a, adinerado, -a. Ik. *dirudune.* || *"Eskurre dxekok orrek, eskurre!" esaten da dirugeittik. Diru askokuri-tte, ba "Eskurdune dok ori, eskurdune!". Aintxiñeko sarrak esate ben ori, eskurre: "Eskurdune dok ori, eskurdune!", da ba esan gure deu dirudune, dirudune esan biarrien, eskurdune.*

**eskuretu.** (ESKURATU) 1. Dar, entregar, alcanzar. || *Eskuretu eistesu!* 2. Convencer, persuadir, captar la voluntad. || *Eskuretzi da noberen esanetara ipinttie, eskuretu, noberen esanetara, umie, edo nausidxe, edo dana dalakue noberen esanetara ipinttie, ba eskuretzie. Edo bier bat eitten-da, da ba "Eskuretute dau".* || *Noberen, gure daben gause bat eraitteko-edo: "Eskuretute dau", edo "Eskuretu dogu".*

**eskurti.** (ESKURTI) Acción de arrancar las malas hierbas a mano de entre el trigo. Azkueren hiztegian 'esku-urteian' eta 'esku-urtika' jasotzen dira. Idoia Mallea Lamikizen *Mendata gure geurea danentzat izeneko hiztegian ere eskurti batzen da.* || *Eskurti? Gari artin bedarrak e ori eittie, txarrak kentzie, garitzetik. Leno enbrak-eta ori jeneral eiñ eitte ben. Garidxe eitte sa-les, eskurtik igul erun kopradidixan enbra bi ero iru-ero, deitze tzen jornale modure soser txokolati ero kafi emote tzen, da "Eskurtin dxabixek".* *Eskurti arexe bedarra ataten, gari artitan.* □ **eskurtin.** Arrancando las malas hierbas a mano de entre el trigo. || *Eskurtin dabis andrak.*

**eskusabal, eskusabala.** (ESKUZABAL) Generoso, -a, desprendido, -a. Ik. *esku sabalekue, emotzaillie.*

**eskusal, eskusala.** (ESKUZAL) Barandilla, pasamano de escalera, rastel. || *'Eskusala' da olan alun dauna, oratuteko.* || *Barandela esate tzeu eskusalari te orreri.*

**eskuteu, eskutetan.** (EZKUTAU, ezkutatu-bat.) Esconder(se), ocultar(se). || *Arpeidxe eskuteu.* || *Ate ostien eskuteu.* || *Sokondun baten eskuteu.* || *Eskuteute dau.* || *Eskutau de, ikusi esteidixen.* || *Eskuteu da geuse bat topeta estan modun, bestik topete estaben modun itxi.* || *Aridixen usaba bidxek eskutau, alde, bistatik alde eitten dabela, aridixek topeka eitteko orduen usaba bidxek bistatik alde eitten dabela.* || *Ondo*

*eskuteute parau nitzen.* || *Olan eskuteite dabixenin, 'baleka' ibiltten dire, 'bale' esanda, topetan gero.* || *Fraileulidxe: orre pe..., bueno, udan, bero eitten dabenien, mendidixen-da ugerittu eitte dxakos ganaduri. Gero otzak asten diriñin beres eskutetan dire.* || *Gu aintxiñe ibiltte giñiñ olgetan, da eskutetan da topetan ibiltte giñiñien, ba mamarru esate gendun.* || *Atzeko partin badau, olan ure eskutetan dan leku ba tau.*

**eskutrapu, eskutrapue.** (ESKUTRAPU) Trapo de cocina. Ik. *mantarra.*

**eskutu, eskutue.** (EZKUTU) Oculito, -a. (eskutukue, eskutun, eskututik eskutura) || *Eskutun dau.* || *Abidxe be baten bayo geidixautan topau dot olan leku eskututan-edo, dana eskutu estan lekun be bai.* □

**eskutun.** Escondido, oculto. || *"Eskutun" da bistan estabillena.* || *Bai, bai, esaten da "Basamortun dau a". Bakartadien-da dauna, da eskutuen badau, esaten da "A, a basamortuen dau". Ori esaten da.* || *Sasiostekue bakixu sertzuk ixete din? Onek enbarasada geratzen diñ enbrari, geratzen diñak olan eskutun, "Sasiosteku ixen dxok". Sasikue.* □ **eskututik eskutura.** Cambiar las cosas de un escondrijo a otro. □ **aixe eskutuen.** Protegido del viento. || *Axe eskutuen da.*

**eskutuke.** (EZKUTUKA) A escondidas, en secreto. || *Eskutuke ibiltten da.*

**eskutuko, eskutukue.** (EZKUTUKO) Secreto, a.

**eskutune, eskutunie.** (EZKUTUNE) Escondite. Ik. *aterpie, refujidixue.* || *Eskutunetxu bet topau du.*

**eskutur, eskuturre.** (ESKUTUR, eskumutur) Muñeca. || *Trongora estitti? Ba, trongue, lodidxe estau ixen biko, ostantziñ estau artuten. Da trongora estitti da, ba olan eskuturren moduku-edo, lodidxau edo metxuaue, alakoxera estittie beste bat. Da gero artu ein bihar.* □ *Anka trokatu nahiz bidxurtu egiten da, baina eskuturre beti bidxurtu:* || *Trokatu ankiri esate dxako, ainkie bidxurtu, edo ori eitte badxako, ba "Anki trokatu", baya "Esku trokatu" esta esaten.*

**eskutzik.** (ESKU HUTSIK) Sin nada, con las manos vacías. || *Besutzik da eskutzik esati les.*

**esne, esnie.** (ESNE) Leche. || *Ardi, bei, euntz esnie.* || *Esnie ebai.* || *Esnie egosi* || *Talue esnetan* || *Esnetan bota.* || *Esnik ganes ein deu.* || *Gure ama koittadie beren seme andidixek esneri parik itxi dxok.* || *Len ganaduek eukite gendusenien, esnetan be etorte siren.* || *Beidixek eukitten deu esnie meyaue, ardidixek eukitten daben bayo.* || *Orrixerri esate gentzon kaikue, da esnias be ibiltte genduen, da uras be ibiltte genduen baya a ba aundidxe-edo ixete san.* || *Gastai eitteko, esni aparteta san, euntzena jeneral. Len euntze pe euki gendusen, da oiñ estekeu bape baya. Da euntzen esnie meyau ixeten da beidixena bayo. Da euntzen esnie aparteta gendun gastaye eitteko.* || *Tripustu:*



gosias ibili, da tipostute. Tripi asi, da atzeri paku ixeti lakue. Da esne gitxiku txalari esate tze tripotutakue,

jan gitxi eindakue. ☐ **esne barridxe.** Leche que da la vaca tras parir. || *Beidxe txala eitten dabenin, a*

*lelengotan emoten daben esnie esne barridxe da.* ☐

**esne bitze.** Espuma de la leche. || *Bitze da a ya gora jagiten danien, esne bitze.* ☐

**esne galdue.** Leche cortada. || *Bai, beidxe eukitten dabe erropa miñe, da erropa miñe atrapatetan dabenien, ordun egun batzutan esnie galdu eitte dxake, baya eratzi ein biar ixaten dabe, se esne galdu kendu ein bi dxake ta.* ☐

**esne murgille.** Leche que da la vaca tras parir y suele ser bastante sólida. || *Murgille esate tzeu guk esne barridxe dauenin, esne murgille esaten du, esne barridxe dauniñ ebaitte-ebaitte les geratzen da, ta areri deitze tzau murgille, esne murgille.* || *Esne murgille da, txala ein, da segidikue. Txala einde esteu esnie garbidxe eitten, a esne murgille. Aintxiñe, esne murgille, gu mutikotxuk giñenin jate gendun. Esne murgille, jatzi, txala ein, de batera eitte dxakona, lodidxe, da axe jan kollarekin, junde lantziñ etze batera olan txala eikerakun, "Esne murgille dxak, eta etorri!". De esne murgille.* || *Esne murgille jaten e. Len e emen e kopradixen aintxiñe, gastetan gu ondiño, ba sortzi urte, bederatzi euki gendusenin. Orti gora ya olakorik es san usau eitten, asko. Baya len emen kopradixen egote giñen e a sortzi-amar mutil, da neska pe beste ainbeste, da olan txalik eitten ebenin, abiste ben juteko, esne murgille daula, da sarataka. Oiñ iñok estau gure ori-ori-ori-oridxe, lodi-lodidxe.* || *Ebeite dau a esnie, esne murgille. "A murgildu dok" esni galdutakun be esaten da oin be. Ba esne murgille, ostantziñ esne murgille da txala ein de egun bat garrenerako dauna.*

☐ **esne sikue.** Hembra seca, de poca leche. || *Esne gitxi dekonari esne sikue esaten dxako.* ☐

**esne sopak.** Leche con sopas. || *Esne sopak, geuk aintxiñe jate gendusen. Sopak ein, de esne beruas.* ☐

**esne telie.** Nata de la leche. Kipurrie ere esaten zaio. || *Len, aintxiñe kipurrerik es san esaten, oin bai, oiñ esaten dana ori kipurri, ori barridxe da. Len esne telie, beti len, es kipurrie.* || *Esnik deko telie!* ☐

**ardi esnie.** Leche de oveja. || *Ardi esnerik eskendun euki.* ☐

**eutz esnie.** Leche en polvo. || *Letxabit da eutz esnie. Txal txikidxeri emote dxakun. Katuri be emote tze igul. Urune da ori. Esni da ori.* ☐

**esnie ebei.** Cortarse la leche. Ik. **esnie galdue.** Cortarse la leche. || *Askok esaten deu "Ebeite dau". Guk esateu e jeneralien "Esni galdute dau". Guk e gastetatik "Galdue ein dok esnie". Esni galduek estau gora igoten. A bol-bol-bol-bol, da igon es.*

**esnedun, esnedune.** (ESNEDUN) 1. Que tiene leche. || *Esnedune esnie eukitten dabenari esaten dxake,*

*baya esnetzue asko dekonari.* 2. Lechero, -a. Gaur egun, *letxerue* berba gehiago entzuten da esnedune baino.

**esnetzu, esnetzue.** (ESNETSU) Que tiene, da mucha leche. Ant. *sikue.* || *Ardi esnetzue.* || *Erri beidxe esnetzuek estire jeneral. Okelarako ixaten dire, ba, txalak asteko be bai.* || *Olandesa, bei olandesa da baltza ta suridxe dekona. Da ixeten da esnetzue.*

**espabe.** (EZPABE, *ezpabere-bat.*) Sino que. || *Kodaiñenari esin leidxo esan arraspadarik, espabe arrastadie.* || *Laukidxe da bikidxe ixeti les. Lau ume jaidxoten badi, laukidxe. Da bi jaidxoten badi, bikidxe. Da iru badi, irukidxe. Olan esaten da. Bateri etxako esaten bakidxe, espabe bateri ba, umie.* || *Txikola bakixu seri esate dxakon? Gastañiri. Gastaña garaueri, arek espadeko mamiñik, "Ikolak dxasak ainbeste!"-ta. Areri etxako esaten mamiñipakue, espabe ikola.*

**espabese.** Sino que. || *Errekan egote sirin leixiba arridxe, es batentzat bakarrik, espabese euso gustidxentzat.* || *"Negarguri dekot" amen berton olan esta esaten, espabese "Negar eitteko gogu deket."* || *Gixoneskunari soñekue, jeneral, etxako esaten, espabese edo prakak, edo arkondarie, edo barrukue, edo olanik.* || *Basatxurre esta agiñek dekosena, espabese ague dekona, ague naiku sabala dekona ixaten da.* ☐

**espabese... bayo.** Sino que. || *Bai, orixe beyori su bastarra, su bastarra. Baya guk estetzegu ori be esaten, espabese beko sue bayo.*

**espada, espadie.** (EZPARA, *beltzuntza*) Tábano (*Tabanus* sp.). || *Sapal-sapalak dire. Sartzen da ta arik eta bere sera odolas bete arte esta solta.* || *Aundidxeri tabanue; bestiri prailleulidxe, txikitxueri, areri prailleulidxe; da emen ister artien da busten aspidxen kaballeridxeri espadie.* || *Espadie txikitxue da, eperdi biribiltxuagas.* || *Espadie be eulidxe da. Orrek egan eitten dau.* || *Guk prailleulidxe esate tzeu, da bestik espatie, baya guk prailleulidxe beti. Arek ainkadi! Inkeute geratzen dire bertan, arik eta..., isten badxako, arik eta odoles bete arte alde estau eitten, sastasu nausidxe!, da arek jo, ta plaste bertan iltten dire. Sapalak dire, lusekak, inkeute geratzen dire musturre sartute bertan.* || *Beste batzuk espata aundidxe esate tze orreri. Ba guk frailleulidxe, guk geuk axe. Baya espate, da frailleulidxe bat dire.* || *Espadie da egan ibiltten dana. Ori arboletan ibiltten da beres, da txir! olan 'gris-gris!' edo olan kantetan deu.* || *Badau espadie esate dxakon euli bat, baya tabanue estot pentzetan danik espadie. Espadie bai, euli bat, euli sorrotza, da estena gogor sartzen dabena da. Baya tabanu ixeten da beres ganaduri inketa dxakona, ganaduk ibiltten dabe udan-da, denpora onin-de. Negun-de esta ikusi be eitten iñun.*

**espalda, espaldie.** (ESPALDA) Cuesta, loma, colina. Ik. *aldatza, biskerra, erripie.* || *Aldatza: olan bidie beti gora ein bi dabena, aldatza eundidxe dau emen,*

asko igon bi dan leku; *espaldie*: kamiñurik estauenari, *espaldak*, orrek basun. || *Espaldie da aldatza*, *erripie*. || *Guk esate tzau*, igul onek landak olan berantz dausenak: "Ño, erripak daus arek!", "Arek espaldak daus a pe!". Ori ixengo da aintxiñe *espaldie* lepuri esate dxakon les, *erripe*. || *Txuten?* Jeurtitzie, sera baso espalda baten eitten da kanala, kanala ipintten dosu, de txute da antxe jeurtitzen dan e sera. An juten dire.

**espan, espana.** (EZPAN, *ezpain-bat.*) Labio. || *Espan* aundidxe *dekos*. □ **espan astiñek.** Labios carnosos.

□ **espan batuek.** Labios delgados. || *Espan* batutxuk *dekos*.

**esparrago, esparrague.** (ESPARRAGO, *zainzuri*) *Espárrago* (*Asparagus officinalis*). || *Esparrague* porrun antzeku da; emen estire artzen baya. || *Alkatxofie ta esparraguk* edo orrek e geurin be oiñ ipintte daus, baya nik estot inos esautu.

**espata, espatic.** (EZPATA) **1.** Espada. **2.** Espada (carta y palo de la baraja española). || *Biko espatic*. **3.** Palo que se coloca verticalmente en la parte delantera del carro o la narria. || *Espatic burdidxen aurrien tente* eukitten dabe, *egurre* da. A kargau eitten da *bedarras-edo*, eta gero lotzeko, *estutzeko*, *sartu an espatan*, *espatik* suluk eukitte ittu *goidxen*, da *sartu sera*, *gaiñeri* esate *gentzon guk*, da *sartu axe*. Da gero atzien beyen lotu sokias. || *Burdidxe* eukitten deu agie –oin burdi asko esta ikusten baya–, olanik palu luse bat. *Sulotxuk-sulotxuk* eukitte ittus, de *gaiñerie* sartze dxako atzera, *bedarra ta kargatze* sanien, *ipintte dxakon* takue *gaiñeriri* *espatan*, da *orreri* deittute dxako *espatic*. || *Saldi karru pe espata* lusie *gorantz* eukitte ben. || *Espatic?*, bai, *burdidxe*, da *narra pe* eukitten deu; ta *burdidxe* *kargautakuen*, *ipintte dxakon* ba, *taket bat* *ipintte dxako* eurretik atzera, da *axe espatic*. || *Espatic* esate dxako *narrak* nai *burdidxe* *dekon*, *eurriñ* eukitten *deun* e..., *betik* *gorakue*, *axe da espatic*; ta *bestie* *trabes* *ipintten* *dana*, ba *espatic* *bayo* *geidxau*, *arei* *espatic* esate dxako *batzutan*, *baya* *gaiñerie*. || *Espati da ori*. Da *bestiri* *ugeri*. *Ugeri an sartun da atzera* eitten da. *Espatan* *sartzen* da, *olako sulu* *deko da an sartzen* da, da *sididxe an eitte dxako sididxe* *sartun*, da *atzera*, *gora* nai *bera* eitten deu. Or *kargeti dxako* *kargie*, da *andik* gero sokias an *atzin* *lotun*. || *Antxe* *sartzen* da *ugerie*, *antxe* *espatan*. || *Sulu* eukitte ban *ugeric*. Da gero *espati* *sartu*. Da *siditxu*, *siditxu* eukitte ban *berak* eta *antxe* *lotu*. || *Beti* *gora* *jute sana* *espatic*. Da gero *ugeri* *solte egote* san a. *Suk* *kargetako* *narra* *kendu* eitte *sendun*, *esta?* Da gero *kargete* *sendunin* *narra* *olako...* *Arek e*, *espati* esate dxakon, *erdidxen*, *espatic*. || *Narra pe atziñ* eukitte *dxuasen* *arek*, *lotu-te* eitteko *bakik?* Da gero eitte *sendun* *narkadie* *eurriñ* *ibiltte* ban *espatic*. *Espati* *alto*. Da *areri* gero *inkete* dxakon *ori...* *Selan* *san* *bera?* *Ugerie*. Da a eitte san gero *lotu*. **4.** Prolongación de hierro del eje del molino. ||

*Espatic?* Orrek ardatzak eukitte ban *burdiñesko* *beste* *eje* *baten* *modun*. Oixe san *espatic*. **5.** Planta de tallo largo que crece en terrenos húmedos. || *Espata* *bedarra*. || *Errekondutan*, *uren* *txarku* *datosen* *lekuen*, *ure* *be* *jaidxoten* *dan* *lekuen*, da gero euri asko danin *geittu* eitten *dire*, da gero *uden* *agortu* eitten *dire*. Da ba *arixeri* esate tzeu *guk* *ori*, *espatic*, *antxe* *urteten* *daben* *bedar* *santarrari*. □ **espata** **madaridxe.** Cierta clase de peras. || *Len* *espata* *madaridxe* *amen* *berton* *egon* *sin*, *amen*, *gu* *geuk* *eskendun* *euki*, *baya* *amen* *beste* *etzien*, *espata* *madaridxe* *fenomenu* *egon* *san* *arbolie*, *ederra!* *Eta* *selako* *garauek* *eukitte* *basan* *ba!* || *Espata* *madaridxe*: *es* *aundidxe*, *esajerau* *pes*, *baya* *olanik* *biribile* *beyen*, da *gora* *lusia*, *olako* *lusi* eitte *siñak* *siren* *espata* *madaridxe*. Ba *gosu!* *Ona* *madaridxe!*

**espatadantza, espatadantzie.** (EZPATADANTZA) *Danza de las espadas*. || *Espatadantzie?* *Umik* eitten *dabena*, *dantzan* eitten *dabena*. || *Bueno* eitten da... *Nos* *esangot?* *Andramaidxetan* edo *jaidxe* *danien* edo *aparteko* *soser* *daunien*: *espatadantzan*.

**espatadantzari, espatadantzariidxe.** (EZPATADANTZARI) *Bailarín con espada*. || *Espatadantzariidxe*-eta *len* eitte *ben* *lelengotakuk* *eurreskue*, ta *bik* eitte *ben* *ori*, da *bestik* *atzeskue*.

**espel, espela.** (EZPEL, *ezkel-bat.*) **1.** Apocado, -a, *insulso*, -a. Ik. *espeloidxe*, *espille*, *kikille*. || "*Espela* *garbidx-ok a!*": *seinde* *makala*. || "*Espel* *garbidxe!*" || *Ori* *espeleri!* || *Ori* *espeleri* *etorri* da ta. **2.** *Triste*, *sombrio*, -a. || *Begidxe* *espel* *dekosus*": *seinde* *ba* *kapa* *berantz* *einde*-edo. □ **begi** **espela.** *Ojo* *triste*, *caido*. || *Begi* *espelak* *tekosus*.

**espeldu, espeltzen.** (EZPELDU, *ezkeldu-bat.*) *Caere(se) los ojos a consecuencia del sueño*. || *Begidxe* *espeldute* *dekos*. || *Begidxe* *espeltzen* *asi* *dxakos*.

**espeloi, espeloidxe.** *Apocado*, -a, *insulso*, -a. Ik. *espeloidxe*, *espille*, *kikille*. || *Espeloi* da *erdi* *gixajue*, *erdi* *ganorabakue*. || *Espeloidxe* da..., *espeloi* esate dxako olan *ri-ri-ra...*, *eser...*, "*Espeloidxori!*" esate tze, *normala* *estana* *laku*, *burlatzat* esate dxako *ori*.

**esperantza, esperantzie.** (ESPERANTZA) *Esperanza*. || *Esperantzie* *galdu* *deu*. || *Etorreko* *esperantzan* *egon* da, *baya* *etorri* es: "-*Arek* *kale* *ein* *deu*". || *Badekot* *esperantzie* *etorriko* *dana*. || *Ondiñokarren* *estau* *esperantzarik*.

**espesial, espesial.** (ESPEZIAL) *Especial*. || *Menbrillue* *beres* *sagarra* *lakoxi* da, *garaunek* *ekarte* *ittu*, *baya* *esteko* *sagarren* *gustori* *pe*, *apur* *bet*, *se* *esangot* *neuk?*, *garraskiau*, edo *mingoskiau*-edo *ixeten* da, da *especiala* *ixaten* da *menbrillu* eitteko. || *Naparraidxe* da! Da *miñiñ* *urtete* tze olan, *bona* *eundi* *batzuk* *urtete* tze, *bonak* *urtete* tze, da *arixek* *errementau*

*artien, ganadu sufriduten dau, de gobernau bier ixeten dabe ba espesial.*

**espil, espille.** (ESPIL) **1.** Pinta, mancha, lunar. || *Espille: ori beidxe baltza bada, suridxe dekona-edo. Ori, bai, bekokidxen be eukitten deu, musturrin be eukitten deu..* || *Espille da, or eukitten dau ba bekokidxen erdidxen e suridxe ero... Askok arixe espille.* || *Ispille, sera, kolore diferenteko sera da.* || *Espille dxekok.* **2.** Apocado, -a, cobarde. Ik. *espela, kikille, txakille.* || *Espille kkilleri esate dxako. "Espillori!", alan kikildute daunari, "Espil garbidxas i, espille!". Brabotasune bakue.*

**espillu, espillue.** (ESPILU, ispilu-bat.) Espejo. || *Espillue apurtu da.*

**espiñaka, espiñakie.** (ESPINAKA, espinagre, ziazerba) Espinaca (*Spinacia oleracea*).

**espiritu, espiritue.** (ESPIRITU) **1.** Espiritu. **2.** (Fam.) Alcohol. || *Bueno, oin, alkolari oiñ espirituri pe etxake esaten, da geidxenak estabe jakingo ser dan espiritue. Guk bai, nik ikesi ñaben gurasugandik espiritue, len alkolari espiritu esate tzen. Da oin ba, alkola esate dxako, ta ba etxako espiritu be esaten.* || *Espiritue: ardauri, nai koñaka edo edaridxeri.* **3.** Fuerza, vigor. || *Karik espiritutu emote tzo lurreri. Erre eitten deu lur gogorrien-da, erre eitten deu dana.*

**espuela, espuelie.** (ESPUELA, ezproi) **1.** Espuela. || *Bueno, guk espueli bakixu seri esate tzeun, len, oiñ estekeu, baya len ba saldidxe eukitte gendun, bier eitteko, bedarra, bedar berdi ganaduntzako ekarteko, se ganadurik len larrara eskendun ataraten, da gero ba saldidxori ondiño ontzu, ontzu kendu du, ontzu e bai, ontzu kendu du. Da arixen saldidxen ganiñ ibiltten diñak ainkan sartzen dabe olako erramintta bat, edo ser esangot neuk?... selaku dan ba astute nau idxe, da arixek eukitten deu olan burdiña bat, da arixeri, saldidxeri eraitteko, olanik ainkias nobera ganin doiññ eraitteko, da arixeri esate dxako emen espuelie.* **2.** Garrón o espolón que tienen algunos animales en la parte posterior de la pata. || *Espuelie: orre pe bai, txoridxeri be, onek eperrak-eta eukitte ittues espuelak, sarrak aundidxek. eta gastik bat bapes.* || *Espuelak urten dau ondo!* **3.** Último trago. || *Askaneke espuelie.* || *Edaten deutzenin be, "Joko dxu espuelie?"*

**esta.** (EZTA) ¡ni por éstas!. || *Esta, esta, enintxake jungo orra!*

**estabadako, estabadako.** (EZTABADAKO, eztabaidako-bat.) Dudoso, -a, incierto, -a, inseguro, -a. || *Estabadako denporie dau.*

**estabaida, estabaidie.** (EZTABAIDA) Disputa, discusión. || *Estabaidie euki dxuek.* □ **estabaidan ibili.** Discutir. || *Bai, berba modun bai esaten da. Umiri be, olan mutil tamañuen... "Bibolintteru alakue!". Olan igul erristan ibiltten diriñin, edo estabaidan dabixenin-edo.*

**estadue.** (ESTADU) Estado, embarazo. □ **estadun egon.** Estar embarazada. Ik. *enbarasada egon, familidxe eukiteko egon.*

**estaldu.** (ESTALDU, estali-bat.) **1.** Cubrir, tapar, ocultar. Ik. *tapau.* || *Euskiidxe estaldu da.* □ **Dena dela,** normalagoa da *"Igetargidxe sartu da"* esatea, *"Igetargidxe estaldu da"* baino. **2.** Cubrir, arropar, abrigar. Sin. *jantzi.* || *Estaldute dau.*

**estali.** (ESTALI) **1.** Cubrir, ocultar. *Tapau* ere esaten da. || *Serue estali dok lañus.* **2.** Cubrir, arropar, abrigar. Sin. *jantzi.* || *Estalitte dau.* || *Estali be esaten da, baya esta asko olan usetan estali esati be.*

**estalki, estalkidxe.** (ESTALKI) Lo que sirve para cubrir algo, cubierta. Ik. *gurdasola, tapagarriidxe.* || *Estalkidxe: euridxe danin, gure guardasolari be estalkidxe; saku bat lepotik, estalkidxe axe.* || *Jantzi geidxau bi dabenin, estalki geidxau-edo: "Artuixu estalki geidxau!", edo "Ipiñixu ganetik estalki geidxau!"-edo.* || *Berotzeko estalkidxe.* || *Guardasola be estalkidxe da.*

**estaño, estañue.** (EZTAINU) Estaño. || *Estañue: sulu dekon tanga bateri eitte dxakona, suten berotute an, botate dxakona sulotxun. Oiñ estañori pe etxake botaten. Sulotute daunin jeurti, tte kittu.*

**estature, estaturie.** Estatura. || *Da olandesa estaturan be txikitxauu da, da erropatzuaue, da esne geidxau emoten dakidxena.*

**este, estie.** (HESTE) Intestino. || *Txorixo estiek.* || *Txorixuk eitteko-ta, este siku eskatzen da karnaseidxen.* || *Este nausidxe askana ixeten da ori.* || *Billotzak ilten ittusanin, aren estikas-da eitten dana da tripotxa.* || *Tripak garbittu eitte sirin, estiek atarateko.* || *Txuringie, ori txuringie, txarriidxen txuringie, askanengo estie, korotza eitten daben lekuko axe da.* || *Da gero ba errekarra juen, esti garbittu, bek-errekarra erute gendun. Gero murtzillak ein, odolostik ein.* || *Koipie eitten dana estitan oten da, bueno ori estin ganin-da oten da ori.* || *Apendisitis da este sobrie, ebei tte kendu eitten dabe. Ointxe ein tze orreri, suiñeri, ointxe pasa dan astin. Golpiñ etorten da tripalakin-de, au apendisitis.* □ **este lodidxe.** Intestino grueso. □ **este meye.** Intestino delgado. || *Este meye kiñ eitten danari odolosti esate dxako.* || *Este meye jeneraliñ usetan da siketute.* □ **este nausidxe.** Intestino grueso. || *Este nausidxas eitten dan mortzillie da jainko.*

**estegorri, estegorridxe.** (HESTEGORRI) Esófago. || *Estegorridxe ixeten da samatik orra doiña; ganaduk-eta, persona pe eukiko dabe.* || *Len karneseruni aitte pe eitte ban, da anaidxi pe bai, da "Estegorridxegas kontu! Estegorridxe deko", da gero ortik tiretu, te atarate ben estegorridxe.*

**estegu, estegue.** (EZTEGU) **1.** Celebración que tenía lugar cuando se establecía el contrato de matrimonio.

Ezkontzeko kontratua egiten zenean, *estegue* ospatzen zen eta hara familiakoez gainera, barriadako zaharrak ere joaten ziren. Geroago, ezkontzen zirenean, *bodie* egiten zen. Gaur egun, *bodie* entzuten da gehientsuenetan. Herrikoren bat hiltzen zenean ere, ezagun guztiek bazkaria egiteko ohitura zuten eta horri ere *estegue* deitu ohi zioten. || *Estegue len ixeten san eskondu orduko, kontratue eitten sanin, ari estegue, kontratue eitten sanin.* || *Estegue eitte benak... Kontratue eitten sanin, da gero bodie, eskontzen sirenin bodie.* || *Banketa esaten da oin, len bayo geidxau. Len esteguk ixate siren, baya oiñ estegu es beste eser.* || *Bestegue esate dxako bodiri, len, aintxiñe. Oiñ entzu be-esta eitten-da estegurik.* || *Oiñ estegurik esta esaten, baya ostantziñ estegu ori da, bodie.* **2.** Banquete, comilona. || *Bodiri igul esate tze estegue. Da jan, da olanik, igul jan eder bateri igul esate tze: "Arek euki dxuek estegue!"*

**esten, estena.** (EZTEN) **1.** Aguijón de abeja, culebra, etc. || *Espadie bai, euli bat, euli sorrotza, da estena gogor sartzan dabena da.* || *Kurumiñuk ainkarik edo estenik sartzan badabe miñ eundidxe eitten deu ganera.* **2.** Lengua de la serpiente. || *Estena subiek ataraten dabeneri esaten dxako. Atara eitten dabe arek, subiek arnastututakuen dxi-dxi-dxi ataraten dabe geuse bat, arexen ixena da estena.*

**esteridxe.** Estéreo, unidad de medida para leña, equivalente a la que puede apilarse en el espacio de un metro cúbico. || *Bai, esteridxe. Apiak-eta oiñ alan eitten dire. Neurtzen dire, da onenbeste metro kuadrau, ba onen beste esteridxe esaten da.*

**esti, estidxe.** (EZTI) Miel. || *Erleuntzen barruen esti asko dao.* || *Gosatu, bai, asukerias be ei li, estidxas be bai.* || *Len jeneral etziñ eukitte gendun estidxe, erlik euki gendusen-da, ba erlio pa banan-banan il siren-da.* || *Argixeridxe erliñ e estidxeri kentze dxakon, estidxe alderdi batera ta arixeridxe bestera ta.* || *Da estidxe emote ei tzen, ogidxe ebei sati bi, da ogi bidxen erdidxen estidxe, unteu-unteu einde estidxe. Da posik, posik a be!* || *Asto pekotza aintxiñe bakixu setako usete san? Erliri estidxe atateko, keye eitteko. Keye eitten deu asto pekotzak. Erliet keyek e kendu eitten dittu. Guk estidxe euki gendun, da asto pekotzas eitte san erliet kendu. Keye botaten deu, keye satarra, da fuera! A bastartu, erlie bastartu ein bi dabe panalak kentzeko. Axetako usete san.* || *Abaidxek e gero, arek kendu eittosus, esta? Da arek oten di estis beterik, da a estidxe eitten da apartau, gero olan sakatute ser batas. Da a besti abaidxe eitten da ipiñi ontzi baten, tartera baten-edo, da urtu. Da gero a botaten da ser ontzi batera, siketzen danin fuera!*

**estiketa, estiketie.** (EZTIKETA) Injerto, acto de injertar. Ik. *estittu; begire, astillara.* || *Udeku etiketie.*

**estillu, estillu.** (ESTILO) Estilo, aspecto. || *"Estillu ona dxekok orrek": tiposu-ero, "Estillu dxekok orrek biarrin", nai edosetan, ona, ondo eitten deu.* || *Arrañe*

*bakixu seri esate dxakon? Biribille estanari. Arrañe bakixu ser dan? Arrañe da au, arrañe esate tze arboliri, biribille espada, biribille espada esate dxako arrañe. Segaittik esate dxako arrañe? Arrañen sera dekolako, estillue dekolako. Arrañe bakixu, arrañek au deko, arrañe esta biribille.*

**estimasiño.** (ESTIMAZINO, estimazio-bat.) Estimación, afecto, consideración. || *Sapatari egurrek estimasiñori bak(o) egurrek ixaten dire.* || *Da sulo eitteko-ta, olaku batzuk sapatari egurre esate tze, beste batzuk altza esate tze, da estau olanik olak atarateko-ta esteutze emoten estimasiñorik.* || *Pasko txala? Bai, asi eskerum. Ba pasko txala ixeten da txala ba eundidxe bada, edo ederra bada edo ba estimasiño sartzan badabe e serak e, tratantik-edo, pasko txala.*

**estimau, estimetan.** (ESTIMAU, estimatu-bat.) Estimar. || *San jun makatza: goixetik eltzen dana, da makatza apurtxu sosu ixeten da, da ba ba kastaten da, umik-eta estimau eitten dabe, nausidxe pe bai.* || *Mando bedarra ganaduk e estabe asko estimetan. Mando bedarra ixeten da ligorra.* || *Sapatari egurre da olan estimetan estan egurre.*

**estimau.** (ESTIMAU, estimatu-bat.) Con estimación. || *Silloko bedarra ganaduk estimau jaten deu.* || *Soloko bedarra be estimau jaten dabe.*

**estittada, estittadie.** Variedad de castaña o fruta injertada, en contraposición a la no injertada o *salbajie*. || *Estittadak, orrek, ba, estittutako gastaña klase obie. Da beres etorritakue, ba, areri esate dxako: "Bai, a estok estittadie, a salbajie dok". Garau eundidxaue eukitten deu estittadik.* || *Arek adar metxuk eukitte ittus ba, arexek ebai. Kendu axe da, noberak gure badeu olandillie nai urtebetie gure badeu, arexeri urtebeteri artun, da orrek estittadak ixaten dire, sartute dausen sagarrak. Estittu bakuk ya otzadak.*

**estittaga, estittagie.** (EZTITZAGA) Variedad de castaña o fruta no injertada. || *Estittagie da estittu bako frutie.* || *Estittagi da..., ixe lei sagar bat, ixe lei madari bat, ixe lei fruta bat. Estittagi da fruta bat estittu barik dauena. Se frutak estittu eitten dire, ta norberak gure daben klasi ipintte dxake. Baya orrek e landarak beres etorten diriñak-eta, ixeten dire estittu bakuk, da dire estittagak. Bestik tire estittunekuk.* || *Baso sagarra: estittagak, sagar estittagak.*

**1 estittu, estitzen, estittuten.** (EZTITU) **1.** Injertar. Ik. *txertau, mendau.* Eztitzeko teknikei buruzko argibideak sarrera hauetan aurki daitezke: *asalera, astillara, begire, pipitera, trongora.* || *Begire estittu.* || *Estittu gure dosun frutie ipintten dxako arbolieri.* || *Ebai tte astillara sartu eitten dire menduk.* || *Asaletik ipintte ittue batzuk. Da beste batzuk raa!, erdittik olanik, ebai, da antxe bittartin sartun menduk astillara.* || *Estittu baku ixaten da makatza jeneralin.* **2.** Vacunar. □ **estittunekue.** Cierta variedad de castaña.

**2 estittu, estittue.** (EZTITU) 1. Vacuna. Gaur egun, erdarazko forma, *bakunie*, oso zabaldua dago. 2. Variedad de castaña o fruta injertada.

**estitzu, estitzue.** (EZTITSU) De mucha miel. || *Estitzue ixen dok a erlie!*

**estoketabaidxok.** (EZ-DOK-ETA-BAI-DOK)

Tuteo, tratamiento familiar para los hombres. □

**estoketabaidxok ein.** Tutear, usar el tratamiento familiar. || *Ño, euk anaidxe sarrari estoketabaidxok eitte tzak?*

**estoketa.** (EZ-DOK-ETA) Tuteo, tratamiento familiar para los hombres. □ **estoketa ein.** Tutear, usar el tratamiento familiar. || *Guk estok-eta eitten dogun les asko.*

**estola, estolie.** (ESTOLA) Estola. || *Estolie abadiq ibiltten dabena.* || *Ama esin jun ixete san elixara barrure, abadiq urtete ban kanpoko atitara, ur bedeinkatontzidxen ondora, da abadiq estoli ipintie tzon olanik sorbaldan-edo, da andrie sartze san barrure abadias batera.*

**estomago, estomague, estomangue.** (ESTOMANGO) Estómago. *Estomague* nahiz *estomangue* esaten da, bietara. Ik. *tripie, sorrue, urdeille.* || *Estomaguko miñe deket.* || *Estomagotik estabil ondo.* || *Estomagotik sufriduten deu.* || *Estomangotik siku dau.* || *Ori iños ekarri eitten da persona nausidzentzako, ba estomangotik librau deidxen.* || *Ba oiñ ondo dabil estomagotik-eta. Ibiltes oiñ ondo dabil. Baya oin beste geuse bat pasate dxako.*

**estonatabadona.** (EZ-DONA-ETA-BADONA) Tuteo, tratamiento familiar para los mujeres. Nabarnizen emakumeen artean oso gutxi erabiltzen da. Bai Aulestin eta Gabikan. || *Jokerie eukitten dabe batzuek. Batzuk esate tze enbrari ba estona eta badona. Enbri da ta badona eta estona.* □ **estonatabadona ein.** Tutear, usar el tratamiento familiar.

**estorbu, estorbue.** (ESTORBU, destorbu-bat.) Estorbo. Berba hau berria da nabarniztarren ahotan. Lehen *enbasue* baino ez zen entzuten eta gaur egun ere *enbasue* da gehien esaten dena. □ **estorbun.** Estorbando. || *Estorbun noradi beti?* || *Estorbun egon dok.*

**estramiñe, estramiñie.** (ESTRAMINA) Rastel, especie de balaustrada que parece una escala, colocada horizontalmente para contener el heno ó la paja que come el ganado. Ik. *sarradixu.* || *Estramiñe ganaduk jate dausen lekue da.* || *Ganadue estramiñatan sartu.* || *Estramiñak apurtu, de salto ein dau (euren tokidxe apurtu, de salto).* || *Estramiñe eurek (ganaduk) lotute dausen lekuri esate dxako. Kanpun be ixen lei, kanpun be sarradixu badau, estramiñe. Sarradixu, edo*

*estramiña esate dxake ganadun lekuri.* || *Aska estramiñi da ganadun eurreko askie.* || *Aski estramiñari parik igul egoten da.* || *Batzuk eukitte ittue ein barik, dana libre, egurri parik. Da bestik estramiñakin, egurras sarraute.* || *Estramiñeko tapi apurtu da.*

**estranjeridxe.** (ESTRANJERIA) Extranjero, toda nación que no es la propia. || *Dirue irebastera be alde eitten dabe etzetik estranjeridxera, olanik.*

**estranjero, estranjerue.** (ESTRANJERO) Extranjero. || *Erbestekue da errittik kanporakue; estranjeru da Españatik kanporakue. Erbesteku da Kortasubi, nai Ereño, da orre pa, nabarnistarrak esaten dabe: "Erbestekuk sak orrek". Iguel etorten dire Ereñotik-ero, ta "Nik etxuaset esauten", "Bai, erbestekuk sak, emenguk, errikuk estosak".*

**estraperlo, estraperlue.** (ESTRAPERLO) Estraperlo, compra o venta clandestina de géneros intervenidos o sometidos a tasa por el Estado. || *Gerra ostien geuse gustidxe eskas ibilli suan, estraperlue, da geusie eskas.* || *Gerra ostien estraperlue segas eingo san ba? Jateko geusias geidxenbat. Eitte san e ogi suridxas be bai, bueno ordun erresiñoye emote ben ogidxe denpora sati baten baya, da ba olakoxe geusias estraperlue. Asukerias be bai, eitte san estraperlue. Asukeri be, asko be, olan killu-edo eroste banari, asko be ba ixillostuke ekarri tte asko be diru geidxau pagau bi ixate dxakon. Orrixerri esate dxakon estraperlue.*

**estrata, estratie.** (ESTRATA) Vericuetto (generalmente se refiere a un camino empedrado y angosto). || *Estratie ixete san jeneralien estue, olan, bestela burdi bidi. Estratie da estuaue, esate baterako, orma bittartien edo olan, orma albotan-da dekosanari esate dxako estrati.* || *Alderdi bidxetatik ormiás-da egoten dana da estartie.* || *Estrati esate dxako seinde bide naturala es, esaten da se olan sidortxu danari-edo esate dxako, olan bide txikidxe danari.* || *Bueno, jeneral esta ixeten burdidxe pasetako be. Ixeten da norbera oñes ibiltteko-edo, bide estutxu ixeten da estrati.* || *Estratie ixe lei mendireko bidi be, baya ganaduk ibiltten diriña bari pa norbera bide..., seinde au aunako bidetxue, bide txikidxe.*

**estrepesau.** (ESTROPEZAU, estropezatu-bat.) Tropezar. || *Arri burue: arri bidiñ-edo, estrepesun-edo topetan danari, "Arri buru bat estrepesau dot".* || *Arri txikidxe ixeten danin ba, "Arrixu bat estrepesau dot", edo "Ostikopiñ artu dot"-edo.*

**estrepesu, estrepesue, estropesue.** (ESTROPEZU) Tropiezo, traspies, mal paso. || *Kirikidxolatza biribildu eitten da, eser estrapesurik, da eser topau eskerun, da eser ikusi eskerun, a biribildute gelditzen da, arantza utzin.* □ **estrepesu ein.** Tropezar. || *Estrepesu einde jeusi dok.* || *Estrepesu ein dxok, eta aregas ein dxok miñe.* || *Estropesue einde jeusi nas.* ||

*Bidiñ edo erreka baten "Dios, au dok e estrepesu eittotena! Etxuat anki bi dan modun ipintten!", edo "Estrepesu eitten nadxak" edo "Agudo sartu nok!" edo bakik. || An Ameriketana-da arraiñetan jute giñen ba asko ta errekan, bakixu errekan ba, arridzek labanak, da agure sarrak esan ei dxuan beran burugaittik "Estrepesu edonun eittok ik!" esan tzon beren bururi!*

**estropeu.** Estropear. || *Orre pe estropeuko sak.*

**estu, estue.** (ESTU) 1. Estrecho, -a, angosto, .a. || *Bide estue. || Atzamar meye, estuaue bestiek bayo. || Baye estu-estutxu ixaten da, alanbrada estu-estu ixaten da, da areri urune paseta dxako, ta sairik etxako pasetan. || Mugitti, bai, erresaidxo antzeku da beres, baya a erresaidxuk eukitten daben a biribiltxue bayo estutxuau deke arek. Mugitti sabalau ixaten da. 2. Angustioso, -a, apurado, -a. || Joko estue. || Estu dabil. || Arnasi estue euki dxok. || Bai, biarregas be, estu daunin, bai keskatu esaten da. □ estu te larri. Muy apurado, -a, impaciente. Ondoesa daunin: "Estu te larri ibilli nas".*

**estualdi, estualdixe.** (ESTUALDI) Aprieto, angustia, (momento) de apuro. Sin. *larriunie* || *Selako estualdixe pasa du!*

**estudixxo, estudixue.** (ESTUDIO) Estudio. || *Oiñ e badaus oin bertzolaridzek ona daus, baya len e gorako ak bertzotan e estudixxo barik e eitteko, pastore bat..., leiten estakit takidxen arek!*

**estul, estule.** (EZTUL) Tos. || *Kukurruku estule. □ estul kukurruku.* Tosferina. || *Estul kukurruku deko.*

□ **txakur estule.** Tos canina, perruna. || *Txakur estule: ori estul txarra-ero, e-a-e! eitten deuna, txakur estule esate tze. □ estule ein.* Toser. □ **estule emon.**

Dar la tos. || *Estule emoste. □ estule euki.* Padercer la tos.

**estulke.** (ESTULKA) Tosiendo. || *Dranga-dranga estulke ibilli da.*

**esture, esturie.** (ESTURA) Aprieto, angustia, apuro. || *Esture apur bet pasau dot. || Esturan egon da.*

**estutasun, estutasune.** (ESTUTASUN) Apuro, estrechez, angostura. || *Ya esiñ artu arnasarik, se estutasunes jun da. || Arnasi jun ein dxako estutasunas. || Bueno, dardar be egoten da estutasun baten. || Estutasunin dau. || Estutasun aundixe euki deu.*

**estutu, estutzen.** (ESTUTU) 1. Apretar, ceñir. *Ik-nasaittu. || Da naiku untze eundixe ixeten da. Puntti be eukitten deu biribille, da bera untze estutues-estutues jutun da, sartzeko, da punta estue eukitten deu betik, josteko goitti bera. || Trabillie: oin lengo modun estittue eitten, se emen atzin trabilli eitte dxaken. Sintturi ibili barik estutzeko. || Da estutu eitten da apurkan-apurkan, da botaten deu sagardaue eitteko sagarren ure. || Olgurie estutu. || Ta estutu, da*

*nasaittu eitte sus are sididxeekin. 2. Apretar. Lagunen kasuan: apurar. || Bustittakun, lanie esan estutzen. || Mikel estutu dabe. 3. Afligir(se), apurar(se), angustiar(se). || Estutute dau. || Bidxotzari guk e olanik e apur bet ariñ ein, edo estutu-edo eitte dabenin ba, "Bidxotza be tauke-tauke deket". □ arnasi estutu. Jadear, sofocar(se), ahogar(se). || Arnasi estutu dxako.*

**estuune, estuunie.** (ESTUNE) Angostura, estrechamiento. Ant. *sabalunie.* || *Estuunie euki.*

**etarea.** (HEKTAREA) Hectárea. || *Etarea bat. || Basuri neurridxe artzeko, basun etarea pe badi ta.*

**etarte, etartie.** (ETARTE, atarte-bat.) Atrio, portalada. Ik. *atondue. || Txakurre etartien dau lotute. || Bolaupie da, esate baterako, guk etartie esate tzeu, kanpue, ori ate eurrie, da bolaupie esate dxako ortxe etartin sartueriri: bolaupie. Jeneral, etarte eurriri-edo esate dxako bolaupie. || Au etarteko ati sabaltzen danien, ba etartetik beittu esan leidxo ba, ori ati sabaltzen danin kanpokue, ataurrie.*

**ete.** (ETE, ote-bat.) Partícula adverbial dubitativa. || *Balidxo ete dau? || Oiñ esanda, nok aittuko ete leke ser dan tribulidxori? || Góru: aridxe eitteko aintxiñe, baserrikuk aridxe eitte bena. Geurin be egon san len, baya oin nun ete da? || Bide konpontzie? Baya ori bide konpontzie nos akabo te san? Oiñ esta biderik konpondu eitten. || Da kaguen, or gora jenti aringaringe-ta. Da se ete dan, se ete dan, da ille nun dakarren eskillaran.*

**1 eten.** (ETEN) 1. Romper. || *Sokie eten ein da. 2. Extenuar(se), agotar(se). Ik. lusetu, neidxa ein, ok ein, toton ein, uketu. || Etenda dator. || Kantzaute total jota badau, "Total etenda dxak eta! Se ingo dxo pa!", akabaute, ittota, etenda. Biarran biarras esaten da jeneralien ori e, emen. biar asko dabilenak: "Bai, biarras total etenda dxak morroidxe!". || Etenda dxak, da inderrrik es. 3. Herniarse, formársele a una hernia. || Bai, etenda dxak, eta esin dxok indarrik eiñ orrek. □*

**etenak ein.** Hacer esfuerzos muy grandes, atarearse con gran fatiga. Ik. *senperrenak ein. || "Etenak ein dxusak orrek", tireka-ero, atara esin, ero eiñ esin: "Etenak ein dxusak, da etxok ein". Da iguel esan eingo tze: "Etenak ein dxusak, baya lograu ein dxok".*

**2 eten, etena.** (ETEN) 1. Rotura, desgarrón. || *Etena da geusa bat eteten danien, esate baterako, soki be bardin, da beste edoser geusa be. || Etena esate dxako ba apurtzen dan geusa bateri-edo. 2. Hernia. Ernia hitza, ordea, geroago eta gehiago entzuten da, hitz honen kaltetan. || Igul an olan doye bat, ta bestik e baki ser dekon "Etena dxekok eta ori penetan dxabik, etenas". || Neu pe ori ein dot e... etena dana eiñ ñaben operasiño ye ointxe urtebete. || Batzuk ernia esate tze, bestik etena. Guk bidxetara esateu, neu pe operasiño ointxe ya urtebete pasau da eiñ ñabena, ta ni pe*

barren-barreniñ euki nabem beyen. Da beste batzuk onako lekun eukitten dabe, geidxen.

**etorkixun, etorkixune.** (ETORKIZUN) **1.** Futuro. || *Etorkixune: esate baterako, datorren e..., selan esangot?, "Etorkixunik esteko geusi orrek"..., selan esangot pa?... da geusa bat usetan dana, edo es usetan dana, da ba "Orrek etorkixunik esteko" ba, olan etorteko modurik espadeko, edo espada ikusten, "Orrek esteke etorkixunik emen".* || *Etorkixunen begire gaus" (ser etorriko dan ikusteko).* **2.** Bien, ingreso futuro; solvencia. || *Bai, dirurik emoten espadeu be, ordun be "Esteko etorkixunik".* || *Esate baterako, ser esangot neuk?, ya erretiretan diñin bierretik-edo, sueldu emote tze eundidxe espada, txikidxau ta ba "Etorkixun apur bat badeke"-ta ba.*

**etorrera, etorrerie.** (ETORRERA) Venida, llegada, aparición. □ **etorrera txarra.** Se dice del que se retira tarde a casa. || *Etorrera txarreko gixona.*

**etorri, etorten.** (ETORRI) **1.** Venir. Ik. *erdu.* || *Bueltan etorri.* || *Jun de etorri.* || *Edurre eittekie ortik esta etorten en jeneral aixie, aixie emendik etorten da edurre ein bi dabenien, nortetik.* || *Uste barik etorri da.* || *Etorri balitz.* || *Etorri banintze ni.* || *Onek dire gurera etor dinak.* || *Ume, etorri saittes ona!* || *Umio, etorri seix!* || *Etorri eurrera!* || *Datorrena datorren les artu bi de.* || *An, kosiñera txarrrik es euen an. Jan datorrena!* || *Baten ikusi ñaben, etzera natorrela, kamiñun kurtzetan.* **2.** Arreglarse, entenderse bien con alguien, caerle uno bien. || *Ondo yatorrek, persona ona dok eta.* **3.** Brotar, surgir. || *Oin perretxikuk galdueu dire. Oiñ e basutan sikin dau les, da estaules e ori, pagorik-eta, atxa ta len bayo gitxiau. Piñun estatos.* **4.** Proceder, tener origen. || *Txorierri esate tze bai, ta ori ixena estai nik nundik etorritteku dan.* □ **etorkeran.**

Al venir, en la venida. □ **etorri barridxe.**

Advenedizo. || *Etorri barridxe da.* □ **datorrena datorrela.** Pase lo que pase.

**etorri, etorridxe.** (ETORRI) **1.** Renta, rédito, beneficio. Berri-emaile bati *etorkixune* berbaz galdetu nion, baina geroaren zentzua neukan buruan. Berak bestera ulertu eta ondotik aipatzen den azalpena eman zidan. Bertan esaten duenez, Nabarnizen *etorridxe* esaten da, nahiz eta *etorkixune* ere ulertu. || *"Etorkixune dxekok kanpotik", kanpotik, esate baterako, diru-ero badxatorko: "Kanpotik dxekok etorkixune"-ta, etorridxe; bestik esaten dabe etorkixune, baya guk etorridxe esate tzeu geuk.* **2.** Facundia, facilidad de palabra. || *"Etorri ona dxekok orrek": berba segidun asko eitten deuna: "Etorridxe, orrek dxok etorridxe!".* || *Etorri aundidxe deko.*

**etortaldi, etortaldidxe.** (ETORTALDI, etorrialdi-bat.) Venida, llegada. || *Etortaldi lusie euki deu.* || *Etortaldi eundirik esteu euki!*

**etxure, etxurie.** (ETXURA, itxura-bat., eite) Figura, traza. Ik. *as-begidxe.* || *Etxure ona deko.* || *Orrek esteko etxure onik.* || *Etxuras ondo dau.* || *Etxure txarra deko.* || *Etxure txarra topau tzet.* || *"Etxure ona etxekok": ondo espadau.* || *Etxure barik jantzitte doye.* || *"Il-bixikun arpeidxe deko": beren etxuretik urtenda dauna-edo, dana surittute dauna-edo.* || *Bueno, ume bat jaidxoten daniñ e, bixi ixeteko etxurerik espadeko, pentzaten badabe ba "Il ein bi deu, esteu bixi bier", ba etzeko bautismue emote dxako.* || *Euri etxuri dau te euridxe ekarriko deu.* || *Euridxe eitteko etxuri dau.* □

**etxure bakue.** **1.** Mal tipo; negligente, dejado, -a. Ik. *figure bakue.* || *Etxure bakue: ganora bakue, ba olaku esati les, etxure bakue.* **2.** Disparate. || *Ein dxok edoser trasteridxe: "Etxure bako geusi ein dxok ak!".* □

**etxure baten.** A primera vista. || *Aseri bustena da etxure baten piñutxu lakoxi.* □ **etxurie artu.** Juzgar el aspecto. || *Etxurie artu tzet (ondo daun edo estaun).* || *Etxure txarra artu tzet.* □

**etxuran egon.** Tener buena traza. □ **etxuran ipiñi.** Dar forma, adecentar. □ **etxurie emon.** Dar forma, adecentar.

**etxurebakotu.** (ETXURABAKOTU, itxuragabetu-bat.) Desfigurar, afear, perder la traza.

**etxuregarri, etxuregarridxe.** (ETXURAGARRI, itxuragarri-bat.) **1.** || *Etxuregarri: iguel seoser eitten da, denpori pasau-ero ori eitten da: "Etxuregarri an dxabik a be!".* || *Etxuregarridxe: geuse bat eitten dana, edo iñok ser esanik euki esteidxen eitten dana, edo ba "Etxuregarri be eiñ eitten dabe bier ori".* **2.** Figura, traza. Persona batek itxura onik ez duenean, honela esaten da: *Ori da etxuregarridxe!*

**etxuretu.** (ETXURATU, itxuratu-bat.) Adecentar una cosa. || *Erropie etxuratu.* || *Etxuratu: obetuaui ipiñi txarto daun gause bat.*

**etxuroso, etxurosue.** (ETXUROSO, itxuroso-bat.) Decente, de buen tipo. || *Etxurosue dau.* || *Etxurosue da: ondo daunari, ba "Sikieran, etxurosue dok a". "Ondo espadxak pe, etxuroso". Ba, "Total, ondo puntan espada be, etxuroso". Ori "Ondo dau" esan biarrien, total kompleto espadau, ba etxuroso da apur bet jantzi bai esin deuna, etxuroso.*

**etzaldatzie.** (ETXE-ALDATZE) Mudanza de casa. || *Etzaldatzie: amengo geusak beste leku batera erutie. Ori, esate baterako, etzie eroste ot nik or beyen, da emenguek ba "Etzaldatzie ein bi dxu". Len orrek eitte sana, arriue, eskontze sanin, ba ori etzaldatzie.*

**etzalde, etzaldie.** (ETXALDE) **1.** Hacienda, propiedad. || *Etzaldie: etze bueltan dauna.* **2.** Labores de casa. || *Etzaldie ixeten da geusa asko, se "Etzaldie altzau bi ot", enbrak-eta esaten dabena, iguel eskatza, itxi jateko platerak-ero, sikiñek-ero, deusen modun-de, bape altzau barik, eta "Etzaldie altzau bi ot apur bet".*

*Da esaten da, obieri be, obie eitteko, ori "Obiek aldatu biotas", edo olan.*

**etzaspi, etzaspidxe.** (ETXAZPI) Terreno situado más abajo de la casa. || *Or bidi jeneralala, da juten basara an bide jeneralien or Argiarro aspittik, Argiarrosarrin bera, Argiarroko etzaspidxen bera juten basara, da artzen badosu eskumetara beti, an jun da an dau txabolie, gure aittek eiñikue.*

**etzatze, etzatzie.** (ETXATZE) Parte trasera de la casa. Ik. *etzostie.* || *Etzatzeko solue.* || *Berrogetamasei urte, amasapi be igul a bota sala. Airoko etzatzien. A olan san, arrañe san.*

**etzaurre, etzaurrie.** (ETXAURRE) Espacio delantero de la casa, parte delantera de la casa. || *Jaidxetan jente asko egoten da eta or etzaurrien ipintten dot maidxe.* || *Len be geuk ortxe etzaurrien umik txikidzek siriñin sarratu ein gendun posu, ume bat itto esteidxen. Ostantziñ ortxe etzaurrin, geure etzaurrin dau posu galanta, da sarratute dau arridzekin.* || *Etzaurreko solue.* || *Baserridxetako etzaurrekuri be larriñe esate dxako.* || *Irauleko satza? Etzaurreko satza da ori. Etziñ eurriñ eitte sana len. Botate san aspiarridxe, da urte gustidxen an dabillela ganadu edo besti dabillela pasuk-eta, axe irauleko satzak, etzaurreko satza.*

**etze, etzie.** (ETXE) Casa. || *Etzetxue.* || *Etze ingurun.* || *Etze kantoye.* || *Etzeko ogidxe.* || *Etzera noye.* || *Etze bueltan gabis.* || *Etzin geusa gustidzek gure dotas baya libruiek geidxen.* || *Limosnie batzen etzerik etze.* || *Aundidxe da etze kapelie!* || *Etze gonera doye bedarretan.* || *Etze sarra da. Bai, alderdidxe jeusitte dau.* □ *Herriko jendeari etzeko izenaren bidez deitu ohi zaio:* || *Emen etziñ ixenak ibiltten dire, esate baterako onek etzik Iburguen deko ixena, orrek beketzik Ururu deko ixena, arek bestik Larrutzabarri deke ixena, ta edo Ururukue edo Larrutzabarrikue edo Iburgunekue, ba esate dxako etze bakotzeko kontu-edo esan bi danien, ba esate dxako.* □ **etze aldatzie.** *Traspaso.* || *Etze aldatzie? Ser dala esangot? Artu emengo etzin dasen trastiek da beste etze batera jutie, etze aldatzie.* □ **etze arratoidxe.** *Rata de casa.* || *Ur arratoidxe ta etzeko arratoidxe, klase bi daus da arratoi esate tzeu bidxeri. Etze arratoidzek busten lusie ta baltza da ta belarridzek andidxauek.* □ **baso etzie.** *Caserío situado en una zona montañesa, a cierta distancias de los núcleos de población.* || *Baso etzi dire urrun dagosenak. Esae baterako, Masandei baso etzi da. Arrola pe bardin, baso etzie.* □ **etze jaubie.** *Propietario.* || *Da gero ba a denpori akabautakun, bera estanin bixi, arek, gosamena artu bi dabenak, agintzen ba tzo etze jaubiek, urten ein bi dabe etzetik.* □ **etze jaune.** *Propietario, dueño (de la casa); padre de familia.* □ **etze kapelie. 1.** *Tejado de la casa.* || *Etze kapeli*

*tellatue da. 2.* *Estructura exterior de la casa, formada por el tejado y sus paredes exteriores.* || *Etze kapelie? Ba esate baterako, auxe etzie, osue, etze kapelie. Da ori etzie be etze kapelie.* || *Etze kapelie esate dxako etziri, etze bateri, baya etze kapela bi dire..., seinde apartamentu bi euki eskeruen, etze kapela bi dire.* || *Onek etzi onek, da besti pai, etze kapelak esate dxake.* ||

*Etze kapelie iñor bari dau.* □ **etzeko andrie.** *Ama de la casa.* □ **etzeko bautismue.** *Bautismo doméstico. Umea hiltzeko arriskurik bazegoen, etxean egiten zen.* || *Bueno, ume bat jaidxoten daniñ e, bixi ixeteko etxurerik espadeko, pentzaten badabe ba "Il ein bi deu, esteu bixi bier", ba etzeko bautismue emote dxako.* □ **etzeko nausidxe.** *Alguien con quien se tiene mucha amistad.* □ **etzeko nausidxe.** *El jefe de la familia.* □ **etzeko sague.** *Ratón de casa.* || *Etzeko gorabera danak dakixenari etzeko sague esate dxako.* □ **etzerik etze.** *De casa en casa.* || *Ni ibiltte nau asko gari joten, makiñie euki gendun guk, da etzerik etze ibiltte giñen.* □ **etze suritzie.** *Encalado de la casa.* □ **etzeko usaba.** *Dueño, señor de la casa.* □ **etzeko aundi ixen.** *Tener mucha entrada (en una casa), tener mucha familiaridad.* || *Bai, "Ezeko aundi dire", tratu eukitten bada persona bategas ba, da konpañia ona eitten bada be bai, etzeko aundi dire.* || *Bai, etzeko aundi gara (lagunek bagara).* || *Alkarren lagun aundidzek esati les, "Ezeko aundi dire".*

**etzearte, etzeartie.** (ETXEARTE) Espacio entre dos o más casas. || *Etzeartie? Ba emen etze bi das -origeitti bidxok geu tabigus-, baya etzeartie euso bateri edo kopradidxe gune bateri edo alkarren urriñ etzi dasenari.*

**etzekalte, etzekaltie.** (ETXEKALTE) Se dice del que no mira por la casa o va contra ella. || *Etzekaltie? Ba, etzekaltie jokun eitten dabena, dekosen eukidzek-edo berak gure ittun modun gasteta ittuna-edo. Etzekaltie axe da.*

**etzeko, etzekue.** (ETXEKO) Miembro de la casa, de la familia, los de casa. || *Ori jenti ori etzeku da.* || *Laidxetan geuk kanpoko jenterik eskendun iños ekarten, etzekukin konpontze giñin, baya batzuk e kanpoko jenti be erute ben.*

**etzekun, etzekune, etzegune.** (ETXEKUN, etxekonbat.) En los caseríos de dos viviendas, la vivienda contigua; en el caso de que dos caseríos estén muy cerca, el caserío contiguo. || *Guk orreri alboko etziri oiñ etzekune esate tzeu, alkarren ondun dausen les bidxok. Da ba bixitxa bikuri beti esan bi dxako etzekune. Da beste batzuk e, urran eon arren, etzekune es esan etziri, baya etzik olan alkarren ondun dausena pe, etzekune esate tzeu albokuri. Guk bata bestiri etzekune esate tzeu. Orre pe gugeittik, gurigeittik etzekune: "Etzekuniñ iñor etxak", ero "Etzekuniñ au ein*



*dxuek", ero "Etzekunin besti ein dxuek". || Eunteidxe? Geurin be, or ganadu daben lekun, an etzegunin tejamanan egon san, da oiñ estau.*

**etzekuneko, etzekunekue.** (ETXEKUNEKO, etzekoneko-bat.) Coinquilino, vecino que vive bajo el mismo techo, en vivienda contigua. *Etzeunekue* ere esaten da. □ **etzekuneko etzie.** Casa contigua. || *Ori beste etziori, esate baterako, orreri ba etzekuneko etzi esate tzeu. Da or bixi diriñak emenguri be esango tze etzekuneko etzi.*

**etzepe, etzepie.** (ETXEPE) Refugio de la portalada, bajo el techo. || *Enerak ibiltten dire emen etzepin, se emen eitten dabe abidxie. || Enerak emen ibilli dosak kantetan.*

**etzerreske, etzerreskie.** (ETXE-ERRE ESKE) Colecta para reparar los gastos ocasionados por un incendio. || *Abadiiek deittu ban ontzungo be, ixengo dire bost bat urte, abadiiek mesatan deittu ban: astion etorriko dire etzerreskien da ez begi txarrik ipiñi, arpei txarrik es ipiñi, bakotxan borondatie emon, da aurrera. || Etzerreskien gatas.*

**etzesale, etzesalie.** (ETXEZALE) Casero, -a, amante de su casa. Ik. *etzesulue.* || *Etzesalie? Ba etzesali ser dala esangot? Emen ba estau etzesali ixeterik eta barrun oteri baya etzesalie, ba, asko oten da etzien da gitxi urteten deu.*

**etzeratu.** (ETXERATU) Regresar a casa, retirarse, recogerse. || *Bai, etzeratutie, berandu datosenari-edo.*

**etzesulo, etzesulue.** (ETXEZULO) Casero, persona retirada, que sale poco de casa. Ik. *etzesalie.* || *Beti etze barrun oten da, da etzesulu da. || Etzesulue, ba etziñ asko oten dana edo kanpora urteten oituten estana.*

**etzeune, etzaune.** En los caseríos de dos viviendas, la vivienda contigua; en el caso de que dos caseríos estén muy cerca, el caserío contiguo. || *Etzauneko etzik deko ortu partetik e matza, apur bet, apur bet bakarrik, da origeittik txakoliñe ein dabe aurtan.*

**etzeuneko, etzeunekue.** Coinquilino, vecino que vive bajo el mismo techo, en vivienda contigua. *Etzekunekue* ere esaten da.

**etzi.** (ETZI) Pasado mañana. || *Abadiñora jun biko da etzi. || Ekarri etzireko!*

**etzigaramun.** (ETZIGARAMUN, etzikaramu-bat.) El día siguiente a pasado mañana. || *Etzigaramun da bidxarku barik urrengo egune. || Etzigaramun jungo nas.*

**etzondo, etzondue.** (ETXONDO) Paraje cercano a la casa. || *Etzonduen dekogu beste txabolatxu bet. || Orretarikuek amen berton etzonduen badaus. || Ba ostantziñ e len berton be etzondutan sei tte sortzi meta-ta bueltan egote siren. Barrun kabiten es, da kanpun ein. Eitte basen. Se askok e etze bixitza bikuk sabaidxe-eta txikidxe eukitte ittu ba bintzako.*

**etzoste, etzostie.** (ETXOSTE) Parte trasera de la casa. Ik. *etzatzie.*

**etzun, etzuten.** (ETZUN, etzan-bat.) Acostarse, echarse, tumbarse. || *Etzutie? Ba ser dala esangot? Edo bedartzan edo nunun, leku, ona dan lekun, noberak deitxon lekun euskidxe artzeko... || Etzutie? Ba olan leku baten, noberak deitxon lekun jartzi edo etzutie.*

**etzunleku, etzunlekue.** (ETZUNLEKU, etzaleku-bat.) Cama para el ganado. || *Etzunlekue: ori ba korten, aspigarriidxe bota eitte dxake aspire.*

**eu.** (HEU) Tú mismo, tú misma. || *Alboki da tratu bet-ero eiñ eskero, ba "Euk pagaukok albokie!" esate*

**eukera, eukerie.** (AUKERA) Oportunidad. Sin: *txantxie.* || *Eukerie euki tte eiñ es, ori da txantxie. || Eukerie euki tte bape etxuat jan. □ eukerakue.*

Oportuno, a proposito. || *Eukerakue da geuse bat egokidxe, oso geuse susena ta ona. || Eukerakue dok!*

□ **eukeran. 1.** Oportunamente, al alcance. Ik. *komentzidxe. || Eukeran etxak. || Emen eukera aundidxe dxak. Emen ure berton dxak. Egurre be urra dxak. Eukeri dxak emen! || Eukeran da asko eukittie, da urran; urran badau be esate dabe: - Eukeran euki dxok arek! || "Eukeran etorri da" da txoridxe nai lagune, eukera etor da, sasorako, justu-justu. || Eukeran euki dxuat ta! 2. A gusto, a discrección. || "Trope jan": asko jaten daniñ-edo, jan ordukue ba se esangot neuk?, aukeran eitten daniñ-edo: jan tropie. □*

**eukera betin.** Sin restricciones, con todo lo necesario. || *"Eukera betin bixi da": franku bixi danari esaten dxako, geusias franku bixi danari.*

**euki, eukitten.** (EUKI, eduki-bat.) 1. Tener. *Eukin* ere entzun ohi da. || *Etzien be euki senei ixil poltzie. || Baya ba, oiñ esteko beste serbixidxorik, euridxe daniñ aterpie. Da len Don Rikardo emen egon sanien, automobile eukitte ban antxe barrun. || Ak eun de berrogetamar ardi eingeru bai ekuasen. 2. Ya lo puede, debe... || Kakastu dxok dana! Oiñ arregletie dxekok orrek! □ eukittes.* Por tener, por lo general. ||

*Ba, meidi deko arregik, eukittes. □ -terik euki es.* No estar permitido. || *Neu pe esautu dot sixie. Guk, esate baterako, Nabarrisko jentiek Gabiketiek eser ekarterik es aben eukitten, dendake geusie, saltze san geusie, edo Ereñotik.*

**euki, eukidxe.** (EUKI, eduki-bat.) Posesión, bien, haber, riqueza, hacienda. || *Eskuartie: dirue-edo, eukidxe-edo. || Eukidxe: diru eukittie. || Eukidxe deko ta! || Etzekaltie? Ba, etzekaltie jokun eitten dabena, dekosen eukidxe-edo berak gure ittun modun gasteta ittuna-edo. Etzekaltie axe da.*

**eule, eulie.** (EHULE) Tejedor, -a. || *Telagiñe? Telagiñe bakixu selaku ixena dekon? Euntzgiñe..., eulie, euli da telagiñe. Eulie, da estakitt ondo gastiek*

danak jakingo badabe. Euli esate san. Orrek aridxas telie eitte ban. || Amen Nabarrixen e ba estakitt on basan eulerik. Allustire edo nonora pentzetot erun bi ixate sirila.

**euli, eulidxe.** (EULI) Mosca. || *Praille eulidxe.* || *Euli saratie.* || *Eltxu da euli kunie.* || *Au euli saramiau!* || *Baya areri gero otzittukeran beti eitte dxako telatxue.* *Da len e, len esate baterako es kollarie, baya eulidxek an telin ganien ibiltte siren. Esni gogortute e!* *Gogortute es, baya telik itxi es.* ☐ **esku bete euli.** Dejar con un palmo de narices. || *Esku bete euli:* "Sorrak itxi ttu" esateko. ☐ **euli kaka.** Señal que dejan las moscas sobre los objetos. ☐ **euli nausidxe.** Moscardón. || *Euli nausidxe: euli eundidxek, arek baltzak.*

**eulitzu, eulitzue.** (EULITSU) Lleno de moscas, con muchas moscas. || *Eulitzue? Eskatzari esate baterako, eskatziñ euli pillue ta igul a..., eulitzu: "Eulitzu dau eskatza".* || *Eulitzue? Bai, udan, eulidxek oten diriñin.*

**euma, eumie.** (AUMA, antxume) Cabrito, -a. Ik. akerra, euntze. || *Eumi da euntzena, da ardidxena da billotza.* || *Guk, arra ixen nai emie ixen, eumie esate tzau.* || *Urrixie: animalidxe danari, emi diriñak, danak e, ipintte dxake urrxi ixena, edo "Urrixi da", edo urrixak. Da jeneral ori urrxi ori euntzeri ipintte dxako, euntzeri esate dxako, "Eumi ein deu", "Urrixi ein deu", edo "Akerra ein deu", "Akertxu ein deu", edo ba "Urrixatxu ein deu". Da berari euntzeri be, urrxi euntzegas ibiltten da, euntze ixenas.* || *Euntze be batzutan e gordete san gaba pasetako. Euntze euma txikidxe kin daunin be gordete san artokidxen.*

**1 eun, eune.** (EHUN) Tejido. || *Eune oiñ estaitx esaten badau te iño padaki. Oingo umik es beinpein.*

**2 eun.** (EHUN) Cien. ☐ **eunetatik.** Por ciento. || *Ori beti entzu ot, es isteko urkuladun piñurik, al bada beintzet kendu, naitte lodidxe da ederra egon, a urkuli boko, andik eitten da apurtu... Jeneralien e! Batzuk es, baya eunetatik larogetamar apurtzeko.* || *Eunetatik amar: esate baterako, ardidxe badasen, ba amar emon bi badxakos beste bateri edo amar erosi baittu, arexek apartau.*

**eundasak.** (EHUNDAZAK) Ciento y tantos, -as. || *Berrogetasak. Nai tte berrogetabi etorten badire be, berrogetasak. Ta berrogetamar etorten badire be, berrogetasak. Da gero irurogeidxen pasau eskero, irurogetasak. Ori da ogeittik ogeire. Oiñ e ogeira arte esi lei esan. Ogetasa pai, baya amartasak esin lei esan. Ogetasa pai. Berrogetasa pe bai. Irurogetasa pe bai tte larogetasa pai. Da eundasa pe bai.*

**euneko, eunekue.** (EHUNEKO) Por ciento. || *Euneko ogetasortzi.* || *Sorrue pixau, da euneko amarra kentze dxakon: mendie.* || *Euneko amar: eun e peseta badekesu, amar kendu, euneko amar kendu.*

**eunski, eunskidxe.** (AHUNZKI) Carne de cabrito o cabra. || *Eunskidxe euntzen okelie da.*

**euntei, eunteidxe.** (AUNTEGI, gindax) Potro, máquina de madera que sirve para sujetar los caballos cuando se resisten a dejarse herrar o curar. || *Eunteidxe? Ori selaku ixete dan esango tzut. Ori Nabarrixen egon san ba. Oiñ estau baya beidxe, perretako beidxe sartze san atzeko partetik. Gero lotu eitte san. Anakak altzeta dxakosan da perrau eitte san, perrakin. An Elixaldien ote san. Oiñ estau, baya len ote san Elixaldin. Da erremendaridxe estaitt badakixun nun bixi dan. Antxe etziñ ote san.* || *Eunteidxe? Geurin be, or ganadu daben lekun, an etzegunin tejamanan egon san, da oiñ estau.* || *Eunteidxe perratokidxeri be esate dxako.*

**euntxe.** (HAUNTXE, hontxe, oraintxe-bat.) Ahora mismo. || *Ori? Abadik euntxe, onakoxe sasoyen-edo.*

**euntz, euntze.** (AHUNTZ) Cabra. Ik. akerra, eumie. || *Euntz esnie.* || *Euntz korotza.* || *Euntze pe badabis larran.* || *Urrixie: animalidxe danari, emi diriñak, danak e, ipintte dxake urrxi ixena, edo "Urrixi da", edo urrixak. Da jeneral ori urrxi ori euntzeri ipintte dxako, euntzeri esate dxako, "Eumi ein deu", "Urrixi ein deu", edo "Akerra ein deu", "Akertxu ein deu", edo ba "Urrixatxu ein deu". Da berari euntzeri be, urrxi euntzegas ibiltten da, euntze ixenas.* || *Gastai eitteko, esni aparteta san, euntzena jeneral. Len euntze pe euki gendusen, da oiñ estekeu bape baya. Da euntzen esnie meyau ixeten da beidxena bayo. Da euntzen esnie aparteta gendun gastaye eitteko.* ☐ **euntzen gaberdiko estule.** Cosa sin valor, sin importancia (lit. tos de medianoche de la cabra). || *Ba, ori euntzen gaberdiko estule lako dok!* || *Ori esta euntzen gaberdiko estule!*

**eupada, eupadie.** (AUPADA) Voz de llamada. || *Joten danin, nai eup! eitten daniñ atien baten batek: "Eupadie ein tze orreri".* || *Eupada bat emon.* || *Eupadie ixen da kanpun.* || *Eupadie ein deu.* ☐ **eupadak ein.** Animar. || *Eupadak eiñ ittu.*

**eupadaka.** (AUPADAKA) Llamando. || *Eupadaka daus.*

**eur, eurre, edurre.** (EDUR, elur-bat.) Nieve. Lehengo zaharrek *eurre* esaten zuten eta orain ere hala entzuten da sarrien, baina *edurre* aski zabaldua dago. || *Eur apurrek.* || *Eur saparradie.* || *Edurre urtu.* || *Eurre abidxau deu.* || *Edurre jeusten asten danin, mendiko txikuek batos bera.* || *Oin be edurre badiardu.* || *Txikuek? Bai, eurre-ta etorte diriñien da olan denpora txarra daunien erretirau eitte gendusen mendittik.* || *Edurrek nabartu deu kanpue.* || *Gogortute dxak eurre!* || *Denporie pe edurretara ein bi deu.* || *Eurre, emen berton ba, amar-amabost sentimetro ein deu, asko es, baya kotxik laban eitteko beste.* || *Eurrek iru egunin-edo agontou ban, es eban kentzen.* || *San jun lorak tire*

*freskuri-tte urtete tzenin goisti pe. "San jun lorak e badatos". Edurreri be bai. Iguel San Junak eta estau eitten baya "San junetako lora laku dxatosak goitti bera!" esaten dabe.* □ **edur aixie.** Viento frío que anuncia nieve. || *Edur aixie: edurre eitteko antza daunin. Otz daunin. Otza datorreniñ esate du: "Edur aixie dator".* □ **edur batue.** Cúmulo de nieve. ||

*Edur batuek, aixik batzen dittu orrek.* □ **edur bolie.**

Bola de nieve. □ **eur euridxe.** Aguanieve. || *Eur euridxe: eurre ta euridxe naste danin, eur euridxe esan eitten da.* □ **eur kresala.** Capa ligera de nieve. || *Eur kresala da eurtxu ein de eur asko barik apurtxu bet ein, da erdi surittu eitten dabenin, "Eur kresala ein deu".* || *Eur kresala: eur gitxi daunien, da leku batzuk dana tapaute igul estaus eurras, da eur kresala.* || *Eur kresala: eur eitten dabenin, ta ganetik leidxe eitten dabenin.* □ **edur matasie.** Copo de nieve. □ **edur**

**saparradie.** Nevada (copiosa). □ **eur sikue.** Nieve compacta. || *Eur siku: a gogortute otzagas datorrena da, eur siku.* || *Eur sikue dau jeusten.* □ **eur txirimiridxe.** Nieve menuda. || *Eur txirimiridxe: a txikitxue.* □ **eur ure. 1.** Aguanieve. || *Eur ure da ya, urtzen dana, bota ala urtzen danin, "Ori eurreuridx-ok", eur ure, bigune, dana urtu, jeusi orduko.* || *Eur ure jeusten da.* || *Eur ure eitten deu. 2.* Agua derretida de la nieve. || *Eur ure: ya urtzen daunien.* □ **eurre ein.**

Nevar. || *Eur apur bet ein deu.* || *Bueno, jun dan urtiitan eurrik estou ainbeste ikusi tta.* □ *Edurrek nabartu deu kanpue: edur gitxi, unekadetan, da beste unekada batzuk bistan, da gitxi, nabartu, gitxi.* □ **eurre mara-mara ein.** Nevar copiosamente. || *Mara-mara eitten deu eurre.* || *Eur saparradie daunin: mara-mara eurre.* □ **eurre matasan da.** Nevar grandes copos de nieve. || *Matasie? Eur eitten daunien, eurre jeusten da matasan. Olako matasa osuk jeusten dire da kanpu de tapau eitten deu da "Eurre matasan da, kanpu be tapau ein deu".* || *Eurre matasan da: lodi eitten dabenien.* || *Matasan eurre eitten!*

**euregandu, eurekandu.** (EUREGANDU, eureganatu-bat.) Aproximarse (ellos).

**eurek.** (EURAK) Ellos, -as; ellos, -as, mismos, -as. □ **eurek euretara.** Por su cuenta. || *"Eurek euretara ein dabe": Umik eitten bade..., umik alkar joten dabixeniñ, eurek euretara eitten dabe.* || *Eurek euretara dabis.*

**euren, eurena.** (EUREN, beren) De ellos. || *Gixon asko daus galdute, ba, euren-eurena bayo ikusten estabelako.* || *Eurena ixen esagaittik, arexeri geidxau gure ixte utzen.*

**auri, euridxe.** (EURI) Lluvia. || *Euri sasoye.* || *Euridxe dator.* || *Euri asko da.* || *Euridxe atzetik jo deu.* || *Euridxe albotik ixen da.* || *Euridxe asten deu.* || *Goidxen-beyen dau euridxe.* || *Euri asko eitten badeu, "desastrie" esaten da jeneralien, "desastrie euridxen euridxas".* || *Denporik sanidadie deko, euridxe eitteko antzik es.* || *Garatu barik beutzo euridxeri.* || *Pustillak: euri saparrada eundidxe danin, urteten dabe arek, selan esangot neuk?, euridxe goitti bera joten daben lekun-de urteten dabe alako pustillak, tantak.* || *Pustillak: euridxe asko, indertzu eitten dabenin saparradie, orrek beyen ganin, tanti jeusten dan lekun, gero ba des eitten dire.* || *Euridxe einde lurre likinduko san: labrau, da ipiñi goldatute-edo, araketute-edo, asidxe be eraitteko, da gero euridxek artu.* || *Letañak e ixeten ei xirien e ba euri txarrak e erretiretako, saparrada txarrak.* □ **euritten.** Bajo la lluvia. || *Euritten erun deu egune.* || *Ille gustidxe euritten jun da.* □ **auri antza.** Traza de lluvia. || *Euri antza: euridxe eitte itxurie daunin.* □ **auri apurre.** Lluvia poco abundante. || *Bueno, euri apurre eitten dabenin a garoskatxue eitten dau.* □ **auri etxurie.** Aspecto de llover. || *Euri etxuri dau te euridxe ekarriko deu.* □ **auri grumie.** Lluvia suave y constante. Sin. *auri saramie, sirimiridxe.* || *Euri grumie: euri me-meye eitten dabena, txikitxue.* || *Lanparra euri grumiri esate dxako. Siketin be orixe be estimau eitten da, se eitten deu te ba hurrek e, apurkan-apurkan jeusten dan les artu eitten deu te ba, mesedi eitten deu siketi daunin.* □ **auri lanbrue.** Llovizna, calabobos. || *Ori jeneral e euri lanbru eitten dabenin, a euri se-setxu jeusten danien, orduntxe oten da goidxe soittute.* || *Euri lanbrue: a garotxu dxi-dxi-dxi-dxi-dxi.* || *Euri lanbru da.* □ **auri mamiñe.** Lluvia abundante y provechosa. || *Euri mamiñe: ori ba esate baterako, siketatxu daunien, da ba saparrada ederra eitten dabenien, da ba "Euri mamiñe eisku"-te.* □ **auri saparradie.** Chaparrón. || *Euri saparradi ixen eskerun ba, "Saparrada aundidxe", "Euri asko botaten deu", edo "Saparrada sarratu da".* || *Atzo gabas be ei ban saparradan bat, nik estot sentidu, baya euri asko eingo ban, se solun egalak arrastaute das-da.* □ **auri saramie.** Lluvia suave y constante. Sin. *auri grumie.* || *Euri saramatxu dau.* □ **auri sirimiridxe.** Lluvia suave y constante. □ **auri siriñe.** Llovizna. Ik. *lanbrue.* □ **auri tantie.** Gota de lluvia. □ **auri truxue.** Lluvia cerrada y persistente. || *Euri truxuek ein ttus.* || *Euridxe truxu on da.* □ **trumon euridxe.** Lluvia torrencial, propia de las tormentas. || *Trumon euridxe da euri tropie.* || *Oin be jentik orretan egon dala esaten, "Urrengo datorrena igul trumon*

*euridxe e arrastauko ittu lurrek*". Trope-trope etorten dalako. Onako ittoiñek, da a da trumon euridxe. || Trumon euridxe: ba olantxik, botate ittu igul tanta sabal-sabalak, da-da-da-da!, gero ba atertu eitten deu, te ba trumon euridxe. □ **euridxe abidxeu**. Empezar a llover. || *Barridxen euridxe abidxeu deu*. || *Euridxe abidxeu deu denpora luserako*. || *Euridxe makal abidxeu dok, baya oin senduego*. □ **euridxe afrontugas ein**. Llover y soplar el viento fuerte de lado. || *Afrontuas eitten deu euridxe*. □ **euridxe bota**. Llover. || *Len botaten egon da euridxe baya oiñ aterri dau*. □ **euridxe botalien egon**. Llover a cantaros. || *Botalien deu euridxe*. □ **botala euri ixen**. Llover a cantaros. || *Botala euri da*. || *Botalan da euridxe*. □ **euridxe ein**. Llover. || *Parra-parra eitte dxok euridxe*. || *Euridxe asko ein deuen les*. || *Geur euririk esteu eingo arratzalderaiño*. || *Eurten esteu euririk eitten*. || *Ointxe momentuen geldittu da euridxe eittie*. || *Geur gabien eitten espadeu, bidxer euri pixkat eingo deu, asko es baya*. □ **euridxe ekarri**. Ir a llover. || *Euridxe dakar*. || *Axe larridxe daunin jeneral euridxe ekarten deu*. || *Bai, jeneral e laño soidxek euridxe ekarten deu*. □ **euridxe ittesurias ixen**. Llover a cantaros. || *Bueno, euri saparrada aundidxe eitten dabenien orixeri esate tzeu guk "Euridxe ittesurias da"*. □ **euridxe trope bota**. Llover a cantaros. || *Euridxe trope botaten dau*. □ **euridxe sarra-sarra ein**. Llover de manera continua. || *Euridxe sarra-sarra eitten deu, ya euridxe ein de ein de ein*. □ **euridxe ein**. Llover. || *Axe putzak dire, euridxe eingo deu*. □ **euri garue**. Lluvia muy menuda. || *Euri garu da*. □ **euridxe ixen**. Llover. || *Euri asko ixen da*. || *Baya ba, oiñ esteko beste serbixidxorik, euridxe daniñ aterpie*. Da len Don Rikardo emen egon sanien, automobille eukitte ban antxe barrun. □ **euridxe jeusi**. Llover. || *Denpora gitxien euri asko jeusi de*. □ **euridxe sendo ixen**. Llover fuerte. || *Euri asko daniñ e, euridxe sendo danien ba da jeusten dire tellatuti pa ittoiñek, da orixeri esate dxako, jeusten danari, ittesurie*. □ **eurittera egon**. Reinan tendencia a llover. || *Aspaldi onetan eurittera dau*.

**euritte, eurittie**. (EURITE) Temporada de lluvias. || *Luperidxe: euritti ein, de euridxe olanik hur sati bat-edo mobiduten dabenin-edo, olan sakoneruntz-edo jeusten danien, "Luperidxe ein deu"*. || *'Luperittu' eitten da, esate baterako, euritte baten-edo, da urek ure mendittik bera datorrena-edo, a goitti bera datorrena-edo, errekatxu einde etorten danari-edo, ba beragas lurre ekarten deu-edo, da arixe dakarren lurreri esate*

*dxako "Luperittu ein da"*. || *Da beres, ser esangot nik...?, Oman be erreka..., euritti ixen esik, erreka aundidxe esta pasaten*.

**euritzu, euritzue**. (EURITSU) Lluvioso. || *Euritzu dabil*. || *Euritzue: euri asko einde atertzeko etxurarik estekonin: euritzue*. || *Erriko axie be ego axiñ antzeku da, bai, bat tire*. Orrek axe euritzu barik axe epelak tires. || *Senba denporan oten dan mutxuridxe? Ba segun denporak selakuk eitte ittun, onak eitte ittuen edo euritzuk eitte ittuen, se euritzu eitten badeu denporie, edo siketzeko esta modukue, siketu artin muntxuridxu oten da*. Da gero ba meti eitten da. || *Olako errekatxuk asko! Endemas euritzu bada urtie*.

**eurki, eurkidxe**. (AURKI, aulki-bat.) Taburete de sentar. Ezkaratzean nahiz kortan egoten zen. || *Oiñ estau eskatziñ ibiltten eurkirik, baya len eskatziñ be eurkidxe ibilte gendusen, jarritte eoteko-ta, umik olgete ben an, eurkidxe naidu dandarres ibilite*. Oiñ estekegu eurkirik, estau eurkirik, baya len eurki asko egon san. Jeneral silla parik beyen eurkidxe egote sirin. || *Txikidxauek dire eurkidxe, dire txikitxuauek, eta aunditxua pe bai*. Dire jeneral auxe formi deko, olantxik berantz e karkabatxu ta amen erdidxen eukitten dabe eskukin kolpeteko sulotxu ori. Da olakoxik batzuk ixeten dire altutxuaue, beste batzuk bajutxuaue. || *Eurkidxe estabe eukitten errimurik*. || *Eurkidxe oleskuek ixeten dire*.

**eurok**. (EUROK) Estos mismos. || *Oin be saltze ittue tantora, da neurtu bari pe bai, tantora be bai, neurtute be bai, baya karnaseruk neurtuneko txalik-eta estabe artu gure ixten, arek eurok neurtu gure ixaten dabe*. || *Da emote dxakon... orrixek, orma idak egosi, bueno, orrek idak euro payo, eurok eukitte daben sustreidxe, garbittu uretan, egosi, da axe ure egosi, ta axe ure emote gentzon beidxeri*. || *Gustora estaunin-de ganaduk eitten daves eurok (kirriskadak)*.

**eurraldi, eurraldidxe**. (EDURRALDI, elurraldi-bat.) Nevada. || *Eurraldidxe ixete sirin ba, e eures asko eitte banin, esan gu na, sarritten: "Eurraldidxe len edonox eitte dxuasen eurraldidxe!"*. Oin bateri esate dxako "Eurre ein dxok", baya sarritten eitten badeu, geur be bai, ta amendik amabostara, da beste illebete bat, ero olan: eurraldidxe. || *Olan egunetan eiñ eskero, ba edurraldidxe esaten da*.

**eurre, eurrie, aurrie**. (AURRE) Parte delantera. || *Eurre partie*. □ **eures**. Por delante. || *Eures botatie: soltau, botau ganadu noberak eta doixela, "Eures botadxsak"*. Ta bestela ixeten da nobera aurretik, da ganadu ondorik. □ **eures-eures**. Frente a frente. Ik. burus buru. || *Eures eures? Estaipa sei esate dxakon*. Su te ni, ba, ein kontu eures-eures gaus. □ **eurretik**.

1. Por delante. || *Jon eurretik yoyek eta neu be banoyek*. || *Urek eurretik daroin lurre da dandarresa*.  
2. Con antelación. || *Eurretik esan tzo baya!* || *Gerra*

*eurretxun.* || *Eurretik parte emon, ia basatos edo es basatos.* || *Se udan gordete san bedarra, bedar siketunekue, sabaidxen gordete san da negun emote dxaken, galtzun eurretik-edo, da galtzu askanien emote dxaken.* □ **eurretxuen.** Un poquito antes. || *Etzien ba neguen gabonak eurretxun-edo ba txala ilte san, da eitte san okelias, gatza emote dxakon, da ba sesiñe.* □ **eurrie artu.** Adelantarse. || *Bat ipiñiñeko ordue bayo eurrerau badoi, (esaten da): "Txo, eurrie artustek".* □ **eurre ein.** Hacer frente. || *Tenpestade txarrari eurre eitteko.*

**eurrealde, eurrealdie.** (AURREALDE, aitzinalde) Delantera, parte anterior. Sin. *eurrekaldie.*

**eurrekalde, eurrekaldie.** (AURREKO ALDE) Delantera, parte anterior. Sin. *eurrealdie.*

**eurrekera.** (AURREKERA) De frente. Ik. *atzekera.* || *Eurrekera nau.* || *Eurrekera etorri dok.*

**eurreko, eurrekue.** **1.** (AURREKO) Antecesor, -a; ascendiente; antepasado, -a. || *Emen guriñe ikesi gendun. Mantekilli eskendun esaten, esan esaten eta gure eurrekuk es eben esaten.* **2.** Lo que hay delante. || *Eurrekorik esteu ikusi be eitten orrek!*

**eurrelari, eurrelaridxe.** (AURRELARI) Delantero, -a. || *Eurrelaridxe? Ser dala esangot eurrelaridxe dala? Beidxen aurretik itteurren dabillena.*

**eurrenengo, eurrenengue.** (AURRENENGO) Primero, -a.

**eurrera.** (AURRERA) **1.** Adelante, hacia adelante. || *Eurreraidxe dau.* || *Mugire bayo aurrerau dau Elorriaga be bai.* || *Etorri eurrera!* || *Ju adi eurrera.* || *Eurrera dxoik makurtute.* **2.** Antes. || *Errenta egune? Domu santu eguneri. Errenti len, errenti pageta ei xan domu santu egunin, edo sortzi egun aurrerau edo sortzi atzerau, antxe eingerun.* || *Gure denpora bayo eurreratik eitten ebesan.* || *Egun bat eurrerau.* □

**burus eurrera.** **1.** De bruces. || *Burus eurrera jeusi da.* **2.** Duramente. Sin. *gogor.* || *Burus eurrera dabil biarrin.* □ **eurrera atara.** Progresar, avanzar. ||

*Eiñalak einde be, biarra eurrera esta ataraten.* □

**eurrera ein.** Avanzar, seguir adelante. || *Bidin doiñari, geratzen jun-da: "Sois eurrera, eurrera ein!"* □ **eurrera**

**erain.** Propulsar, impeler. Sin. *jeurti.* □ **aurrera jun.** Avanzar, ir a más. || *Aurrera dxoiko geixue.*

**eurrerakada, eurrerakadie.** (AURRERAKADA) Avance. || *Estroposu ein da eurrerakadie edo, jausi barik geratzen dana.*

**eurrerako, eurrako, eurrerakue.** (AURRERAKO) Reservado, -a, para que crezca (referido al ganado). || *Eurrerako dauena ixeten da, ya bieye jaidxo da ta ba eriste tzesu ba edarra, beidxe asteko modukue, da alaku ba eurrerako asi eitten da, da gero eskatzen dabenin*

*txala emote dxako, ta ba eurrerako ba beidxe ataraten da.* || *Bieye: txalik ein baku ondiño, eurrako dauna.* || *Urte billotza-edo, eurrerako dauna-edo, apartaute dauna-edo, se billotzak jeneral ardidxeri kentze dxakes urti-te bayo ariñau, asko be, beñ e ba lau illabete, bost illabete, geidxenes sei illabete, da urteko billotzik.*

**eurrerakuntze, eurrerakuntzie, aurrerakuntzie.** (AURRERAKUNTZA) **1.** Adelanto, progreso. || *Orregas makiñias asko aurreratu dire, aurrerakuntze aundidxe ein dabe.* || *Eurreraskuntzie? Estakidxen geusa bat e, esaten dabenari edo erakusten dabenari-edo, "Eurreraskuntzi badeko".* **2.** Posibilidad de seguir. || *"Eurrerakuntzie badxekok ondiño!": Ondiño esperantzie eurrerako dekonari: "Ondiño eurrerakuntzie badxekok".* || *"Ondiño eurrerakuntzi badeko": orrek e, ondiño ba akabaute estauela geusi-edo, ser esangot neuk?, eurrera doi geusi-edo, akabaute estauneku da eurrerakuntzi dekona.* **3.** Ánimo. || *Eurrerakuntzi da konfiantzi esate batera, eurrerako emoteko les, eurrerakuntzie. "Eurrerakuntzi emostek".* *Da besti, atzakuntzi da ba ya geldi ero atzera. Da eurrerakuntzi da ba ondiño emote tzue konfiantzie edoser eitteko.* || *Eurrerakuntzi emoti da animu emotie. Ori da animue emotie, "Ju adi. Bai, politte, ju adi!", da eurrerakuntzie a da.* **4.** Orden de seguir adelante. || *Igul..., "Ondiño geidxau ein bikok ori"-ero, da "Ba, ondiño eurrerakuntzi emostek"-eta. Gero igul pageten detzu jornala da ondiño eurrera pagau biar batzu, "Ba, posik ñatus, eurrerakuntzi emostek eta".*

**eurrerantzien.** (AURRERANTZEAN) De este momento en adelante, desde este momento. || *Eurrerantzien kontus, e!*

**eurrerapide, eurrerapide.** (AURRERAPIDE, aurrerabide-bat.) Avance, progreso, mejora. □ *Gaixoak onera egin ezean, honela esaten da: || Eurrerapiderik estau eitten.* □ **eurrerapide emon.** Dar facilidad(es), dar pie. || *Geuse bat, bier bat-edo ein bi danin, ba "Eurrerapide emon dxako", eitteko-edo.*

**eurreratu.** (AURRERATU) **1.** Adelantar(se). || *Jose eurreratu dok, bestie atzeratu ein dok.* **2.** Ahorrar. || *Jonek diru asko eurreratu dxok.* || *Ori beti dak demandan, orrek sekule etxok dirurik eurreratuko.* || *Dirue eurreratute deket.*

**eurrerauko, eurreraukue.** (AURRERAGOKO) Prioridad, trabajo previo. Esate baterako, lanpetuta dagoen bati beste lan bat agintzen zaionean, honela esaten du: || *Bai, estau eurreraukorik, ori bayo!*

**eurrerengo, eurrerengue.** (AURRERENGO) Primero, -a. Esate baterako, eskolan gehien dakien umeari buruz honela esaten da: || *Eurrerengo dabil gure umie.* || *Ipintze dau eurrerengo.*

**eurreridxe, aurreridxe.** (AURRERI) Animal de tiro que va delante, delantero, guía. || *Aurreridxe:*

*burdidxegas bei busterridxe doyenien, aurretik bei, saldidxe be igul, de bei bakar bat igul, edo baitte busterridxe bi be. Aurretik lotun, de tireka areri. Areri tireka, aurreri, axe da aurreridxe, aurretik juten dana. || Eurreridxe? Bai. Beidxeri karga eundidxe dekeniñ e beste busterrri bat ipintte dxake, ta busterrri bigas-edo erun eraitte dxake. Eurreridxe eurretik doin busterridxe. || Busterridxen ipiñi beidxe. Bi. Da eurrien beste bi, eurreridxe.*

**eurresko, eurreskue.** (AURREZKO) Previamente. || *Urteixu eurreskuen! || Eurresku urten bayo lenau.*

**eurresku, eurreskue.** (AURRESKU) Baile de ese nombre. || *Eurreskue dantzie da. || Ori auresku, korrin eitte sana, da bat e lelengo ta besti askanengo, ta beste danak bidxen bittartin. Atzesku da auresku bik eitten dabe. Da bata auresku eitten deu, lelengo eitten deunak. Da gero bigarena, atzeskue.*

**eurreskulari, eurreskularidxe.** (AURRESKULARI) El que baila el *eurresku*.

**eurretidxes.** (AURRETIAZ) Previamente, con antelación, de antemano. || *Eurretidxes esan!*

**eurretik.** (AURRETIK) Antes de. || *Deidxe, eskondu eurretik.*

**eurretikue.** (AURRETIKO, arbaso) Ascendiente, antecesor, -a.

**eurretixik.** Justo antes, previamente. || *Aurretixik jakin dxuat nik ori se ingo dan.*

**eurte, eurtie.** (EDURTE, elurte-bat.) Nevada. || *Eurtie? Eurre plasta-plasta goitti bera eur eitten dabeniiñ eurti axe da, da kanpu surittu.*

**eurten.** (AURTEN) Este año. || *Eurten labore ederrak ixen dosak. || Aspaldidxon eurten bayo denpora txar geidxau euki dogu udebarridxen. || Orain mantzeliñe kasteteu, batu eitten da, untxe, ya batzeko sasoyen ixengo da. Batu eitten dire loratxuek, siketute gorde eitten dire. Da ementxe egon ingo dire eurten batunekuk tirenak. || Mariapostolue badau geurin be. Da eurten estaitt emongo daben berak. || Etzeko txorixu di, eurtenguk. Ondiño probau barik dekogus. □*

**eurton.** Este año. Eurten sarriago erabiltzen da. Lekuko baten arabera, Belendizen erabiltzen da asko, Nabarnizen ere, baina ez hainbeste. || *Eurton denpora txarra ein deu. || Aixu denpora txarrak ein ttus eurton. || Ies. Eurton enas juen. || Eurton enas jun. Estaitt eurton se on dan. □ eurtengo urtie.* El año en curso.

|| *Sagarrak batzuk bayo geidxau das aurtengo urtiñ emon badabe, datorren urtiñ emongo estabena.*

**eurtze, eurtzie.** (EDURTZA, elurtza-bat.) Nevada, montón de nieve, cantidad de nieve. || *Ordun edurtze itzelak eitte ittuasen.*

**1 eusi, eusten.** (HAUSI, hautsi-bat.) Romper(se), quebrar(se), partir(se). Ik. *sayetzak eusi. || 'Eusi' ixeten da..., apurtu bat da, apurtu. Eusi,ba krakau eitti les,*

*eusi, "Eusi ein dok". Guk esateu "Apurtu ein dok" barik e, iguel onek oe barak-ero, partiki-ero, burdidxena-ero len, aintxiñe, ba: "Kaguen, eusi ein dok ortik, erdi-erdittik eusi dok". Da piñuri be bardin, olan aixik apurtzen badeu. "Aixigeittik apurtu sak piñuk" esaten dabe batzuk, da "Piñu ederra erdi-erdi-erdittik apurtu dxok" esaten dabe batzuk, eta bestik esaten dabe 'erdi-erdittik eusi'. || Buru eusiko uatek. || Palue eusi. || Besue ausi dxok fulanok. || Asurre pe bai. Bai, nik auxe ausi ñaben da ondiñokogarren estaitt osatute daun e, estaitx, trakadarik ein barik e euki ñaben e apurtute. Anbulatoridxora jun biar iza nabena da antxe konpondu eusten. || Burdidxeri taketa eusi dxako. || Oiiñ arbolari ausi dxako besainkie. || Txo, ausi ingo dok! || Barau eusi: goixiñ e otik jagitten daniñ esate baterako ba baraurik juten da, da ogi sati bet-edo, sagar bat-edo seoser jaten danin ba barau eusi. || Intxaur oskola ausi ein da.*

**2 eusi, eusidxe.** (HAUSI, hautsi-bat.) Acción de arrancar transversalmente una piedra (en las pruebas). || *Proban, sarri da geratu barik erutie. A da sárrie. Geratu barik, esate baterako, oinbete ero metro bat eitten badeu, Ummmm!, "Sarri emon tze!"*. Da igul beste batzuk artun de eruten deu beste untzera, "Jo, untzik sarran ein dxosak!". Ta bestela esaten da "Bai, eusike". Eusidxe da aulan (sigi-saga) ibiltie arridxe, a eusidxe da. Ta an artu te eruten badeu, sarri. || Eusidxe esate dxako... Arridxe ipinttosu... Arridxe bakixu ser dan, probarridxe, es emengo arridxe. Probako arridxe. Da ipinttosu susenien, da igul e seu saus proban, gerrikotik ipintte, da "Joik susenien!". Da ainka ipiñitte, susen-susenien. Da igul esin mobidu. Da gero esaten da "Eusidxe!". Da gero eusidxe eittosu ras!, ona ekarri, da gero ona ekarri, da arridxeri irebasidxe emon beti. Arridxe atzera bota barik, irebasi eurrera. Eusidxe.

**3 eusi, eusidxe.** (AUSI, adausi-bat.) Ladrado. Saunkie ere esaten da, baina eusidxe erabiliagoa da. || *Txakurrek olan eusi raruk eitte itunien: "Intzirike dau". □ Hona hemen eusi eta seunke berben arteko desberdintasuna: || Saunke be esaten da, da eusidxe be bai. Olan gogor eusike dausenin ba eusidxe esate tzeu. Saunke txikidxauek eitte ittue, ba seinde bertoko jenti datorreniñ-edo, etze antzeko datorreniñ-edo, ba estittu eitten orrenbesteku pe, estire olan geisto be plantetan.*

**1 eusike.** (AUSIKA, adausika-bat.) Ladrando. Saunke ere esaten da, baina eusike erabiliagoa da. || *Txakurre eusike dau. || Txakurre bai noisnai eusike egoten da, beste txakurren bat etorritte-edo.*

**2 eusike.** (HAUSI, hautsi-bat.) Moviendo la piedra de arrastre haciendo eses. || *Eusike bai. Da orrek e, bakixu, igul esteko indarrik sarran eruteko. Edo kaballeridxe... Da kaballeridxe bakixu ser dan, astue, ta saldidxe ta orrek. Da kaballeridxe pe igul esteko, da kaballeridxe pe "Eusike-eusike eik!"*.

**eusittu.** (AUSITU) Amainar el tiempo. *Onera ein ere esaten da.* || *Denpora txarra egon da ta eusittu ein deu.* || *Bai, guk esateu... Jeneralien esateu "Kalmau ein dxok", baya beste batzuk suk esan dosuma, "Eusittu ein dxok". Ya epeletara, otzetik epelaure.*

**euskaldun, euskaldune.** (EUSKALDUN) Vasco, -a, vascoparlante. || *Euskaldun garbidxe.* || *Euskaldun kastie.* || *Euskaldun soiñue.* || *Mantekilli, bai, beti, guk olantxik ikesi du. Bai, guriñe be bai. Origeittik e mantekilli bayo guriñe euskaldumentzako erresau da.* || *Orrek andrik estaipa nik e euskera iketidxe bouko ala beres dan euskaldune. Ba euskera eitte ban beintzat.*

**euskalduntasun, euskalduntasune.** (EUSKALDUNTASUN) Condición de vasco. || *Euskalduntasune es ixue galdu, gastiek!*

**euskalerrri, euskalerridxe.** (EUSKAL HERRIA) País Vasco. || *Emen Euskalerridxen badau?* || *Len emen e, esate baterako, Euskalerridxen es euen jenterik, bertoko jenti bakar-bakarrik. Gero, bi dan beste es, ta asi sin, emendik e kastilla erridxetatik, ortik jenti ekarten ona fabrikatara-ta.*

**euskera, euskerie.** (EUSKERA, euskara-bat.) Euskara, lengua vasca. || *Biskaittar euskerie.* || *Gure euskera klasien.* || *Euskera ondo estau eitten.* || *Suk euskeras eitten dosu etzien.* || *Ori emen bayo urrunauko euskerie da.* || *Beres euskerasko ixena, guk estou alan ikesi, baya urdiñe deuk asulek.* || *Ori euskera barridxe ixengo da. Ori esta euskera sarra.* || *Euskerie lendik onakun nik pentzetot gastik e..., guk eitte gendun modun estabela eitten.* || *Ba euskera esta ori. Ori aintxiñeko sarrak es eben esango.* || *Orrek euskerarik estaki.* □ **euskerasko berbie.** Palabra vasca. || *Kapritxue euskerasko berbi ixen be esta. Kapritxue erderasko berbi ixengo dala pentzetot nik.*

**euski, euskidxe, eguskidxe.** (EGUZKI) Sol. || *Euski ederra.* || *Euski berue.* || *Euski galdie.* || *Euski gori-goridxe.* || *Euskidxek urten deu.* || *Goi lañuk tapaute dxak, geur etxok argittu eingo, euskidxek etxok urtengo.* || *Euskidxe lañopin dxabik, lañopin; euskidxek etxok urteten.* || *Euskidxe sartzen deu.* || *Euskidxek asko berotzen deu geur.* || *Euski beru dau.* || *Euskiko bañu bat artu.* || *Belañue Gernike aldin-da, ta gu emen euski ederras, Nabarrixen.* || *Euskidxek urtete dauen partie.* || *Bittartitan euskidxek urteten deu.* || *Euskidxek jo arren, euridxe etorten da atzetik.* || *Marigorringo, txurin gorringo, euski ala euridxe eingo.* || *Euskidxeri begire dau etzie.* || *"Atzeko otzik etxok pasauko" geusa askotarako esan leike. Iguel, eguski berue, ta biarrin-da "Are pe etxok atzeko otzik pasauko!", galdias.* □ **euski gitxikue.** Paraje sombrío, umbría. || *Axe leku sulun daula, sakonien, euski gitxikue. Kontrasola ori be.* □ **euski sarrerrie.** Ocaso, puesta del sol. || *Euski sarrerria da euskidxe sartzen*

*dan lekue.* □ **euski sartzailie.** Ocaso, puesta del sol. || *Euski sartzailan, arratzalde berandun etorri dok.*

□ **euskitten.** Al sol. || *Gixon ori, euskitten jarritte daune, egun baten mendigoixale aundi bat ixen san.* || *Euskitten egon naselako atrapa-oste burue.* || *Euskitten ipiñi apur baten.* || *Siketu bi dan geusie euskitten ipiñi bi da.* || *Geispeko idie bastue da, euskitekue fiñe.* □ **euski urteyerie.** Salida del sol. ||

*Euski urteyeran bero etorri dok.* □ **euskidxe artu.** Tomar el sol. || *Euskidxe artzen kanpora jun da.* || *Euski artzen egon gara.* || *Emen gas gu, euskidxe artzen bide bates.* □ **euski ein.** Hacer sol. || *Euski eitten deu.*

□ **euskidxek erre.** Quemar el sol. Ik. *morenotu.* ||

*Euskidxek erreta dau.* □ **euskidxek pasau.** Coger una insolación, padecer mareos por el sol. || *Euskidxek pasau deu ori, euski berotan egon da ta.*

**euskialdi, euskialdidxe.** (EGUZKIALDI) Intervalo en el que aparece el sol. || *Euskialdidxek badaus, baya laiñope dabil euskidxe.* || *Euskialdidxe badator oin be!* || *"Euskialdidxek dxasak itzelak": Euskidxek batiñ urten, da bestin sartute dabillenin: euskialdidxe.* || *Euskialdidxe egoteko lañuk egon bi deu, ostantzien estau euskialdirik, eta ordun euskidxe, bakarrik. Baya euskialdidxek eitten deu lañopiñ egon, da gero bistatu, atzera lañu, atzera bistatu, da ori da euskialdidxe.*

**euskibegi, euskibegidxe.** (EGUZKIBEGI) Lugar soleado. Ant. *kontrasola.* || *Ori euskibegidxen bixi dok.* || *Euskibegitten dau.*

**euskitzu, euskitzue.** (EGUZKITSU) Soleado, -a. || *Egun euskitzu dau.*

**euso, eusue.** (AUZO) 1. Vecino, -a. Ik. *enpararauek.* || *Gixajue beren eusue ikusi esiñik egon san.* || *Eusun artiñ ixete san, da pasu dekonak, ba a be pasetan da, a be bai, a be bai tte danari emote dxaken parte, "Bide konpontzi dau".* 2. Barrio, vecindad. *Barriada eta kopradidxe ere esaten da. Ik. etzeartie.* || *Eusoko jentie.* || *I se eusotaku as? Etzeartie? Ba emen etze bi das -origeitti bidxok geu tabigus-, baya etzeartie euso bateri edo kopradidxe gune bateri edo alkarren urriñ etzi dasenari.* || *Da kari emote esik, kendu esta eitten txonbue. Da kari emote eskerun estau urteten orrek. Gure solutan sekule estau urten, beti karieute egon dilako. Da beste eusutan igul askok txonbue, "Nabuk txonbu dxekok".*

**eusobide, eusobidie, ausobidie.** (AUZO-BIDE) Camino vecinal. || *Eusobidie: ba esate baterako, ausobidie, bidiek, eusobidiek, onetan dasen bidiek danak dire euso bidiek kontixu, eusuk ibiltten dirin bidik. Da emendik gora eusuk esteko biderik, au, amendik gora mendire doiñ e..., orra goraiño, etzina da bakarrik, da ortik betik-eta dau bidie, euso gustidxena.*

**euoeder, euoederra.** (AUZOEDER) Persona afable con forasteros o extraños. || *Euoederra da ba etzin txarra, da kanpun ona.*

**eusoko, eusokue.** (AUZOKO) Vecino, -a. Ik. *ausotarra.* Bestela *barriadeku* ere esan daiteke. || *Ori geure eusoku dok.* || *Txakurreri samie ebai tzon eusoko batek.* || *Ordun ama etzan juten, ama oyen egote san-da, da ba eusokuk-edo, etziñ amuma badau, amumak edo beste batek erute ban umi bautixetan, da aittebitxi-amabitxi jute sirin, da umi bautixete ben.*

**eusotar, eusotarra.** (AUZOTAR) Vecino, -a. || *Ori geure eusotarra dok.*

**euspue.** (HAUSPO) **1.** Fuelle. **2.** Pulmón. || *Beste bat ariñau korriten, da areri segiten iguel, da esin: "I, txo, nire euspuek etxuek erresponditen".*

**eustu.** (HAUSTU) Pulverizar, convertir en polvo. Ik. *des ein.* || *Lurre be eustu eitten da. Artu eraitteko be naiku eustu ein bihar ixaten da ta ba.* || *Eustu da urune, urune ein lurre.* || *Lurre be eustu eskero, laborie obie artzen da.*

**eusune, ausune, eusunie.** (AUZUNE) Barrio. || *Urebarri esate dxakona ba ausune ba ta.*

**eutz, eutze.** (HAUTS) Polvo, ceniza. || *Suteko eutze.* || *Eutze eta abarra!* || *Eutz sara ta eutz biurtuko sara.* || *Eutze mundura etorri siñen da eutz biurtuko sara.* || *Eutze eitten dxako.* || *Ikesgiñen lapikokue gosuena. Biar asko eitte balako. Da ardaue gosuena ikesgiñek. eutze eukitte balako asko. Iketzak eutze deko asko. Da a barrure sakatzeko ardaue onena.* □ **eutz esnie.**

Leche en polvo. || *Letxabit da eutz esnie. Txal txikidxeri emote dxakun. Katuri be emote tze igul Urune da ori. Esni da ori.* □ **suteko eutze.** Ceniza del hogar. || *Suteko eutze beti kentzeu.* □ **eutzek atara.**

Dar una paliza. || *Eutzek atarako deutzudas!* □ **eutzek euki.** Tener habilidad, facilidad para hacer algo. || *Eutzek dekos edoser eitteko.* □ **eutzen egune, eutzena.** Día de ceniza. || *Eutzen egune pasa dan domekan pasa da. Eutzen egune abadik eiskun guri.*

**1 eutzi, eusten.** (EUTSI) **1.** Asir, agarrar, apresar, prender. || *Eutzi!* || *Eutzidxosu oneri!* || *Goidxen eutzi oneri!* || *Len botate sirin, nik oiñ estait botate basittuen, baya tellatu ganera "Etzi agin sarra, ta ekarrixu barridxe!" esanda, "Maridxe tellaganekue, eutzi agin sarra, ta ekarrixu barridxe!"*. || *Eutzi au badaespada. Anera jun biot, Karinak deittuste ta ensegida etorko nas neu atzera baya.* **2.** Sujetar, sostener; aguantar. *Agontou* ere erabiltzen da. || *Presiek ondiño eusten tzon ureri.* || *Tentemosue areri, euste eutzonari esate dxakon.* || *Aldamiñu dxok eusteko.* || *Da gero beste age bat eukitten deu, olan trabes, erdi-erdidxen, areri agiri eusteko trabes eukitten deu beste bat.* || *Gero sartu emeti sididxe, onen tamañu eitten badeu, arek*

*euste tzo, lepun eruteko.* || *Taketak euste tze.* || *A kakutuas euste tzo a gero. Bedarrak berak euste tzo, sokarik es esebe barik.* || *Takue? Frenue. Ori e eitte san piñuten edo karga astune ekarten basendun edo goitibera aundidxe ta esiñ eutzi ganaduek, ipintte sentzon tragie. Guk tragi esate gentzon.* **3.** Aferrarse a, agarrarse a; mantener (lo dicho...). || *"Eutzi berbiri!": esate baterako, basois plasara fruta saltzen, da "Eutzidxosu berbiri!". Suk eskatzosu, por ejemplo, bost peseta, killoko, edo amar: "Eutzidxosu berbiri!".* **4.** Ocupar(se), estar haciendo algo. Hona hemen Alfonso Irigoienek (*Eritzi nola erabili behar den delako hauziaz*, Euskera, XXII (1977), 664. orr.) zer dioen hari buruz: "Aulestin erabiltzen diren *biárri(e)n dáutzo (dautso)* eta *bá(da)utzo* 'está trabajando', 'se ocupa' berez datiboari begira sortuak direla begien bistan badago ere inesiboarekin erabiltzen dira sistematik aparte eta fosilizaturik". || *A eskolie eitten detze.* || *Ogi samarra da, amen nik ogidxe jaten detzet, ta gero dana, jeusten dan ori, "Ogi samarreidxe dana betok!" esaten da.* || *Txaloka deutzek.* || *Sardias simeurre-edo kargetan deutzonin: sardakadie.* || *Purruskada baten: "A be purrustada galanta ein dxok!"*. Da *iguel segindun botzo: "Purruskada deutzek"*. **5.** Aguantar. || *Eutzidxok txixelarridxeri!* **6.** Murmurar. || *Bautzo orrek iñorgaittik.* || *Orrek bautzo beste batzukaittik.* || *Bautze orrek origaittik.* □ Inori zerbait eskaintzeko honela esaten zaio: || *Iguel sigarro bat paketan, da ba: "Eutzok askana!"*. □ **eutzi einde.**

Gratis. || *Eutzi einde artu dot.* □ **deutzela.** Pegado, -a, unido, -a. || *Kanpasantue elixeri deutzela egon san.* || *Elixiri deutzela egon san len, elixiri segidxen deutzela.*

**2 eutzi, eutzidxe.** (EUTSI) Tacaño, -a, rácano, -a, avaro, -a. Ik. *lukerrerue, sekena.*

**eutzontzi, eutzontzidxe.** (HAUTSONTZI) Recipiente en el que se recoge la ceniza del fuego. || *Eutzontzidxe? Bai, oiñ estau emen baya geurin be eutz ontzidxe ibiltten da. Suteko eutze artzen dabena.*



**fabore.** Favor. (FABORE) □ **fabore ein.** Hacer un favor. Ik. *eder ein.* || *Edo fabore eitti be, aren fabore eitti be, "Arexen e edar eitten dxabik ori", edo "Arexen edar eitten".*

**fabrike, fabrikie.** (FABRIKA) Fábrica. || *Da oiñ e, oin badakixu, oiñ estau, oiñ estau fundamenturik. Oiñ estau artori pe, nabori pes, indixabari pes. Oin jentik erresenena emon deu. Fabrikara jun, kotxien da jornala irebasi ederra, da piñu sartu.*

**falda, faldie.** Falda, carne de la res, que cuelga de las agujas, sin asirse a hueso ni costilla. || *Faldie ixaten da egostekue-edo, gixetaku-edo, baya ostantzin tajadetakota estau balidxo. Ixaten da, ser esangot neuk sala?. Da jeneral faldie edo egosi eitten da saldie eitteko, edo gixaun be ipintten da.*

**fallau, falleten.** (FALLAU, fallatu-bat.) Fallar. || *"Otziñ-otzin falleten deu": ba noisnai fallau eitten deu-edo. || "Txabeletik etxabik ondo". Txabele au da ba burue. "Txabeletik etxabik ori ondo". Esan biarrien buru-edo, "Asko falleten dxok txabeleti orrek!".*

**fallo, fallue.** (FALLO) Fallo. || *Orrek fallue dxekok.*

**1 falta, faltie.** (FALTA) Falta, defecto. || *Onek umik faltie deko buruen. || Anketako faltie deko. || "Bentanik dejie deko": Bai, olanik seoser falta dabenin-edo, sekoniñ e, se esangot neuk?, falti-edo, egur sati baten falti-edo dekonin, dejie deko; ba eukitten badeu olanik, sulu be esta dejie, dejie da ba geusetxu bat, olako sati bat falta dabena-edo. || Iskirimiridxe ser dire? Iñun faltak ataraten dabixenari? || Gatz apur baten falti deko, gatz apurtxut bota bi tzet. □ **faltan jausi.** Echar en falta. || *Faltan jausi dxat. □ **faltie artu.** Echar en falta. || *Sure faltie artu dot. □ **falta ein.** Faltar. || "Diarres dau": se bi daben-edo ba, ia sek sek falta eitte tzon, edo ser gure daben, edo laguntzarik gure badau-edo olan diarres daua olanik jaubetute dxako, ia ser gure daben. □ **soser falta.** Ser necio, -a, insubstancial. || *Orrek soser falta deu.****

**2 falta.** (FALTA) Faltar. || *Nobera falta danien katuk buelta emon esteidxuen be bai (prantxie). || Diru faltarik esteke. || Orrek seoser falta deu, edo seoser sobra deko. || Ankie falta deu.*

**faltau, faltaten.** (FALTAU, faltatu-bat.) **1.** Faltar. || *Batek liburue gure dabenin esaten da: "Liburue falta dot", baya baten batek ostu eskero: "Liburue falta dxate". || Dirue be falta eitte ban. || Or amar egun, amabi falta sin. || Egun atan etzan faltau negarra ta naibagie. || Aintxiñeko bixilekuk topau sittuen Arrolan, baya es idi narru bete urre. A ondiño falta da. **2.** Faltar, ofender, agraviar. || *Ño, Joseri faltau ein tze!**

**faltzidxe.** (FALTSIA) Falsedad, engaño. || *Apropos? Tranpas. Apropos ba planpin dabilleta, faltzidxen dabilleta. Planpin da ba engañau edo serien*

*dabilleta, apropos. || Orrek esteke... Bestin txarra, beti besti txarra da besti txarra, da mundik txarto ipiñiko bestie! Da gerrie, orrek gure dabe emen beti alkarras gerri atati emen! Bai, emengo industridxe ara erun, txarto esanda, eitten dabelako. Faltzidxak eitte ittues. || Faltzidxan erun.*

**faltzu, faltzue.** (FALTSU) Falso, -a. □ **kiñu faltzue.**

Señal falsa (en el juego de las cartas). || *Se batzuk pentzate eukitten dabe. "Bueno, suk erregi dekesuniñ e ipiñi karta bat olan, ero trabes bestie ero bestie. Joku dekesuniñ olan". Da orre di kiñu faltzuk. Olakuk atrapau eskero, nulo.*

**fama, famie.** (FAMA) Fama. || *Fami deko. || Fama txarra deko. || Nabarrisko nabuek eukitte ben famie, da Nabarrixera asidxen bille, jente asko etorte san, nabu asidxen bille.*

**famatzu, famatzue.** (FAMATSU) Famoso, -a. || *"Famatzu dok": ba gixon eundidxe esati les, aintzat eukittie.*

**famau, famaue.** (FAMAU, famatu-bat.) Famoso, -a. || *Famaue: ba fami emote dxakona, geusa bat, personi be ixle lei, sagarra be ixle lei, famaue, famie ser emote dxakon, ba axe da famaue. || Famaue: ba ixen eundiku, edo olan esan gure deu orrek. "Famau dok ori". || Famaue? Ba, esate baterako, proban asko ibiltten dana, beidxe e probarako pretaute dekosena, famaue. || Famaue? Seri esate dxakola esangot damaue? Edo arri jasoten eitten dabena edo orretaiko bat famaue. || Santa Eufemia: Allustittik gora dauna, Santa Eufemia. Ori fama da!*

**fameli, famelidxe, familidxe.** (FAMILIA) **1.** Familia. || *Bai, famelidxe batekuk badire, "Mendu batekuk dire" esaten da. **2.** Descendencia. || *Famelidxe deko. || **Famelidxe eundidxe deke. □ **famelidxe eukiteko egon.** Estar en estado, embarazada. Ik. *estadun egon, enbarasada egon. □ **famelidxe ixen.** Parir. Hau, jakina, lagunen kasuan erabiltzen da: *Famelidxe ixen deu edo Umie, mutille edo neski ixen deu. Animaliek, oster, ixen barik ein egiten dute: *Kunie ein deu edo Txala ein deu.*******

**famelidun, famelidune.** (FAMILIADUN) Con descendencia. || *Ori neskatillie famelidune dok. || – Koño, ondiño ori gaste dak eta! –Bai, baya ori famelidune dok.*

**famelidxekue, familidxekue, pamelidxekue.** (FAMILIAKO) Familiar. || *Pamelidxeku dirin igerte dxako.*

**fandango, fandangue.** (FANDANGO) **1.** Fandango. || *Fandangue dantzie da. **2.** Desmañado, -a, basto, -a, descuidado, -a, revoltoso, -a. || *Personiri, bada olanik apur bet itxidxe-edo: "Ori da fandangue!" || Ori be esaten da, olako trastu, or dabilleta: "Fandango garbidxe!". Bai, ori be esan eitten da, fandangue. ||**

*Fandangu? Bai, esate tze seinde olako geigiligandus dabillena, "Fandangu as, i fandangu!"*

**fanfarreridxe.** (FANFARRERIA) Fanfarronería. Ik. *fanfarroye*. || *Fanfarreridxe da, kuadrillan eitten dana da fanfarreridxe. "Arek fanfarreridxak bai ein dxusak!"*

**fanfarroi, fanfarroye.** (FANFARROI) Fanfarronería. Ik. *fanfarreridxe*. || *Emen gixon bat euen besuek sabaltzen beti, fanfarroyek eta esaten-da, arranue areri esate geuntzen guk, arranue, ori arrano ori. || Asko euren geuseas ba fanfarroi ixeten dire. Igul ikusi bestina ederraue, ta euren ederraue dala pentzau. || Fanfarroi da dana bera afana, dana gusurretan dabillena, fanfarroye, bera aundi eitten. || Panplñosu da fanfarroye.*

**fardo, fardue.** (FARDO) Lío grande de forraje. || *Fardue da galtzuas, edo bedarras eitten dana. || Bedar fardue. || Galtzu fardue. || Gipuskualdin-de metie, bedar meta asko oten da. Emen berton gitxi e. Emen ero bola ero fardue ero olan eitten da oin. Ba ostantziñ e len berton be etzondutan sei tte sortzi meta-ta bueltan egote siren. Barrun kabiten es, da kanpun ein. Eitte basen. Se askok e etze bixitza bikuk sabaidxe-eta txikidxe eukitte ittu ba bintzako.*

**farol, farola.** (FAROL) Farol (caja con una luz en su interior) || *Farola jeneralien kortara juteko-ta, ganaduek jesteko-ta ibiltte san. Gero kanpora jun bi danin gabas ibiltteko be, jeneralien edo asaue ixotute edo farolas.*

**farolkeridxe.** (FAROLKERIA) Farolería, acción propia de persona farolera. || *Farolkeridxe bota.*

**farra, farrie.** (FARRA) Acordeón. Lehen *fárrie* esaten zen beti, *akordeoye* ez zen inoiz entzuten. *Fillarmonikie* ere esaten zen, baina *farrie* baino gutxiago. || *Farra soñue. || Farri jote dxok ak. || Joko dxok a farrie?*

**fasil, fasille.** (FAZIL) Fácil. Ik. *erresa*. || *Ño, txondorrik eitten fasille etxak emen, se emen e deskomenentzidxan dxak geusi eta. || Gero askok esaten deu beste geusa bat: "Ak danak leun topete ittu"-te. Ori da ba erres, leunin jute da les, beste geusa asko fasille... "Fasille eitten deu ak, ero leun topete deu".*

**fedede, fedie.** (FEDE) Fe. || *Fede gitxikue. || "Ño, orrek fedie badxekok, ori susena dok ori!" || Elixara jun es, da elixiaittik kontra berba eitten-da: "E, ori federi paku-ok". || Fede asko deko.*

**fededun, fededune.** (FEDEDUN) Creyente; fiel. Ik. *fedetzue*.

**fedetzu, fedetzue.** (FEDETSU) Muy creyente, de una fe muy sólida. Ik. *fededune*.

**feridxe, feridxie.** (FERIA) Feria de ganado. Ik. *plasia*.

**ferreteidxa.** Ferretería. || *Ojalateruek ibiltte ban kajie lepun, da erremintak arregletaku, ta erremintta danak, onek sartenak eta. Ofalati ipiñi bi dxako. Ofalati ipintte tzen untzias. Da oiñ ofalateruk e dire ferreteidxako orrek e dire ofalateruk emen.*

**fideo.** (FIDEO) Fideo. □ **fideo sopie.** Sopa de fideo.

**fidxadore, fidxadorie.** (FIADORE) Fiador, garante; fianza, garantía. || *Fidxadore ipintten dan bat. || Bueno, fidxosue, da fidxadorie alkarren antzeko berbak tire. Fidxosue ba fidxetan. Fidxadorie ba, norbera fidxe aregas personias fidxeten dana.*

**fidxau, fidxe, fidxeten, fidxetan.** (FIAU, fidatu-bat.) Fiarse, confiar. || *'Fidxau' da geusa bat..., esate baterako, suk emostasu niri dirue, da nigas fidxau ein sara a dirue gordeta eukittotela. || Fidxosu badau, "Segurantzari pouko pa, segurantzarik?". Ya fidxetan bada, oso fidxetan bada, "Segurantzari pai?". Se nik, esate baterako, diru emon, da "Seguranzas emote tzet pa, seguranzas?". || Ori estok pidxetan. || Aregas fidxau da.*

**fidxoso, fidxosue.** (FIOSO, fidoso-bat.) Confiado. || *Fidxosu badau, "Segurantzari pouko pa, segurantzarik?". Ya fidxetan bada, oso fidxetan bada, "Segurantzari pai?". Se nik, esate baterako, diru emon, da "Seguranzas emote tzet pa, seguranzas?". || Fidxosue da fidxeten dan personie.*

**figure, figurie.** (FIGURA) Figura, aspecto, traza. □ **figure bakue.** De mal aspecto, mala pinta. Ik. *etxure bakue*. || *Figure baku geuse ori da, e 'itxusidxe' batzuk esaten dabe figure bakuri. Guk 'figure bakue'.*

**fijo, fijue.** (FIJO) Fijo, seguro. || *Sigur esan barik, dudan, segurantza fiju barik. || Beserue ixete san beti fijo etorten dana. || 'Arenbaten' fijo estan geusiri. 'Arenbaten' da badaespada les. 'Arenbaten' fijo estan geusiri esate dxako ori. || Begittandu dxat: pentza dot esatie les, nobera pa fijo espadaki.*

**fillarmonikie, fillermonikie.** (FILARMONIKA) Filarmónica, acordeón. Garai batean *farrie* ere esaten zen. *Akordeoye* ere esaten da. || *Fillarmoniki da ori euskeras, farrie be bai, farrie be esate dxakon sasubaten. Baya en jeneral esate dxakon fillarmonikie. || Emen baserridxetan-da, len panderu ibiltte san, fillermoniki ibiltte san. Oiñ esta esebe ibiltten. || Fillarmonikie olan joten dana, selan esangot neuk? Olan alderdi batetik eta bestetik e joten da, apurtxut okertu be eitten da.*

**fin, fiñe.** (FIN) **1.** Fino, -a, delgado, -a, de poco grosor. || *Geispeko idie bastue da, euskittekue fiñe. || Baye ixeten da sulo txiki-txikidxe dekona, fin-fiñe, ogidxe eittekie. || Fin dxak ori. || Altxa da arbola bat, beres etorten dana jeneralin, da egur fiñeku be esta ixeten. || Urune fiñena onetan txori garidxe emote ban. || Arto sopie? Artuk erre laban -oiñ estaus erre be eitten- da gero esnias jateko sopi ein, sopa fin-fiñe, da egosi galdaratxuen. || Esnie, esnetara bota, arek arto sopak, fin-fiñek ein, da egosi, irakin bi edo iru artu, da egosi eitte san. **2.** Fino, -a, agudo, -a, cortante. Ik. *bridxurie*. || *Aixie dabil fin-fiñe! || Bridxuri da otza, leidxe ero a bridxuri deuna. Otxak eitten deuna bridxuri. Da aixi be olan... Fiñe be igul esate dxako, aixe fiñe otzari esate**

*dxako. "Bridxuri dxak ona bridxuri!" aixias deunari. || Bridxuri da otza... Nik, esate baterako, mendire-ero jun Illunsarrera da "Emen jote dxok bridxurie!". Otza, aixik, aixe fiñe. Aixi fiñe batzuk esaten dabe. Beste batzuk "Bridxuri dxak ona bridxurie!". 3. Trabajador, -a, diligente, aplicado, -a. Ik. biargiñe. || Andra fiñe. || Fiñe da gitxi gastau te alaku ixeten dxakonen: persona fiñe dok ori; biargiñe da ya abilidadie dekona. || Severina biargiñe san, fiñe. || Personie finduten danin, persona fiñ eta ganera gerorako akordaute, al badau be diru apur bet aurreratu-edo eitten dabenari: "Ño, ori fiñe dok. || Ori fiñ ei dxabik. 4. Selecto, de buena calidad, más sabroso. || Albertxikue da frute bat, preskun antzeku-edo, presku bayo ba fiñau ixaten da.*

**findu, finduten.** (FINDU) 1. Refinar(se), afinar(se). || *Findu? Ako, biarrik ein barik-edo onekue, edo biarrik eitteko gogorik es-edo, da dirue amak eta aittek emoten areri, baya gastau te berak bape eiñ es. Da ba gero biarriñ asitte interesatzen danin, ordun jentik: "Ño, ori findu dok!" 2. Afinar. || Arbolak botate sirin, de ola eitteko serratu eitte sirin, ba, erun barik serrara, berton eitten sirin. Gero serran findu eitte sittun.*

**fiñesa, fiñesie.** (FINEZA) Fineza. || *Fiñesie deko.*

**flautie.** (FLAUTA) 1. Flauta. || *"Flauti joik gure bok!": igul esaten da desteñas edoser eitteko. 2. Mujer insustancial. || Ori da flauti!*

**flautero, flauterue, fleuterue.** (FLAUTERO) 1. Flautista. || *Flauterue? Arek flauti joten dabenak. 2. Insustancial. || Fleuterue: ori esate dxako ganorabako garbidxeri: "Fleuteru ori!". || Fleuterue: barriketa asko eitten dabenari, alkauetiri esate dxako, alkauetie.*

**formal, formala.** (FORMAL) Formal; responsable; serio.

**formaldu.** (FORMALDU) Formalizarse. || *Formaldu da beiñ edo bein!*

**formalidate, formalidadie.** (FORMALIDADE, formalitate-bat.) Formalidad. || *Karraskillu da beti kirri te mirri te eskapa, ta or dabillena. Karraskillue. Formalidaderi pakue esati les.*

**formaltasun, formaltasune.** (FORMALTASUN) Formalidad; responsabilidad; seriedad. Ik. *fundamentue.*

**forraje, forrajie.** Forraje. || *Forrajie ba, ori sati bet e erderasko berbi da, forrajie, forrja. Forraji, ba da, ser esangot neuk?, berdure klase bat, edo bedarra, edo forrajie, ganaduri emote dxakona, edo forraji ba ixte lei erromalatzie, ixte lei nabue, ixte lei ganaduri emote dxaken artue.*

**forrau.** (FORRAU, forratu-bat.) Forrar(se), hartar(se).

☐ *Esaterako, andre batek ume asko izan dituean esaten da: Ori be forraute dau ainbeste umegas.*

**fot, fota, pota.** (FOT) Chozna, pan francés. Emiliano Arriagak *fot* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Panecillo francés, largo y angosto usado

casi exclusivamente para tomar el chocolate". || *Len eitte sirin fotak. Oiñ estaitt eitten baittuen. || Ogidxe eitte sittuen... ba ritxek, da fotak. Fota apartekuaui xeten da, seinda ser esangot neuk?, ritxe bayo sakatuaui ixeten dala fota, baya oin fotik estabe eiñ eitten. Len panaderuk fotak eitte sittuen, da ba neu kridxeda Gerniken egon netzen urte batzutan, da fotakas atarate gendun goixiñ armosu jateko. || Fota a ritxe moduko astiñ-astiñe etzan ixaten. || Fota au bayo aundidxau da, au bayo sabalaue, da a len ibiltte san – oiñ estaki nik eitten badabe be fotik– ibiltte san e..., fota, sopak eitteko ibiltte san, sopak.*

**franbuesa, franbuesie.** (FRANBUESA) Frambuesa. || *Franbuesak, bai, urte baten geurin be erain sittun, baya estaitt, emen estire apriesieten franbuesak. || Estaitt nik orrek frenbuesak, orrek estakit mundik etorri sirin, da geu pe artu gendusen, baya bai, ba franbuesak beres gorri illunek dire, baya estaitt nik, orrek geurin be des ein sirien, da beste iñok ekarri basittun be-estakitt.*

**frenau.** (FRENAU, frenatu-bat.) Frenar. *Tragi emon eta tragi ein ere esaten da.*

**frenu, frenue.** (FRENO) 1. Freno. Ik. *galgie, tragie. || Galgi be bai. Da frenue ba, frenue orreri esate dxako, kotxiñari be. Da burdidxenari galgi esate dxakon len. Da oiñ esate tze burdiñari be "Frenu eidxok", baya galgi san len-len-len, sarrak galgie. || Tragie igul kotxiñari be esate dxako, "Esteu emon frenu" ero "Esteu emon tragarik". Ta iguel joten bouko erregurie, "Kaguen, tragias dxa pa, tragias!". Ero frenuas esan biarrin, tragias. 2. Frenillo (de la lengua). || *Minpekue jeneral umik eukitten dabe, ume gasti dirinak. Da eukitten dabe miñen aspidxen, amen eukitten dabe frenu esate dxako. Eitte tze galaso berba eitteko. Da berba eitten dabe apurtxut titili-potolo. Ori ebei eitten da.**

**fresko, freskue.** (FRESKO) Fresco. || *Guk estogu isten siketen, freskue jateu. || Babie freskotan be jaten da. || Bedar freskue esate dxako berde daunin. || Gasonesketan okela fresku gordete san gatza emonda. || Ba botate tzen ur freskotara gatza kentzeko. || Gero mendire eruteko, potiñek ibiltte sirien, apurtzen dirin potiñek. Nire gixona sanak naidxau ixete ban potiñe erutie emendik. Ure freskuau egoten da potiñin. || Oñestuk, trumoi gaistu ta onestu asko dabillenen, esnie presku ixen arren, galdue eitte san. || Lau anka eukitte ittu (erubik), burue suangilliñ antzeku ixeten da, eunditxuau apur bet, da jeneral eoten da leku freskuen, da erdi uretan esango neke nik, eoten da. || Orrek (erubiek) leku freskun oten dire, ur urrin daun lekun-edo, leku freskun oten dire ta estakipa, eurok ilten be eskara ibiltten benenu eukitten dabelako.*

**freskure, freskurie.** (FRESKURA) Fresco. || *Freskuri daunien, seinde freskuri eitten dabenin-da, denpora ona einde be, ba freskuri egoten da olan.*

**frontoye.** (FRONTOI) Frontón (cancha). Ik. *pelotalekue.*

**frute, frutie.** (FRUTA) Fruta. || *Ori frutie belu eltzen da.* || *Ondo ornidute dau ori (arbolie) frutias.* || *Okille, gabilloidxe da onek serok, orrek estabe jaten fruterik.* || *Da sartzen dxako estittu gure dosun frutie, altzau asala arbolieri, sartzen dxako begidxe, tapaten dosu, lotu kordel bategas eta ori da udekue, udeku etiketie, agostun.* || *Frutie paseute dau.* || *Plasara jun de fruta saltzen.* || *Jaidxoten da, loran barrun geratu, ta gero frutie eitten asittekun, kanpora urten suloute: "Ak arridxu deko".* || *Mallotu esaten da, esate baterako, jeusten danien, bigune badau frutie, mallotu eitten da.* *Baya geu pe makiña bat bider ein dus, gastik ixen giñenin be, olan be jota mallotu, ainke jateko.* || *Bueno 'mendau' eitten da arbolie, nai sagarra nai madaridxe nai keixi nai edoser arbola mendetan da norberak e gure daben frutara, mendetan da.* □ **fruta arbolie.**

Árbol frutal. || *Kari ona da fruta arbolantzat.* *Telebisiñoyen entzu naben lengo egunien. Bai, len be jakin dot ona dana, esta?* □ **gois frutie.** Fruta tempranera. || *Garagarrillin frutie eltzen da, gois frutak eltzen dire, a madari txikitxuk-edo, olako fruta batzuk.*

**frutu, frutue.** (FRUTU, fruitu-bat.) Fruto. || *Baya jeneral emengo elorridxek a, berak asten dabeniñ a frututxue, gorridxe asten da.* || *Landariri urtete tzoniñ e loratxuek, frutu ixeteko ixeten da.* *Landariñ e lorie ba axe ixeten da, loratxue frutu emoteko.* || *Frutu asko deke.*

**fu, fue.** (FUE) Triunfo (en las cartas). || *Fue: esate baterako, su basabis kopatara, triunfue kopie da, esta?, da dekosu ba errege kopie, edo seoser kopie, lagunek esan tzu: "Ipiñixu or fue!".* *Da suk axe ipiñiko su.* *Aspidxen dau karti lako.* || *Furik beukek?* || *Ni ixen enas bape briskelaridxe. Beti musin-de.* *Da briskelaridxek beti esango tzu: "Fue!"* || *Guk e fue bakixu seri esate tzeun? Trufue.*

**fuera.** (FUERA) 1. Fuera! || *Asto pekotza aintxiñe bakixu setako usete san? Erliri estidxe atateko, keye eitteko. Keye eitten deu asto pekotzak. Erliek keyek e kendu eitten dittu. Guk estidxe euki gendun, da asto pekotzas eitte san erliek kendu. Keye botaten deu, keye satarra, da fuera! A bastartu, erlie bastartu ein bi dabe panalak kentzeko. Axetako usete san.* 2. Aparte, fuera de. || *"Arnasestute" esate dxako igul e personiri, "Arnasie altu deko" esate dxako, apurtxu bet normaletik fuera eitten dabenari.* || *Betekadi da ba neurritti fuera jan dosun betekade.*

**fueru, fuerue.** (FUERO, foru-bat.) Fuero. || *Fueru sarrak.*

**fumatzaillie.** (FUMATZAILE) Fumador, -a. || *Gurin nire aitte pes, da gixona pes, iñois be es bata es bestie e kukulumutxu etziren plantetan, eurek jarri eitte sirin.* *Baya ikustot gixonak, sobre todo fumatzaillik kukulumutxu plantaute sigarru erreten.*

**fumau.** (FUMAU, fumatu-bat.) Fumar. *Fumau nahiz erre esaten da.* || *Fumau? Bai, fumau bai, naiku asko eitten dabe. Umi pe bai, deskoidau eskerun.*

**fundamentu, fundamentue.** (FUNDAMENTU) Fundamento, seriedad, sensatez o formalidad de una persona. Ik. *formaltasune.* || *Da oiñ e, oin badakixu, oiñ estau, oiñ estau fundamenturik. Oiñ estau artori pe, nabori pes, indidxabari pes. Oin jentik erresenena emon deu. Fabrikara jun, kotxien da jornala irebasi ederra, da piñu sartu.*

**fundidu.** (FUNDIDU, funditu-bat.) Fundir. || *Aspiko txoridxe brontzie ixete san, fundidunekue.*

**gaberdi, gaberdidxe.** (GAUERDI) Media noche. || *Gaberdidxe amabidxei esate tzaue. || Ba gabeko amabidxe diriñin ba gaberdidxe da. || Etorri da gaberdidxen. || Bai, ardaue te ogidxe ero olanik e gaberdidxen ero, da gau gustidxe erresetan eitte san.*

**gabikar, gabikarra.** (GABIKAR) Natural de Gabika.

**Gabike.** (GABIKA) Gabika, barrio de Ereño más próximo a Nabarniz. || *Gabike be Ereñoa da, elixi tte dana das, da Gabiken iltten diriñak, ba Ereño, erridxen erdidxen-edo, Ereño parte bat dau kanpasantue, ta Gabikeku pe araxe erute ittue iltte diriñien.*

**gabile, gabillie.** (GABILA) Tirafondo de la narria. || *Narrari baseta ipintte dxakona, gabillie esate dxako. || Gabillie? Egurre... Narra bakixu ser dan. Narrak aspidxen baseta eruten deu, beran aspidxen gastau esteidxen mateidxala. Se a mateidxala gastetakun ostabe barridxe ipiñi bi dxako. Da es gasteteittik, ba aspidxen geigarridxe ipintte dxako alako sididxeekin. Egurresko sididxe bidau, se gastau ein bi dau are pe bestias batera. Beti gastate dxakon. Da gero idxe gastate dauniñ e, narran egala atrapau orduko, barridxe ipiñi. Egurre aretxa ero olako ori, pagu nai e... || Gabilli esate dxako are beti gorako orreri... Suluk e... Iru sulo, jeneralin. Nar txikidxe bada, iru. Da lusi bada, lau. Suluk olan termiñu baten einde, beti gora.*

**gabilloi, gabilloye.** (GABILLOI, gabirai-bat.) Gavilán. Berriemaile baten arabera, *albixarridxe* eta *saidxerrie* ere esaten zaio. || *Gabilloyek ariñau korriten dabe. || Egu pe laburrauek dekos gabilloik. || Gabilloyek arbolan be, sostarrakin be eitten dabe abidxie. || Se guk e..., geuk e beti albixarredxe da suk esan dosuna, saidxarri be bai, saidxarri edo gabilloye. Amen berton kopradidxan be batzuk ori esa tze, e saidxarrie. Da beste batzuk gabilloye, da orixe da ba danak e..., dana bat e die. || Gabilloye esate tze. Amen e ikustot..., oiñ emen ibiltten da beti egunaro bat, da guk orreri beti albixarridxe. Gu geuk e len ba..., saidxarri be bai, esate tze, baya guk e beti albixarridxe. Gure amak beti albixarridxe esate ba les, andixik e beti kostunbrie. || Saidxarrie aundixau da gabilloi bayo. □ **gabilloi nausidxe.** Variedad de gavilán. || *Emen bai, batzuk esaten dabe buitri. Buitri tire orrek aundidxe, da orrek e buitri esate tze orreri. Amen e... Burgos aldín-de orrek ibiltten dire asko. Emen guk e orrei gabilloi nausidxe edo olaku esate tzeu. □ **gabilloi txikidxe.** Cernícalo vulgar. || *Da beste batzuk esate tze..., gabilloye be esate tze. Ba gabilloye..., gabilloyek e..., gabilloi txikidxa da gabilloi nausidxe esate tze orreri batzuk. Besti gabilloi txikidxe txikidxau da asko be, amen txori txikidxei-de segite tzena. Gitxi da baya ibili ba banekak ibiltten dire. || Agaitti pa oneri gabilloi txikidxe esate tzeu guk***

*orreri miru txikidxeri. || Gabilloi txikidxe... onek e txori txikidxe-eta atrapete ittuna yuuuuuu! junde.*

**gabiota, gabiotie.** (GABIOTA) Gaviota. *Itxostxoridxe* ere entzun daiteke.

**gabon, gabonak.** (GABON) **1.** Buenas noches. || *Gabon! 2.* Las Navidades. || *Gabonetan bertan barik, gabon eurreko domekan batzen gara. || Intxaur saltzi guk e gabonetan eitte gentzen. □ Gabonetan keixak!* esaten da, gabonetan ez delako *keixarik* egoten. Era horretan aditzera ematen da eskari bat epez kanpo egiten dela edo ez dagoela egiterik. □ **gabon egune.**

Día de Nochebuena. □ **gabon erregalue.** Regalo de Navidad. □ **gabon eskie.** Cuestación por Navidad. || *Gabon eskien. □ **gabon gaba.** Nochebuena, la noche de Navidad. || Gabon gabien eiñiko apidxue. □ **gabon kantie.** Villancicos. || Gabon kantie, gabonetan kantetan dan kanti da ori. □ **gabon kantuek.** Villancicos. || Gabon kantuek galtzen doyes, len asko, gure gastetan asko, baya oin ya gastetan doye. □ **gabon madaridxe.** Pera invernal. || Gabon madaridxe beranduko madaridxe da. □ **gabon saridxe.** Regalo de Navidad. || Gabon saridxe: esate baterako, errekaduk eitten diriñien denda baten, ba igul emoten dabe ba turro bat, edo menbrillo sati bat, da ba gabon saridxe.*

**gabonsar, gabonsarra.** (GABONZAHAR) Día de Nochevieja. || *Gabonsar eguniñ ikusi naben. || Erregen egune esate dxako. Orrek gabonetako... Gabonak da gabonsarrak, ta gero errege egune.*

**galanperna, galanpernie.** (GALANPERNA) Cistoderma (*Cystoderma* sp.). || *Galanperni sarri jan dot. || Galanpernie pentzetot beranduau. Galanpernak. Onek Albertok eta onek batze ittues. Bai, urridxen pentot batze ittula.*

**galant, galanta.** (GALANT) **1.** Hermoso, elegante, apuesto. **2.** Corpulento, grande, enorme. Ik. *demasa, itzela. || Galanta ixen da! || Perra galanta. || Su galanta. || Isku galanta ixen dok. || Basatzie, aintxiña emen etzaurrien euen galanta. || Golpe galantak emote ittu aixik. || Tronkada galanta ein deu! || Patxada galantekue dok ori be! || Ardi bandie dekonari-tte, igul: "Aldre galanta dxekok are pe!". || Kuadrille galanta jun dok an be! || Tripi deko galanta, bier asko eitteko! || Bierraldi galanta ein dxuat! □ Batek gezur haundiak esaten ditueanean, honela esaten da: *Are pe galantak botate dxusak. □ Batek eskuak haundiak badauzka, honela esaten da: || "Arrega galanteko gixona", igul atzamar aundidxe boukos.**

**galarren, galarrena.** (GALARREN) Galerna. || *Igul udan eitten deu bero, aixie ta berue, trumoidxe egon*

es arren, aixie ta berue ta ordun, berue daunin: "Galarrena dau gaur". || Galarrena: bero aundidxe daunin.

**galaso.** (GALAZO, galarazi-bat.) Impedir. || Galasota dau oin. || Tabakue eraittie etzan egon galasota. Biar aundidxe eukitten deu, da itxi ein gentzon. || Minpekue jeneral umik eukitten dabe, ume gastu dirinak. Da eukitten dabe miñen aspidxen, amen eukitten dabe frenu esate dxako. Eitte tze galaso berba eitteko. Da berba eitten dabe apurtxut titili-potolo. Ori ebei eitten da. || Kaguen, senbat biar galaso bistasun!

**galautz, galautze.** (GALAUTS) Harija, granja (polvo y residuos del trigo). Ik. txibue. || Da a garidxe jote san, da gero, oin be badekogu ori garbittekue, garbitteko bentiladora, da an garbittu eitte gendusen. Da a galautze aixiek bota eitte ban aurrera, da garidxe atzera. || Galautze: gero garidxe jote tzeseniñ e, ari soltau eitte dxakon. Dana a garauntxun asala soltau eitte dxakon da galautze ixete san.

**galbana, galbanie.** (GALBANA) Galbana, pereza, desidia. || Au dok galbanie!

**galbatu.** (GALBAHETU) Cribar, tamizar, cerner. || Artue galbatu eitten da.

**galbaye.** (GALBAHE) Criba, cedazo que se usa para las alubias, etc. Ik. baye, artzie. || Galbayeri erein. || Galbaye da beste bat, indarra da orrek eitteko, sulo aundidxe dekona; baye ixeten da sulo txiki-txikidxe dekona, fin-fiñe, ogidxe eittekue. || Inderra galbayen pasatu bi dot. || Baye ixeten da urune pasetakue, uruneri saidxe kentzeko. Baye estu-estutxu ixaten da, alanbrada estu-estu ixaten da, da areri urune paseta dxako, ta sairik etxako pasetan. Baya galbaye ixeten da, ba esate baterako, nai indarra pasetako, nai artu pasetako; da botaten deu, ba, se esangot neuk?, berak dekon loidxe, ba galbayeri ba sulutxutik bera jeuste dxako, erain da eraiñ einde. || Galbaye alanbrasku ixeten da, ta an esin lei urik erun. || Galbaye? Kribe bat, sastarreridxek apartetako.

**galda, galdie.** (GALDA) Calor, intenso, abrasador; candente, ardiente. || Euski galdie. || Galdie estator makala! || Bero galdie dau. || Galdan dxak gero! || Burdiñie galdan dau. || (Karabidxetan) egurrek esteu emoten galdarik. || Karabidxe es. Karabidxek galdi beti. Betegarridxe sartu de bertan dana ein bi deu, sue pasau bi deu dana, asi goidxen da gorarte. || "Atzeko otzik etxok pasauko" geusa askotarako esan leike. Iguel, eguski berue, ta biarrin-da "Are pe etxok atzeko otzik pasauko!", galdias.

**galdara, galdarie.** (GALDARA) Caldera, olla. || Ittukuran galdari ipiñi, galdari ittusurik beteko dxok eta!

**galdarille, galdarillie, galdailie.** Caldera pequeña para cocer la leche. Iñaki Gamindek berba honen antzeko bat batu du Gatikan: galdarilla (Gatikako Euskaraz). Jose Maria Ormazak (Anuario de Eusko

Folklore, 30/1981, 39. orr.) Andrankan batutako laratuari buruz honako hau dio: "Fue de uso común colgar un recipiente llamado "Galdarille" que servia para cocer la leche". Nabarnizen galdatxue esaten da gehiago. || Galdailie ixete san: antxiñe esni-eta egosteko latza egote san beko suten, txaparik esan egoten, da beko suten latza egote san, da asta bat euken, metalesko katxarro biribil bet. An egoste san esnie. Ori da galdatxue. || Esnie egosteko ixete san katxarro bat, burdiñeskue; beko suten eskeitte ipintte ben, latzien. Da orreri deitzen dxakon galdailie. || Galdailie ipintten san bertan galdailan esnie egosteko. || Nik pentzetot galdarillie, olan suten ibiltten dan galdariri, edo orreri galdaratxuri, guk olan suten-edo ibiltte gendun galdariri esate gentzon galdarillie, da orreri galdatxue.

**galdatxu, galdatxue, galdaratxue.** (GALDARATXU) Caldera pequeña para cocer la leche. Sin. galdarillie. || Galdatxue da a latzari inkeute esnie egosteko usete sana. || Galdatxue, esnie egosteko ontzidxen ixena galdatxue da, ari aspidxen eitten dxakon arraukie. || Galdatxue an dau geurin be ugerres beterik, an, jun daneko urtes ibili be estin-de. Len beko suen axe ibiltte gendun esnie egosteko. || Galdatxue estai guriñ e oin badau. Makiña bat denpora egon san geldi. || Arto sopie? Artuk erre laban –oiñ estaus erre be eitten– da gero esnias jateko sopi ein, sopa fin-fiñe, da egosi galdaratxuen. || Galdara txikidxeri galdatxue. Gero astias ipiñitte serin... Arto sopa, arto sopatan eitten, egosteko. □ Galdailie baino gehiago esaten da galdatxue: || Galdarillie? Bai, batzuk galdarillie esate tzen, baya emen galdatxu esate dxako.

**galdau, galdeten.** (GALDAU, galdatu-bat.) Caldear, poner al rojo. || Burdiñe suten ipintten dosu da galdau; gorri-gorri eitten da galdeten danien.

**galde.** (GALDE) Pidiendo. || Galde etorri. || Tratantiek-eta galde, erosteko etorten direnien: sekorrik-edo badauke? || Botikara jun san botikien galde. || Diruen galde dabil. || Ur bille uren galde doiñari esate dxako: "Ur bille jun da".

**galdu, galtzen.** (GALDU) 1. Perder. || Ure galtzen deu. || Galtzen egon dok, baya kittutu ein dxok. || Erabilekeran galduneko serak dire, bittartien berbak edo letrak galdunekoak. || Lau kilo galdu dittu. || Irebasidxek galdu dxusak a pe. 2. Corromperse bebidas o alimentos. || Askok esaten deu "Ebeitte dau". Guk esateu e jeneralien "Esni galdute dau". Guk e gastetatik "Galdu ein dok esnie". Esni galduek estau gora igoten. A bol-bol-bol-bol, da igon es. 3. Abortar. || Kunie galdu dxako. || Oñestuk, trumoi gaistu ta onestu asko dabillienien, esnie presku ixen arren, galdu eitte san. || Orma errimun egon nai egon es esnie, trumoi geistu dabilleniñ e, galtze sittun. 4. No tener remedio, estar perdido. || Personie gadute dau odola

ure eiñ eskero. Geixu ixeten da ori baya. Diferente geixue. Batzuk geixue, ba odolak ure ein dxakosela. Ori geixo raru da ixetes e. **5.** Matar, hacer perecer, destruir. || *Jorratu atxurreas: lurte arrotu, bedarrak galduteko-ta, bedarrak galtzeko.* **6.** Extinguirse. || *Da gero badau keixa bat e..., alakorik estot pentzan gelditzen danik, morau e esate gentzona da berandutxuau, gorridxe bayo berandutxuau eltzen ei xan, baya oiñ e, alan da gusti be piñuk sartu sirin de galdu ein sirin.* || *Gabon kantuek galtzen doyes, len asko, gure gastetan asko, baya oin ya gastetan doye.* || *Oin perretxikuk galdu ein dire. Oiñ e basutan sakin dau les, da estaules e ori, pagorik-eta, atxa ta len bayo gitxiu. Piñun estatos.* || *Ori eitte san tartien urten esteidxen beste bedarrak. Se mies badau, galtzen-galtzen juten da, da bidxen bittartiñ ostantzeko bedar sikiñek urtete tzo. Askidxe ta orrek.* □ **alperrik galdu.** Echar a perder. Ik. urdinu, arenak ein. || *Kipulak alperrik galtzen dire sildute.* || *Da a ogidxe esta alperrik galtzen urte gustidxen be. Esta es lixundu, es alperrik galtzen.* || *Serenak jan dabe, alperrik galdute dau.* || *Mermeladie alperrik galdu esteidxen luseruau e euki biar ixaten da irakitten, baya ori (madari saltzie) be ba segidxen jateko ta ba, ondo eoten da.* || *Ondasunek alperrik galdu ittu.*

**galga, galgie.** (GALGA, balazta) Freno (del carro). *Galgie baino gehiago tragie esaten da. Dena dela, galgie gurdien lexikora mugatuta geratu da; autoen kasuan frenue esan ohi da. Ik. tragie.* || *Galgi be bai. Da frenue ba, frenue orreri esate dxako, kotxiñari be. Da burdidxenari galgi esate dxakon len. Da oiñ esate tze burdiñari be "Frenu eidxok", baya galgi san len-len-len, sarrak galgie.*

**galipot, galipota.** (GALIPOT) Galipote, alquitrán, brea. || *Txilindrue kamiñutan ibiltten dana esate dxakon len, olanik, galipota botaten ibiltte sana, ta sapaltzen ibiltte sana.* || *Galipota, da galipota sabaltzen. Da galipota orduko, len, arridxe botate san, arri tamañue, eskus ein biste san, da arexek arridxe plegetan be txilindru ibiltte san. Da gero galipotin beti ba a sapaltzen be txilindru.* □ **galipot makiñie.** Máquina de alquitrán. || *Galipot makiñie: galipota sabaltzen dabena, makiñie, oiñ esta ikusi be eitten alako makiñarik. Len ibiltte siriñ urte biri baten-edo, iru urteri baten-edo-ta, arri sulutan botate san suluk tapau-te eitteko-ta.*

**gallarda, gallardie.** Marimandona. || *Ori da gallardie!* || *Ori da gallardori!* || *Gallardie: olan apur bet lotzabagi danari-edo. Asko agintzen dabena be bai.*

**gallardona, gallardonie.** Airosa. Ik. arrue. || *Gallardoni: enbrari esate dxok ori jeneralien. Eundidxe, ta ederra-ta, arru. Batzuk esate tze "Ori arru da!". Bestik igul esate tze: "Jo, gallardoni dok!". Da ba errespetu modun eitten deunari.* || *Ondo jantzitte, bera*

*enbrie-edo bada ona, ederra-edo, ori, da gero susen ibilli: "Gallardoni e!".*

**gallego, gallegue.** (GAILEGO) Gallego. □ **gallego aixie.** Viento oeste. || *Gallego axie, egoidxas nastin, Galixie partetik. Egoidxe emendik, Ois, Urkiola aldetik etorten da egoidxa. Da ori bestie etorten da emendik Gernike, Bilbo, seretik etorten da, axe indertzu, fuertie ixeten da ori.* || *Axe otzari esate dxako gallego axie.*

**gallikidxu, gallikidxue.** (GAILIKIO) Ballico. || *Bedar bat da gallikidxue. Gallikidxue, nik pentzetot gari artiñ egoten dana dala.* || *Oin gariri pe-esta eraitten. Askanengo emen ingerun erein gendunak geu ixen giñen, da gallikidxue ba ser ixaten dan esango dot. Garidxen antzeku ixeten da beres gallikidxu, baya esta garidxe ixaten. Ixaten da ba, esango neke nik bedar bat ixaten dala, bedarra be ba, esate baterako, asidun bedar bat, gallikidxue.* || *Txakurrek jaten dabe bedar klase bat, ni enas kargutu sekule be selaku jaten daben, da gero gomittau eitten dabe, baya gallikidxue estot pentzetan ixengo danik.* || *Gaindikidxue jan, da gero errebesau eitten dabe, benenue artzen dabeni en errebesau eitten dabe.*

**gallinero, gallinerue.** Gallinero. *Ollotokidxe gehiago esaten da.*

**gallur, gallurre.** (GAILUR) **1.** Cresta, cresterío. *Mendi gallurre mendi gaina luzatzen denean esaten da; mendi tontorra, ostera, ez.* **2.** Cumbre, caballete del tejado. || *Gallurre goidxe da.* □ **gallurreko agie.** Cumbre, caballete del tejado. Ik. goidxagie, kaperidxue. || *Gallurreko agie esaten da nausidxe, araxe doyes orrek kaperidxuk. Da gero aren ganin latie, da latin ganien tellie.* □ **mendi gallurre.** Cresterío. || *Mendi gallurre? Altun dauna, tunturre.* || *Mendi gallurre? Gana, mendidxen gana.* || *Mendi gallurre ganiri. Arrolan be mendi gallurre.* || *Mendi gani da sertzau, onen mendidxen antzien, mendi ganie ori. Da gallurre da sorrotzaue.*

**galondo, galondue.** (GALONDO) Rastrojera, terreno de rastrojos de trigo. || *Galondue da garidxe ixen da, ixeten dana, garidxe ebaten danien, arixerri esate dxako, ereiñekuri, ebaten danien, da eser barik gelditzen danien galondue da. Galondue emen ba..., oin garirik esta eraitten, baya galonduen len eraitte gendun nabue negureko. Oin ba nabu be eraitten bada, asko esta eraitten da ba, galondun esta eraitten beintzat. Da galondue ixaten da, baitte bedarra eraitteko, sekule bedarra-edo eraitteko be, baitte len prantzesa be asko eraitte san e, a, goiburue gorri-gorridx-aste ban.* || *Galondue: ori garidxe ebei tte gero. Oiñ estau garirik eta. Artondue be bardiñ esan eitten da. Ondue, ondue ba ya an geratzen dan trukutze, ondue.* || *Galonduen nabue erein du.* || *Galondun ein dxuou nabue erein.*

**galopin.** (GALOPAN) Al galope. || *Saldidxe galopin jun dok.*

**galtzaille, galtzaille.** (GALTZAILE) Perdedor, -a.

**galtzarpe, galtzarpie.** (GALTZARPE, galtzarbe-bat.) Sobaco Ik. *besaspidxe*. || *Galtzarpi be egostute esaten da. An erreta bakosus, erre egostu, erdix erdidxen ein dan geusie, egostu. Jeneraliñ e esaten da galtzarpik olakorik, "Kaguen, galtzarpi dxas egostute", an erretasune, egostu.*

**galtze, galtzie.** (GALTZE) Pérdida. || *Ori da galtzie!* || *Broma bat ixengo dala pentzute da gero galtze aundi bat ixen san.*

**galtzeru, galtzerue.** (GALTZERU, altzairu-bat.) Acero. || *Galtzeruskue* || *Galtzerue da burdiñeri inketen dxakona, askorak-eta eukiten dabe an aguen, ondo sartu daidxen, axe ixeten da galtzerue.* || *Palankie burdiñesku ixeten da, burdiñeskue, galtzerosku edo nik estaitt selaku ixaten dan.* || *A piesik galtzeru dxekok.*

**galtzo, galtzu, galtzue.** (GALTZU) Rastrojo, paja. || *Galtzu fardue.* || *Galtzuk apurtzen dxakos gariri, da gero arek eskubarias kentze siren, ganaduri emoteko.* || *Lastue da artuna, Garidxena da galtzue.* || *Beidxeri eskentzen joten, garidxe eraitte san len, da beidxeri eskentzen joten, baya txalari emoteko galtzue, antxe lasto serran jo eitte gendun, olantxik, ebei eitte gendun, da ebeitte naiku satitxu txikidxek ein be bai, txalak jan deidxen. Beidxeri es, beidxeri osorik emote gentzen.* || *Len e mendire jute giññi asko, ta mendittik ekarri, da bedar sikuek sabaidxan gordete sirin. Da gero galtzue -garidxe be eraitte san- da galtzue, ta negureko jateko iste san, sabaidxe bete, da artu be ara asko artze san da lantziñ e txapatxu batzuk e emon ganaduri e, bakotxiñ otzaratxu bet-edo ekarri tte partidu danari axe.* || *Udan bedar igerrrik jeneral etzan urteten, denpora txarrak egon esik. Se udan gordete san bedarra, bedar siketunekue, sabaidxen gordete san da negun emote dxaken, galtzun eurretik-edo, da galtzu askanien emote dxaken.* □ **galtzu asaue.** Haz de paja. || *Kuretako, txorixuk konserbau eitteko, galdu esteidxen. Otzas ein biarriñ antxe, galtzuas eitte san. Etziñ egote sa les galtzu asaue, asaue se kabillatxu modukuk, da aretxe, a ebei, se-se, da a gero nastau-nastaute einde, txorixu artien dana, txorixuk tapaute ta ariyas, nastaute.* □ **galtzo birriñe.** Brizna de paja. || *Galtzu botate dxako osaliri, soltie, gero dijestiñoyen plantau deidxen. Galtzue. Galtzo birriñek, galtzu botaten badetzesu ba, gero besti, osali bera, masi da les, dijestiño laguntzeko.* □ **galtzu serrie.** Especie de hoz empotrada en la pared para cortar el rastrojo o paja que se da a la ternera. || *Galtzu serrie? Garidxe txalari-tte emote gentzen, antxe, antxe ebeitte. Eukitte ban..., sartute egote san e... Egote san sartute, da an serran galtzu ebate gendun txalari emoteko. Bera, seinde kodañen antzeku ixeten da, da antxe jota txalari emote gentzon galtzu.* || *Galtzu serrie: galtzu txikittuteko.* □

**galtzu trilleue.** Paja trillada. || *Etorten dire ba farduek, galtzue txiki-txiki einde, galtzu trilleue axe da. Ganaduntzako.* □ **txori galtzue.** Trigo de espiga pequeña. || *Txori galtzue da garidxe buru txikitxue edo metxuaue eukitten dabena bestie bayo, baya oiñ ori be estaitt iñun eraitten bada, lenguk eraitte gendun baya.* || *Txori galtzue da burun txikitxuau ta asten deu, baya ixeten da e..., se esangot nik? Txori galtzue ixeten da..., oiñ erain be esta eitten galtzorik ta ya gari ogi suridxau ataraten dabena: txori galtzue.*

**gan, gana.** (GAN, gain-bat.) Punta del *akulue* o agujón. || *Gan sorrotzeku da akulue.* || *Gan sorrotza deko arek.* || *Limias gastau eitte dxako burue, da punti esarten da egurrien, da buru dana gastau eitte dxako limias, da ba gana sorrostute, olan gantxu bat eukitten deu ganak, beidxeri siki eitte tzo.* □ **akulu gana.** Punta del *akulue* o agujón. Julen Urkizak eta Luis Baraiazarrak Frai Bartolomeren idatziei eginiko edizio kritikoan honela azaltzen dute: "Aculu gan: akuiluaren muturreko eztena edo burdinazko ziri zorrotza; (umetan ikasi genuen betiko hitza da)". || *Akuluri guk e punti ero gana esate tzeu. Gana. Gana bakixu ser dan. Untzie. Untzi sartze dxako olako palo bateri, da axe da gana. Da batzuk esate tze ba akulu puntie, akulu gana.*

**ganadu, ganadue, ganaue.** (GANADU) Ganado. || *Armera ederreko ganadu dok.* || *Ganadue gobernau.* || *Bueno, ganadue! Geu pe amabi-amairu eukitte gendusen. Da oiñ e sei-saspi geidxen.* □ **ganau busterridxe.**

Yunta, par de vacas uncidas. □ **gana jatekue.** Comida del ganado. Izan, *ganadu jatekue* da, Frai Bartolomek (606. orr.) erabiltzen zuen bezala: "Vijamoneco ganadu jaatecua batceia jai domequeetan ez da ondo, chito premina andija ez dauanian". || *Gana jatekue: ori da bedarra, edo ganaduk jaten dabene geusie.* || *Gana jatekue ganaduk jaten dabene geusi da, da ixen lei bedarra, ixen lei nabue, ixen lei arto gorridxe be, gose danin jaten deu are pa.* || *Da areri eitte dxaken, ba, estaunin gana jateko, gitxi daumiñ udan-edo, orridxe itxi dxaken, ganaduri emoteko: asmotzak.* || *Pagotxa, ori batzuk..., guk emen prantzesa esate gentzona, orreri bedarrari. Oiñ erain be esta eitten. Len eraitte san, nabu eraitte san lekun-edo, ba gana jatekue ugeritzeko.*

**ganbara, ganbarie.** (GANBARA) Desván. Zaharrek goiburue esaten diote. *Kamarie* ere asko entzuten da. || *Nora soyes? Ganbarara.* || *Ganbarie bete du dana.*

**ganbarakada, ganbarakadie.** (GANBARAKADA) Desván lleno. Uzta ugari batzen denean esaten da. Ik. *goiburukadie.*

**ganbela, ganbelie.** (GANBELA) Pesebre, gamella donde se daba el grano al ganado. || *Ganbelie ganaduri pentzuk-eta emoten dxakun kajie da. Len kaja pa aska sarrak-eta egote siren, porlanesku bakuk, da ganbeletan jaten emon.* || *Jeneralien oleskuk dire ganbelak.* || *Ganbeli beidxeri jaten emoteko kajatxue*



da, lau kantoko sera, an pentzu emoten dxake. || Askan alperrik galdu esteidxe, garaune emoten dxake an, ganbelan. || Ganbelie ixeten da egurrezko askatzue, pentzu emote dxakona ganaduri. || Kajie. Kaja ba ta ganbeli. Aska sarrak-eta dekesenak, ganbeli beti len usete san. Oiñ e guk geu pe porlana dekeus, da porlanie, bota arren pentzue, ondo batze ittue. Baya lengo aska sarretan, danak bittartik eta karkabi tte orrek da ganbeli imintte dxakuen. || Ganbelak eukitte gendusen, senbat e bei, arenbeste ganbela. Bakotxa berie ipiñi.

**ganbelakada, ganbelakadie.** (GANBELAKADA) Contenido del pesebre, cantidad de grano que se depositaba en la gamella para el ganado. || Ganbelakadi bai. Ganbelie da pentzu-te emote dxakona. Jeneralin ba lau kuadrako orrek e... Ganbeli bai. Ganbelakadi da asko emotie. Ganbelan gitxi emoten bada, ba ganbelakadi esta, espabe, "Ganbelan emon tzesu jaten". Baya bestik e emoten batze pillu, "Jolin, alako ganbelakadi emon tze!".

**ganbelu, ganbelue, gangelue.** (GANBELU) Estúpido, -a, necio, -a, tonto, -a, lerdo, -a. Sin. *enbeleju*. Ganbelue nahiz gangelue esaten da. Berba hau erabiltzeko ohitura handirik ez dago. || Bai, alkarrerri unik esate tze, asarratzen diñin-edo, gangelu bai tte ganbelu be bai, baya estau emen kostunbrerik ori berbi ori esateko. Len esan eitte san, oin bayo geidxau pentzetot nik. Oingo unik edukasiño geidxau euki-edo. || Ori da ganbelue!

**gane, ganie.** (GANE, gain-bat.) 1. Parte más alta, superficie superior; encima, sobre. || Busterrri ganie. || Burkanie da a ganie, erreillan ganie. || Sasi gustin ganetik eta edoi gustiñ aspittik. || Ipiñi xu ganetik estalki geidxau! || Saldidxen ganin. || Astun ganin. || Baya saldidxek nobera ganiñ eruten dabeniñ, estau biar jotekorik. || Eperdidxen ganera jausi da. || Trumo bedarra esate tzeu de olan useintxue botaten deu. Da ganie eukitten deu suri-suridxe. || Saidxe da asala, despojue. || Kurtzeane? An kurtzeru dause les, kurtzi... gane. Goidxen dau les, gane, gane esate dxako altu daunari. Da a Kortasubin be Ganeko, areri... taberni badau an e..., areri Ganeku esate tze, altu daulako. || Gastañarrue? Bai, gastañarrue esaten da, gastañiri, barru utze dekonari. Ganie, asala ta ganie, da barru utzik. || Egurre gitxi da arridxe asko, noberan kaltegarri da. Gero ganie erreko dxako baya barru etxako erreten. Frakasu deko. 2. Cama del carro. || Burpildune ixete san trakulu. Burpil bi eukitte sittun, baya ganen laburre eukitte ban, se axe sujetetako besteko gani eukitte ban. □ **ganeko arridxe.** Piedra de moler volandera. Ik. *bekarridxe*. || Ganeko arridxek eukitten deu sulue, granue jeusteko. Da onek toberi botaten deu ara erdiko sulora granue. □ **ganes gan.**

De cumbre en cumbre. || Ganes gan jutun gara. □ **ganeti bera.** De arriba abajo. || Da ganeti bera bota

ure, irakitten dauela, ta erropa, antxiñeko ixerak ta orrek, koltxa asalak-eta garbitzen suen. □ **-en ganien.** Acerca de, sobre. || Berbetie ibilli dxuek aren ganien. || Neu pe estakit seren ganiñ ixen dan. Dudi euki gendum ba. || Konbertasiñoie eukiko ban orren ganin be. □ **mendi ganie.** Cumbre o cinta de monte. || Mendi ganie? Ba leune-edo ixen biko deu. || Mendi ganien dau. || Mendi gani da sertzua, onen mendidxen antzien, mendi ganie ori. Da gallurre da sorrotzaue. □ Ondorengo adibidean azaltzen den bezala, mendi tontorra zorrotza da eta mendi ganie lauagoa da. || Mendi tontorra diferenti da. Mendi tunturra da olako sorros bat ixeti mendidxen. Olan punte modure eukittie. Mendi gana da ba... Gana esate baterako, asi an, Illunsarren da ona bagatos, da onek mendidxek, mendi ganin. Da mendi tontorra da bat, mendi bat ixeti olan sorrotzera, tontorra eukittie. □ **ganes ein.** Rebosar, desbordarse. || Esnik ganes ein deu. || Errekik ganes ein deu. □ **ganie artu.** Cubrir, tapar. || Ganie artu idxosu plastikoas-edo, seoser busti esteidxen.

**ganera.** (GANERA, gainera-bat.) Además, encima. Además ere esaten da batzuetan. || Ganera ori esan! || Ganera ein dxok a be! || Orres ganera. || Orresas ganera. || Da gero joten danin-da ba, ludoye agertze dxako, ta alaku ba errotaridxek es eben gure ixaten, se urune baltzusi ataraten deu te, da jagi be ganera esta ondo eitten ludoi deken garidxen urune. || Makuk geurin be badas. Da etzin be estas ganera. Len erlatokidxe ixen san lekun das.

**ganerako, ganerakue.** (GANERAKO, gainerako-bat.) Lo que sobresale por arriba. Ik. *gorakue, kapelerie*. || Eske kapelerias on dok. Ganerakue dxekok.

**ganeren.** (GANEREN, gaineren-bat.) El, la, lo que más arriba. || Magala esate dxako emen... Oiñ esta ibiltten, andrak e gonari pe estabe ibiltten, ganeko gonari pe. Da len esate dxakon magala arixerri ganeren erun bi xen goniri.

**ganerengo, ganerengue.** (GANERENGO, gainerengo-bat.) El, la, lo más superior, lo de más arriba. || Abrigue esaten dxako neguen otz daunin jansten dana, ganerengo jansten dana, abrigue.

**ganes, ganesa.** (GANEZ, gainez-bat.) Agua que rebasa el nivel de la presa y canal del molino. || Ganesa da ganeti doyen, ganetik pasetan dana. Ganesa da ya presi beteta daunin, ganetik jeusten dana. Sobran doyen ure. □ **ganes ein.** Rebosar, desbordar. || Esnik ganes ein deu.

**ganeska.** (GANEZKA, gainezka-bat., gaidika) Rebosando, desbordando, rebasando; a rebosar. || Errekie ganeska doye. □ **ganeska ein.** Rebosar, desbordar. || Ganeska ein deu.

**ganga, gangie.** (GANGA) Ganga. || *Ori da gangie!*

**gangar, gangarra.** (GANGAR) 1. Alocada, atarantada, fatua. Gizonezkoekin astue, astakunie edo sorue esaten da. Sin. *drogosie*. Emiliano Arriagak *gangarra* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Muchacha retozona y poco trabajadora". || *Gangarra enbiri esate dxako, edoselan dabillenari: "Gangarrori!" Gixonari ba sorue, edo satar bat: "Soro garbidxe!"* || *Neska banderiori!": erdi gangarra bada.* || *Ori da gangarra!* || *Gangarra da ori!* 2. Fatuo (aplicado a acciones o comportamientos). || *Ganora bako berba gangarrak esan dire.*

**gangarkeridxe.** (GANGARKERIA) Tontería, fatuidad.

**gangarreridxe.** (GANGARRERIA) Tontería, fatuidad. || *Andrie bada gangarreridxe, gangarra edo, da gixoneskue bada astokeridxe.*

**gangartasun, gangartasune.** (GANGARTASUN) Necesidad, falta de juicio o de sentido. || *Gangartasune selan esangot dala? Umik olgetan-da ibiltten diriñin-de ba umiri esate dxake: "Gangartute dabis".*

**gangartu.** (GANGARTU) Engreirse, infatuarse. || *Gangartu: edoser eittera parau, edukasiño barik, edoser esan, edoser bota.* || *Gangartute dabillena, edo erdi gangar antzeku danari ba baldarra be esate dxako.* || *Ori "Santartu ein da" esango neke, onetan ganaduri, seinde idisko bat e gangartu, edo santartu eitten danien e, da emakumik domenetan estabeniñen, gixoneskuk biar ixate ittu te, "Santartu ein dxako txalari" esate da.* || *Astue gangartute dabil.*

**gangil, gangille.** (GANGIL) Gandul, desmadejado. Ik. *kankallue*. || *Gangille: bai, apur bet ganorabaku-edo bada, bai gangille esate dxako. Altue, olan mal gitxiku-edo.* □ *Gangille eta kankallu bat ote ziren galdetu nion berriemaile bati eta honela erantzun zidan: "Bai, kontixu, bat dire, gangille, da kankallu ba eundidxeri esate dxako, normala bayo aundidxau danari, estaipa nik. Da gangille be ba antzeku da.*

**gangur, gangurre.** (GANGUR, gangar-bat.) Cresta de las aves. || *Txikitxuten ollaskuek da ollandak esiren... etxaken igerten, da gero piskat gangurtxue urteten asten sanien igerten dxaken.* || *Emen ikusi be esta eitten ur ollarrik. Orrek errekan-da ibiltten dire, seinde ollarra lako kangurtxuas, ur ollarra.* || *Gangurre? Olluk eukitten dabena, gorridxe.* || *Gangur gorridxe deko.*

**gangux, ganguxe.** Memo, -a, simple, necio, -a, sinsustancia. Ik. *mal bakue*. || *Ganguxe: sentzun asko estekon personari: "Ori da ganguxe!"* || *Ganguxe da mal baku, sentzun gitxiku-edo.*

**ganora, ganorie.** (GANORA) Destreza, habilidad, soltura. Ik. *sustentzidxe, trentiñe*. || *Andra bako etzien estau ganorarik.* || *Suk dekosu ganorie!* || *Ganorarik esteko.* || *Ori da ganorie!* || *Aren alabie ibiltten da*

*ganora barik.* || *Tropie da, ta geusak ganora barik eitte ittu.* || *Sen bakue: ganorarik estekona.* || *Troskille, edoselan e ganora bari dabillena, traskil garbidxe.* || *"Sisko einde dau" esate dxako ba esetako ganorarik estekonari-edo, ya bertan bera les egoten danari-edo.*

□ **ganoras.** 1. Con fundamento. || *Mirrixu laku an dau, estau ganoras jaten.* || *Nire amak es eban jakin berbari pe ganoras erdera, aitte pai, baya amak es.* 2. Abundante, que merezca la pena reseñar. || *Oin pague estau ganoras-da!* □ **ganorasko, ganoraskue.** Algo hecho con maña, remango, fuste. || *Ori da ganorasko bierra! (ondo eitten danin).*

**ganorabakatu.** (GANORABAKATU) Volverse insustancial. || *Ganorabakatu eitten deu edanak.* || *Ganorabakatu eiñ arte edaten deu.*

**ganorabako, ganorabakue.** (GANORABAKO) Desmañado, -a; torpe, insustancial, negligente, sin fundamento. Ik. *taidxurik bakue, traskille, saputze, suster bakue.* || *Kontestasiño ganora bakue emon.* || *Ganora bako berba gangarrak esan dire.* || *Ori da ganora bako bierra!* || *Ganora bako jentie.* || *Geusak molda barik eitte ittunari ganora baku esate dxako.* || *Eiñ eitten deu berba geure moduko ganorabakukin de.* || *Lelengotan jaidxokeran, umie. Da gero soldautzan be umi ixen bier, se iñun dixen orrek ei tzes, da gixonak pentzetan axe ein bittula. Ta gu soldau, kristonak eitte eskusen ba, kaguen dies, paso lijero eta kriston martxak, ya ganora bako geusak. Da a umaldiridxe. Arek berak esate ban, kapitana. Joer! Afrikan egon nintzen ni tte etxat astu eitten!* □ **ganorabako ulie.** Pelo débil, de poca consistencia. || *Ganorabako ulie: ule metxada dekonari, "Ganorabako uli lakue".*

**ganorabakokeridxe.** (GANORABAKOKERIA) Insustancialidad, poco fuste. || *Ganorabakokeridxetan asi dok.* || *Igul ointxe ondo, da sekule txarto ikusi bakue, esate baterako; da andik ordu erdire, edo amar miñiture asten da ganorabakokeridxek eitten: "Koño, soratu dxakok orreri!"*

**gantxo, gantxue.** (GANTXO) 1. Gancho. || *Buelta gustidxen untzak joste dxakos beidxeri, da perrie olantxik e, e an goidxen eukitten daben gantxue okertute ipintte dxako.* || *(Ganadu iltteko) Len beti orras, askorias, da txarridxe gantxuas, e kutxillu sartun.* 2. Ganchos utilizados para tirar en las pruebas. || *Probetako gantxue.* || *Are gantxuk dire eskutan ibiltten diñak, tireka, gantxuek.* Orrek probaldiridxen eitteko gantxuek. 3. Ganchos utilizados para la carga de pinos.

**gantz, gantza.** (GANTZ) Grasa; manteca, gordo. Ik. *koipie*. || *Txarridxen gantzak.* || *Tripe ganiñ oten dana da gantza. Estik eta tripe ganin dana tapaute eukitte ittu gantzaz.*

**gantzari, gantzaridxe.** (GANTZAGI) **1.** Grasa; manteca, gordo. || *Gantzaridxe? Koipi tti, estitan eukitte ittu. Bueno tripe ganien eukitte ittu. Estik-eta tapaute eukitte ittu, gantzaridxe. Da koipie ixaten da, dana koipie. Da dana txikittute ba urtu, da ontzi baten altzeu. Setako?, gastetako, edo patatak brejiduteko, edo lapikun eitteko, batzuk useten dabe.* **2.** Matriz o útero de la vaca o yegua. || *Bueno, txarridxenari gantzak esate dxake jenera. Gantzaridxe ixeten da..., esate baterako bei bat txala eitteko dau, da a txaltxu eoten da..., se esangot neuk? Gantzaridxe txala ein de gero jeneral botaten dabe beidxe. Gantzaridxe esate dxako, ba botaten dabe txala oten da depositu, txal eikera txar bat eukitten badabe. A depositue, arixeri esate dxako gantzaridxe, axe beidxe botaten dabenari. || Gantzaridxe botaten da..., txalas batera batzuk igul botako dabe, txal eikera txarrak-eta eukitte itueniñ e, da a arin sartzen espada, beidxe ill eitten da. || Txal eikera ona espedeko, txal eikera gogorra edo txal aundidxe ein dabelako, bi dan bayo aundidxeu ein dabelako, askotan ba ori gantzaridxe bota eitten dabe, da sartu ein bihar ixate dxake, jenti batu te ainbat ariñen, ostantzin beidxe ill eitten da. || Atzera sartu ein bi dxako gantzaridxe. Gantzaridxe loidxe esta. Loidxen..., txala barrun eukitten dabena-edo, estai ser ixeten dan. □ Hona hemen zelan bereizten diren umeloidxe eta gantzaridxe: || Baya umeloidxe ta gantzaridxe estire bat. Umeloidxe da umetokidxe. Umetokidxe txal einde botaten daben loidxe da, umetokidxe. Gantzaridxe da..., selan esango tzut?, txal txikidxe barruen eukitten dabena, gantzaridxe tapaute oten da. Da umeloidxe da txala ein de beidxe botaten daben loidxe, baya gantzaridxe da..., ser dala esangot?, a be txala oten dan lekun oten da, baya a botaten dabenak e..., bai arin sartu eskeruen- se geuri be salbau dxakun-de- salbau eitten dire. Da geidxenak ill eitten dire.*

**gañerie.** Varal, palo que sujeta la carga del carro por encima de ésta. Berba hau beste herri batzuetan erabiltzen da gehiago. Nabarnizen ezaguna da; baina ugerie esaten da gehiago. || *Gañerie beste batzuk esate tze. Gañeri ba goittik juten da. Ugerie beti lotzeko da, a ugeri ipintte dxako amendik ona, baya gero sokias emen lotu. Da ganetik juten dan les, ba gañerie, da ugeri guk beti. || Gaiñerie: burdidxeri ganien egur bat ipintze dxako trabes, kargetan danin, bedarrak-eta estutzeko, axi lotunde, da axe da gaiñerie, axe egurre, ganekue. || Burdidxe eukitten deu agie -oin burdi asko esta ikusten baya-, olanik pali luse bat. Sulotxuk-sulotxuk eukitte ittus, de gañerie sartze dxako atzera, bedarra ta kargatze sanien, ipintte dxakon takue gañeriri espatan, da orreri deittute dxako espatie.*

**gar, garra.** (GAR) Llama. || *Su garrak galantak daus. || Karabidxe sue bi deu bixidxe, garra, a arridxe erreteko. || Karabidxe garra bideu, baya kaleruek*

*brasie bideu. || Garrik estekon sue su ille da, estaunin berotzen. □ garretan.* En llamas. Ik. *suten.*

**garagar, garagarra.** (GARAGAR) Cebada (*Hordeum distichon*). || *Ño, orrek e, allurbiek e garagar asko ekarri dxok! || Garagar garaune. || Garagarra garidxe antzeko garaun bat ta, garagarra. Da garagarra ba emote dxake asturi, saldidxeri be bai, da geuk e beidxeri iños es tzegun..., baya len -oiñ esteku saldiri pe- saldidxe euki gendun, len astu euki gendun, asturi be bai, te olan pentzu les emote gentzon garagarra. □ Garagarra baino ez dagoenean, nahaste*

*barik, honela esaten da: || Garragar puru dau. □*

**garagarran burue.** Espiga de la cebada. □ **garagar saidxe.** Salvado de cebada. □ **garagar urune.** Harina de cebada. || *Osali da egosiñeku geusie, ba, ipiñi baldien, da arturune bota, edo garagarrurune bota, da osalatute emon, nastaute emon. □ garagarra irebasi, irabasten, iruasten.* Se dice cuando las caballerías empiezan a revolcarse. || *Baya irebasi esate dxako bueltak eitte ituenien, batera buelta eitten deu, da bestera, osun eitten badabe: “Irebasi deu garagarra!” || Garagarrak iruasten dabil astue.*

**garagarril, garagarrille.** (GARAGARRIL, uztail) Julio. || *Garagarrillin frutie eltzen da, gois frutak eltzen dire, a madari txikixuk-edo, olako fruta batzuk. || San junetan e garagarrillen or, udan, udan gari lori. □ iko garagarrillekue.* Breva, higo temprano y sabroso. || *Agustun eltzen dana dau beste bat, garagarrillekue, a goixetik eltzen dana da naiku iko aundidxe ixeten da bera. || Ikue dau gurin, asko deko, garagarrillekue, julion, garagarrillen eltzen dana, garagarrillekue esate tzau guk, erdera brevas edo, garau ederrak.*

**garagarraka.** (GARAGARRAKA) Revolcándose, se dice de los vuelcos y las volteretas que dan las caballerías sobre su dorso, aunque también se puede aplicar a otros animales o a personas. || *Astue garagarraka dau. || Astu garragarraka dabil. || Garragarraka dabil da gosetan. □ Umeari: || Garragarraka sabis, garragarraka! □ garragarraka ein.* Revolcarse. || *Astuk garragarraka ein dau.*

**garai, garaidxe.** (GARAI) Granero, hórreo; almacén especial, separado de la casa y edificado sobre cuatro postes. || *Laboriek gordeteko egote sirin garaidxe, etzien albuén, postiek arriskuek, da gero goidxen errotaridxe les arri biribilek arratoidxe jan estaidxen in siriñ arek. || Garaire jungo gara.*

**garantze, garantzie.** (GARANTZE, aletze) □ **arto garantzie.** Desgrane del maíz. || *Es etzin. Ademas, danak egun baten-da barik, gabetan da olantxik arto garantzie. || Arto garantzi. Nai garidxe be bai. Baya garidxe esta..., garidxe jo eitten da, esate baterako.*

Da artu garandu. Indarra be garandu. || Arto garantzen.

**garantzu, garantzue.** (GARAUNTSU, garauntsu-bat., aletsu) Abundante en grano o fruto. || *Garantzu da garaunek asko dekonari. Da gitxi dekonari, garaune... garantzu etxako esaten. Da sagarra be asko..., nai frutie, "Garantzu dxak!" bete-bete-beteri daunari.*

**garatu, geratu, garatzen, garatuten.** (GERATU) Parar(se), detener(se), quedar(se). Ik. *gelditu.* || *Kontrasue emon bi dxako, sue geratu deidxen.* || *Geratuixu kotxie!* || *Ayuntamentue bera geratuko san a diruas.* || *Ba, botikarik etxekon len eitten. Da oin bes, ya asko geratu da botiki eittie.* || *Gixon eskasa geratu da.*

**garatxa, garatxie.** (GARATXA, garitxa-bat.) Verruga. || *Garatxiek urten.* || *Orrek garatxak dekosak.* || *Garatxiek susterrak eukitte ittu.* || *Garatxie: olan urtetan dabena, olan e ba gonatxu laku, gogor-gogorra: garatxie.* || *Guk emen aridaxas lotze gendun garatxie, ari sedi esate ben, da nik estaitt, atrapatzen dan modukue. Da lotu axe, bueltak emonda, da arixek apurtze ban, edo arixegas osatze san.*

**garatxu, garatxue.** (GARATXU) Cierta arbusto que crece en los encinares y cuya madera es de gran resistencia, razón por la cual se utiliza para fabricar los mangos de la *matxuke*. || *Garatxu, bai. Egurre da ori. Gogorra. Amen arteidxen egoten da olako asko, baya onetan bapes.* || *Baya garatxu eundidxe esta eitten e! Arbola eundidxe esta au. Arboli parik, sepak. Sepa di orrek garatxuk. Arteidxetan-da urtetan dau. Emengo garatxu esta leku gustiñ urtetan e. Amen asi or beyen, da emen iñun be estau Nabarrixen. Amen beyen bai. A kobako... Ondaroko kobie? A bayo onantzau eitten dan e... An goitti bera doin... Txaboli or badau ba, arexen beratxuaun, antxe asten di garatxuk. Omakarteidxen be bai, ara Omara bidin be bai.* || *Ba garatxuk ostantziñ e bakixu setarako usete gendusen guk? Matxukie, matxuki arridxe jotekue? Matxuki esate dxako a, malluki barik. Da aren kirtena, ba, auxe atzamarran tamaño lodieraku da. Da egur gogorra ta dobleten dana ixen esik, apurtu eitten dire onek gastaña eta aretxa ta one beste gustik danak apurtu eitten dire. Garatxu es.* || *Da gero da andik urrengo matxuki. Txiki-txikitxue. Matxuki. A, len esan dotena, aren kirtena bi dabe garatxue ixetie, on-on-ona orretako.*

**1 garaun, garaune, garaue.** (GARAUN, garau-bat., ale) **1.** Grano, semilla. || *Arto garaue.* || *Arta garaune.* || *Berakatz garaune.* || *Gari garaune.* || *Laboriek garau gogorra deko.* || *Gero beste bat dau, arek garauntxu-garauntxu eukitte ittu lurren barruen, da areri selan esate tzeu? Enas akordaten. Arek, burutxu-burutxu lurren barruen aste itunari ser esate tze? Mugittie. A da bedar bat, ba kalte eitte tzona laboriri. Arek aste ittu, bola garantxu-garauntxu-garantxus beterik egoten da.* || *Emen garaue gordeten da, oiñ*

*artin beintzet, sakutan. Kaixatan be bai.* || *Gari lorie? Ba, gari lorie, estai selan esango tzut. Garidxe, garaune ein bi dabeniñ, seinde ostantzeko fruta lantxik, lora..., lori eukitten dau, loratxu lakue. Axe gari lorie.* || *Indi gastañie ixeten da... Naiko gastaña garaun eundidxe ixeten da, da nik estakitt jateku bada, personik jateku bada.* **2.** Fruto, fruta. || *Garau bako sagarra.* || *Elorri garaunek gorridxek ixeten dire.* || *Gastaña garauk altzau.* || *Baya amen beste etzien, espata madaridxe fenomenu egon san arbolie, ederra! Eta selako garauek eukitte basan ba!* **3.** Cualquier otro objeto que tenga el tamaño y la forma de un grano. || *Bai, iñetasidxe be esate dxako, ta txingorra be esate dxako. Jeneral, txingorra garaun aundidxauri esate dxako. Da iñetasidxe, jeneral, garaun txikidxari esate dxako. Baya bidxekiñ aitzen da.* || *Txingorra eta iñetasidxe bai, ba tire danak. Txingorra ba ser esangot neuk? Garaun eunditxuau dala? Baya kontixu danari esate tzeu.* **4.** Grande. || *Orrek dekos begi garauek!* **5.** Nada, en absoluto (en frases negativas). ||

*Esteust ardure garauni pe!* □ **garaunera batu.** Recolectar el grano despojándolo en el mismo momento de la vaina que lo contiene. Ik. *aidxenera batu, tekara batu.* || *'Garaunera' ta 'tekara' geusa bi di orrek. "Tekara batzi' da teki oso-osorik artu. Da bestie garandute. Indarra tekara. Ta bestela da 'aidxenera'. Aidxena ixeten da dana osun. Dana artzосу, ta gero etzin siketzen euki tte gero ein jo makillias, ta garandu edo ori. Baya 'tekara batzi' da dana banan-banan.* □ **garauniñ egon.** Estar con el grano formado. || *Garaunin dau.*

**2 garaun, garaune.** (GARUN, burmuin) Seso. || *Garauni pakue.* || *Buruko garaunek.*

**garaundu, garandu, garantzen.** (GARAUNDU, garandu-bat., aletu) Desgranar. || *Iderrak garandu.* || *Artuk garandu bios.* || *Artaburuk garaundu.* || *Garaundute dau.* || *Ba arturi txiripidxe eitte dxako, artagarauneri e! An eukitte su garandute artu sakun, da e esate baterako sei ilebetiñ-ero bokosu sakun, beres txiripidxe barrun eitte dxako.* || *Txaparrak ointxe das solun. Artue eltzen deu eta arek e artaburu txikidxek, garauntzeko bayo be txikidxauk, txikitxuk ixeten diriñak, guk arixeri esate tzeu txaparra, arixeri txikidxeri, artaburu txikidxeri.* || *Garantzeko, lelengo ekarri, da kamarara, goiburura altzeta sirin. Da goiburun siketu, da gero garandu eitte sirin.* || *'Garaunera' ta 'tekara' geusa bi di orrek. "Tekara batzi' da teki oso-osorik artu. Da bestie garandute.* || *Ordun koskorak ein danak batu te danon arte garandu te, ori usedidxue aintxiñe, aintxiñe-aintxiñe eitte ben. Da gari joten be alantxik, eusuek batute.*

**garautu.** (GARAUTU, aletu, burutu) **1.** Producir fruta, granar. || *Ño, elorridxe garautu da!* □ Aditz hau erabiltzen bada ere, sarriago entzuten dira

honelakoak: || *Garaunek asi dxakos.* || *Garaunek urte tze.* 2. Desgranar. Ik. *garandu.*

**garautzu, garautzue.** (GARAUTSU, aletsu) Abundante en grano. || *Txider bedarra da. Garaue. Garautzu.*

**garbantzu, garbantzue.** (GARBANTZU, txitxirio) Garbanzo (*Cicer arietinum*).

**garbi, garbidxe.** (GARBI) 1. Limpio, -a. || *Ur garbidxe.* || *Garbidxe da ori.* 2. Limpio, -a, despejado, -a. || *Da seru garbi-garbi daunin, "Ño, klaru dxak geur serue!".* 3. Mero, puro, simple. Gehienetan gaitzespen zentzua izaten du. || *Euskaldun garbidxe.* || *Tonto garbidxe.* || *Birrotxa garbidxe ixen bi da, esta asten-da.* || *Traganarru garbi-dxok.* 4. Despejado, sin arbolado. || *An garbi dau les, esan gurotena, gu kasan juteko, arbolaidxe, edo piñadidxe, edo olan bi da ba, ta ara eskara joten.* 5. Limpio, -a, sin más añadidos. || *A bestie edei eitten dxako, edeitten da, apurtzen da, da gero garbi-garbidxe jeusten da intxaur oskola.* □

**garbi-garbi ein.** Limpiar. || *Da gero (gastañak) etzera ekarri te, uretan pasau, garbi-garbi ein de erretetekuek e gatz apur batas tiñan ipiñi.*

**garbiro.** (GARBIRO) Limpiamente. || *Garbiro jantzi.*

**garbisale, garbisalie.** (GARBIZALE) Limpio. -a, aseado, -a, pulcro, -a. || *Kepa garbisalie da gero!*

**garbittasun, garbittasune.** (GARBITASUN) 1. Limpieza. || *Garbittasune ein bi da.* || *An nire lobi joten da arek aren garbittasunek-eta eitten-da.* 2. Documentación precisa. || *"Etzi orrek esteko garbittasunik": noberagantzeko diru asko gastau bier e..., jauberik estekona se..., paper asko ein bi da ta. Ba esate baterako, len saldu banak edo lengue ill ein da, da barridxeri agindu tzon baya papelik ein bari tau.*

**garbittu, garbitzen.** (GARBITU) 1. Limpiar. || *Erropak garbittu.* || *Sorrak garbittu.* || *Jaboyas garbittu.* || *Tresenak garbittixek!* || *Elixu garbitzen ibiltten da a.* 2. Despejar, limpiar de zarzas. || *Da aregas ba sasidxe-eta joten dira, aidxotzas, da enbasu eitten daben sepa pe bai. Da garbitzeko ixaten da aidxotza.* || *Len orrek e ibiltte siñ e edo egalak garbitzen e, bide egala, arridxe daun lekun-ero olan. Bestik dire atxur normalak, jorraidxak da atxurrek. Baya orre ti baso atxurrek.* || *A satidxe garbitzen noyek.* || *Emen gurin dau len ixendaku beresidxe, garbittu te piñu sartute.* 3. Librar de. || *Bigurie aprobetxeten da, ganadu batek, bei batek txala eitten dabenien, da beidxe garbittu esiñik dauenien loidxas, garbittu esiñik dauenien, ba egoste dxakos, orrixen bigurak, orrixen atziek, orren, orrixen ormiri atzie apartau, da egosi, da axe ure emote dxako beidxeri, garbittu deidxen.* 4. Robar. Ik. *ostu.* || *Da garbittu eskuen, ostu, nun itxi san, se ein san, da kittu! Galdu.* 5. Morir. Ik. *il.* || *Besti Oviedon il san, gerran. Oviedon or gogor eukitte basen atakik-eta, bestik-eta, da antxe il san.*

**garbitzaille.** (GARBITZAILE) Limpiador, -a. || *Erropa garbitzaille.*

**garbiune, garbiunie.** (GARBIUNE) 1. Parte, tramo limpio. || *Garbiunie? Ba garbidxe deuna.* 2. Parte talada.

**garda, gardie.** (GARDA, karda-bat.) Carda. || *Lani garbittu eitten da, da gero siketzen danin, gardau eitten da. Gardak egote sirin len. Gardak ixeten dire: orstxuk eukitte ittue, ba ser esangot neuk?, burdiñeskuk-edo, untzi lakuk, me-meyek. Ibiltten da, garbittu, te ba siketu eitten danien, lantzin sati bet ipintten da gardan. Gardak bi ixeten dire, bata goikue, da besti bekue, euren kirtenakin. Ipintten da, da ipiñi olanik, eta gardau eitten dire. Da gero gardautakuen eitten da amukue.*

**gardasta, gardastie.** (GARDASTA, gardaska-bat.) Palo al que se le ata en la punta ramas con espinas que se utiliza para recoger hojarasca o apagar un fuego, etc. || *Beste bat da gardastie, seinde, piñu adar bat. Sue amatako, gardastias amatau esaten da, jo blauste-blauste. Da pago orridxe batzeko be gardasties eitte ben.* || *Gardastie da egurre, ta puntan euki deixela geuse..., esan gure dotena edo orri gogorra edo noberak lotute orras, bedar arek, arantzadunek, arexek pillo bat lotun, da gardastie einde dau.* || *Gardastak: arbola adarrak, orritzuek, indi dekenak, sera, amatetako usetan dire sue etorten danin. Arexas joten.* || *Gardastie da seinde..., gixetza bakixu ser dan? Gixetza mendixen, edo olan albutan asten dana, gixetza, ta arantzarik-eta eukitten dabena, lora oritxu emoten deu berak sasoyen. Da guk len –oiñ estau ekarri be eitten–, len olan ekarte gendun, alakoxe adar batzuk ekarte gendusen, da lotu eitte gendusen, da olan etartie, edo etzaurri-edo garbitzeko ibiltte gendusen. Da arixeru gardastie esate gentzon.* || *Mendixek su artzen dabenin, jentie batu, te gardosti ein, de jo, ta jo ein, de amatau.*

**gardau, gardatu.** (GARDAU, kardatu-bat.) Cardar (la lana). || *Lanie gardatu.* || *Gardatu, neuk estot iñois ein, de nire denporan bes, konteixu.*

**gardostu.** (GARDOSTU) Chamuscar, escaldar. || *Gardostu: ori esaten da, esate baterako, suten geusa bat pasetan danien, esate baterako, ba egur bat-edo, olanik apur bet esetasune kentzeko-edo, da apur bet baltzitzen danin, ba: "Gardostu ein dogu suten".* || *Ori, gardostu eitten da ba esate baterako, egur bateri ba, igul, baltzen kolori emotoko, edo esetasune kentzeko, edo orretakoxe.*

**gargara, gargarie.** (GARGARA) Gárgara. || *Gargarie? Gargarak e, samako miñe deunin gargarak kla-kla-kla-ka einde eitten diriñin, gargarie.*

**gargaraka.** (GARGARAKA) Haciendo gárgaras. || *Gargaraka dabil.*

**gari, garidxe.** (GARI) Trigo. Nabarnizen orain berrogeita hamar bat urte utzi zitzaion ereiteari. Gari motak: *gari bixar bakue, gari bixardune, gari gorridxe,*

txori garidxe. || Gari balak. || Gari eldue. || Gari ludoitzue. || Garidxe dana salgas beterik dau. || Mendiarrak esate tzenak, orrek e garidxe eta dana artze ben emengoxi lantxik. || Oin gariri pe-esta eraitten. Askanengo emen ingerun erein gendunak geu ixen giñen, da gallikidxe ba ser ixaten dan esango dot. Garidxen antzeku ixeten da beres gallikidxu, baya esta garidxe ixaten. □ **gari arridxe.** Piedra para moler trigo. Ik. arto arridxe. Sasoi batean Trebiñoko arridxe erabiltzen zen, baina gero prantzes arridxe erabiltzen hasi zen. □ **gari asidxe.** Semilla de trigo. □ **gari bixerra.** Argaña, conjunto de filamentos de la espiga del trigo. □ **gari bixar bakue.** Tipo de trigo sin argaña. □ **gari bixardune.** Tipo de trigo con argaña. || Gari bixardune ligorra ixate san, da eskutan be inkau eitte san. Da bixar baku ibiltte san jeneral onetan. || Amen geidxen despresiate dana bixerdune sala pentzatot nik. Ligorra ixate san a. || Gari bixar bakue? Gari burue, bixarrik estekona, se gari burue emen berton e bai, eraitte san e len garidxe bixardune be, da eukitten deu e buruen ba burue da emendik-emendik-emendik-eta eukitten deu dana..., oten da burue e se esangot neuk?, pintxos beterik-edo oten da, da axe da gari bixardune. Emen esan eraitten ainbeste, bai baten batek, gogu dekonak e ba eraitte ban baya ostantziñ emen gari bixardun ori etzan eraitten. □ **gari burue.** Espiga de trigo. || Eitten espadxako eser, garidxeri ludoi etorte dxako, balzittu eitten da. Gari burue eldukeran, balzittu eitten da. □ **gari ebatie.** Siega del trigo. || Garidxe jeneralien emen atzeratxuau etorte san Nabarrixen. Nabarrixen junion lelengo... Ortxe ibiltte san garibatie. Berandutxuau nabu ereiñ abustun. Arek garidxe ebei, da egote san e solue ba geldí, esan gutena, eser erein barik. Da gero ereiñ ein biar, da nabu erein. □ **gari ebatzaillie.** Segador de trigo. □ **gari epaillie.** Segador de trigo. □ **gari eraittie.** Siembra de trigo. || Da eitte san ordun, gari eraittin. || Baya eitte san gari eraittin. □ **gari ernie.** Trigo naciente, tallo recién nacido. || Gari ernie. || Erein de gero, erne eitten da, da an lurren ganien datorrena: “Gari erne ederra dator”, edo “Gari erne txarra dator”. □ **gari errotie.** Molino de trigo. □ **gari garaune.** Grano de trigo. || Fin-fin geratzen danien barruko suridxe, gari garun barruko suridxe, urune, ordun eitten da ogidxe. □ **gari garbitzeko makiñie.** Máquina para cribar el grano del trigo. || Au esta matxakie. Au gari garbitzeko makiñi da. Matxaki da... Garidxe joteku san matxakie, motorras ibiltten dana. Au da eskus ereittekue. □ **gari gorridxe.** Variedad de trigo de grano mayor. || Len garidxe eraitte gendunien, ba gari gorridxe ibiltte gendun emen. Ixeten

da garau txikitxu. Da gari gorridxe ixeten da garaun eunditxau, baya emen aittek-eta esate ben, lenguek, ori e gari txikitxu orrek obetu emote bala onetan lurretan, gari gorridxe, baya gari gorridxe pe ondo emote ban. Da gari gorridxe da garaun eundidxaue, da ba uruntzuau izen biarrin baya ori garidxe, ori txikidxori txikitxu basala, baya urune obiaue eukitte bala esate ben, suridxaue ixete san. || Egote san beste bat, gari gorridxe be bai, garaun aundidxaue-edo sana. || Bueno gari gorridxe badau eta ser esangot neuk? Are pe estau e bixarrik ibiltten gari gorridxe pe. □ **gari joillie.** Persona encargada de desgranar el trigo a golpes. || Batzuk eote sirin gari joillak, segun jenti selan daun, iru edo lau joillak. Da bestiek, etze bi-edo batu alkarregas da bestik gari eruten solotik goiburure, kamarara eruten. Asaue eruten, garaune kentzeko. Da gero gari joillak, ba, batzutan e atzentxu eitte ben da soser artu, trago bat-edo, da leña gari joten! Da bueno, artzalde bakotxin ba etze bat jote san. □ **gari jotie.** Trilla del trigo. || Gari joteko arridxe. || Gari joteko motorra matxakie da. || Gu gari joten ibiltten giñen amen, makiñias, da kobreten gendun, garidxe, meidara, pisurik esan ibiltten ordun, ba pisurik, ibiltten gendun kaja bat, meidie, kajie justue, da reglie pasaten gendun ganetik, da ras!, einde saku bet, da axe konteu anegie. Anegeko kobraten gendun. Oñ eitten dabe berrogetamar kilokotzat. || Len ipiñi euskitten, euskidxe beru daunien, sabaldu metan ero deittesan, sabaldu ta ipiñi arridxen, alako maidxeke arridxolan da, olan goittik bera, lotu eitten da ori, asaue, asaue esaten jako, garidxeri, onen tamañoko moltzue, lotu ta gero altza, jo ta jo ta jo ta ostabere beste bat. Guk motorras eitten gendun. || Gari jotie: len gure gaste denporan, arridxeke ipintte siriñ olan, arri losak, da antxe jote san asaue, asaue esate dxakon, lastasaue esate dxakon, da antxe jote gendun. Ipiñi euskitten olan, bero-bero egote sanien olan, etzonduen, da gero altzau gora, kamarara, da kamaran jota antxe garidxe. || Garidxe joteko makinak egoten dire. || Asau lotu te makiñan be jote siriñ askanaldien, da eskus be bai, kamaran, batzuk eruten da beste batzuk joten. Ipiñi arridxeke, lelengo ipintte san e ser bat, age bat-edo, anpor bat olanik, arridxeke arixen errimun ipintte sirin, da umik-edo, gastik e asauk eruten, da neusidxeke antxe arridxen jo ta. || Gari joten, gari garbitzen, makiñan pasa bi da. || Ni gari joten asko ibiltte nau ba. □ **gari joteko arridxe.** Piedra sobre la que se golpea el trigo para desgranarlo. || Gari joteko arridxeke ixate sirien. Ortxe, etzaurrin be badau oin. □ **gari joteko makiñie.** Máquina para trillar el trigo. || Lagun bi, gixon bi pareta sirin, gixonesko bi ba alkantzu dekenak, da ipintte sittuen antxe orrek e eundidxao, da arek gari joteko makiñik eutz asko emoten deu personentzako. Da mudau eitte sirin, bakotxiñe iru ordu lauren-edo eingo sittuen gari joten.

Da txanda bi eote sirin joteko. Batzuk jote ben artien bestik artze ben e ardaupur bet edo ba seoser, da jarritte eote siriñ al dan lekuen. Da gero urrenguk ostabe. Da gero arek jute sirin, urrenguk ostabe.

Olantxik jote sirin. □ **gari lastue.** Caña del trigo. Ik. trillue. || Gari lastue esaten dxako asauri. Asaue, se garidxe erein, te lotu, da asautan ipintten da, da gero metan ipintte san. Da gari lastue arixe esate tzen. □

**gari loidxe.** Ahechaduras, residuo de trigo mezclado con el polvo de las eras. □ **gari lorie.** Flor del trigo. || Gari lorie? Ba, gari lorie, estai selan esango tzut. Garidxe, garaune ein bi dabenien, seinde ostantzeko fruta lantxik, lora..., lori eukitten dau, loratxu lakue. Axe gari lorie. || San junetan e garagarrillen or, udan, udan gari lori. □

Lehengo esakera da azkordinak gari loreak kentzen duela, garia loran dagoenean, beroa izaten baita, eta beroarekin, bada, azkordinik ez. || Askordiñe gari lorik kenduko tzu: garidxe loran egoten danin, ude-udiñ ixete da les, ba udan esta egoten askordiñik. Askordiñek jeneral leidxe dauniñ agertzen dire, leidxek eitte ittunin, orduntxe agertzen dire, bitzetan, da atzamarretan be igul, belarrixdetan be baitte. || Askordiñek gari lorik kentzen dittu: klaro, gari loriek urtete dabenien, bero eitten deu da beru estao askordiñik. || Ba askordiñek dekosak, gari lorik kenduko deusak. □

**gari metie.** Almiar, montón de trigo en forma de cono. Ik. mutxuridxe. || Gari metir jo bayo eurretik eitte san. Lelengo igertu ondo eitte san, da gero metatu eitte san, metak eundidxe, alturie igual pare bat metro ero iru metro igul alture, da antxe. Iru-lau metrotan ori otamarranea iru-lau metrotan kabiten sirin. □

**gari mutxuridxe.** Pequeño montón de trigo. || Gari mutxuridxe, arek txikitxuek ixeten sirin, saspisortzi eskukada. □

**gari saidxe.** Salvado de trigo. □ **gari solue.** Trigal. || Itxostxoridxe gari solutan jatekue topate ben. □

**gari sorrue.** Saco de trigo. □ **gari talue.** Torta que se prepara con harina de trigo. || Gari talue gari urunas eitten da. A gosu ixeten da e gari talue! Senduau ixeten da gari talue. □ **gari urune.** Harina de trigo. Sin. ogi urune, urun suridxe. || Urun suridxe da gari urune. Besti da arturune. Taluk eta orrek arturunes eittosus. Da gari urunas e ba len eitte san aidxe. □

**txori garidxe.** Trigo candeal. J. R. de Iturrizak honako hau diosku gari mota honi buruz: “Los alimentos presentes se reducen a buen pan, por cuanto se coge trigo especial llamado valenciano, y vulgarmente galbería, o chorigarija, que molido en buenas ruedas y cernido en cedazos tupidos que los traen a vender los asturianos sale muy blanco, floreado y sabroso.” (Historia General de Vizcaya, 135. atala). || Txori

garidxe be egote san, xetxu ixate san txori garidxe, berau xetxu, baya onetan estimau ibillte dan txori garidxe, estabela ludorik eukitten-da, ondo emoten dabela-ta. || Gari klasik bat payo geidxau daus. Txori garidxe ixete san garaun txikitxuauek, da esate ben, nik gurasuri entzunde, ixeten dala txikitxuauek bai, baya beste garidxe... Gari gorridxe esate dxakona egote san beste bat, gari garaun eundidxaue, da illuntxuau ixengo san, edo estaipa baya- Urume fiñena onetan txori garidxe emote ban. || Gari gorridxe ibillte gendun, gari gorridxe esate dxakona. Da txori garidxe be bai, se-setxu ixeten da. Da garidxe pa klase ba payo geidxau ixete sirin.

**garidxo, garidxue.** (GARIO) Cierta variedad de hierba, de hoja ancha, que atadas en el extremo de un palo se utilizaban para limpiar el horno. || Aintxiñe labako sue eitten gendunien ibillte gendun ipiskidxe: olan bedar batzuk -eurek garidxo deke ixena-, bedar ligor batzuk, orri apurtxu sabalak dekesanak. Alakoxi ibillte gendun, labi garbitzen. Alakoxi batun, de aixas eiñ ipiskidxe. || Labako sue eitte gendun, asunek batute, arek..., aren ixena... itxuskidxe eitteko, garidxo bedarrak esate gentzon; asunek, asunekin be eitte san, baya garidxo bedarra pa, olanik onen eingerun-edo asten dire, da ligor-ligorak ixaten di, ta orridxe eundidxe be eukitten dabe labi batzeko-ta. Alakuri esate gentzen garidxo bedarra. || Garidxo bedarra len ibillte gendun etziñ ogidxe errete gendunin. Garidxo bedarrak batu, da ipiskidxe eitte gendun. Ipiskidxe esate dxako batu garidxo bedarrak, eta olan e ipiñi alkarren kontra, da ein moltzue, da egurreri lotu puntan e, labi garbitzek-egurreri puntan lotu, te garidxo bedarrakin labako eutze batze gendun. Garidxo bedarra leku askotan asten da. Da ipiskidxe da, olan bedar batzuk batze gendusin, bedar sabal..., orri sabaltxu deken bedarrak batze gendusin, garidxo bedarrak esate gentzen areri, da ipiskidxe eitte gendun arixekin garidxo bedarrakin.

**garitze, garitzie.** (GARITZA) 1. Trigal, campo de trigo. || Eskurti? Gari artin bedarrak e ori eittie, txarrak kentzie, garizetik. Leno enbrak-eta ori jeneral eiñ eitte ben. 2. Cantidad, montón de trigo. || Garitze ederra egon da!

**garixume, garixumie.** (GARIZUMA) Cuaresma. || Axentziduk ixeten dire, ba garixumie akabau, paskotik jeneral ba berrogeigarren eguniñ ixeten dire asentziduk. Jesukristok serure igo bana, esaten dabe. || Eguen suri: ori ixeten da garixumie etorri bayo arintxuau, karnabalak ixeten diriñ eurretun ixeten da eguen suri, tostadak eitteko egune. || Atostiek e ba, len esan detzude les, manga da garixumin sartuerie. “Manga-manga plast, tostadak sakure tas!” Tostadak jaten dire, naidxe, naidxe, naidxe jan. Manga axe da, gero garixumin penitentzidxe datorrelako da.

**garlopa, garlopie.** (GARLOPA) Garlopa, instrumento de carpintería. || Garlopie: a sepillue ibillten dana.

**garnu, garnue.** (GARNU, gernu-bat.) Orina. Ik. *txixe*.  
|| *Garnue juteko kañue*. || *Garnuko infeksiñuentzako ona ei da*. □ **garnu ein.** Orinar. || *Garnu ein deu*.

**garnukue.** (GARNUKO, gernuko-bat.) Enfermedad de la orina. || *Garnuku geixu da. Gaixu da garnun dauna, da garnuku esate tze*. || *Garnuku deko*.

**garo, garue.** (GARO) Humedad o líquido que reposa en el suelo a consecuencia de la lluvia, rocío, etc. Ik. *lanparra, iruntze*. || *Euri garue*. || *Garu dau*. || *Garu itzela dxak*. || *Euri garu da*. || *Euridzek eitten deu garue, a dxi-dxi-dxi jeusten apur-apur bet, da gero beyen garatzen da, a da garue, a esta euridxe*. || *Garue goixien-da egoten da, bedarra-ta bustidxe, edo euridxe einde, bedarra bustidxe daunin*. || *Maskala da garue. Guk garue esate tzau: "Maskalak batu dous", dana busti-busti beye. Garue, bakixu, iruntze*. || *Garu naiku batu du*. || *Oin be garue abidxeu ein bi deu*. || *Lanparra beyen egoten da, inkeute geldigeldi geratzen dana. Guk jeneral garu esate tzeu busti-busti-busti daunin. Ba, bidxetara esaten da*. || *Garue, itzela dxak garue!* || *Euri lanbrue: a garotxu dxi-dxi-dxi-dxi-dxi*.

**garoska, garoskie.** (GAROXKA) Rocío, lluvia menudita. || *Bueno, euri apurre eitten dabenin a garoskatxue eitten dau*.

**garostau.** (GAROZTAU, garaztatu-bat.) Mojarse con el rocío o la lluvia menuda. || *"Garostau nas": esate baterako, bedarrak eukitten deu..., iruntze esate dxako, ba iruntze, da urteten danin kanpora-edo, a iruntze badeko, ta a anketan-edo atrapatzen daba, ba "Garostau ein ñas"*.

**garrafoye.** Garrafón.

**garrafokada, garrafokadie.** Contenido de un garrafón. || *Da gero antxe sartu, amar asunbreko garrafokada ardaue. Da es euzon ostu! Barre eitteko esta! Da Seberinak iños esan tzon Bitorreri: "Bittor, ondiño suri soñeko txapela be ostu eingo tzue!"*.

**garragarraka.** (GARAGARRAKA) Revolcándose, se dice de los vuelcos y las volteretas que dan las caballerías sobre su dorso, aunque también se puede aplicar a otros animales o a personas. || *Bai, garragarraka. Astuk eta manduk eta danak eitten dabe. Astuk igul buelta osuk eitte ittu de manduk estabe ainbeste eitten, manduk e alderdi bata lelengotan, gero beste alderdidxe. Astuk buelta osu ein de beste alderdittik eta ostabe bestera. Len astu egon san emen dana*. || *Astue garagarraka dau*. || *Garagarraka iruasten dabil astue*. || *Astu garragarraka dabil*. || *Garragarraka dabil da gosetan*. □ **garragarraka ein.**

Revolcarse. || *Astuk garragarraka ein dau*. □ *Umeari: Garragarraka sabis, garragarraka!*

**garrantzidxo, garrantzidxue.** (GARRANTZIO) Rancio, -a. || *Garrantzidxue: esate baterako, garrantzidxue, ba okela sati bet-edo garrastute dauniñ-edo, jeurtitzeko moduku dauniñ-edo garrantzidxotute*.

*Edo ixen lei urdeidxe be, "Garrantzidxotute euki dot". || Garrantzidxue ixeten da, bai, urdiñe bai, baya urdiñe bari pe eitten da okelie garrastu apur bet*.

**garrantzidxotu, garrantzidxotuten.** (GARRANTZIoTU) Arranciarse, enranciarse. Ik. *garrastu*. || *Pernille olan garrastu eitten danin, "Garrantziotu einde dau" esate dxako. Urdindu barik eitten da garrastu-edo. Kolorie aldatu be, batzuri eitte dxake, beste batzuri etxake eitten, segun noraiñoko dan beren mingostasune*. || *Da olanik, pernilen asurreri, ba, garrantziotu esate dxako, ba, mamiñe akabaute daunin, da pernille asurrin daunin, emen baserridxen esta iños aprobexetan, baya ba olan dendetan, edo karnaseridxetan-edo saldu eitten dabe, saldi eitteko. Nik estaitt selan saltzen daben garrantziotute dauna*. || *Bueno, garrantzidxotu eitten dana ixeten da..., ser esangot neuk?, igul garrantzidxotuten da baya geusa batzutarako balidxo ixeten dau garrantzidxotu arren. Garrastu eitten da, garrantzidxotu esate dxako baya, da garrastu*.

**garrasi, garrasidxe.** (GARRASI) Grito estridente, chillido agudo. Ik. *saratie*.

**garrasike.** (GARRASIKA) Chillando. || *Garrasike on dok*. || *Euntze garrasike. Euntze pe, igul esate baterako, "Garrasike dxak euntze". Beidxeri etxako esaten garrasidxe. Murruntzi. Baya garrasike, "Euntze be garrasike dxak"*.

**garraska, garraskie.** (GARRAZKA) Acídulo, -a, ligeramente agrio o ácido. || *San jun sagarra da goixetik etorten dan sagarra. Apurtxu garraskatxu ixeten da baya ba goixetik etorten da*. || *Menbrillue beres sagarra lakoxi da, garaunek ekarte ittu, baya esteko sagarren gustori pe, apur bet, se esangot neuk?, garraskiau, edo mingoskiau-edo ixeten da, da espesiala ixaten da menbrillu eitteko*. || *Garraski dau*. || *San Pedro sagarra ixeten da garraskatxue*.

**garrastasun, garrastasune.** (GARRAZTASUN) Amargor, gusto amargo. Ik. *bidxotzerrie*.

**garrastu, garrasten.** (GARRAZTU) Agriar(se), avinagrar(se), picar(se). Ik. *garrantzidxotu*. || *Esnie garrastu*. || *I, au garrastute dak, galdute dak*. || *Jatekue garrastu ein da*. || *Da arixeri esate dxako mostue. Da gero ba eitten da garrastu, gero irakiñ eitten deu, da gero garrastu eitten da. Da gero irakitten dabenien sartzen da botilletan*. || *Bueno, jatekue garrasten danien, likindute gelditzen da*. || *Garrantzidxue ixeten da, bai, urdiñe bai, baya urdiñe bari pe eitten da okelie garrastu apur bet*. || *Okelie..., bera nekesau eingo da igul, okelie baya olanik e garrastu eitten da. Jateko modukue plantau, da espada kastetan ba garrastu eitten da*.

**garratz, garratza.** (GARRATZ) 1. Agrio. *Mingotxa ere esaten da, baina garrastasun maila txikiagoa denean*. || *Baya garratza esate dxako jeneralien, ardaue mingotxa badau, esate dxako garratza. Bai, garratza sagarrari be. Da beste batzuk esate tze*



mingotza. *A bixidxe, garratza.* || *Sagar garratza.* || *Esta gasi be (goraberie), a garratza be-esta, baya apurtxu bixitxu da bai.* || *Gero andraiñ okana be badau, garratz-garratza da berau.* || *Garratza dau.* || *Bedartzan urtete ben matxin bedarrak, asis betarik urtete ben, olan txupau te sera eukitte ben, euren ure, garrastxue bai, baya ba txupetako modukue.* **2.** Duro, -a, severo, -a, amargo, -a. || *Jose garratza da.*

**garren, garrena.** (GARREN) □ **garrenien.** Al cabo de, después de. || *Sei illebeta garrenien.* || *Urteko mesie: illeri eitte dxakona, andik urtebeta garrenien.* □ **garrenerako.** Al cabo de, después de. || *Ebeitte dau a esnie, esne murgille.* "*A murgildu dok*" *esni galdutakun be esaten da oin be. Ba esne murgille, ostantziñ esne murgille da txala ein de egun bat garrenerako dauna.*

**garrotie.** (GARROTE) **1.** Palo que aplicado a una cuerda o cadena, con el que, al retorcerla, se conseguía apretar. **2.** Jaleo, pelea. || *Garrotie egon da.* || *Polixiek garrotie atara dabe.* **3.** Paliza, castigo, destrucción. || *Selako garrotie Gernikeri emo tzen! Aixen san! Da or ei ben ori ikatziarren, billurras entregetiarren danak.* □ **garrotie emon.** Pegar. *Ik. latigue emon.*

**gartzela, gartzelie.** (GARTZELA, kartzela-bat.) Cárcel, prisión. || *Presue gartzelatik etara.*

**gartzelaidxe.** Curva que forma el lomo del ganado. || *Gartzelaidxe da ganaduk e onan eukitten dabe ba ori kurbe eundidxe. Areri kartzelaidxe esate dxako.*

**gasa, gasie.** (GAZA, geza-bat.) Insípido, -a, soso, -a, sin gracia. || *'Gasie' da ille, 'gasie' esate dxako a bixitasunik, mingostasunik estekonari.* *Batzuri gasi gustaten dxake, bestiei mingotza.* || *Oneri andriri gasi gustaten dxako asko geidxau. Onek mingañak-eta bixidxauk dire.* □ **sagar gasie.** Manzana dulce. || *Sagar gasie mingotza estana.* || *Esta gasi be (goraberie), a garratza be-esta, baya apurtxu bixitxu da bai.*

**gasi, gasidxe.** (GAZI) Salado. || *Gatzure? Uteri gatza bota, da nastau-nastau ein, da axe ur gasidxe. Samako miñentzako-ta esta txarra ixeten.* || *Arto urune botaten da irakitten daunin, da gatza be botate dxako, bueno apurtxut bayo geitxuau olan, baya askorik es, gasidxe urteten deu te.* || *Gasidxe dau.*

**gasigarri, gasigarrixe.** (GAZIGARRI) Alimento salado; alimento salado para comunicar este sabor a otros. || *Gasigarrixe? Bai, gasidxe daunari esate dxako, seinde makillau ipiñikot konparasiñoyen, ba "Gasigarrixe gustete dxako" ta ba, makillau jateko ipintten danin ba "Gasigarrixe ipiñi" tte.*

**gasi-gasa.** (GAZI-GAZA, gazi-geza-bat.) Punto de sal de las comidas. □ **gasi-gasan probau.** Probar el punto de sal (de las comidas). || *Gasi-gasan probati da kosiñan dabillenak artu saldie, kaldue, da ona gasi-*

*gasan ia ondo badau espadau, asko badeko ala gitxi badeko ala. Gasi-gasan. Ori esaten da.*

**gasittasun, gasittasune.** (GAZITASUN) Salinidad, salsedumbre. || *Orrek deko gasittasune!*

**gasittu.** (GAZITU) Salar. || *Gatza bota barik badau, esta gatzure, baya gatza botata, gasittute badau, ba gatzure da.*

**gasojeno, gasojenu.** (GASOGENO) Gasógeno. || *Piñu adarras or e gerra ostien, gasojenuk egon siren. Gasojenuk kotxiri... Es euen gasoliñarik eta. Egurras eitte ben. Piñu onena. Piñu adarras eitte ben. Piñadidxe bota, esta? Da adarra. A trongue saldu eitte san serrara. Da adarra. Da ona sala esate ben, da eitte ben, piñu adarras be.*

**gasoneska, gasoneskie.** (GATZUN-ASKA) Saladero, depósito de salmuera, recipiente para salar y guardar el tocino de la matanza. || *Gasoneskak dire kajien modure eindako orrek. Aintxiñeko gasoneskak sirin lodidzek, da kapias einde kaixie les. Sesiñentzako gasoneskie. Txarridzentzako be bai.* || *Gasoneski da okelintzakue. Gasoneskie amentxe egote san. Beittu oin selan daun ormie! Gasoneskik beti gatza emote ban.* || *Gasoneskak or bata, or bestie. Da batin, txarridxe be alan egote san, da gero sesiñe esate dxakon, txalana, okeliri. Aparte bi, beti guriñ egote sirin, gasoneskak. Da bueno, orrek, ori gatza, efetu itzela ormiri be!* || *Gasonesketan okela fresku gordete san gatza emonda. Gatza emon, da gasoneskan gorde. Da gero ba an bi xanien, besteran atara eitte san, gasuneskati pa sati bet-edo, urren egunerako bi dana, ba botate tzen ur freskotara gatza kentzeko, da gero eguniñ-egunin ba, edo gixau, edo gosi-edo eitteko.*

**gastai, gastaye.** (GAZTAI, gazta-bat.) Queso. || *Ardidxen esnias eitten da gastaye.* || *Gastaye eitteko lierra bi da, arek gogortu bi deu.* || *Gastaye neu pe eitten dot, baya esatekorik es.* || *Gastai esni eratzi, da segidxen, esnie eratzi, epel-epela eoten da, da eratzi, da emote dxako ligerra. Ligerra ixeten da, jeneral euma pe eukitten dabe, billotza pe eukitten dabe, jaten asi bakuek; ixeten di esnukas ondiño dasenak, estabenak jaten. Da alakoxiri kentze dxake, ligerra esate dxako. Esnie edan, da geldittute dxaken..., poltza bat eukitten dabe barruen. Da il, da poltzi kentze dxaken, da gero sera areri musturre lotu eitte dxakon, da sakutu, ba eskei eitte san siketzeko. Da gero axe esni eratzi, ta esne epelari emote dxakon, axe emon, da bide bates e..., bueno orretako be, a ligerrari kentze dxakon..., satitxu bat kentze dxakon. Eitte san dana barik, satitxu bat kentze dxakon, da trapu garbitxu baten batze san, da aixeri ligerra emote dxakon, esniri, ekukin-eskukin-ekukin ligerra emote dxakon, esniri, ekukin-ekukin-ekukin, dana urtu artin. Olantxik ibili, da urtze sanien, ba itxi eitte dxaken. Da gero esnie eitte san..., ligerra artze banin, esnie gogortute gelditze san, gogortute edo seinde bigune eote san ondiño, da gero a ra-ra-ra marka batzuk eiñ e, kutxilluas, da a gero pasau eitte san, pasau eitte san pasadorien edo trapu baten-edo, pasau eitte san, da urek atarate dxakosan, urek*

atara, urek atara. Da botate san, a ligerra emonda daun esnie. Urek atara, ta onaxe, urek atara, da onaxe, urek atara, ta onaxe. Ta bete-bete einde ipintte san, da gero ba iste san ontzi baten edo kasuela baten-edo iste san, da urek urten izaten, urten, da urten eitte tzon. || Gastaye ein bere moldien. || Bai, neu pe eitte naben, baya saltzeko-ta es. Biarretik etorritakun ba jate san gastaye, ogidxas. || Bueno, ardidxen esnias eitten da gastaye, beidxenas be bai, euntzenas be bai, baya urteten deu orrek e beidxen esnias eitten danak urteien deu urridxaue, gitxiau. Gitxiau urteten deu ardidxenak eta euntzena payo. || Arrolan egon san pastorie, da eukitte sittun –oiñ esta iñor be bixi- baya eukitte sittun ardidxek. Da Siertzakorta ixena dekon beste etze bat egon san, Arrola bayo berau, arantzau, da are pe bai. Da arek e Arrolaku pe iños e emote ban olanik gastaye. Da arek Sirtzekortakuk saltzeko gastaik eitte sittusen. || Gastai eitteko, esni aparteta san, euntzena jeneral. Len euntze pe euki gendusen, da oiñ estekeu bape baya. Da euntzen esnie meyau ixeten da beidxena bayo. Da euntzen esnie aparteta gendun gastaye eitteko. □ Gazta haundiaz honela esaten da:

Ori da gasta burue! □ **gastai esnie**. Leche con la que se hace queso. || *Gastai esni eratzi*.

**gastanur, gastanure.** (GAZTANUR) Suero del queso fresco. || *Gastaye eitte san, ta ligerra emon, da euki apurtxu baten, da gero eskukin kendu eitte dxako gastaye. Da gero ure garatuten da; ba a ure aintxiñe batu eitte san: gastanure.* || *Gastanure len jaurti eitte san, da txarridxeri emote dxaken loditzeko.* || *Gastaye eitten danien, areri ure atara bi ixete dxako. A da gastanure.*

**gastaña, gastañie.** (GAZTAINA) **1.** Castaña. Gaztainak estittadak eta salbajiek izan daitezke. Ik. *biskai gastañie, estittadie, indidxa gastañie, txikola.* || *Gastaña errie.* || *Gastaña lakatza.* || *Gastañetan jun.* || *Gastañak batu.* || *Gastañak eratzi.* || *Sindue, gastañiri, gastañi esate gentzon, "Sindu das".* || *Egosteko be eitte dxako surittuten estanien e ras! sati bet kendu te egosi. Da guk baldistu arixerri esate gentzon, gastañiri egosteko kentze dxakon satidxeri.* **2.** Castaño. || *Gastaña orbela.* || *Bertan eurrien dekos gastañak, oin gastañak ustelduko sin, gastaña arbolak, gastaña aundidxek.* || *Oin gastañarik esate baterako estau, len ainbeste gastaña euki gendun-de, gero arek igertu sirin, de oiñ estau gastañari pe, baya ba.* **3.** Castaño (material). || *Da gastañakiñ eitte sittuen otzarak, oiñ estaitt eitten baittue baya, onenbeste urte biar ixeten deu, lau-edo, olanik bigun egon deidxen bera.* || *Orretarako (sesto edo otzara eskuak egiteko) jeneral ibiltten da gastañie, gastañie... ser esangot neuk?, siketunekue es, berdie, oboto urteten deu te berdi ixeten da gastañie. Da ixeten da ba auxe bayo loditxuau-edo, olanik, au be gastañi ixengo da. Au olan dometako gastañi ixeten da.* □ **gastaña**

**munteidxe.** Cerco de piedras donde se recogían las castañas en el monte. Ik. *muntoidxe.* || *Len basurdak eta ardidxek-eta gastañak jan esteidxen, ardidxekiñ ormie eitte san, ta an gastaña munteidxe, gastaña munteidxe... paluas, kakuas bota da lakatzas, lakaskidxas, lakaskidxa eitte san egurras ta taka-taka, atzamarretan..., taka-taka, sesture batu ta ara bota ta gero negurako an ixeten san.* || *Se basun, urrunien, etxera ekarten e..., gastañak ibiltten sien sasoyen, biar asko, da bertan, munteidxe esate dxakon ari, gastaña-munteidxe. Da gero neguen jun da eskuari buruas edo, txaka-txaka-txaka jo ta garauek eta, tita-tita-tita garauek saku bete ta etzera ekarri, jateko.* || *Gero lakatzakiñ eitte san pillue. Gero ba obeto konserbete sa les lakatzien daun garaune, bi danien, juen lakatz montoidxe daun lekure, da garaunek atarate dxakosan, da bi dana ekarri etzera. Da gastau artien alantxik egote siriñ ille bi, irun be bai.* || *Gastañak eitte sittuen mendidxen pilleute ipiñi munteidxe, tapaute. Ta gero ekarte besen are lakatzak kendu, de gastaña munteidxe.* □ **gastañe jana.** Castañada. □

**gastañerre jana.** Castañada. □ **gastaña sepie.** Castaño joven que crece formando un espeso bosque. || *Basotik jun, de sepak erute sittuen, gastañe sepak.*

**gastaña tokidxe.** Lugar donde se recogen las castañas. Ik. *gastaña munteye.* □

**gastaña txikola.** Castaña pilonga. || *Gastaña txikolak tire gastaña asi bakuek, albotxun eukitte ittuenak e..., txikoltxu eukitten dabe, da gastaña eundidxe asitten dana pe eukitten deu albotxun txikoltxue. Txikoltxu dana, mamiñik estekona.* □ **biskai gastañie.** Variedad de castaña de pequeño tamaño. || *Ori biskai gastañi esan dosuna, ori be bai, txikitxu ixeten da.* || *Biskai gastañi besti payo txikitxuau ixeten da.* □ **indidxa gastañie, indi gastañie.** Castaña de Indias. || *Indidxa gastañie badau, santarra ixeten da e!* || *Indi gastañak len egon sirin. Oiñ estau orretariko ixenik eta es gastañarik. Len gure sarrak ixenakiñ eukitte ittuen gastañak.* || *Indidxa gastañie da..., gastaña normala esta, da..., da arek estan daben gastañie ixeten da au korrienti- bueno, korrienti pe txikidxauek eta aundidxaue das- bayo aunditxuau ixeten da. Indidxo gastañie esate dxakon arixerri, baya esta ixeten jatekue.* || *Indi gastañie ixeten da..., naiko gastaña garaun eundidxe ixeten da, da nik estakitt jateku bada, personik jateku bada. Ori kaliñ oten diriñak, arek arbolak an oten diriñak alakoxi eukitten dabe, baya a estot pentzetan ixeten danik jatekue.*

**gastañarro, gastañarrue.** (GAZTAINARRO) Castaño ahucado. || *Gastañarrue? Bai, gastañarrue esaten da, gastañiri, barru utze dekonari. Ganie, asala ta ganie, da barru utzik.*

**gastañedi, gastañadi, gastañedidxe, gastañadidxe.** (GAZTAINADI) Castañal.

**gastaro, gastarue.** (GAZTARO) Juventud (edad de la vida). || *Gastarue pasaute deko.* || *Gastarue? Bai gastu danin.*

**gastasun, gastasune.** (GAIZTASUN, zailtasun) Dificultad. || *Artzeko gastasune.*

**gastau, gastetan.** (GASTAU, gastatu-bat.) 1. Gastar, emplear (dinero). *Kastau* ere esaten da. Ik. *kastau.* || *Dirue gastau.* || *Orrek baleko, gastako leke.* || *Etzekaltie? Ba, etzekaltie jokun eitten dabena, dekosen eukidzek-edo berak gure itun modun gasteta itun-edo. Etzekaltie axe da.* || *Bueno, bai, itzolapikue len esate san oin bayo geidxau. Oiñ e unik itzolapikora bota barik diruk gastau eitte itu.* 2. Gastar(se), desgastar(se), deteriorar(se) con el uso. || *Soru gastau ein da.* || *Narrak aspidxen baseta eruten deu, beran aspidxen gastau esteidxen mateidxala. Se a mateidxala gastetakin ostabe barridxe ipiñi bi dxako. Da es gasteteittik, ba aspidxen geigarridxe ipintte dxako alako sididxeekin. Egurresko sididxe bidau, se gastau ein bi dau are pe bestias batera. Beti gastate dxakon. Da gero idxe gastaute dauniñ e, narran egala atrapau orduko, barridxe ipiñi.* 3. Limar, gastar. || *Limiek burdiñe gastetan deun les, arraspie egurre gastetakue da.* || *Limias gastau eitte dxako burue, da punti esarten da egurrien, da buru dana gastau eitte dxako limias, da ba gana sorrostute, olan gantxu bat eukitten deu ganak, beidxeri siki eitte tzo.* 4. Terminarse, desaparecer. || *Oin gastau dire eskekuek.* || *Sagar sarra da, oin gastaute dau ya, bay nik esatu dot.* 5. Desmejorar una persona. || *Gastetan doye.* 6. Usar. || *Da satz seye. Ortutarako-ta ba, solorako bayo geidxau ortutarako, ortuaridxentzako gasteta san.*

**gaste, gastie.** (GAZTE) Joven. || *Ondiño gaste dau te: buru gitxi.* || *Gu gaste giñenien.* □ **gastetan.** De joven. || *Aintxiñe, gure gastetan, Aullisti, ba, aundixue ixen san.* || *Gure gastetan munteye, gastaña munteye eitte san orrekin.* □ **gastetandik.** Desde joven. □ **burue gaste ein.** Hacerse el joven, dárselas de joven. || *Gaste eitten deu beren burue.*

**gastealdi, gastealdidxe.** (GAZTEALDI) Remozamiento. || *Gastealdidxe etorri dxako orreri.*

**gastera, gasterie.** (GEZTERA) Aguzadera, piedra rotativa de afilar. || *Gasteri da askorak-eta sorrosteko, a biribile.*

**gasteri, gasteridxe.** (GAZTERIA) Juventud. || *Erriko gasteridxe.*

**gasterik.** (GAZTERIK) Joven, siendo joven. || *Sekule bedarra bueno! Sekule bedarrak len onen tamañotxu artze ban, baya korti emon biste dxakon arin, txapeldu orduko barridxe emon deidxen. Se eundidxe eitten basan, gero ya esan..., usteltzera jute san, da gasterik ebai biar.*

**gastetasun, gastetasune.** (GAZTETASUN) Juventud (cualidad). || *Orrek deko gastetasune!*

**gastetu.** (GAZTETU) Rejuvenecer(se). || *Gastetu ein da.*

**gastu, gastue.** (GASTU) Gasto. □ **gastu bakue.** Persona que no gasta mucho. || *Ori gastu baku da!*

**1 gatx, gatxa.** (GATX, gaitz-bat., zail) Dificil. || *Gatxa itxi tzo.* || *Intxaur oskola gatxa da eutzitten.* || *A kentzen gatxa da.* || *Ori dok geuse gatxa, itxosoko ure dana kentzie les.* || *Ori "dxe" palentinuek eta burgalesak gatxa eukitten dabe esaten.* || *Sarrasoidxe bastante fuerte daunin, eurrin, amar metrora ikusten gatx egoten da be.* || *Tripostute daun ganadue mejoretan gatxa da.* || *Gero atxegi aundi bet pasau bi de olan, olako arridxe. Antxe pasetan gatx egote san.* || *Ori gatxa da eitten.* || *Gatx sartze dxako buruen.* || *Elbitze ebaten gatx-ok.* || *Emen txondorra eitten etxak gatx. Emen berton dxak dana ta.* || *Orixe da gatxa entenitie.*

**2 gatx, gatxa.** (GATX, gaitz-bat.) Mal, daño, perjuicio. □ **gatx ein.** Dañar, perjudicar, hacer o causar daño. Sin. *txarto ein.* || *Gatx eiste.*

**gatx, gatza.** (GATZ) 1. Sal. || *Gatz garaue.* || *Gatz apur bat.* || *Gatza makro bat botate dxako.* || *Sebuek gatzi paku ixen bi deu.* || *Gatz apur baten falti deko, gatx apurtxut bota bi tzet.* || *Da puesti da ba satidxe, nai ixen lei urdeidxe, da ixen lei txalena be, txalena okeli be, da gatza artun de gero, ba eskei eitte sirin.* 2. Sal, gracia, ingenio, viveza. || *Es gatzik eta berakatzik.* □ **gas bakue.** Soso, -a, aburrido, -a, falta de gracia. || *Gas bako personie ori da!* □ **gatzi bakue.** Insensato, -a. Ik. *buru bakue.* || *Gatzi bakuori!* □ **gatx lodidxe.** Sal gorda. □ **gatx seye.** Sal menuda. □ **gatx ondakiñe.** Resto de sal del saladero. || *Gatz ondakiñek: gasoneskan dasen lengo txarridxenak, edo lengo sesiñen gatx ondakiñek.* □ **gatx artun.** Coger la sal. || *Gatzatue ein deidxenien, gatza artun dabela esaten da, esatekotan.* || *Gatz artun? Bai, sesiñe iltte danien, "Okelik gatx artun deu".* □ **gatx emon.** Añadir sal. || *Sesiñe ixeten da txalas, edo beidxas, bei geusias eitten dana ixaten da sesiñe. Len gatza emote dxakon, da... sesiñe eitte san. Oingo konjeladoretan sartzen dire, eta etxake gatzik emoten.* || *Gasonesketan okela fresku gordete san gatza emonda. Gatza emon, da gasoneskan gorde.*

**gatzarri, gatzarridxe.** (GATZARRI) Sal gema. || *Guk karie eitten ba, kanteran arridxe atarata. Da arek gatzarridxe bako, arridxe tiruk botate ebesan, da erre es. Arek estau balidxo karie eitteko.* || *Gatzarridxe ganaduri emote dxake.*

**gatzatu, gatzatue.** (GATZATU) Cuajada. || *Gatzatue ardidxen esnias eitten da.*

**gatzontzi, gatzontzidxe.** (GATZONTZI) Salero (recipiente).

**gatzur, gatzure.** (GATZUR) Salmuera, agua cargada de sal. || *Salmueran: erbidzek eta olan ipintten dire gatzuretan. Egun bat edo bidxen ipintte ittues. Orreri deittute dxako salmuera.* || *Gatza bota barik badau, esta gatzure, baya gatza botata, gasittute badau, ba gatzure da.* || *Salmueri da gatzure ipiñi, da antxe pasetan dan arraiñe siketzeko, edo okeli siketzeko, salmueri esate dxako, salmuereetan.* || *Gatzure? Uleri gatza bota, da nastau-nastau ein, da axe ur gasidxe. Samako miñentzako-ta esta txarra ixeten.*

**gau, gaba.** (GAU) Noche. || *Goixetik gabera.* || *Goixiñ asitte gaberaiño.* || *Gau baltza dau.* || *Gau illune dau.* || *Gabiñ etorri da.* || *Gaba etzien pasau gendun.* || *Gabetik goixera aberastu san, estakigu selan baya.* || *Gabien erromeridxe eitten dabe.* || *Da esan tzon. "Eingo tzesu txondorrari kargu?" Sapatu gaba-edo ixan san. Da bai.* □ **gabas.** De noche. || *Mosolu esta egunes ibiltten e. Esaten dabe egunes estala ikusten, da gabas. Ori esta egidxe, esakuni bada, baya nik egunes be ikusi dot e ibiltten.* || *Gabas etorri da.* || *Bai, gabas saindu ein bier ixeten da txondorra. Txondorra esate dxakon.* □ **gau beranduen.** Avanzada en la noche. || *Gau beranduen etorri da.* □ **gau te egun.** Día y noche. || *Baya karabidxe baten kargaute, arik eta dana eiñ arte, sue! Beti atakatik. Dosena-amabost egun-de erreten, gau te egun.* □ **gau txoridxe.** Noctámbulo, aficionado a andar de noche. || *Gau txoridxe gabas dabillenari esate dxako.* □ **gaba etorri.** Anochecer, hacerse de noche. || *Gaba etorri bi dxat berton!*

**gauaro, gauarue, gauerue.** (GAUARO) Temperatura o tiempo de la noche. || *Illundute ba denpora ederra badau, "Gauaru ona dau".* || *Gauarue da gaba ona nai txarra. Gaba badau ona, "Gauero ederra dxak!".* *Te iguel, Dios, iñetasidxe, "Gauero txarra dxak!".*

**gaubela, gaubelie.** (GAUBELA, gaubeila-bat.) Velorio. || *Gaubela: etze baten bat iltte danien, eusuketa, adiskidik-eta jun araxe eta gau gustidxen erresetan egon.* || *Gaubelan esaten da emen. Otz sanin, beres iltte sanen gorpue, a iltte sanin, orduntxe gabiñ eitte dxaken gaubelie. Baya gorpue jentin bistan e san egoten. Gorpue egote san beren kuartuen.* || *Gaubelan emen e mesarik egon be esta eitten. Erresaidxu erresetan da, bat nai bi nai senbat jente juntetan dan, da esta egoten besterik e, erresau te gero etzera juten da.* || *Gaubelie eitte san len.* || *Len erresaidxu use te san. Danak batun, kopradidxe, da gaubelie esate dxakona. Alan eitte san.* || *Neu be baten bayo sarridxau jun netzen gaubelara. Gaubeli esate dxako*

*ba. Ya egune ya argittu arte. Gero erlebu be eitte ben batzuk, ya goxaldiñ-ero ya beste batzuk jute sin, enbrak-ero goixarte, egune argittu arte.*

**gaupasa, gaupasie.** (GAUPASA) Pasar toda la noche de juerga. Ik. *errondie.* || *Gaupasi ein.*

**geutu, geutu.** (GAUTU) Anochecer. || *Geutu da.* || *Gautute dau.*

**geidxau.** (GEHIAGO, haboro) Más. || *Diñue bestie geidxau dala gurie bayo.* || *Senbat eta geidxau jan, geidxau ekarri.* || *Bai, bidxetara esaten da, aseri bustena be bai tte aseri bedarra be bai. Aseri bustena ondiño geidxau esaten da.* □ **geidxau gurekue.**

Ambicioso, -a. || *Geidxau gurekue da ori.* □

**geidxauko barik.** Sin más ni más, sin fundamento, sin motivo suficiente. || *Geidxauko barik amaittu!* □

**geidxauten.** Más veces. || *Bein jun nas bakarrik, da geidxauten juteko gogu be kendu dxaten ikusi nabenin.* || *Emen dunbie, geure aitte sanari be dunbie entzun*

*netzon baten bayo geidxautan.* □ **geidxau ixen.** Ser superior, vencer. Ik. *gitxiau ixen.* || *Seiñ ixengo da geidxau?* || *Se nik esan neixu suri "Su bayo geidxau nas ni bedar ebaten".* *Da su esetan bes, ta ni su bayo geidxau bedar ebaten nai askoran nai jorran nai atxurren.* □ **geidxau ein.** Superar, vencer, rebasar. Ik. *aspiretu.* || *Askonarrak anak eukitte ittu onakoxe lodidzek, senduk. Txakurreri geidxau eitte tzo burruken. Koban-da. Askonarrak eitten deu, ankas gora plantau, da txakurreri dale emon!*

**geidxegi.** (GEHIEGI) Demasiado. *Larrei ere esaten da.* || *Géidxegi ipiñi dosu.*

**geidxen, geidxena.** (GEHIEN) **1.** La mayoría de, la mayor parte de. || *Baya gantzaridxe da..., ser dala esangot?, a be txala oten dan lekun oten da, baya a botaten dabenak e..., bai arin sartu eskeruen- se geuri be salbau dxakun-de- salbau eitten dire. Da geidxenak ill eitten dire.* || *Urridxen idie, idie ta artu ta danak orduntxe. Orduntxe illerik e..., biarrik geidxen eitten sana laku.* **2.** Más, en mayor medida, principalmente, a lo sumo. || *Erromatera jute siren, da seiñek geidxen agindu, arixeri emon urtebeterako.* || *Ezin geusa gustidzek gure dotas baya libruék geidxen.* || *Kakarralduék negu partien da olan, illuntzitan da olan geidxen ibiltten da.* || *Gernikera buelta bat ein bidxuat, geidxen be egun erdi.* || *Geidxen gure eitten deuna.* || *Bueno, ganadue! Geu pe amabi-amairu eukitte gendusén. Da oiñ e sei-saspi geidxen.* □ **geidxen be.** Principalmente. || *Tremesak, lelengo jateko. Gero arek ixate sirin labako su eitte san egunien, da geidxen be kuadrilli daun lekun urrengegunerako asko es san sobrauko.* □ **geidxenes.** A lo sumo. □ **geidxenetan.** Las más veces. □ **sekuleko geidxen.** Más que nunca.

|| *Jente asko eurton! Sekuleko geidxen! Denpora ona ei ban e!* □ **geidxen ixen.** Ser superior, el mejor.

**geidxenbat.** (GEHIENBAT) Sobre todo, principalmente. || *Bueno, txarto jantzitze badoye, ba ardure baku dala esate dxako geidxenbat.* || *Gerra ostien estraperlue segas eingo san ba? Jateko geusias geidxenbat.* □ **geidxenbaten.** Sobre todo, mayormente, principalmente. || *Okeli ipintte san, bai, konserbetako geidxenbaten, artu, salmueratan egon deidxen, da gatza artu deidxen.* || *Usi da leku bat, ba jauberik estekona, edo beres e esteko, usiek estau eukitten usaba bat, espabese usi dan terrenu da, geidxenbaten da erridxena, edo gobernuna: usie.*

**geigarri, geigarridxe.** (GEHIGARRI) Suplemento, anexo. || *Gabillie? Egurre... Narra bakixu ser dan. Narrak aspidxen baseta eruten deu, beran aspidxen gastau esteidxen mateidxala. Se a mateidxala gastetakun ostabe barridxe ipiñi bi dxako. Da es gasteteittik, ba aspidxen geigarridxe ipintte dxako alako sididxeekin.*

**geispe, geispie.** (GERIZPE) Sombra, zona en sombra. Ik. *kontrasola.* || *Arek deko geispe ederra.* || *Beti dao geispian an.* || *Bueno, potiñe..., oiñ estau, apartau sala pentzetot, geurin be on san e! Da mendireko ibiltte gendun, ure eruteko. Da feskuau, lurrekue ixen eskeruen, freskuau konserbau eitte san geispiñ ipiñitte.* || *Geispeko idie bastue da, euskittekue fiñe.* || *Gerispie, euskidxe gerispie.* || *Kontrasola be esaten da. Ondo pentzau eskero, erderas da, "Contra sol". Geispie esan gure dau kontrasol.* || *Adaburue esate dxakon, beidxe bustertute doyesinin, adaburukue, ardin narrue, busterrin ganiñ jarte san a, pintxidxe e, dana gora, adaburukue axe ixete san. Beidxeri geispetxue edo, eurietitiek edo, apur bet tapetako beiñipein.*

**geispeta, geispetie, gerispetie.** (GERIZPETA) Sombra, zona sombreada. || *Geispeti daun lekun.* || *Geispetan ondo sak.* □ **geispetako idie. 1.** Helecho de paraje sombrío, que suele ser basto. **2.** Persona basta. || *Geispetako idi ixeten da bastue. Da ba personi bastu bada, ori esan leidxo.* □ **geispetan sartu.** Encarcelar.

**geisto, geistue.** (GAIZTO) Malo, -a, travieso, -a. Ik. *txarra, drogosue, okerra, alde txarrekue.* || *Ume geistue.* || *Saunke be esaten da, da eusidxe be bai. Olan gogor eusike dausenin ba eusidxe esate tzeu. Saunkek txikidxauk eitte ittue, ba seinde bertoko jenti datorreniñ-edo, etze antzeko datorreniñ-edo, ba estittu eitten orrenbesteku pe, estire olan geisto be plantetan.* || *Sube baltza? Bai, esaten da baya sube baltza bayo gorridxe geistuuu ixeten da.*

**geistokeri, geistokeridxe.** (GAIZTOKERIA, gaiztakeria-bat.) Maldad. Ik. *trastokeridxe.* || *Geistokeridxe da ori.* || *Trasteridxe da..., esate*

*dxakona, edo ganaduri, edo mutiku bateri gaistu danin da gaistokeridxe eitte ittunien, okerridxe eitte ittuna.*

**geistotasun, geistotasune.** (GAIZTOTASUN) Maldad. || *Geistotasune deko.*

**geistotu.** (GAIZTOTU) Volverse malo, -a, hacer(se) malo, -a. || *Geistotu ein da ori burutik.* || *Txakurre geistotute dau.*

**geittu.** (GEHITU) Aumentar, acrecentar. || *Piñuas asko geittu da.* || *Errekondutan, uren txarku datosen lekuen, ure be jaidxoten dan lekuen, da gero euri asko danin geittu eitten dire, da gero uden agortu eitten dire. Da ba arixeri esate tzeu guk ori, espatie, antxe urteten daben bedar santarrari.*

**geixuuu.** (GEHITXUAGO, gehitxoago-bat., haboro) Algo más, un poco más. || *Txipitti? Indarra jotekue. Onakoxe egur bi, metro bayo geixuuuaukuk, eta amen eitte tzen narruas, ugelas eiñ alkarri lotu, da ein gero onan buelta eittekue.*

**geixe, geixie.** (GERIZA) Sombra. || *Geixie ein.* || *An beti dao geixe.* || *Geixie eitten dao.* || *Illunpie da illune..., olako geixa eitten daben geusa bat, da "Illunpi dxak or".* || *Geixa daun geusi be: "Illunpin dxak, argittasuni pe etxak".*

**geixeta, geixetie.** (GERIZETA) Sombra. || *An daus geixeta asko uderako.* || *Geixetara juen dire.* || *Geixetan daus.* □ **geixeti ein.** Dar sombra. || *Geixeti eitte-ste.*

**geixo, geixue.** (GAIXO) **1.** Enfermo, -a. || *Geixue sendotzen asi dok.* || *Geixo eitten deu ak beren burue.* || *Iños entzu ot, geixu etziñ ama, da ure eskatu, ta goxaldien urten, etzien, artu ontzidxe da araxe iturrirre, uretan. Amari eruten. Antxe dago iturririk onena, urik onena Nabarriskue.* **2.** Enfermedad. || *Asaleko geixue.* || *Geixue inkeu.* || *Orrek geixu txarra deko.* || *Oneri lanari geixue allegau dxako.* || *Aurrera dxoiko geixue.* || *Arixeri asukeri bota, ogi salutaue arixeri ardauri eitte dxakon, da a etzeko gustidxe dana jan biar ixete ben apur bana, geixo txarrik etorri esteidxen.* || *Da iguel beye geixorik ero jeusitte-ero badau, "A ya beidxe ondatu dok". Gixonari, nai personi be bai, "A be ondatute dxak geixuas".* || *Batak geixu artu ban, estai se gaixo modu te il san.*

**geixoki, geixokidxe.** (GAIXOKI, erikor, eribera) Enfermizo, -a. Sin. *geixotzue.* || *Geixorik asko eoten danari ba geixokidxe.*

**geixorik.** (GAIXORIK) Enfermo, -a. *Geixotik* ere esaten da. || *Geixorik dxak ondoesas.* || *Bixidxenas dau geixorik.*

**geixotasun, geixotasune.** (GAIXOTASUN) Enfermedad. Ik. *geixue.* || *Bai, geixotasunas enaben ein.* || *Geixotasune pasau.*

**geixotik.** (GAIXORIK) Enfermo, -a. *Geixorik* ere esaten da. || *Euki ban suerte txarra askenian arek. Alabi be geixotik euki ban, estakitt askanin ser ein*

*dxakon alabiri. Beste alaba ba be bai. Da suerte txarra asko euki ban gixajuk.*

**geixotu.** (GAIXOTU, eritu) Enfermar(se), caer enfermo.

**geixotzu, geixotzu.** (GAIXOTSU) Enfermizo, -a. Sin. *geixokidxe.* || *Geixotzu? Bai, geixorik e asko egon eskerun.*

**gela, gelie.** (GELA) Cuarto, dormitorio. Baserrietan etartearen albo bietan izaten ziren gelak. Albogela edo gela izena gorde dute; goiko bizitzakoei, ostera, *kuartue* esaten zaie. || *Egal bidxetara eukitten sittun etzik gela bi.* || *Bekuri gelie da goikuri kuertue.*

**geldi, geldidxe.** (GELDI) **1.** Parado, quieto, tranquilo, sosegado, inerte, estancado. || *Ur geldidxe.* **2.** Parado, sin moverse, quieto. || *Geldi parau.* || *Amen egon nok geldi.* || *Ego seittes geldi!* || *'Askar', geldi egon adi!* || *Geldi egon esiñe.* || *Geldi eoten estanari esate dxako "Sosigu baku da!".* || *Gero ba onenbeste denporan agindu ban medikuk geldi egon bi dabela, ta alantxik geldi egon san, da ondo geldittu san.* || *Galdatxue estai guriñ e oin badau. Makiña bat denpora egon san geldi.* **3.** Calmoso, flemático. Ik. *lotue.* || *Gixon geldidxe.* || *Geldidxe da.*

**geldik.** (GELDIRIK) Quietu, -a. || *Geldik egon esiñe deko.* || *Txala ein bi dabenin, ya asten diriniñ ostikoka les, geldik egon esiñik les: "Beidxe sentidute dau".* || *Asto napparaidxe pa egun bat edo bi geldirik egon eskerun, ba pasetan, naiku arin pasetan da.* || *Orduk jun da orduk etorri, da amentxe gasak geldik.*

**geldiro.** (GELDIRO) Despacio. Ik. *apurke.* || *Banoye geldiro-geldiro.* || *Geldiro-geldiro allegau giñen Durangora.* || *Geldiro-geldiro ibilli, e!* || *Lanbrotue? Euridxe eitten dabenien olanik gogor barik, geldigeldi, geldiro-geldiro jeusten danari esate dxako "Lanbru da" edo "Lanbrotzu dau".* || *Geldiro-geldiro, egales egal atara bi da iketza.*

**geldittu, gelditzen.** (GELDITU) **1.** Parar. Geratu gehiago erabiltzen da. || *Ointxe geldittu da euridxe eittie.* || *Kusunke daunin ba, ikera apur bet sartuti-edo, geldittu deidxen-edo.* || *Ur batue geldi-geldi gelditzen dan ureri esate dxako: "Ur batu ein da", seinde emen eskapau ein deu, euri saparradi einde jun ein da, korridu ein deu, baya "Ur batu ein da" ure gelditzen dan tokidxeri, ta ure jeusi, tte bertan gelditzen danari: "Ur batue einda dau".* **2.** Quedar(se). || *Kalbo geldittu da.* || *Atan geldittu gara.* || *Eitte san jan bat, akabeta sanien karabidxie, ba karabidxie errete san, da karie gelditzen da atarateko modun karabidxatik.* || *Txinxortak? Bai, brijidu, brijidu te gelditzen sirien apur bet gogortute.* **3.** Quedar, resultar. || *Geuse bat ondo gelditzen estana bada, ba noberak gure daben geuserako ba: "Esain gelditzen da". Edoser geusari, ipintten dan geusi pe, ondo espadxako jeusten, esain gelditzen da.* || *Alkar joten ipiñi ittusela pentzetot nik, da gero idxaltzau ban dana. Da ondo geldittu san.* **4.**

Deterner(se), quedar(se). || *Leku urtzu da ure gelditzen dana, leku umela beres dana.* **5.** Quedar, sobrar. || *Mutxikiñe: sagarra edo madaridxe janda, a gelditzen dan ondakiñe, a jeurtitzen dana.*

**geldiune, geldiunie.** (GELDIUNE) Parada, pausa, detención, interrupción. || *Geldiunetxu deko.*

**geldo, geldue.** (GELDO) Parado, -a, calmoso, -a, flojo, -a, sin vigor, sin energía. || *Geldue esate tze a mobidu esiñik-eta egoten danari.* || *Geldue: olan naiko geldi egoten diñak: "Geldu laku da ixen be ta ba!" esaten da.* || *"Geldu da ori!"* || *'Geldu' esan gure dei alperra.*

**geldotu.** (GELDOTU) Abobarse, alelarse. || *Geldotute dxak au be.*

**1 geraka.** (GERAKA) Inquietamente. || *Umik geldik egon esiñik dabixenin, "Geraka dabis", umiri esate dxake. Umik saltoka, txillioka-ta ibiltten diriniñ olgetan, ba geraka.* || *Gerake garbidx-ok.*

**2 geraka, gerakie.** (GERAKA) Inquieto, -a, enredoso, -a, que no para. || *E, ego adi geldi, geraki ori!* || *Geraki esate dxako geldik egoten estan umiri: "Geraki da!"* || *Geraki da geldi egon esiñe.* || *Geraki da ba, Dios, estu olan dabilena. Da kakapirridxe ernegetan dabilena. Ya bi dire orrek, bata geldi egote-stana olan, ba garakie alaku ixeten da. Kakapirridxe da estue, edosegas piketen dana.*

**Gernike.** (GERNIKA) Gernika. □ **gernikekue.** Natural de Gernika.

**gero.** (GERO) **1.** Luego. || *Gero arte!* || *Gerorako itxi.* || *Gero ta gero be beren asmotan deu.* || *Ak igon eban, baya gero bajatu esin!* || *Diferentzi itzela! Ya jentie an bertan be ya biarra gitxitute ta es ebillen jenti ondo. Len egon giñenetik gerora diferentzidxe, bueno!* **2.** Mira que, cuidado que... || *Itzela ixen dok a, itzela gero!* || *Kepa garbosalie da gero!* || *Begiskorik es ein gero!* || *Aundidxe ein dosu gero seu pe!* || *Asumela eikeran ba, ondo ein biosu, asumela erres altzetako ondo ein biosu. Da asumela, ba selan esango tzut pa?, ein por ein, "Asumela, ondo ein biosu gero!".* || *Diru apurrek asko balidxo ban gero!* || *A be txarra bada gero e! Oneri detze arrabidxue! Emengo jentiri.* || *Jentie listu be bai gero!* □ **gerokue.** Futuro. ||

*Gerokue pentzau ein bier emen!* □ **gerorutz.** Con el tiempo, más tarde. || *Gerorutz labradore parau san.*

□ **gero da -au.** Cada vez más. || *Gero da geidxau.* ||

*Gero eta altuau.* □ **geruau.** Más tarde. □ **gerotxuau.** Poco después, un poco m's tarde. || *Gerotxuau jungo gara.*

**gerra, gerrie.** (GERRA, guda) Guerra. || *Gerra aurrien.* || *Gerra denporan.* || *Gerra ostien.* || *"Etze utze, gerra utze": eser estekona edo geusa gitxi dekona-edo, olakugaittik esaten da.* || *Gerri dau.* || *Gerri geusa*

*tristi da. || Orrek esteke... Bestin txarra, beti besti txarra da besti txarra, da nundik txarto ipiñiko bestie! Da gerrie, orrek gure dabe emen beti alkarras gerri atati emen! Bai, emengo industridxe ara erun, txarto esanda, eitten dabelako. Faltzidxak eitte itues. || Gerrik iñontzako onik esteko! || Onien, onien arregleu eskero, asko be obeto urtengo leuskidxu geusi, baya dana eurentzako gure one pe! Da estai, orrek gerrik beintzet oiñ arte danentzako kalti ekarri deu. Nausidxe krisidxe! Bai. Emen gerrias dana bejaten da, dana. Dolarra bada, bera. Besti bada, bera. Gerrik esteko besterik. Gerrik esteko besterik. Gerrias estau iñontzako be oni paya!*

**gerrasale, gerrasalie.** (GERRAZALE) Belicista, guerrero, -a, inclinado a la guerra.

**gerrate, gerratie.** (GERRATE) Tiempo de guerra; guerra. || *Gerratiñ alkarras ibilli giñen. || Aintxiñeko gerratitan egon siren abaillas arridxek jeurten balientiek. || Gerrati? Bai, gerrie egon saniñ e, gerrati egon san. || Gerrati asi da.*

**gerri, gerridxe.** (GERRI) **1.** Cintura. || *Gerridxek sartadi eistek! || Baskie: barruti jasten dana. Lenguek, pentzeto nik, baskie neuk esautu dot da ibiltten dabela..., dana..., tela suridxas eitten da, da gerrirañoku ixeten da baskie. **2.** Tronco del árbol. □*

**gerri bueltie.** Medida de la cintura. || *Gerri bueltie: txikidxe, edo aundidxe. □ gerriko miñe.* Lumbago, mal de costado.

**gerriko, gerrikue.** (GERRIKO) Faja, cinturón de tela. Ik. *sintturie.* || *Gerrikuek aintxiñekuek dire, telaskuek, oiñ espatadantzardixek-eta ibiltten dabena. || Bueno, gerrikuk ibiltte sirin baya amengo barketako boto bakuk etziriñ ixeten, barketan e danak eukitte ben botoye, baya gerridxen gerrikue.*

**geu.** (GEU) Nosotros, -as, mismos, -as. □ **geu geuretara.** A nuestra manera, nosotros solos. Sin. *geure modure.* □ **geure, geurie.** **1.** Nuestro, -a. || *Txixillue etartiñ eoten dan mankala da. Txixillu be geu payo geidxau geure amuma sanak eta aitte sanak esate tzen, da guk e mankala esate tzeu, kanpoko mankala. **2.** Nuestro, -a. se puede entender nuestra casa. || *Badas geurin be mispillak, eta eurten batu be estire ein. □ geure modukue.* Tal como nosotros. || *Eiñ eitten deu berba geure moduko ganorabakukin de.**

**geun, geune.** (GEUN) **1.** Nube o catarata del ojo. || *Bai, geune-edo, begidxe txarto ikusten danién, geun-edo esaten da. "Geune deket". **2.** Tamo, pelusa; moho. || *Geune? Bai. Geune: alako eutze-edo, eutze laku. || Geune geusa sarrak eukitten deu. || Geunek kendu tzedas. || Lixune ta geune kontixu alkarren antzeku dirila pentzetot nik.**

**geur.** (GAUR) Hoy. || *Usaba geur umore onien dekegu. || Leidxe ein bi deu geur. || Ori koittaduori*

*asko jan bari dxak geur! || Aixé san, bai, astokeridxa! A egur otza! A ixen san! Geur ixen balitz, Diputasiñoi jaubetuko san. □ geur egun.* Hoy (en) día,

actualmente. || *Geur egun ori pentzecie! □ geur egunin.* Hoy (en) día, actualmente. || *A (Airoko pague) geur eguniñ ixen basan, es eben itxiko botaten. □*

**geurkoeittik.** Por hoy. || *Geurkoeittik naiku da. □ geur por geur.* Hoy por hoy. || *Geur por geur eskoyes iñora be. □ geurtik aurrera.* Desde hoy. □ **geurti bidxarrera.** De hoy a mañana. || *Geurti bidxarrera euridxe eingo deu. □ geur senba dekos? Qué día del mes es hoy? || Geur senba dekos? Sei?*

**geure, geurie.** (GEURE) Nuestro, -a, referido a nuestra casa. || *Geurin be bai, esnie franko dekeunien, baya etzerako bakarrik. || Or egongo da geurin be, bastartute lekun baten.*

**geuregandu.** (GEUREGANDU) Hacernos con, conseguir, apropiarnos de, adueñarnos.

**geurko.** (GAURKO) Actual, de hoy (en) día. □ **geurko egunien.** Hoy (en) día, actualmente. || *Geur egun ori bayo geidxau es jakittie!*

**geuse, geusie.** (GAUZA) **1.** Cosa. || *Txarto eiñeko geusie da ori. **2.** Situación, asunto. || Baretu da gausie.*

□ **estan gausie.** Cosa sin valor, labor sin provecho; despropósito. Sin. *baltza.* || *Estan gausie ba, da balidxo esteuna, balidxo esteuna, geusestana. Geusestana esaten da, da estan gausie. "Estan gausie ein dxok" da bat, da bestie, geusestana ixeti, diferente da. "Estan gausie eitten selan ibilli do pa!" esaten da, elekona bier. Orre pe ixen asko bouko. "Elekona bier" be esaten da, "Estan geusie ein dxok eta!", ein bier elekona, da olanik. || Aspixapue: olanik, estan gausi esaten dabena-edo, siñistu erain gure ixaten dabena-edo. □ geuse ixen.* Valer, ser capaz. || *Geuse estana.*

|| *Biarrerako geuse nas. || Gerrarako esta gause. || Untziñoeye: olanik e, geixorik txarto dasenari, gure jaune artzeko geuse estiriñari emote dxakena, bai, untiñoeye esate dxako. || Ludoye ixeten da gari buru baltza. Baltza erreten estan garidxek eukitte ban, gari buru baltza, da es eban balidx-ixeten, ludoye eitte dxakon, da es eban balidx-ixeten, ebaitteko etzan geusi ixeten.*

**geusestan, geusestana, geustana.** (GAUZEZTAN) Inútil. Berba hau beste hauen lotura da berez: *geuse estana* (gauza ez dena). Ik. *esetako estana, karraskillue. || Makarra olan ligorra danari, edo txikidxe danari-edo esate dxako. "Makarra da", geusestanari-edo esate dxako makarra. || "Kaskallu garbidxe!": ba esate baterako, geusestan geuseri-edo olan, "Kaskallu ixen dok ori!", seinde presona kikill antzeku orreri be igul: "Kaskalluori!". || Erdi geusestanari esate dxako prakaerrie. Gixoneskuri esate tze ori prakaerrie. ||*

Ule metxada: ba geusestana-edo, mengela. || Guk e karakolari karakola esate tzeu. Marraskillu esate tzeu e olako erdi geusestan personiri ero olan. Bai.

“Marraskillu garbidx-ok ori be!”. □ **esetako estan geusestan utze.** Inútil completo. || Esetako estan geusestan utz ori!

**gibel, gibela.** (GIBEL) **1.** Hígado. || Amaiketan gibela jate du. || Panplonan ero or dau. Gibela-ero dekola ondatute. **2.** Hígados; calma, pachorra, flema, despreocupación. || Arek deko gibela! || Orrek dekoks gibelak! **3.** Variedad de seta. || Da besti da gibela. Gibelan kolorekue. Baltzuskie, baltz-gorri. || Setoridxe urtetan dau e mayetzeti gora. Junio, julio, agostun be. Julion asko oten da. Orixe perretxiku ekartot nik. Orixe. Ori emen len... Ori tte besti be bai. Orritxie, urdiñe, gibela...

**gibelaundi, gibelaundixe.** (GIBELANDI) Pachorrudo, -a.

**gibeleko, gibekekue.** (GIBELEKO) Enfermedad del hígado. || Gibekekue geixue da. || Gibekekue? Gibela geixotute deula. Ba kargu ein bi dxakola, gibekekue dekonak. || Gibekekue dekona pe ein bi tzo kargu. Erun bi deu jatekuas... Ser esangot? Jatekuas be kargu ein bi tzo.

**gibili, gibilidxe, gibiliñe.** (GIBILI, gibeleta, begizta) **1.** Lazo que se hace con las cuerdas de los zapatos o abarcas. Gibilidxe eta morapillue ez ei dira bat. || Gibilidxe? Bai, abarkiri-edo eitte dxakona. Gibilidxe, kordel bateri eitte dxakona. **2.** Gancho que se añade al extremo de una cuerda, para que otra corra más fácilmente a través de aquél. || Da gero sokie, gibilidxe, sartze dxako..., emen sartu, da taketak lusetxueu bi deu, da antxe taketan lusien sartze dxako gibilidxe. || Gibilidxe esate dxako puntan dekon..., ser esangot neuk?, sokik dekon lasue. Gibilidxe esate gentzon. Gibilidxe, da axe esarte dxakon taketetik. || Gibilitxue ein. || Andik sarte dxako e gibilidxe, goun esartze dxako gibilidxe, gibilitxue eukitten daben kordela, da gero batu eitten da, axe jaurtzen dabe. || Kakutu dok ori, gibiliñe, sokik erun bidxok gibiliñe. Amen erun bidxok, gero pasetako. Da kakue. Batzuk kaku esate tze, da bestik gibiliñe.

**gidxau.** (GIAU, gidatu-bat.) Guiar. Ik. susendu. || Orra juteko, nai ona juteko, gidxetako lagune bi dabe.

**gidxa, gidxie.** (GIA, gida-bat.) **1.** Tallo principal de las coníferas. || Piñuk erdiko gidxie eukitten deu. || Piñuek erdidxen eukitten dabena? A, olako makillatxu lako biribiltxu bat? Bueno..., nik arerixe estaitt gidxerik esate badxako, baya ba bakitt ser eukitten daben, a biribiltxu goitti bera. **2.** Guía, permiso que expede el Ayuntamiento. || Len gidxie bier ixate san, oin be biar ixaten da batzutan, esate baterako, seoser permixu eskatzeko, edo ayuntamenture jun, de eskatu biar ixate san-edo, da ba antxe emote daben papela ixate san gidxie. **3.** Guía, pieza que hace tomar una determinada

dirección. || Gidxi? Orrek e diresiñoi emoten dabena. || Narrari ipintte dxakona nardeidxe san. Nardeidxe san taket aundi bet e atzin sulu einde narrari lotute, da gero gidxara olan, beste katiak alderdi bidxetara. Da nardeidxe. || Bai, gidxi da an narrien aspidxen eukitten daben gantxue. Axe da gidxie, an lotzen dana.

**gidxerra, gidxerrie.** (GIHARRA, gihar-bat.) **1.** Parte magra de la carne. || Okela gorridxeri be gidxerrie esate tzeu, da bestiri gixena. **2.** Duramen, zona central del tronco. || Bidxotza, egurren bidxotza, a da gidxerrie, a da aguantaten dabena eun urtin da berreunin be. || Pago baltzak gidxerri geidxau.

**gidxerratzu, gidxerratzue.** (GIHARRATSU, gihartsu-bat.) **1.** Carne con mucha magra. || Urdei gidxerratzue. || Txarridxe il du, da gidxerratzu urten deu. **2.** Tronco con duramen. || Baya a be gidxerratzu ixen deidxela. Paguk diferentzi eundidxe eukitte ben.

**gilbera, gilberie.** (GILBERA, kilibera) **1.** Cosquilloso-a, nervioso, -a. || Gilberi nas. || Gilberi da ori. **2.** Quisquilloso, -a, excitable. Esaterako, ukitzea gustatzen ez zaien behiei buruz esaten da. || Ori beidxe gilberie da. || Gilberie: ikutu-te eittie gustaten etxakona. **3.** Cosquilla.

**gilberatu.** (GILBERATU) Excitarse, volverse quisquilloso, -a. || Arek gero areri ikutute 'gilberatu' esate dxako.

**giltz, giltze.** (GILTZA) **1.** Llave. || Giltzas itxitte dau. || Giltzes itxi atie! **2.** Cerrojo. || Giltze edeidxosu! **3.** Sien. || Buruko giltzek. □ **giltzien.** Bajo llave. || Giltzien deketas. || Atie giltzin dau, barrun estau iñor. || Atie giltziñ itxi!

**ginbelet, ginbeleta.** (GINBALET) **1.** Barrena, instrumento de acero, de varios gruesos y tamaños, con una rosca en espiral en su punta y una manilla en el extremo opuesto; sirve para taladrar o hacer agujeros en madera. || Ginbeleta da egurreri sulue eittekue. Ginbeleta da eskus eittekue, arek aintxiñeko klasie. Oiñ arek, arreskerokuk birbikiñe esate dxako. Birbikiñe da olan ereinde eittekue. || Ginbeleta: alako egurtxu, goidxen noberak eltzeko, da trak-trak. bakotxin buelta erdi eittekue. || Ginbeleta: sulue eitteko, txikitxue, a be eskuas eitteko. Latrue aundidxaue. Da ginbeleta esku batas eitteko. Latrue esku bidxakiñ eitten da. **2.** Estúpido, -a, majadero, -a, tonto, -a; gandul, -a, holgazán, -ana. || Ginbeleta? Bai, kirtena esati les. Se kirtena ba esate dxako personiri, te ginbeleta be bai "Ori dok ginbeleta ori!". Ginbeleta, ixetes, latru da, baya estaipa segaitti esate tzen ori. Useten da ori asko.

**ginda, gindie.** (GINDA) Guinda. || Gindie edaridxe eitteko-edo ixeten da. Da ixeten da, bai, ondo eldu eskerun ba ja lei, baya apurtxut garratza ixeten dana. Da len geurin be egon sirin da oiñ estau, galdu sirin, piñuk sartu ein sittuen-da.



**giñarra, giñerre, giñerrie.** (GINARRA, txilar) Brezo. (*Erica scoparia*). || *Giñarrie esate tzau guk orreri oti moduko barik, a ligorra. Amen goidxetan egoten da asko. Beetik asten da olan, gorriskie, da gogorra. Ori ixeten da liorra, esetako estana, es jateko ganaduk, es esebes.* || *Giñerrie ixeten da ligorra, a ixeten da..., ser esangot nik?, igul jakingo su selaku dan, mendidxen asten da, da atxegi gunetan-da asko asten da, da ligor-ligorra ixaten da. Beren orridxe-ta ligorra ixeten da.* || *Giñerre landarie.* || *Len euntze pe euki gendusen, da ba euntze pe jaten dabe giñerrie.* || *Giñerrie: motetan, da mendidxen-da. Len aspiaridxe naiku ekarte gendun etzera, kodainketan einde.* || *Giñarrak dire bedarra bayo..., arek sostortzu, sostorresku ixaten da, da sera asten dabe, orritxuk urtete tze, loratxu pe xe-xetxuk urtete tze.* || *Giñerri da e..., ser esangot neuk?, olanik asten dana, geusa ligortxu ixeten da giñarrie, ligorra.*

**Gipuskua.** (GIPUZKOA) Gipuzkoa. || *Gipuskuatik etorri da.* □ **gipuskuakue.** Guipuzcoano, -a. || *A kiputze? Bai. A Gipuskuakue ixetes, ba amen egon san eskondute. Morrosko mutil bet. Kiputze, pastori sana. Berton bixi san, an Arrolan, an tontorrien, basuen, antxe bixi san.* □ **Gipusku aldie.** La parte de Gipuzkoa.

**giro, girue.** (GIRO) Temperatura, clima, sazón. Ik. *gauarue.* || *Giro ona dau ibiltteko.*

**gitarra, gittarrie.** (GITARRA) Guitarra. *Kitarrie* ere esaten da. Ematen du *gittarrie* forma berrixeagoa dela *kittarrie* baino. || *Soñu jotzailli da edoseiñ instrumentu, edosein. Nai e filarmoniki, nai mosokittarri, nai e gittarrie... Ba gitarristi orregaittik gitarra jole esate dxako. Ba onek e akordeoi tte onek joten dabenak ba... Da besti dultzeiñerue diferente da. Se emen len dultzeiñi jote ben, tanborra be bai.*

**gitxi, gitxidxe.** (GITXI, gutxi-bat.) 1. Poco. || *Buru gitxikue.* || *Gitxi gurot.* || *Gitxitxu ekarri deu.* 2. Poco, -a, escaso, -a. || *Oiñ usau be-estau eitten artzi ori-tte; len ba labrantzan askena eitte sanin, ba, olanik geuse gitxidxe daunin ba, artzaketu eitte san.* || *Ba, geusa gitxidxeri be arexe esate tzagu, "Ipintxiñi pe-etxekok", ero "Preparatiñik etxekok".* || *Sanbrotxuk arpidxen nai gorputzin. Gorputziñ urtetan dabe orrek pinportak. Da ori esate dxakon ba..., seri esangot?... Pinportak geusa gitxidxek-edo, txikidxek ixeten dire, olan sanbrotxu txikidxek.* || *Bringela be geusa gitxidxeri-edo bringela esate dxako.* || *Bueno, iños-iños Omara be bai, baya orko Omako ure ur gitxidxe Gixaburuakun aldien.* || *Esta ona ixaten, es, ona es gitxiau bes. Naparraidxe da!* □ **gitxiau edo askuau.** En mayor o menor medida. || *Ointxe be badire gitxiau edo askuau aixen putzak.* □ **gitxiegi.** Demasiado poco. Ik. *geidxegi, larregi.* □ **gitxiena.** Mínimo, lo menos. || *Usterik gitxieniñ etorri dxaku.* □ **gitxienes.** Por lo

menos, como mínimo. □ **gitxi gora-bera.** Poco más o menos. || *Bai, gitxi gora-bera aittu dot.* || *Gitxi gora bera, Elgetatik Eibarrera, estao urrun.* || *Gitxi goraberakue da ori.* □ **gitxitten.** Pocas veces. || *Ni gitxitten jun nas arantz. Gu beti ona bestera, Galarreire.* □ **gitxiau ixen.** Ser inferior, perder. Ik. *geidxau ixen.* || *Besatireka? Bai, ganaduk eitten dabe besatireka, olan e karga aundidxe dekeniñ-edo. Gitxiau danak... geidxau dana badeko busterridxen e, gitxiau danak bajatu bier ixeten deu.*

**gitxittu, gitxitzen, gitxittuten.** (GITXITU, gutxitu-bat.) Disminuir. Ik. *mermau, bajatu.* || *Murristu? Se esangot neuk? Gitxittu eitten dan geusa ba ta. Gitxittuten dan geusa bateri "Murristu ein da".* || *Diferentzi itzela! Ya jentie an bertan be ya biarra gitxittute ta es ebillen jenti ondo. Len egon giñenetik gerora diferentzidxe, bueno!*

**Gixaburua.** (GIZABURUAGA) Gizaburuaga. || *Gixaburaku da. Bai, sorrokadie len e, astuas neu be makiña bat bider jun netzen Gixaburuara, errotara.* || *Emen ba estan les errotarik, emen Gixaburuara jute giñiñ e urunetan-da.* || *Bueno, iños-iños Omara be bai, baya orko Omako ure ur gitxidxe Gixaburuakun aldien. Gixaburuatik erreka aundidxe doye, da Oixeti bera bajatzen dana dala esaten dabe Allustittik sier.*

**gixaja, gixajie.** (GIZAJA) Pobrecita, sólo se le aplica a la mujer. || *Andrie bada be ba bardin, gixajie.*

**gixajo, gixajue.** (GIZAJO) Pobrecito, sólo se le aplica al hombre. || *A gixajue estable ondo.* || *Ori gixajuori or dak.* || *Euki ban suerte txarra askenian arek. Alabi be geixotik euki ban, estakitt askanin ser ein dxakon alabiri. Beste alaba ba be bai. Da suerte txarra asko euki ban gixajuk.* || *Gixaju: koittadu danari-edo.* || *Makiña bat mutil gixajo il! Ia! Makiña bat mutil gixajo il! Eurek e nausidxek atzien, arek refujidxutan. Bonbardeo eitten be seguru! Ta bestik an trintxeratan.*

**gixaldi, gixaldidxe.** (GIZALDI) || *Oingo, aintxiñeko gixaldidxe.* || *Ser da gixaldidxe? Esate baterako, gure aitten denporie, edo aittiten denporie, edo orreri esate dxako gixaldidxe.* || *Lengo gixaldidxen.*

**gixau.** (GISAU, gisatu-bat.) Guisar. || *Okelie gixau ein bi dot.*

**gixau, gixae.** (GISAU, gisatu-bat.) Guisado. || *Faldie ixaten da egostekue-edo, gixetaku-edo, baya ostantzin tajadetako-ta estau balidxo. Ixaten da, ser esangot neuk?, xala, da jeneral faldie edo egosi eitten da saldie eitteko, edo gixaun be ipintten da.* || *Elejidxan: lelengo sera, ollo saldie. Lapiko aundi bat egote san, axe einde. Da gero ganetik e gixau, gixae. Ene! Bayera gixau bi dan moduku gero! Aintxiñeko ganadu.*

**gixeburuako, gixeburukue.** (GIZABURUAKO) Natural de Gizaburuaga.

**gixeburuar, gixeburuarra.** (GIZABURUAGAR) Natural de Gizaburuaga.

**gixen, gixena.** (GIZEN) **1.** Gordo, -a, obeso, -a, graso, -a, cebado, -a. Ik. *lodidxe, potolo*. **2.** Grosura, parte grasienta de la carne. Ik. *gidxerrie*. || *Okela gorridxeri be gidxerrie esate tzeu, da bestiri gixena*. || *Gixena? Emen geidxen koipiri esate dxako, gixena*. **3.** Albura, capa blanda, de color blanquecino, que se halla inmediatamente debajo de la corteza en los tallos leñosos o troncos de los vegetales gimnospernos y angiospermos dicotiledóneos, formada por los anillos anuales más juvenes. || *Lelengo asala, da gero gixena da gero barrun gidxerrie, iru kapa dabis*. **4.** Fresco, tierno. || *Gixena esate dxako...*, "Sein gixena dxak ori!", *a bigune, fresko-fresko daule, gauseri: "No, gixena dxak ori!"*.

**gixendu.** (GIZENDU) **1.** Cebat. **2.** Engordar(se). Ik. *lodittu, mardotu*.

**gixentzu, gixentzue.** (GIZENTSU) Seboso, -a. || *Okela gixentzue*.

**gixetz, gixetza.** (GISATS) Retama, hiniesta (*Cytisus scoparius*). || *Gixetzak basun urteten dabe. Tekak eukitte itue*. || *Da orrek ipiskidxek gixetzas eitten dire. Orri txiki-txikitxuas asten da, orritzu, orritzu, dana orridxes beterik egoten da, da ixeten da gosatzue*. || *Gardastie da seinde...*, *gixetza bakixu ser dan? Gixetza mendixen, edo olan albutan asten dana, gixetza, ta arantzarik-eta eukitten dabena, lora oritxu emoten deu berak sasoyen. Da guk len -oiñ estau ekarri be eitten-, len olan ekarte gendun, alakoxe adar batzuk ekarte gendusen, da lotu eitte gendusen, da olan etartie, edo etzaurri-edo garbitzeko ibiltte gendusen. Da arixerri gardastie esate genizon*.

**gixon, gixona.** (GIZON) **1.** Hombre, varón. || *Gixon gordiñe*. **2.** Marido, esposo. Ezkongai bada: *mutille*.

**gixondu.** (GIZONDU) Hacerse hombre.

**gixonesko, gixoneskue.** (GIZONEZKO) Varón. || *Enbra ta gixonesko*. || *Gixoneskue da nai mutille nai eskondue*. || *Bueno, gure eskatza bete bi da jentes, beste gixonesko bi datos*. || *Jugoye esate dxako gixoneskuk jasten daben kamixetiri*. || *Bueno, orrek gixoneskuk ibiltte dosuesenari geidxau esate dxake kaltzetiñek*. || *Da axe epelari esate dxakon "Axe epela dau"*. *Enbra aixie be bai, ori gixoneskuk jaki eben esaten, ja, ja, ja!* "Au enbra aixi dok!" *esate ben gixoneskuk*. || *Erdi geusestanari esate dxako prakaerrie. Gixoneskuri esate tze ori prakaerrie*. || *Erederue andrasku be ba ixie lei. Gixonesku geidxau ixeten dire erantzidxe artzen dabenak, andrasku bayo*.

**gixongei, gixongeidxe.** (GIZONGAI, senargai) Prometido, novio.

**gixonkeridxe.** (GIZONKERIA) Hombrada. || *Orrek eitten dittu gixonkeridxek*.

**gixontasun, gixontasune.** (GIZONTASUN) Hombria, humanidad. || *Gixontasune? Ba seridxu ixeti edo ba olani pa gusurrik-eta apartiñ esaten estakidxena*.

**gobernau.** (GOBERNAU, gobernau-bat.) Gobernar, cuidar, alimentar (generalmente referido a animales). || *Beidxek gobernau das*. || *Ya ondo gobernau ta larran-da badabis, da eurek gure daben moduen, ya emoten dabe esnie ondo be*. || *Naparraidxe da! Da miñiñ urtete tze olan, bona eundi batzuk urtete tze, bonak urtete tze, da arixek errementau artien, ganadu sufriduten dau, de gobernau bier ixeten dabe ba espesial*. □ *Soroari satsa edo ongaria botatzen bazaio, orduan ere erabiltzen da aditz hau*: || *Solue gobernau dau*.

**gobernu, gobernue.** (GOBERNU) **1.** Gobierno. **2.** Preparación y separación de las partes comestibles del animal. || *Txarri gobernue? Ba txarridxe il de ba txarridxen geusak eitti-edo, ipintti-edo: txarri gobernue*. || *Txarri gobernue: ixen lei txarri gobernue, ba txarridxe il, da arek geusak banatu, edo ipintten diriñien e, urdeidxen puskie, puskakin, solomue solomugas, da olan apartaten diriñien, txarridxe ilde, ba txarri gobernue. Da ixen lei txarri gobernue, txarridxeri jaten emoti, txarri kortan, emen e jateku ipintte, ta askara botatie be txarri gobernetie*. **3.** Gobierno, cuidado, alimentación (generalmente referido a animales). || *Bei gobernue? Bai, beidxek gobernau bier ixeten dire, jaten emon, aspidxe kendu, aspiarridxe bota: bei gobernue*. **4.** Gobierno, preparación. || *Labalie? Oiñ esetako bes. Len ogidxek erreteko. Ogidxek eitte gendusenin ba ogidxek... da... etziñ eitten da ogidxen gobernue, artesan e...*, *oiñ artesi be kendute deku baya artesi esate dxakon*.

**gogaikarri, gogaikaridxe.** (GOGAIKARRI) Molesto, -a, fastidioso, -a, que causa aburrimiento. || *Gogaikaridxe? Bai, a berbetan da berbetan da berbetan da gogaitu ereitte tzona*.

**gogait.** (GOGAIT) Hastío, aburrimiento. □ **gogait ein.** Aburrirse, hastiarse. || *Gogait ein deu*. || *Txo, ni gogait eitten nau emen!* || *Au gogait eitten da*. □ **gogait erein.** Cansar, hacer aburrir. || *Gogait ereiste*.

**gogaittu, gogoittu, gogoitzen.** (GOGAITU) Aburrirse. Ik. *aburridu*. || *Gogaittu ein deu*. || *Gogaittute ibilliko sara*. || *Egonak egon ein de gogaittu dot*. || *-Gogaitzen egon sara? -Ba luse eritxi tzet nik*. || *Gogoittu estosu eitten?*

**gogo, gogue.** (GOGO) **1.** Memoria. Ik. *akordue*. || *Gogun deket*. **2.** Animo, intención, voluntad, ganas. Ik. *gurie*. || *Bixitzeko gogue*. || *Gogo aundidxe*. || *Gogori parik*. || *Gogori pakue*. || *Gogo asko esteko*. || *Gogo asko dekot ikusteko*. || *Ni payo gogo geidxau espadeko!* || *Etxekot gogorik*. || *Jateko gogorik estabil*. || *Bein jun nas bakarrik, da geidxauten juteko gogu be kendu dxaten ikusi nabenin*. || *Gogo bako biarra ein deu te!* || *Bidxar Bilbora juteko gogue deket*. || *Botateko gogue*. || *Komunerako gogue*. || *Jateko gogo ona deko*. || *Badekosu jateko gogorik?* || *Gogo gitxi deko orrek*

biarrerako. || *Ixilik euen, baya arek berena goguen.* ||  
*Lenau beste gogo batera eitte sirin gausak.* □ **gogo onekue.** Bienintencionado, -a. || *Gogo oneku da ori.* □  
**gogo ones.** De buena gana. || *Gogo ones jungo nas.* □  
**gogo txarra.** Malestar, mal temple.. || *Orain mantzeliñe kasteteu, batu eitten da, untxe, ya batzeko sasoyen ixengo da. Batu eitten dire loratxuek, siketute gorde eitten dire. Da ementxe egon eingo dire eurten batunekuk tirenak. Da gogo txarra dauniñ-edo ba an ure edateu.* || *Gogo txarra deko* || *Bueno, begidxe dir-dir eitten da be bai noberak gogo txar bat tekoniñ-edo: "Begidxe dir-dir deko".* □ **gogo txarrekie.** Malintencionado, -a; de mala gana. □ **gogo txarres.** De mala gana. □ **gogorik esa.** Desgana, desidia. □ **gogues bestera.** Contra (mi, tu...) deseo. || *Gogues bestera ein dabe bestintzako.* □ **gogus kontra.** Contra la voluntad (de), sin ganas. Baita *borondatin* kontra ere. || *Nik ori gogus kontra ein dot.* □ **gogotik.** De buena gana, a gusto; mucho, abundantemente. || *Gogotik dabil biarrien.* □ **gogora etorri.** Recordar, venir a las mientes. || *Geuse bat gogora etorri dxat.* □ **gogue artu.** Tener ganas, disponerse. || *Artu dot gogue edoser eitteko.* || *Artu dot gogue biarrerako.* □ **goguk emon.** Dar la gana. || *Se ori xan bertokuk saltzegeittik ei xan, da olanik goguk emote tzeniñ astelenetan-da Gerniketiek etzera etor sirenai-tte sestillak errejistrau-te, pagau eraitte tzon.* □ **gogun artu.** Tomar en la memoria. □ **gogun euki.** Guardar en la memoria.

**gogoaldi, gogoaldixe, gogaldixe.** (GOGOALDI, gogaldi-bat.) Humor, temple, vena. || *Gogaldi txarras urten dot.* || *Gogoaldixe? Ba, gogoaldixe be geixun antzeku da, "Gogo txarra euki deu", edo "Gogoaldi oniñ on da".* || *Gogoaldi txarra dekot.*

**gogoko, gogokue.** (GOGOKO) Agradable, grato, gustoso. || *Gogoku deu.*

**gogor, gogorra.** (GOGOR) 1. Duro, -a. || *Urritxa gogortxueue da.* || *Gogorra da biarra ta ariñ esin lei ein.* || *Bier gogorra ixen da.* 2. Duramente. || *Personie gogor trata dot.* || *Ño, geur oñestue gogor dabil.* || *Aixi pe joten dxok an gogor!* || *Baya amen bestik ordun bierra gogor eitte ben, baserridxen. Ordun atxurren da bueno bierra..., beti ixerditten. Da arek buuuuu!, bueno, a trankil.* || *Lelengotako frentie amen berton Oleskon ein tzen. Olesko, Oleskoko tontortxutik tiroka ein tzen lelungotan. An be eskapau tzen. Da gero urrengue Biskargi. Sollube ta Biskargi. Or Biskargin gogor! Or bueno! Da gogor! Tiroka gogor or!* 3. Difícil de digerir. || *Gogorra dire arek. Gogorrek esan gure deu e, sera, dijestiñorako gogorra. Txarra, ba estire onak. Ure ixen bideu... Bigune ixen bideu ure,*

*bai.* 4. Profundamente. || *Lo gogor dau.* □ **gogor artu.**

Tratar con dureza. || *Maixuk gogor artze ittu.* □ **gogor ein.** Reprender con dureza. Ik. *asarre ein.* || *Gogor ein tzet.* || *Ni oin berbetan nau, de gogor eitten aste dxat: "Agirike asi dok".* || *Ontzu ondo esaten, da derrepente gogor eitten.*

**gogoratu.** (GOGORATU) Recordar || *Gogoratu nas.* || *Auxe gogoratu dxat.*

**gogortasun, gogortasune.** (GOGORTASUN) Dureza. || *Lanie moltzotute: trokuk einde eoten danin, gogortute les eoten danien ba eitten da ba olanik e, ser esangot neuk? Gogortasunek-edo, olan sati gogorra les plantetan dire sati batzuk.*

**gogortu, gogortzen.** (GOGORTU) 1. Endurecer. || *Atzo leidxas gogortute egon san kamiñue.* || *Ure be gogortu ein dxok leidxek.* || *Gogortute dxak eurre!* || *Da gero esnie eitte san..., ligerra artze banin, esnie gogortute gelditze san, gogortute edo seinde bigune eote san ondiño.* || *Txintxortak? Bai, brijidu, brijidu te gelditzen sirien apur bet gogortute, da koipie aparteta san, aparte, da arek satitxu-satitxu einde ipintte san.* 2. Restablecerse de una enfermedad. Berri-emaile baten arabera "*Asi da gogortzen*" esaten den arren, ohikoena "*Obarantz ein deu*" esatea da. || *Badoye gogortzen.* 3. Ahorrar, reservar, proveer(se). || *Ori ondo gogortute dxak diruas!* || *"Dirues gogortute dau": bai, diru asko dekona gogortute egoten da.* 4. Entumecer(se). || *'Minsortu' da ba min, minsorra, gogortu-edo, atzamarrak gogortu edo mindu eitten diriñin, minsortu.* || *Sarkotxa: gogortute... Esan gutena, trapau es. Trapau bakixu ser dan? Ba antziñ esate tze sarkotxa be. Sarkotxa, gogortute deune. An makal, bigune personi barik gogortute. "Sarkotxa-sarkotxa dxak ori!".* 5. Enfrentar(se). || *Erristan eitten badabe, gogortu eitten da bestie. Baten agirikak entzun, de besti ixilik egoten daba, ba gogortu esta eitten.'*

**gogos.** (GOGOZ) A gusto, con ganas, deseosamente. || *Gogos einde.* || *Bedarra gogos ebaten deu.* □ **-ren gogos.** De buena gana, por su voluntad. || *Beren gogos etor da.*

**gogotzu, gogotzue.** (GOGOTSU) Aplicado, -a, diligente, laborioso, -a. || *Gogotzu: gogu dekona bihar eitteko, "Bierra gogos eitten deu"-edo, "Gogotzu da", "Bedarra gogos ebaten deu".*

**goi, goidxe.** (GOI) 1. Parte superior, parte de arriba; lo alto; arriba. || *Gallurre goidxe da.* || *Ganaduk or goidxen daus, mendidxen.* || *Asi goidxen, da bera.* || *Len or goidxetan ibiltten siriñ ardidxek.* || *Untzorridxe orman gora doye.* || *Jo goidxe, ta jo beye, an dabil sosegau esiñik.* || *Amen gure kamiñu egalín badas urkidxek, jeneral, au beko trongue eukitten dabe suridxe, da goidxe ba berdi bestik les, da orritxuas.* || *Emen goidxen dau iturri bat.* || *Tximinidxe be ojalatias sarratute dekeu. Emen bistan esteko, baya ojalati deko*

goitxuen, da estau su eitteko modun be. || Arpillerie saku da, sakue, amantal..., sakusko amantal bat: arpillerie. Oiñ ibili be esta eitten ori be. Arenaduraketa eitte gendusenin len e, ba jantzi axe ta, axe amantal sakusku jantziite ibilte san arenetan, goidxek-eta arenetan diriñin-de. Oiñ es goirik eta es berik. || Ekarrixu goittik! || Intxorra, segidu aurrera ta kamiñun goitti dau. Da beste ba tau a bayo arintxuau, kamiñun betik, A Sabalintxorta, Sabalintxaurreta. || Lurre bera etorten da, da goidxe utzik. Da betik ara gora erun ostabe. Jesus! Len orretan eitte gendun! Bueno! 2. Cielo. Ik. edoidxe, serue. || Goidxe lañotzu dau. || Goidxe tapaute dau. || Goidxe soittu da. || Ori jeneral e euri lanbru eitten dabeniñ, a euri se-setxu jeusten danién, orduntxe oten da goidxe soittute. 4. Cabeza, sentido común. || Estabil ondo goittik. Ik. kamarie. 3. Techo. || Beste batzutan goidxe pasetan deu eskobias. || Goidxe pinttau bi da. □ **goi lañue**. Niebla alta. || Goi lañuk tapaute dxak, geur etxok argittu eingo, euskidxek etxok urtengo. || Goi lañu dau. □ **goikus bera**. Al revés. □ **goitti bera**. 1. De arriba abajo. || Ointxe datos goitti bera mendiarrak! || Ori dau amendik Ikustatik berantz doin pista bat, olan goitti bera, txabola bat dau an. || Ondaroko kobik deko entradie olanik goitti bera, da gero dau leun. || Goitti bera dau. || Goitti bera erres ekarten dabe, tiretute etorten da. || Desmonta itzela dxak emen! Emen, emen esi lei jun be ein goitti bera. 2. Intensamente (referido a las precipitaciones). || Eurtie? Eurre plasta-plasta goitti bera eur eitten dabeniñ eurti axe da, da kanpu surittu. □ **goitti berakue**. Cuesta abajo. || Ba bidetik e olan esin lei ein, basun ixen biko deu, da bera be leuniñ es, espabese goitti beraku daun lekun. □ **goidxe jo**. Exceder(se), rebasar. || Goidxe jo: ba prexidxun saldute, ta pasaute: "Ori goidxe jota dau!" || Goittik jota dau, goittik jota! □ **goidxe jo ta beye jo**. Sin poder sosegarse. || Asarratute dabixenin bakik eiñ esiñik goidxe jo ta beye jo ibilten dire. □ **goidxe soittu**. Formar(se) nubarrones en el cielo. || Lañue batzutan eoten da soittute goidxen. Beres e, se esangot neuk?, "Goidxe soittu da", oten da tapaute goidxe seras, lañuas. || Ori jeneral e euri lanbru eitten dabeniñ, a euri se-setxu jeusten danién, orduntxe oten da goidxe soittute. □ **goittik jota**. Echando por lo alto, como máximo. || Goittik jota onenbeste balidxo deu. || Goittik jota dau, goittik jota!

**goibel, goibela**. (GOIBEL) Sombrio, triste. || Denpora goibela.

**goibera, goiberie**. (GOIBEHERA) Cuesta hacia abajo, depresión del terreno. || Goiberan dxabik. || Goiberak dekosak asko. || 'Goiberan' esaten da, 'erripan' geidxau esaten da 'goiberan' bayo. || Orrek soñu joillak-eta bai. Orrek e ganera pagau ein biste

ben plasie. Bueltie, artu terrenue eurentzako, se an seusen iru lau leku on-onak, da bestie lekuk igul goi bera-ta dana

**goiburu, goiburue, goigurue**. (GOIBURU) Desván, camarote. Ik. kamarie, ganbarie. Nabarnizen lehengo izen zahartzat goigurue dute, nahiz eta azken aldi honetan kamarie sano zabaldu den. Gaurko gazte askok ez dute hitz honen berririk. Bi egonez gero, goiko goiburue eta beko goiburue esaten da. || Len esate dxakon kamarie barik, emen jeneralien goiguru. Oin goigururik emen iñok estau aittetu eitten. Lengo sarrak goiguru. Goiguru, ba, altu daun les. || Sabaidxe dau an, da eurretik kamarie esate tze, guk goiguru esate geuntzon len, oin kamarie esate tzeu jeneralien geidxenak baya ostantzien goiguruk dire orrek. Oin goigururik iñok estau esaten. || Amen esaten da..., amen, lengo berbie, ta oingo umiek axe be estakidxe, emen kamariri esate dxako, beti esan dxako goigurue. Da oin ba kamarie esaten dabe. || Da bestiek, etze bi-edo batu alkarregas da bestik gari eruten solotik goiburue, kamarara eruten. Asaue eruten, garaune kentzeko. || Guk estau usetan kamararik, goigurue. || Goiburun gordete san artue, da gordete san, serak, patatie, da olako dana gordete san.

**goiburukada, goiburukadie, goigurukadie**. (GOIBURUKADA) Desván lleno. Ik. ganbarakadie. Uzta ugari batzen denean esaten da. || Goigurukadie? Bai, goigurue kamarie esate dxakona. Goigurukadi esan gure deu betekadi dekola.

**goidxaga, goidxagie**. (GOI-HAGA) Viga que, entre la cumbrera y las zapatas, va paralela a la cumbrera. Ik. gallurreko agie, kaperidxue. || Kaperidxue onan doye, da au bestie, gaillurren klasera doyena, goidxagie. || Atx tantaidxek, orrek dire goidxagi ta eitteko ta onak.

**goidxalde, goidxaldie**. (GOIALDE) Parte de arriba. || Betegarridxe goidxaldiñ emote dxakon.

**goidxargi, goidxargidxe**. (GOIARGI) Luz del cielo. || Goidxargidxe dau. || Goidxe argi oten danién, arixeri: goidxargidxe.

**goikalde, goikaldie**. (GOIKO ALDE) Parte de arriba.

**gois, goixe**. (GOIZ) 1. (La) mañana. || Goixetik gabera. || Goixiñ asitte gaberañño. || Bidxer goixien. || Sarrasoidxe dau itzela goixion. || Gois gorridxek dausenien, illuntzerako itturridxek (euridxek). Da illuntzien dausenien, edo gabin dausenien orrek laiñu gorridxek, bidxamunerako aixiek. || Gois gorri, gaberako itturri. 2. Temprano, tempranamente. || San jun lorak e ipiñi eitte ittue ortutan-da be. Arek goisti etorten dire ba, san junetan lorak ipintteko. □ **goixin goixetik**. Por la mañana temprano. || Albakue kanpairi esate dxako, anjelus, goixin goixitik jote ittun kanpairi. || Kañie da oingo koñaka les, garratza ixete san. Ori goixin goixetik jagitte siriñak-eta edate ben, atan be

*gixoneskuek.* □ **goix aparidxe.** Cena que se toma antes de la hora usual. || *Goix aparidxe ariñau jaten dan aparidxe da.* □ **gois berandue.** Ultima parte de la mañana, hacia el mediodía. Sin. *eberdi aurretik.* □ **gois babie.** Haba tempranera. Ik. *belu babie.* □ **goix erdidxe.** Media mañana. || *Ba edoseiñ ordu ixaten da goix erdidxe. Ixen lei amarretan, da ixen lei bederatzidxetan, da ixen lei amaiketean be.* □ **gois frutie.** Fruta tempranera. || *Garagarrillin frutie eltzen da, gois frutak eltzen dire, a madari txikixuk-edo, olako fruta batzuk.* □ **goistxuau-berandutxuau.** Más tarde o más temprano. || *Goistxuau-berandutxuau eiñ ein bi da ori.*

**goistar, goistarra.** (GOIZTAR, goiztiar-bat.) Madrugador, -a. || *Goixetik akordau da au, goistarra da.*

**goittar, goittarra.** (GOITAR) Habitantes de las zonas altas. Ik. *betarrak.* || *Goittarrak esaten san mendidxen bixi sinak, da gero gu emen bixi giñiñak betarrak.*

**goitibera, goitiberie.** (GOITIBEHERA) **1.** Patin. || *Goitiberie? Oin be ibiltten dabe goitiberie.* **2.** Cuesta hacia abajo. || *Bai, surak. Tronguri sure esate dxakon. Suretan ibiltte san. Basotik atarate san arran, piesa, surek arran atara, esta? Goitibera alderdidxen arran ekarte san, da gero an suretakue da a. Gero erute besan gero serrara.*

**goixalde, goixaldie, goxaldie.** (GOIZALDE) Madrugada. || *Goixaldien etor da. || Goixaldien jun bi dot. || Da bat egon san goixaldien Lekeittora juteko. Bat oiñes, da urte tzo katuk. “Katu, aldeixu ortik!” esan tzo, da jau!, makillias emon tzo saplasue, ta alborau. || “Orduk emon artin”: gabak e, kontuk esaten denpori pasetan bada, ba orduk emon artin. Goixaldera arte be igul. || Iños entzu ot, geixu etziñ ama, da ure eskatu, ta goxaldien urten, etzien, artu ontzidxe da araxe iturrirre, uretan. Amari eruten. Antxe dago iturririk onena, urik onena Nabarriskue.*

**goixengo, goixengue.** (GOIZENGO) El más tempranero, -a, lo que más temprano. || *San Pedro makatza? Goixengo eltzen dana.*

**goixetiko, goixetikue.** (GOIZETIKO) Tempranero, -a. || *Goixetikuk ya beiñ agusture eskeruen eoten dire jateko moduen, agustu, ireille, urridxen, ya semendixen, ba semendixen be batzuk eukiko itue, baya kanak berandukuk dire. || Bost kantoi be goixetiku da. Limo sagarra naidu goixetiku da. || Aleman sagarra? Sagarra ba ederra ixeten da, bestin modukue, da jateko esta txarra ixeten. Bai, apur bet beranduku da, bai, esta goixetiku-edo.*

**golda, goldie.** (GOLDA, golde-bat.) Arado. Ik. *arie.* || *Aintxiñe laidxie sartu te buelta emote san. Ordun goldarik egon bes, gero! || Goldie goldaketetakuri esate dxako; tresna bat ixeten da goldatzekue, ak*

*doblau eitten deu. Ta bestie ixeten da apurtzekue, da a da arie. || Goldie pasetan da soidxek atarateko. ||*

*Ganaduk goldan daus.* □ **golda markie.** Surco que deja el arado. □ **golda soidxe.** Tepe de arado. Ik. *laidxe soidxe. || Da goldi pe, goldatzen danin, ba goldi pe soidxe, buelta eitten dau goldik lurre, da golda soidxe.* □ **golda txikidxe.** Arado menor. || *Orrek dire aintxiñako goldak, golda txikidxek.* □ **goldiñ astie.** Esteva, pieza corva y trasera del arado, sobre la cual lleva la mano el que ara, para dirigir la reja y apretarla contra la tierra.

**goldaketa.** (GOLDAKETA) Arada, acción de arar.

□ **goldaketan.** Arando. || *Kokarra da lurrin dabillena. Goldaketan, lurra astintzen bosu, barrun urteten dabe. || Goldaketan deutze. || Goldaketan ein. || Palatu dabe ta goldaketan asiko dire.*

**goldaketu, goldakatu.** (GOLDAKATU, goldekatu-bat.) Arar. □ *Hona hemen zelan bereizten diren araketu eta goldaketu: || Ari ixeten da..., ser esangot?... ortzakin, ‘araketu’ ixeten da solue... se esangot?... apur bet e bedarrak araketu te bedarrak solteta dxakos. Gero goldaketu eskerun aspire jutén da, soidxe ataraten deu goldik ganera, da aspidxen egoten da bedarra usteltzeko.*

**goldatu, goldatzen.** (GOLDATU) Arar. || *Guk atxurkulie esate tzeu, ortz bikue. Urkulie da les, olan biribille, ortz bias. Ori be len onek soluk-eta goldatute eitte sirin, da areas pikeu eitte san. Egaliñ atxurren be aretxas. || Soiltzue? Soiltzue bai, soille daunien e, esate baterako, goldatu de sokiltzu oten da, batute, goldik sokille ataraten dau, da gero ein biar ixaten da ba sestuas-edo a sokille apurtu ein biar ixaten da, artu eraitteko-ta sokillik estau biar. || Bustiñie amen e berton geure terrenuko solun be ba barrure goldatu ero onan eiñ eskero, barrutik satarra ataraten da, bustiñi. Lur satarra dire orrek bustiñak. Gogorrak.*

**golden, goldena.** (GOLDEN) Nueva variedad de manzana. || *Golden sagarra.*

**golpe, golpie.** (KOLPE) **1.** Golpe. Ik. *deuntadie. || Buruko golpie artu deu. || Orrek artu deu golpie tripan. || Golpe galantak emote ittu aixik. || Beso ganien artu dxok golpie. || Sayetz asurrek apurtu eskerun, ordun be medikuanera erun bi ixate san, neure gixona baten mendidxen, jun de mendidxen saldidxek golpi emon da apurtu sittun-de. || Luse itxi deu golpe batas. || Kotxe batek golpi artu deu, da baldaute dau. **2.** Latido, palpitación. || *Bidxotzeko golpiek. **3.** Trabajo, esfuerzo. || Da ak e biarrrik e es eban berak eitten, golperi pe. Arexek ardidxek saindu te... Alper itzela san, bueno! Pastoriek jeneralin dire alperrak, golperi pes.* □ **golpera.** De repente. □ **golpin.** De repente. || *Apendisitis da este sobrie, ebei**

tte kendu eitten dabe. Ointxe ein tze orreri, suiñeri, ointxe pasa dan astin. Golpiñ etorten da tripalakin-de, au apendisitis.

**golpeka.** (KOLPEKA) 1. A golpes, dando golpes, golpeando. Ik. *deuntadaka*. 2. Latiendo. || *Bidxotza golpeka dabil*.

**Gomis.** Caserio de Gizaburuaga. || *Gixabura partera*. Bai, baya beste alderdire be bai. *Gomis Bekue esate tze an etze bi*. *An be-be-beyen*.

**gomitueu.** (GOMITAU, gomitatu-bat.) Vomitar. Ik. *bota, errebesau*. || *Gomitueu ein deu*. || *Txakurrek jaten dabe bedar klase bat, ni enas kargutu sekule be selaku jaten daben, da gero gomitueu eitten dabe*.

**gomittu, gomittue.** (GOMITU) Vómito. || *Gomittu bota deu*. || *Gomittu dau or*. || *Txakurre pe siri bedarra jaten deu, gero gomittu botateko*.

**gomittularri, gomittularridxe.** (GOMITULARRI) Náusea, arcada. || *Gomittu larridxe deko, larri dau*.

**gomutau, gomutetan.** (GOMUTAU, gomutatu-bat.) Acordarse. || *Geuse bat estaniñ akordetan, edo akordetan danin, "Bai, gomutetan dxat"*. || *Menta bedarra? Bai, entzu ot, entzu ot eta enas gomutetan selaku dan be*.

**gomute, gomutie.** (GOMUTA) 1. Memoria, pensamiento. Sin. *pentzamentue*. || *Etxekat olako gomuteri pa!* || *Gomuteri etxekatek*. 2. Memoria, recuerdo. || *Neure gomutan daus*. || *-Gomutie dxekaten oin*. *-Bai, neu pe badxekaten gomutie*. || *Gomutie badxekat pai!* || *Aren gomutie etorri dxat*.

**1 gona, gonie.** (GONA) Falda. || *Gona barrena*. || *Aspiko gonie*. || *Barruko gonie*. || *Gonie jantzitze*. || *Gonie illune da*. || *Magala esate dxako emen... Oiñ esta ibiltten, andrak e gonari pe estabe ibiltten, ganeko gonari pe*. *Da len esate dxakon magala arixerri ganeren erun bi xen goniri*.

**2 gona, gonie.** (GONA, bona-Muj.) Grano de la piel. Gaur egun *granue* erabiltzen da gehien. Hitz hau lehen erabiltzen zen. Gaur egun oso gutxi. Ik. *bonie*. || *Gonak urten tzue*. || *Sanbrue esate tzeu..., nik alan esate tzet beinpein, de emen alan esaten da, sanbrue esate baterako, asto naparredxek urtete dabeniñ olako gonatxu batzuk urteten dabe, da ba arixerri be esate dxako, "Dana sanbros beterik dau"*. || *Gona gorri batzuk urteten dabe*. || *Garatxie: olan urteten dabena, olan e ba gonatxu laku, gogor-gogorra: garatxie*.

**3 gon, gona, guna, gurena.** (GUREN) Parte superior. Ant. *barrena*. || *Solo gona*. || *Baso guna*. || *Da barrenetik gonera lurre altzate san burdidxen*. || *Etze gonera doye bedarretan*. || *Solo garbitta gendunin, len barrenetik, garidxe edo, artu-edo, nabu-edo erain bi xanien, barrenetik ganadu bustertu, te burdidxas lurre altzeta san gonera*. *Sera, barrenera eskapeta ben lurrek gonera altzeta sirin*.

**gonadun, gonadune.** (GONADUN) 1. Que viste faldas. 2. Mujer. Ik. *prakadune*.

**gor, gorra.** (GOR) Sordo. || *Ori gorra dok*. || *"Entzun da gor, da ikusi tte itzu": ba batek gure estaben berbie esaten dabeniñ*.

**gora.** (GORA) 1. Arriba, hacia arriba. || *Au eruixu gora!* || *Jeneral keirik baserriaxen esta sabaltzen, denporali-edo egon esik, tximinidxen gora juten da ta*. || *Orrek allurbiok gorau asten dire*. || *Bigura pe arbolan gora igoten dabe*. || *Ango bidetik gora jun nas seoser ikusten*. || *Sorgiñen kontu pa, plantxiñ aspidxen eukitte bela unturatxue gordeta ta axe eskutan eitte bela plantxias, da gero tximinidxen gora igote bela sorgiñek-eta, bai esate ben*. || *Puntis gora dxabik*. || *Nok esango ban e beidxek eskillatan gora? Ba ati sabalik, da arek useiñe artuko ban*. *Da eskillatan gora beidxek, da ilde topau ben*. 2. Más de, a partir de. || *Berrogetamar urteti gora*. || *Setoridxek urteten dau e mayetzeti gora*.

*Junio, julio, agostun be*. *Julion asko oten da*. □ Por encima de cierta cantidad. || *Orti gora*. □ **gora ein**. Levantar(se), elevar(se). || *Altzagarridxe gora eitteku da*.

**gorabera, goraberie.** (GORABEHERA) 1. Alteraciones, altibajos. || *Gorabera asko deko terrenuek*. || *Denporik goraberak dekos*. || *Leue? Ba au eskatza be leu da, Esteko goraberarik eta*. 2. Peripecias, aventuras, adversidades, trastornos.. || *Erriko goraberak*. || *Arraiñen goraberak ikisten*. || *Gorabera aundixek eukitte ittu orrek*. || *Orixe, neuk fabriketako gorabera asko estakit nik eta, estaipa*. || *Etzeko gorabera danak dakixenari etzeko sague esate dxako*. 3. Cierta variedad de manzana. || *Jeneral da, goraberie, goixetiko sagarra, da jeneral da naidu gorridxe, da goraberie esate dxako*. *Esta gasi be, a garratza be-esta, baya apurtxu bixitxu da bai*. || *Goraberi be goixetiku da*. 4. Asunto, tema. || *Aserau da aseruas einde dauna*. *Tenpliñ e goraberak di orrek*.

**goraka.** (GORAKA) Empujando hacia arriba. || *Sator sulu bai, bakit ser dan! Bai, kalte eitten deu, se asko egon es arren, ba ataraten daben lurre... moltzuek, emen pillo bat, an pillo bat or pillo bat eta arek e kalte eitten deu, arek e bedarra ixeteko, nai edosetan eitten deu kalte*. *Segaittik? Ba lurrek atarate ittulako goragoraka eta bertan on dan geusiri estetzolako isten asten*.

**gorakada, gorakadie.** (GORAKADA) Subida, ascenso, crecimiento. || *Gorakadie ein deu presidxuek*.

**gorako, gorakue.** (GORAKO) 1. Lo que sobresale por arriba. Ik. *ganerakue, kapelerie*. || *Kapeleri da, esate baterako, otzarak*. *Otzari bakixu ser dan*. *Otzari bete arte, otzarakadi da, ta besti gero andik gora... baitte burdidxe, nai beste geusa bat gora eitten badxok, "Joder, kapelerias ipin dxok!"*. *Gorakue, a sobrie*. *Kapeleri esate dxako areri*. 2. Para arriba, para el cielo (para morirse). Hiltzeko gutxi falta zaionari buruz honela esaten da. || *Ya gorako prest dxak ori*. || *A be*

gorako laster dok. || Gorako ya listu dxak. ☐ **gorako baiñak**. Vainas que trepan sobre un palo colocado con ese fin. || *Gorako baiñak palu bi dabe.* ☐ **gorako indarrak**. Alubias que trepan sobre un palo colocado con ese fin.

**gorantz**. (GORANTZ) Hacia arriba. || *Saldi karru pe espata lusie gorantz eukitte ben.*

**gorantz, gorantza**. (GORANTZ, gorontz-bat., gerruntze) Corpiño, corsé, justillo para sostener el pecho. || *Andraskuk ibiltte ben gorantza, len, neu pe ibiltte naben-da. Oiñ estaitt iñok ibili be eitten ba..., akaso andra sasukun batek akaso ibili ingo deu. Te arixen sinttiri esaten dxakon aidxubetie. Sintta, ba ixaten da kordela laku barik, biribil-biribile.*

**gorantzi, gorantzidxe**. (GORANTZI, ikusmuin) Recuerdo, saludo, encomienda. || *Gorantzidzak!*

**gorbata, gorbati, gorbati**. (GORBATA, ttattar) Corbata. *Korbati* ere entzun dut inoiz.

**gorbatadun, gorbatiadune**. (GORBATADUN) *Korbatiadune* ere entzun dut inoiz. ☐ **gorbatadun subie**. Serpiente cuya piel parece que tiene una corbata. || *Amen saman eukitten dabe alan sosertxu, da gorbatiadun subie esate dxako.* || *Korbatiadun subie mendidxen ikusitte nau, korbatiadun.* || *Bai, oten dire gorbatiadun subie-eta. Nik estakitt e benenosu badire espadire.* || *Korbatiadunek benenodunek dire. Bastante asidxe.* || *Bai, subie gorbati eukitte dabela, subie batzuk, baya neuk esi ñei esan gorbatiadun subie ikusi doteni pe.*

**gorde, gordeten**. (GORDE) **1.** Guardar. || *Dirutxue gorde.* || *Egurre gorde.* || *Aparte gorde.* || *Gordeti da beren lekure erutie.* || *Au gorde ik!* || *Amen gorde biotas neure jugetiek.* || *Gasonesketan okela fresku gordete san gata emonda. Gata emon, da gasoneskan gorde.* **2.** Respetar, cumplir, observar. || *Len elixik emote ban buldie. Paper batzuk emote sittusen, Aitte Santuk emonikuk, edo nik estaitt selan ixete sirin, barauie gordetekuk-edo, karidade eittekuk-edo.* **3.** Guardar (un secreto, una confidencia) || *Entzuli?* *Entzuten dabena, badaki gordeten-edo, bestiri esaten-edo.*

**gordin, gordiñe**. (GORDIN) **1.** Crudo, -a. || *Okela gordiñe jan deu.* **2.** Robusto, -a, lozano, -a, vigoroso, -a, fuerte (generalmente referido a personas). Horren kontrakoa urbille da. Ik. *sendue*. || *Gixon gordiñe da fuertie, sanue.* || *Ori gixona gordin dxak oindiño.* || *An kantzaute-ta deuna barik, fuerte deuna: "Dios, gixona gordiñe!" ero.* || *Enbra gordiñe dxak ori.* || *Ume sendu daunari, "Ume gordiñe dau", edo "Gixon gordiñe dau", edo "Andra gordiñe dau".* ☐ Ume potolotxoari honela esaten zaio: || *Guri-guritxu dau.* ☐ **arpei gordiñe**. Rostro saludable. || *Arpei gordiñe deko:*

*arpei ona eukittie, osasuntzue.* ☐ **denpora gordiñe**. Tiempo desapacible, malo. || *Denpora gordiñe: esate baterako, txarra-edo, ba euridxe eitten dabena edo otz aundidxe eitten dabena.*

**gordindu**. (GORDINDU) Empeorar (el tiempo). Ik. *berdatu, txartu.* || *Denpori gordinduti da esate baterako, igul denpora ona dau da ensegidako baten mudau deu denporie, da otzittu ein deu, da orixe da denporie gordindutie.* || *Denpori gordindu? Bueno, denpori txarrera juten danien e, gogortzen danien, denporie... se esangot neuk?, gogortu eitten da, denporie gogortu eitten da, ta gordindu, denpora gordiñin, gogortu eitten da.*

**gordiñik**. (GORDINIK) En estado crudo, sin cocinar. || *Esate baterako, erromolaxie be emote dxako txarrixeri, egositte be bai, gordiñi pe bai.* || *Niri gustate dxaten (masandei sagarra) konpota eitteko, gordiñik jateko es.* || *Geuk estou eraitten, baya ba txakur asi da asa aundidxa asten dana, ta ainbeste orri eukitten dabena, da bururik asten estabena, da orridxe e ba gordiñik jateko txarrixeri emote dxakos.* || *(Aleman sagarrak) diren naiku..., ba ser esangot neuk?, es gorridxe eta e..., naiku suridxe dire alemanak. Gustue..., bueno, esteke garratza be, da se esangot neuk? Gordiñik jateko moduku dire.*

**gorengo, gorengue**. (GORENGO) El más alto, supremo, -a. || *Kamarie gorengo plantie da.* || *Erdi-erdiku da printzipala, goidxen, gorengo eukitten dabena, tellatun aspidxen.*

**gorgoil, gorgoille**. (GORGOIL) Nuez (de la garganta). || *Pataridxe danak estabe jaten igul. Es. Onek aseridxe odola txupeten deu emenditxik. Da ementxe agin suluk eitte ittu. Emen, gorgoille edo albotik. Ordun bakixu aseridxe ixen dana.*

**gori, goridxe**. (GORI) Ardiente, hirviente, incandescente. || *Euski gori-goridxe.* || *Burdiñiri, atan be, "Gori-gori dau" (esate dxako), gorritute badau.*

**gorittu**. (GORITU) Calentar al rojo. || *Ori gorittute dak.* || *Gorittu ein da.* || *Ortzak errementaridxe ipintte tzos. Jo, gorittu lelengo, jo, da bera meyek, metu-metu eitte ittus, da me-me eitten dire puntak.* || *Labiñ egurre ibiltte san meye, da gero lodidxaue e errete dxakos labako sue eitteko, se labik e gorittu ein biar exete ban da. Da lelengo meye, su einde, da gero ba egur lodidxe errete sittunin da labi be ba gorittute gelditzen da, ta ba gero artu sartzeko, nai ba ogidxe sartzeko, nai ba... labi prest oten da egurrek errete.*

**gormutu, gormutue**. (GORMUTU) Sordomudo, -a. || *Gormutuk es entzun da es barbarik estau eitten.*

**gorosti, gorostidxe**. (GOROSTI) Acebo (*Ilex aquifolium*). || *Gorostidxe? Ba artiñ antzeko orridxe eukitten deu da arantzaxu batzu pe bittartiñ eukitte ittu gorostidxe.*

**gorpu, gorpue**. (GORPU) Cadáver, cuerpo del difunto. || *Gaubelan esaten da emen. Otx sanin, beres*

iltte sanen gorpue, a iltte sanin, orduntxe gabiñ eitte dxaken gaubelie. Baya gorpue jentin bistan e san egoten. Gorpue egote san beren kuartuen. ☐ **gorpue altzau.** Llevar el cadáver al entierro. || *Gorpu altzau: iltten danin personie, ba kanpasantun sartu, de kanpasanture eruten dabe. Emen lelen go elixara eruten da, elixaku eitte dxako, da gero kanpasanture erun, da gero sulun sartzen da.* || *Gorpue altzau: iltten danin, ba ya gorpu geldittute dau. Da ba olan enterru-edo danin, elixakue-edo, ille altzau, ille altzatie edo enterru dau, ille altzaten da.* || *Gorpu ille altzatie, ba ille altzau. Esan gutena, esate baterako, enterru daunien, ba gorpu eruten da ba, da gorpu altzatie esate tze askok.* || *Gorpu altzatan dois.*

**gorpusti, gorpustidxe.** (GORPUZTI) Corpus Christi.

|| *Gorpustidxe len jai aundidxe ixate san.* ☐ **gorpusti egune.** Día del Corpus Christi. || *Gorpusti egune: jaidxegune eitten da, eitten da..., ser esangot neuk?, oiñ estakitt eingo bada, se oiñ abade eskasa-ta daue les olanik e... Len jaste sirien altara bat edo bi or-emenka ta eitte sirien e..., jente, ba jenti jute san domeketan lantxik elixara, da jute sirien ba altarak jantzitte dasen lekure, baya oiñ aspaldidxon be-esta jasten altararik.*

**gorputz, gorputze.** (GORPUTZ) 1. Cuerpo. || *Elgorridxe euki dot iños. Txikitten euki naben nik. Dana egoten da pikeute-pikeute gorputz gustidxen.* || *Gorputz ederreko beidxe.* || *Gorputz ederreku dok.* || *Gorputzeko kantakixune.* || *Sanbrotxuk arpidxen nai gorputzin.* || *Gorputziñ urteten dabe orrek pinportak.* || *Lurriñ oten dire, danak e... ser esangot neuk?, dekesenak euren e..., pintxotxuk-pintxotxuk lepun de gorputz gustidxen dekesenak.* || *Kuadrue? Gorputz edarrari, lepo edarrari, atze edarrari.* || *Gorputzerako txarrena, debildu eitten deu orrek puñetik.* 2. Espesor, densidad. || *Meyeidxe dau, esteko gorputzik.*

☐ **gorputze ein.** Desarrollarse, crecer. || *Mutillek gorputze ein deu.*

**gorputzaldi, gorputzaldidxe.** (GORPUTZALDI) Estado del cuerpo. || *Gorputzaldi motela.* || *Gorputzaldi txarra deuket.* || *Gorputzaldidxe ona deuket.*

**gorri, gorridxe.** (GORRI) 1. Rojo. || *Gorri bixidxe.* || *Larra kabaliñak ainbeste koloretakuk egoten dire, kolore bi emote ittuna pe bai, gorridxe pe bai, da gorri illunek egoten dire, gorri argidxe pe bai, pardiñak. Ba badas kolora bat bayo geidxau.* 2. Desnudo, -a, pelado, -a. || *Narru gorridxen.* || *Kaliñ esta jenerorik artzen.* || *Kale gorridxe dau, kale gorridxe!* ☐ **gorri eundidxe.**

Cierta variedad de alubia. ☐ **gorri sagarra.** Certa variedad de manzana. || *Oin gorri sagar gitxi dau. Oiñ esta ikusi be eitten. Len bai, len, bueno, gorri sagarrak asko egon sirin.* || *Gorri sagarra da olantxik, txikixue, da gorridxe. Estire garratzak.* ☐ **gorri**

**txikidxe.** Certa variedad de alubia. ☐ **gorridxe ikusi.** Pasarlo muy mal, verse en grandes apuros o dolores físicos o morales. || *Batek obeto ixetekuen juen igul, biar bateti pestera kanbidxau, da biar txarra suertau: "-Patxik gorridxe ikusi dxosak an, biarrien."* ☐ **buru gorridxen.** Con la cabeza descubierta. || *Emen umiri-tte esate dxake, uli xi-xi-xi-tte ebeitte eukitten badabe, sorridxe dekoselako, edo seosegaittik: "Buru gorridxen itxi dabe".*

**gorrin, gorriñe.** (GORRIN, gorrina-bat.) Roya, hongo de tamaño muy pequeño, del cual se desconocen muchas especies, que vive parásitos sobre diversos vegetales, ocasionando en ellos peligrosas enfermedades; sus esporas son de color variado en las diferentes especies y forman en conjunto manchas amarillas, negras, etc, en las hojas de las plantas atacadas por el parasito. || *Denpora txarrak dausenin, gorriñe emote tzo; igertu, igul, tomatiri be botate espadeutzesu seoser, gorriñe etorte dxake. Orittu, te gero galdu.* || *Gorriñe da geixo bat, etorte dxakona. Indarrari be etorte dxako. Arturi be etorte dxako. Arturi ainbeste kalte estetze eitten. Indarrari gorriñek nauku kalte eitte tzo. Patatiri be bai.* || *Botate dxako sera, botikie, da gorriñe be kendu eitte dxako.* ☐ **gorrin denporie.** Tiempo nublado y desagradable en el que hay mayor probabilidad de aparecer la enfermedad llamada gorriñe. || *"Gorrin denporak dire onek!" esaten da olako denporak dausenin. Gorriñe, lañopi-te.* || *Ointxe be gorrin denporie!*

**gorringo, gorringue.** (GORRINGO) Yema del huevo. || *Arrautza gorringo bikue.*

**gorriska, gorriskie.** (GORRIXKA) Rojizo, -a. || *Indar nabarra da diferentie. Onek tolosanik eukitten deu pinttu-pinttu..., orrek suriunetxuk, da bestik satidxe gorriski, ta bestie suriskie: nabarra.* || *Soso baltza: beste sosun antzeku ixeten da tamañu be. Se bata da apur bet gorriskatxuaue, da besti da baltza.*

**gorriskatu.** (GORRIXKATU) Enrojecer(se), poner(se) rojizo, -a. || *Erre bedarra esate san len, ixaten san olan, lelgotan ba berdi egoten da, berdeberdi-ta, gero apurtxu te eitten da olan gorriskatu-edo, gorri illundu-edo, da arixe esate gentzon erre bedarra.* || *Su gorriskatute saus.*

**gorrittasun, gorrittasune.** (GORRITASUN) Rojez, enrojecimiento; sonrojo, rubor. || *Gorrittasune dekosu.* || *Metalak eukitten deu ba, gorrittasuntxu-edo eukitten deu, baya dobelik estau gorrittasuni pe eukitten.* || *Prantzesak burue gorri-gorridxe asten deu, da gero apurkan-aurkan a gorrittasune be asittu eitten da.* || *Bueno, orrek e personak eukitte ittuenak, ardidxe ainke eitten dabenien, olan gorrittasuntxuk urteten deu.* || *Erri ganadue? Esate baterako, geu pe erri ganadu dekus. Da ganadu gorridxe, gorri-gorridxe. Da surre eukitten deu beren gorrittasune bayo argidxau.*



**gorrittu, gorritzen.** (GORRITU) 1. Volverse rojo. Ik. erdi gorrittu. || Gorrittuta dau. || Kaixak garau arte, eldu barik badau, igul asten dire gastiek: -Ori gorrittu barik dak. || Idie beres eltzen da..., udegoniñ esango neke nik, udegonin, edo negu partera, da ba "Idal eldute das", edo "Gorrittute das", se idi gorrittu eitten da eltze danin be, da ba se esangot nik?, e, "Idi eldute dau". Baya orrek san jun idak-eta, orrek estire gorritzen udegoneko idi modun, orrek suri gelditzen dire, suri, edo berde. || Buru asten da, da gorridxe, asidxe gorritzen da, txapel gorridxe. || Bai, gorrittu eitten da, pikorra be emoten deu. 2. Calentar al rojo. || Da axe eitten da berotu, suten, berotu, de gorrittu eitten da, da aixe inkete dxake larran dabixen ganaduri, noberen ganaduek numerutatik esautzeko. 3. Dejar un lugar sin vegetación, roturar. Landetan belarra amaituta dagoenean edo goldaken egin ostean: Landie gorritute dau. || Lansar dau solue (gorrittute dauin, labraute dauin solue, esebe barik).

**gorriuna, gorriunie.** (GORRIUNE) Punto, mancha roja, roseta. || Gorriunak-eta urtete ben, da odolena esate dxakon. || Ardi ainkadi gorriunatxu txiki bat ixeten da.

**1 gorro, gorrue.** (GORRO, karkaixa) Flema, esputo. Azentua bigarren silaban du singularrean. || Gorrue bota.

**2 gorro, gorrue.** (GORRO, txano) Gorro.

**gorroto, gorrotue.** (GORROTO) Odio, aversión, aborrecimiento. || A pe gorrotu deutze. || Orrek gorroto deutze. □ **gorrotue artu.** Cobrar odio.

**gorrotogarri, gorrotogarridxe.** (GORROTAGARRI) Odioso, -a. || No, ori geusie gorrotogarridxe ixen do pa!

**gortasun, gortasune.** (GORTASUN) Sordera. || Gortasune deko apur bet.

**gortu.** (GORTU) Quedarse sordo. || Sartzara gortu ein da. || Gortute garatu san. || Gortute dau.

**goru, gorue.** (GORU) Rueca. || Góru: aridxe eitteko aintxiñe, baserrikuk aridxe eitte bena. Geurin be egon san len, baya oin nun ete da? Goru san, da emengo amumak gorutan ein, da aridxe eitte ban, a kaltzerdi-txapiñak eitteko. Baya oiñ e..., da neu pe apur bet ikesi ñeben baya. || Gorue goittik, eta gero palo bat, ainkek-eta an ipintteko. Da gero aridxe areri lotzen dxako, da gero txapeltxu sartzen dxako, goru txapela. || Amu da ipintten dana goruen, Goru ipintte san, jeneral paparriñ ipintte san, jeneral paparriñ ibiltte ben, olan paparrin, da amuri esku batas kolpe, da bestias tiretu, da bueltaka-bueltaka, ardatza bueltaka-bueltaka-bueltaka dala, aridxe itte san. || Goruen ipiñi, da lotu eitten da, da gero aridxe eitten da. □ **goru txapela.** Rocadero, cucurucho o sombrero de tela o cartón que se usaba para sujetar el copo de lino en la

rueca. || Goru txapela goittik ipiñi, da gero aridxe eitte ben.

**gorulari, gorularidxe.** (GORULARI) Hilandera.

**goruta, gorutie.** (GORUETA) Operación de hilar. || Oin gorutari pe esta eitten. □ **gorutan.** Hilando. || Gorutan dau. || Gorutan? Da nok eitten deu? Neuk ikesi ñeban, baya ikesi ei-ñeban bakarrik. □ **gorutan ein.** Hilar. || Aintxiñe gorutan eitte san. || Gorutan eitten da, da arixerri goruri esate dxako amue.

**goruzko, goruskue.** (GORUNZKO) Tramo cuesta arriba. || Berutz bajatu, te gero gorusku txarra! || Gorusku txarra da!

**gosagarri, gosagarridxe.** (GOZAGARRI) Condimento. || Bai, gosagarridxe, bai, lapikokuri botate dxakona, onurie. || Gosagarridxe? Asur bateri be bai. Asur fresko bateri be, bota asur fresko bat eta ba gosagarridxe.

**gosamen, gosamena.** (GOZAMEN) Parte correspondiente de las ganancias del caserío que se da a los hermanos que abandonan el hogar durante un cierto tiempo. || Etzie berena bada, esate baterako, ba seme bateri, edo alaba bateri emon leidxo, emon, da emon lei. Da a emen etzin bixi dana, bakarrik bera bizi dan arte egoteko. Da gero ba bestintzat ixateko. Orixo da gosamena. Baso baten gosamena be emon lei. || Da gero ba a denpori akabautakun, bera estanin bixi, arek, gosamena artu bi dabenak, agintzen batzo etze jaubiek, urten ein bi dabe etzetik. || Ori ixeten da ba ama, edo aitte-edo bixi danan arteko ixeten da gosamena. Ama, edo aitte faltate dixenin, ba ya amaitzen da gosamena. || Aittek eta amak itxiñeko gosamena. || Igul anaidxe bi daus serin, esta? Da anaidxe bata alde eitten deu te bueno: "-Ba emoistek niri gosamena onebeste urtien." Da, ba, olan arregleten sirin. || Gosamena da, esate baterako, au etzie guri aittek emouskun bakarrik bera bixi dan arte, esta? Gosamena esate dxako orrixeri, gurasuk bixi diriñ artiñ aprobetxetako. || Esate baterako, ba neu bixi nasiñ artiñ aprobetxau auxe etzie. Da axe da gosamena. || Aman gosamena. □

**gosameniñ euki.** Tener en usufruto. || "Gosamenin deko basu": osea berena estala, beste batena da, baya berak disponitako: gosamenin.

**gosaro.** (GOZARO) Deliciosamente, a gusto. || Gosaro entzun gendun kantie.

**gosatzu, gosatzue.** (GOZATSU) 1. Agradable. || Kapasa gosatzu eta bigunas beteten san koltxo asala. 2. Liso, suave. || Gosatzu ipiñi. || Da orrek ipiskidxek gixetas eitten dire. Orri txiki-txikitxuas asten da, orritzu, orritzu, dana orridxes beterik egoten da, da ixeten da goxatzue. || Bedar liorra gosatzu estanari esate dxako. || Lastrie? Bai, lastri liorra. A... seinde ori arapue esate dxako, arapu, ba antzera deuna lastrie. Lixu barik lastri. Besti lixu esate dxako, oten dana gosatzu, egur lixue. 3. Manejable, tratable. ||

*Atala da: ba, ni, esate batera, atxurras egasten nas amen, da a lurre gosatzu barik, atalak urteten dabe, olako satidxe: "Danak ataliñ urtete dxok".*

**gosau, gosatu, gosetzen.** (GOZAU, gozatu-bat.) **1.** Disfrutar, gozar. Esate baterako, inor jai batean ondo pasatzen badabil, honela esaten da: *Are pe gosau! || Arek gosau ban, bueno, senbat gosau ban! || 'Gosau' da biarrien-edo gustura sabixenien, pelotan, edo deporte klase baten gosau; gosetie da nobera gustura dauenien.* **2.** Endulzar. || *Gosau, asukerias eitten da. || Gosatu, bai, asukerias be ei li, estidaxas be bai. || Txikittute prest ipiñi, da gero urek irakitten dabeniñ ureri botate dxako, botate dxako asukeri be gosatzeko. || Sagarrak, santarrak bai batzuk, txarrak eta santarrak tiñak, baya gero are pe egoñiñ e gosatu eitten dire.* **3.** Preparar el terreno, abonarlo, hacerlo más manejable. Ik. *ondu.* || *Lurre gosatu: erabilli-tte, te igul ondute, eutz eitten da: lurre gosatu. Euridxegas be bai, batzutan esaten da ba, siku badau, "Ein deu apurtxu bet, gosatzeko beste". "Gosatzeko beste ein deu", euridxe gitxi eitten badeu. || Sestue ibiltte san lorrien, arri batzuk ipiñitte, sapaltzeko lurre, da lurre gosatzeko. || Bostortza pasaute ba bedarra soltau eraitte dxako, gosatu eitten da solue. || Sestu ibiltten da sokillek apurtzeko edo gosatzeko. || Sokiltzie: soluen sokil asko egotie, solue gosatu barik eotie, alperras, arri alperras. || Bueno, baso lurre basun oten da, mendidxen be bai. Ibili bako lurre, gosatu bakue. Ba esate baterako, mendiko bedarra emoten dabena, ba esate dxako baso lurre.* **4.** Alisar, suavizar. Ik. *labandu.* || *Ligorra dauna gosatu bi da. || Makiñie ligorra badau, koipik gosatu eitten deu, bigundu.* **5.** Gozar el usufruto de alguna cosa. || *Gosau: noberak eukittie noberen serbidxun. || "Basue gosau" da ibilttie berak basue. || A basue neuk goseti dxuatek. Onuri botata egon dok, eta goxo egon dok.*

**gose, gosie.** (GOSE) Hambre. || *Gosie paseu. || Gose nas. || Gerra ostien, gosie egon san asko, da eskatzen etorri siren. || Badxekat gose bat! || Au dok gosie!* □

**gosetan.** Con, hambre, hambriento, -a. || *Garragarrika dabil da gosetan.* □ **goses egon.**

Sentirse con hambre. || *Ño, nik paseu nidxuen lengo egune goses! || Tripe ikola deko, au goses dau! || Arku sulu da asko jan barik daun ganadue, goses daun ganadue, "Ño, orrek arku sulo eundidxe dxekosak, orrek etxok geur asko jan!".* □ **gosiek il.** Morirse de hambre. || *Gosiek ilde nak. || Ego adi ixilik, gosiek iltzen nak eta. || Gosik iltten nau.* □ **gosik ille.**

Muerto, -a, de hambre. □ **gosie sartu.** Cobrar apetito, sentir hambre. || *Ño, niri sartu dxatek gosie, au useiñe artu tenin!* □ **gosik tragau.** Morir(se) de hambre. || *Gosik tragaute etorri da. || Gosik tragetan dau.*

**goseti, gosetidxe.** (GOSETI) Hambriento, -a, comilón, -ona. || *Sarri gosetzen dana gosetidxe da.*

**gosetu, gosetzen.** (GOSETU) Cobrar apetito, sentir hambre. || *Ni gosetu nas.*

**goso, gosue.** (GOZO) **1.** Dulce (contrario a amargo o salado). || *Gosueidxe dau. || Asukerie ba franku botate tzeu ba gosu urten deidxen.* **2.** Rico, sabroso. || *Sagar gosue. || Ollogorak-eta, pospoliñek-eta goso-goso paretan dire arbidxekin. || Orduen urtete deu gosuen, askos be. || Baya jeneral txarriidxe geuse gosuaus asten da ganadu bayo. || Orrek geuse gosu bayo esteu gure ixeten, da "Miski da!", "Miskiau da!". || Onuri botata egon dok, eta goxo egon dok. || Bai, badau indurri madaridxe be. Jateko gosu da. Len geurin be egon san. Indurri gustu laku eukitten deu apurtxut, baya jateko gosu da. || Len egon san geurin be. Oiñ e deseinde dau kontixu baya. Osasun bedarra olan useintxue, olan usein gosotxu eukitten deu. || Ardau -esan tzet oneri- ardaurik onena ikessiñek, eutze sartzeko barrure. Indarra, lapikokue gosuenta ikessiñena. An, kosiñera txarrik es euen an. Jan datorrena! || Txorixo gosu di onek.* **3.** Dulce, golosina, caramelo. Askotan sikiñeridxe eta txarrikeridxe ere esaten da. || *Besperan gosue jaten bada, gabien, askanengo gosue jaten bada, bidxamonien ao santarra egoten da.*

**gosoki, gosokidxe.** (GOZOKI) Caramelo, golosina, dulce.

**gososale, gososalie.** (GOZOZALE) Goloso, -a.

**gosotasun, gosotasune.** (GOZOTASUN) Dulzura, suavidad. || *Ño, arek umiek amantzako gosotasune! || Takarra ba, takarra ba gogorra. Ta besti be satarra da ba gogorra ero gosotasunik estekona. Orre ba tie.*

**grasi, grasidxe.** (GRAZIA) Gracia, encanto, afabilidad, humor. || *Orrek umik grasidxe deko.* □ **grasi bakue.**

Soso, -a, sin gracia. || *Ori grasi bakue da.* □

**grasidxak.** Menos mal, gracias a Dios. *Eskerrak ere esaten da, baina gutxiago. || Grasidxak a etorri dxakon, ostantzin! || Grasidxak etor sarena! || Grasidxak etorri sariña!*

**granu, granue.** **1.** Grano. Ik. *garaune.* **2.** Grano, bulto de la piel. Lehengo zaharrek *gonie* esaten zuten. Hitz hori gaur egun gutxi erabiltzen da. || *Granuek urten tzue. || Granue eitten da asi, da eundidxe eitten da, bonie. Da pinportie es, pinporti da geusa txikidxe.*

**graunke.** (GRAUNKA) Onomatopeya del mordisco. || *Egosi, orridxe be jaten deu, eundidxe asten dire arek, asak, txakur asak. Da batzuk oten dire e, dasen modun e jate ittuen txarriidxe oten dire, dasen modun e asa orridxe jaten dabena graunke-graunke-ta.*

**grijue.** Grijo, guijarra. Ik. *arri kiskorra. || Arri koskorra esate dxako arri txikixuri, arri koskorra, "Dana arri koskorres beteri dau". Grijue arri*

*koskorren antzeku da. Bueno, grijue apur bet aundidxau laku ixengo da arri koskorra bayo.*

**griñe.** (GRINA) Greña. Ik. *sapala*. || *Ule griñak*. || *Olan griñakiñ ibiltten diñ umiri be bai tte.*

**gris, grixe.** (GRIS) Gris. || *Sosue da baltza. Da bidegarrue da grixe.*

**gristu.** (GRISTU) Volverse gris. || *Angis sagarra gosue da. Gero eldueras eitte san gristu.*

**grume, grumie.** Lluvia suave y constante. Sin. *lanbrue*. || *Euri grumie: euri me-meye eitten dabena, txikitxue*. || *Grumi ixeten da, da lanbrue orre ba dira txirimiri-txirimiri eitten dana.*

**gu.** (GU) Nosotros. || *Gugas*. || *Gugandik*. || *Gure aitte sana*. || *Guri sana*. □ **gu geu.** Nosotros particularmente, al menos nosotros. || *Txikuek? Dire..., saldidxetan dire eundidxe asittekuek. Da txikitxuk tiriñien gu geuk txiku esate gentzon*. || *Guk geuk orixe ba eskendun asko... Baya ori lengo sarrak ori be esan eitte ben, ba*. □ **gure, gurie.** Nuestro, se puede entender nuestra casa. || *Bueno, etorri adi gurera amarretako*. || *Gurin bai beintzat*. || *Lenguen gurera etorri suan*. □ **gurik ein.** Estar perdidos, acabarse lo nuestro. || *Gurik ein deu!*

**guante, guantie.** (GUANTE) Guante.

**guapa, guapie.** (GUAPA, goapa-bat.) Guapa. Ik. *politte*. || *Guapie plantau da*. □ **guaparik.** Guapamente, bellamente. Ik. *majarik*. || *Guaparik etor da*.

**guapo, guapue.** (GUAPO, goapo-bat.) Guapo. Ik. *majue*. || *Guapu dau*. □ **guaporik.** Guapamente, bellamente.

**guarda, guardie.** (GUARDA) Guarda. || *Basutako guardie*.

**guardapolbo, guardapolbue.** Guardapolvo, cubierta de madera en forma octogonal que encierra totalmente la piedra de moler.

**guarsol, guarsola, guardasola.** (GUARDASOL) Paraguas. Ik. *estalkidxe*. || *Len guarsolik euki bes!* || *Guardasola be estalkidxe da.*

**guleridxe.** Gulería. || *Guleridxe? Guleridxe bai, esgausie, txokolati-edo, karamelu-edo, asukarillu-edo, soser daunin, esgausie.*

**gultzurrun, gultzurrun.** (GULTZURRUN, giltzurrun-bat.) Riñón. || *Gultzurruniñ arridxe dekos.*

**gune, gunie.** (GUNE) Lugar, tramo, zona. □ **kopraxidxe gunie.** Barriada, núcleo de casas. || *Etzeartie? Ba emen etze bi das –origeitti bidxok geu tabigus-, baya etzeartie euso bateri edo kopraxidxe gune bateri edo alkarren urriñ etzi dasenari.*

**gurari, guraxidxe, gureidxe.** (GURARI) Voluntad, gana, deseo. Ik. *antojue, naidxe*.

**gure, gurie.** (GURA) Deseo, voluntad. Ik. *gogue*. || *Berba ein gurie deko*. || *Kantxau gurie dekosu?* || *Estekot iñora jun guraxik*. || *Da an basun e arbolak botaten ibil siriñak konponduko bela esa ben baya es eben aski ori konpondu guraxik*. □ **guran.** Queriendo, deseando. || *Beti burle ein guran ibiltten da*. || *Diru guran dabil*. || *–Selan saus? –Obeto guran!*

**gure ixen.** (GURA IZAN) 1. Querer. || *Gure beste*. || *Estot gure ori esan dixun*. || *Etzin geusa gustidxe gure dotas baya libreuek geidxen*. || *Gero laborie gitxi dekonari, gure ixen eskerun ba, diru pageta dxakon, a mendin truke*. || *Onek e basun piñu botaten-da ibiltte giñenien, usete gendusen sididxe. Igul, piñuek, igul piñu pe kaidi eukitten deu ba bera edo gora. Da igul e, estosu gure bera juterik. Edo alanbrie, edo kalti eingo deu te ona gurosua bota edo ara*. 2. Querer, amar. || *Asko gure tzut*. || *Berak gure eutzola esan tzonin, burle ein tzon barreska*. || *Arek andra-gixonak asko gure tzen batak bestieri*. || *Eurena ixen esagaittik, arexeri geidxau gure ixen utzen*. || *Asko gure deutzat*.

□ **gudana.** Tanto como se quiera. || *Gudana ekarri dot*. □ **gurau.** Preferir, tener preferencia por. Ik. *naidxau ixen*. || *Nik ori gurau dot*. || *Nik ori bayo mendire jun gurau dot*. || *Nik gurau dxuat ogi asala ogi mamiñe bayo*. || *Ugerra jaten egon gurau ixaten deu bier ein bayo*. □ **gure nai gures.** A la fuerza, necesariamente, sin otro remedio. Ik. *naidxau ixen*.

**guren, gurena.** (GUREN) Predilecto, -a, (el...) más querido. || *Ardaue ala ure, sein dosu guren?*

**gurendu.** (GURENDU) Sentir predilección por algo. Berri-emaile bati *zaletu* aditza erabiltzen zuten galdetu nion batean, Nabarnizen *zaletu* barik *gurendu* erabiltzen zela erantzun zidan. || *“Gurendu da orregas?” Ba berak ikusten daben geusa bat-edo, esate baterako, sagar bat-edo, da ba “Gurendu da orregas”*.

**guresda.** (GURA-EZTA) Sin ganas, desganado, -a. || *Jan guresda nau*. || *Itxittasune da nagi egotie. Nagittasune nai itxittasune ya bat dire. Nagittasune da sorra..., ba ein guresda les egotie*. || *Oiñ arpeidxe emon guresda dxak a be!* || *Miskiñe: jan guresda ta eskas gitxi jaten deunari*.

**guresik.** (GURA-EZIK) Sin ganas, desganado, -a. || *Jan guresik nau*. || *Elixera jun guresik nau*. || *Esan guresik dabil*.

**gurestun, gurestone.** Especie de corona de la otzarie que la circunda en su parte superior. || *Otzarik eukitten deu egurren bueltan gurestone*. || *Gurestone goiko bueltie da, egurre*.

**guresuek.** (GURASO) Padres. Ik. *aittamak*. || *Olantxik erakutzi esten niri gurusuek*. || *Gosamena esate dxako orrixeri, gurasuk bixi diriñ artiiñ aprobexetako*.

**gureta.** (GURATA) A propósito, intencionadamente. ||

*Gureta ein dot.* □ Hau beste modu honetara ere esaten da: || *Gure dotela ein dot.*

**gurguxa, gurguxie.** (GURGUXA, gurbitz) Madroño. (*Arbutus unedo*) || *Gurgusie basun egote san, oin gitxi ikusten da. Arbolie da ta olako gorritxuk eukitte sittun, keixin garaunek lako serak, arteidxetan.* || *Gurgusi arbolie da, garauek eukitte ittu orrek salbajien modure. Or beyen arteidxetan dau asko. Arek gero korritu eitten dire, satarrak dire arek, gurgusak.* || *Gurguxie gorri-gorridxe da, granu ixaten da, granu gorri-gorridxe. Sosuk-eta gustura jaten dabe. Neu pe batu dotas, goxu dultze-dultzi ixaten da.*

**guri, guridxe.** (GURI) Rollizo, -a, lozano, -a. Ik. *lodiuxe.* Adjetibo hau umeeekin, neska gazteekin eta abere gazteekin erabil daiteke. Helduekin *gordiñe* esaten da: *Gixon gordiñe.* || *Ume guridxe.* || *Neska gaste bat alan elegante egoten danin, ba asala argidxe ta olan-da, ederra egoten danin, bakixu, amasei urteas edo ogei urteas-edo: "-Selako neska guridxe dau!"* || *Txala guridxe dau!* □ Ume potolotxoari honela esaten

zaio: || *Guri-gurixu dau.* □ Landareei buruz ere esaten da batzuetan, *artaburu guridxe*, nahiz eta *artaburu ederra* normalago izan.

**gurin, guriñe.** (GURIN) Mantequilla, manteca. Mantequilla. Berriemaile baten arabera, lehengo zaharrek *guriñe* esaten zuten. Beste berriemaileek, ostera, ez dute *guriñe* berba ezagutzen. || *Guriñe estakipa oingo umik ser dan igerriko baleskidxue. Guriñe da..., ser esango da ba? Gatzatu esta. Mantekilli da guriñe, esiñ akordau ixeten, bai. Guriñe. Da oin ba mantekilli esate dxako, ta oin guriñik etxako esaten.* || *Emen guriñe ikesi gendun. Mantekilli eskendun esaten, esan esaten eta gure eurrekuk es eben esaten.* || *Mantekilli, bai, beti, guk olantxik ikesi du. Bai, guriñe be bai. Origeittik e mantekilli bayo guriñe euskaldumentzako erresau da.*

**gustau, gusteten, gustetan, gustaten.** (GUSTAU, *gustatu-bat.*, atsegin edo laketa izan, gogoko izan) Gustar. || *Asko gustau.* || *Orreri etxako gustetan olako geuserik.* || *Orreri be txurruplin gustaten dxako.* || *Edarialisie? Bai, edaridxe gustete dxakonari.* || *A librun askana etxaten bape gustau.* || *Gustauko litxaideke aren indarra eukittie.* || *Orreri be artzi gustete dxako.* || *Gustau ein dxat.* || *Agintzen gusteten dxako areri be.* || *Besterik estauniñ edaten da, baya neuri etxat asko gustaten.* || *Ba niri (mispillak) gustate dxates, estire enpagosuk, es santarrak, es, estire. Alan dultze-dultzi pe estire.* || *Umi sizetan ibilti gustete dxake.*

**gusti, gustidxe** (GUZTI) Todo, -a; entero, -a. □ **eta gusti.** Con ... y todo, con ... inclusive. || *Soidxe atxurras ataraten da, bedar da gustikue.* || *Da arek (ide bedarrak) eitte gendusen batu, da arek eukitte*

*dabe sustreitxue, eurek, olan ormiñ aspidxen-edo. Da sustrei tte gusti batu eitte gendusen, da egosi.* || *Tekatekak eukitte ittu aidxenin, gorau-berau, da tekak eldute dekoseniñ e, erdi eldu barik, erdi eldute daumien ba sarritten tekak batze tzeus, da aidxena itxi itteu, da gero beste ondakiñek gelditze dxakosenin ba aidxen-da gusti batzu.* □ **gustire ein.** Hacerse a todo, valer para todo. || *"Gustireku da": persona bategaittik esaten da, nai alegrie dalako, nai..., ba "Gustire eitten deu".*

**gustireko, gustirekue.** (GUZTIRAKO) Que se hace o arregla para todo. Lagunekin erabiltzen da berba hau. Ik. *danerakue.* || *"Gustirekue da" baino gehiago esaten da "Danerakue da".* || *"Ori personie gustireku da": edosetara moldetan dana.* || *"Gustireku da": persona bategaittik esaten da, nai alegrie dalako, nai..., ba "Gustire eitten deu".*

**gustis.** (GUZTIZ) **1.** Muy, del todo, enteramente. Ik. *sietz.* || *Gustis desberdin dau ori.* **2.** En total. || *Gustis onenbeste deustesu sor.* □ **gustis biarrin.** Delicado, -a, de salud, flojo, -a, regular. *Gusti biarrin* ere esaten da. || *Gustis biarrin dau.* || *Total txarto estau, baya gustis biarrin.* || *Gustis biarrin dabil.* □ **gustis biarrekue.** Delicado, -a, falto, -a de salud. *Gusti biarrekue* ere esaten da. || *"Gustis biarrin dau" esate dxako ba, esate baterako, osasun ona estekonari, edo ba alille bierrien estanari, da "Gustis biarreku da".*

**gustoko, gustokue.** (GUSTUKO) Que gusta, del gusto (de), gustoso, -a, agradable. || *Gustoko lekue.* || *Bueno, persona bateri olanik e esan bi dxakoniñ e ba asarre daniñ-edo, berba gustoku esaten estaniñ-edo ba, "Paputz alaku!" ba personiri be esate dxako, ixen es arren be ba.* || *Eskueraku bada, noberan gustoko geusie bada, eskueraku da.*

**gustora, gusture.** (GUSTURA) A gusto || *Umiek geusek apurtzen, gustora.* || *Artue, gustora jaten dabe berdetan.* || *Patxi gustora garatu dok.* || *Ondo einde daunin bierra, noberan gustora einde daunin: "Eiñen damurik estau".* || *'Adori galdu' esaten da norberan gustora geusak urteten estabenin "Adori be galdute dau".* || *Gustora estaunin-de ganaduk eitten daves eurok (kirriskadak).* || *Ori esta gusture aurkitzen.* || *Da a ota-bedarra ba asko gusturau jate dxuen a lasto santarra bayo.*

**gustu, gusto, gustue.** (GUSTU) **1.** Gusto. || *Gustu ille.* || *Agoko gusto txarra.* || *Gusto ederrekue da.* || *Erre gustue deko.* || *Da perretxikue ederra san, ederra perretxikue! Jaten be gustu onekue.* || *Gustu ederra euki deu.* || *Gusto txarra deko.* || *Gustu ona euki ban.* || *Gustu santarra itxi-ste.* || *Kalidadie galtzen dabenien, "Gustu mudaute dau" esaten da.* || *Ongo baltza gustu gitxiaukue da.* || *Menbrillue beres sagarra lakoxi da, garaunek ekarte ittu, baya esteko sagarren gustori pe, apur bet, se esangot neuk?, garraskiau, edo mingoskiau-edo ixeten da.* || *Iñurri madaridxe gosu da,*

*baya inurridxen gustue eukitten deu. || Bai, badau indurri madaridxe be. Jateko gosu da. Len geurin be egon san. Indurri gustu laku eukitten deu apurtxut, baya jateko gosu da. || Raruau da! Beren gustue inok ein be esi lei ein! 2. Gusto, maña. || Orrek dxok ori biarra eitteko gustue! || Gustuk egote sin. Batzuk labako artoko urune talu eitteko gurau ixete ben. Da beste batzuk es. Amen parajien es san labartorik eitten... Amen Nabarrixen aixartue. Ostera, or e Errigoitti aldien dana labartue, laban igerra. □*

**gustokue.** Agradable. || *Neure gustoku da. □ gustu artu.* Sacar el gusto, saber. || *Gustu artu tzet.*

**gusur, gusurre.** (GUZUR, gezur-bat.) Mentira. Ik. *parabolie. || Gusurre esan. || Gusur eundidxe. || Gusur merkie. || Gusurre da ori! || Es siñistu, es siñistu, gusurre da ta! || A se gusurre esan doan! || Orrek arnasan be gusurre esate dxok. || Gusur utzok (utze dok) ori. || Oiñ esan dosuna gusur andidxe da. || Gusurrek esaten dabil. || Gusur biribillek jaurti ittu. || Gusur eta nasti franko! || Ixurrau: batek e esaten deu gusurre da esate tzo beste bateri gusurre da geusie, da ba berena konsegidu deu gusurre esanda. Da ba bestik esaten deu: "Esan ustela gusurretara ein dau berak gure dabena. || Jente modue? Ba gusurrak esate ittunari be esate dxako, jente modue: "Egirik eleke esango!", "Gusurre bayo besterik estau esaten!", "Esebe esin leidxo siñistu be ein!". || Gixontasune? Ba seridxu ixeti edo ba olani pa gusurrik-eta apartiñ esaten estakidxena. □*

**gusur mandue.** Mentira grande. || *Ño, ak botate dxosak gusur manduek! □*

**gusur eta abarra.** Sarta de mentiras. || *Olan diskusiñorik egoten danin-edo, batak bestiri esate dxako: "Gusurre ta abarra esate dosu suk!" || Gusur eta abarra orrek esaten deu. || Iguel gusurre ta abarra ta dana esate ittu tte bai, "Jakintzu ok ori". Danak berak jakin danak. □*

**gusur utze.** Pura mentira. □

**gusurretan ibilli.** Andar mintiendo. || *Fanfarroi da dana bera afana, dana gusurretan dabillena, fanfarroye, bera aundi eitten. || Bai, gusurretan dabilleniñ esaten da jeneral ori, "A be etzeko latzak esautuko deu".*

**gusurresko, gusurreskue.** (GUZURREZKO, gezurrezko-bat.) Falso, -a, fingido, -a. || *Ori gusurreskue da.*

**gusurtau.** (GUZURTAU, gezurtatu-bat.) Desmentir. || *"Gusurtau eiñ ñau": esan leike ba, beste batek e esan lei "Ori esta ixen olanik!", eta "Gusurtau eiñ ñau".*

**gusurti, gusurtidxe.** (GUZURTI, gezurti-bat.) Mentiroso, -a. Ik. *erdikidxe, erdix erdiskue, faltzue. || Kontus ibilli, ori gusurti aundidxe da ta. || Batak eta bestiek, danak esaten dabe i gusurtidxe asela. || Egixali da, gusurtidxe esta, egidxe esaten deu. || Ori da erdis erdiskue, ori da ba erdi gusurtidxe.*

**gutar, gutarra.** (GUTAR) De los nuestros, paisano, -a, correligionario. -a. Ez da oso ezaguna. || *Gora gutarrak!*